



bat

Soziolinguistika

aldizkaria



ARNASGUNEAK
ETORKIZUNeko ERRONKAK



bat Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA



**ARNASGUNEAK.
ETORKIZUNeko ERRONKAK**



● HELBURUA

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hautzat bere jarduera esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● EDUKIA

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaion disziplinariekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren lanek hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● ARGITARATZAILEA

Aldizkaria Soziolingüistika Klusterrak argitaratzen du

● ZUZENDARIA

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

● ARGITALPEN BATZORDEA
Bartzordekideak

Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
esti.amorrortu@deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko Ikastolen Elkartea)
inmunoa@ehi.ikastola.es

Beñat Garaio
benat.garaio@gmail.com

Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
paula.kasares@unavarra.es

Eneko Gorri (Biarritzko Herriko Etxeko euskara teknikaria)
euskara@biarritz.fr

Koordinatzailea
Belen Uranga (Soziolingüistika Klusterra)
b.uranga@soziolingüistika.es

● HARPIDETZA ETA SALMENTA ARDURADUNA

Isabel Godinez
i.godinez@soziolingüistika.es
943 592 556

● ALDIZKARIAREN DISEINATZAILEA

Txema Gartzia Urbina
zabalur@gmail.com

● HARPIDETZAK

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitetz harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● WEBGUNEA

Aldizkariariaren aurreko aleak on-line dituzu www.soziolinguistika.eus/bat helbidean Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.



HARREMANETARAKO

Belen Uranga (Soziolingüistika Klusterra)
Martin Ugalde Kultur parkea
20140 ANDOAIN

b.uranga@soziolingüistika.eus
bat.aldizkaria@soziolingüistika.eus
943 592 556

ISSN 2659-5176 / ISSN-L 1130-8435
LEGE GORDAILUA: SS120/90
INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Kike Amonarriz, Xabier Bengoetxea,
Iñaki Iurrebaso, Lionel Joly eta Mikel Zalbide

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolingüistika aldizkarian argitaratzen diren artikulua bi artikulua ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolingüistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

idatzi bataldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.



Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

zientziaazoka

elhuyar da

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

MAIATZAREN

11ⁿ

larunbata

**Bilboko Plaza Barrian,
12:00etatik aurrera!**

zientzia-azoka.elhuyar.eus

2018-2019

**SARTU
ZURE
AGENDAN!**

bizi
ikerketa!

ANTOLATZAILEA

elhuyar
Zientzia

BABESLEAK

Bilbao



MINISTERIO DE CIENCIA, INNOVACION Y TURISMO

FECYT

FUNDACIÓN ESPAÑOLA PARA LA CIENCIA Y LA TECNOLOGÍA



Bizkaia
Foro aldiakoa
diplutacion foral

euskaltel &
konekia

erabi

Bizkaia
talent

KOLABORATZAILEAK



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

DigiPen
INSTITUTE OF TECHNOLOGY
BILBOE - BILBAO

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitatea

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKA
ESKOLA POLITEKNIKA SUPERIOR

ikerbasque
Basque Foundation for Science

tecnalia Inspiring Business

IK4
Research Alliance

neiker
tecnalia

FORO ALDIAKOIA
GOBIERNO VASCO

CIC **Shancure**
INICIATIVA DE INNOVACION SOCIAL

fundazio
do Juventude

MAGMA
MAGNETIC MATERIALS GROUP



tecnopole

CLUB de AMIGOS de CIENCIA
ZIENTZIAREN LAGUNEN KLUBA
www.clubamigosdelasercencia.org



TZBZ
TAZEDATZ



Casco Viejo
Zientzia Azoka

110

ARNASGUNEAK. ETORKIZUNeko ERRONKAK

- > **HITZAURRE GISA**
Belen Uranga **007**
01. Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak.
Mikel Zalbide: **011**
-
02. Arnasguneak: Zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira?
Kike Amonarriz **081**
-
03. Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronkak nagusiak.
Lionel Joly **095**
-
04. Hego Euskal Herriko Arnasguneak zenbatzen.
Arnasguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena.
Iñaki Iurrebaso **115**
-
05. "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" aurkezpenari iruzkinak.
Xabier Bengoetxea **129**
-
06. Arnasguneen hauspoa: saio-amaierako zenbait ohar.
Mikel Zalbide **149**
-

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikulu akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikuluaren hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharrak. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikuluaren bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharrak, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikuluaren amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarrizko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epeak: Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



BAT Soziolinguistika Aldizkarian, ezagutza soziolinguistikoaren zabalpenean modu sakonagoan laguntzeko asmoz, tarteka, aldizkari zientifikoek duten tradiziozko egitura albo batera uzten dugu, beste egitura batzuk baliatzeko. Horrela, hainbatetan, gai monografiko baten inguruan azterketa xeheagoa, hausnarketa pausatuagoa eta proposamen ausartagoa eskaintzeko aukera izaten dugu, horretarako egile baten lan luzeagoaren inguruan hainbat aditu elkartuz. Halako aukerak izan dira, esate baterako, Iñaki Martinez de Luna (BAT 86, 99), Xabier Erize (BAT 99) edota Mikel Zalbiderekin (BAT 79-80, 100) egin izan ditugun lanketak. Eta, hori da BAT 110. zenbaki honetan eskaintzen duguna.

Euskararen transmisio eta erabilera natural eta interbentziorik gabeko eremu geografikoetan (oinarrizko *arnasgune* kontzeptua) gertatzen denaren inguruan kezka berezia erakutsi du Mikel Zalbidetik azken urteetan. Kezka horren parte da ez ote zaien eremu horiei arreta gutxiegi jarri, pentsatuz, agian, erdaretarako aldaketa ez dela berehalakoan gertatuko, bertan euskara indartsu, osasuntsu eta sendo dagoenaren ustean. Horrela, *euskararen arnasgunea*-ren ideia, kontzeptu eta terminoaren inguruan hainbat lan zabaldu ditu dagoeneko han-hemenka.

Harrez gero, bere ekarpen horiek oso lagungarriak izan dira Udalerrri Euskaldunen Mankomuniateatearen (UEMA) eginkizunetan, eta baita Soziolinguistika Klusterraren ezagutza-esparruan ere. Hori dela eta, 2017an, bi erakundeok "Arnasguneak eta udalerrri euskaldunak: gaurko eta bihar-ko erronkak" izenburuarekin Soziolinguistika Jardunaldia elkarrekin antolatu zute-nean, Mikel Zalbideri eskatu genion mui-neko hitzaldia eskaini zezan. Horrela, he-

men aurkezten dugun testu nagusiak orduan emandako hitzaldia du oinarri nagusi. Gaiaren garrantzia kontuan hartuta, eta lehen aipaturiko jardunbideari jarraiki, egileak berak nahi izan du testua beste aditu batzuekin kontrastatu eta, orain bai, aldizkariaren mugak kontuan izanda, erantzun-testuak biltzea. Eginkizun honetan parte hartu dute Kike Amonarrizek, Lionel Jolyk, Iñaki Iurrebasok eta Xabier Bengoetxea adituek.

“Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak” du izenburu Mikel Zalbideren testuak.

Bertan, euskal arnasguneen inguruko gogoeta egituratua eskaini du Mikelek. Joshua Fishmanek edota Nancy Dorianek (besteak beste) XX. mende erdialdetik aurrera landutako teorizazioetatik abiatututa, “physical breathing space” kontzeptua geure testuingurura ekarriz. Interesgarria da egileari irakurtzea txosten honen hartzailea “esparru teorikortik harago (unibertsitateko irakasle edota ikertzaileak), lanbidezko erabiltzaile informatuak ere kontuan hartu direla, hala nola, euskara indarberritzeko ahaleginetan ari diren agintariak, erakunde-ordezkariek eta euskaltzale aktiboak”. Beraz, euskararen biziberritze-prozesuan lanean ari diren aditu eta arituen multzo konplexua izan du xede-taldetzat lan sakon honen egile Mikel Zalbidek.

Arnasgune zehatzen garrantzia azpimarratzeaz gain, euskararen biziberritzeko paradigma aldatu edo moldatu beharra azaleratu du egileak: zalantzarik gabe garrantzi handia du euskara zabaltzeak, baina euskara indartsu dagoen lekuak babestea ezinbestekoa da. Izan ere, bere hitzak baliatuz “ahuldutako hizkuntzaren alde gauza guztiak egin ezin direnean, zer da hobe? Eguneroko jardun arruntan beren “betiko mintzoa” alde batera utzi eta erdal hizkuntza nagusira mintzaldatu diren hiztun-talde gero eta ugariagoetatik (eta talde horiek bizi diren ingurumenetatik) ekin behar zaio bereziki indarberritzeta-saioari, ala eguneroko jardun arruntan euskaraz diharduten (gero eta urriagoko) hiztun-multzo trinkoenetatik?” Bere hausnarketa laburtzeko, artikulua azken hitzak ekar daitezke: “Lehentasun osokoa da arnasguneen euste-, osatze- eta zabaltze-lanean zentratutako euskalgintza. Gainerako saio asko lagungarri da kasurik onenean, eta denbora-pasa huts okerrenean. Arnasguneetatik kanpora ere bada jakina, lehentasun handiko esparrurik: handiagorik ez ordea, gure ustez.” Zalantzarik gabe, eztabaida sutua pizteko hitzak dira horiek, orain baino lehen egin bezala, egileak ekidin nahi ez duen posizio erradikala erakustsiz.

Eztabaida horri erantzunez parte hartu duten egileen artean lehena izan den **Kike Amonarrizek**, hasteko, planteaturiko erronken inguruko erantzuna eman dio alderdi demologuistikoaren, bideragarritasun ekonomikoaren eta erronka soziokulturaren behararen ikuspegitik. Azken honetan azpimarra jarri nahiko genuke planteatzen den hizkuntzen konpartimenazio

funtzionalaren inguruko ideia gatazkatsuari erantzutea komenigarria litzatekeela aldarrikatzen duelako. Nolakoa beharko luke XXI. mendeko hizkuntza-konpartimentzio hori? Azken finean, “euskara nagusi” izango diren esparruen garapenerako gaien inguruan hitz egiten ari gara, arnaguneen gaia politikan txertatu beharraz bertan zentralitatea hartu dezan. Mikel Zalbideren ideiei jarraiki, gune horiek babestu beharraz ohartzen du, baita “euskararen irradiazio-gune bilakatzeko” ere.

Lionel Joly soziolinguistak eman dio erantzuna, ondoren, Mikel Zalbideren proposamenari. Bere artikuluan arreta jarri dio Mikelek planteatzen duen euskal komunitatearen eta euskararen gaur egungo momentu erabakigarrian egotearen kontzientziari, belaunez belauneko transmisioaren arnaguneetako ezaugarriei, eta batez ere, gizarte eredu berriak duen eraginari, baita arnaguneetan ere. Testu-inguru horretan, Zalbiderekin batera azpimarratu nahi du euskaraz modu naturalean transmititu eta erabili egiten den lekuetan indartsu eta osasuntsu egotearen garrantziari, hala izan ezean, higadura bereziki handiagoa izango baita. Horrela erakutsi nahi du arnaguneetako hiztunek beraiek izan behar dutela prozesuaren parte aktiboa..., ez dela kanpotik ezer erabaki behar, alegia, biztanleek zer egin behar duten eta zer ez.



Iñaki Iurrebasok bere aldetik, arnaguneak kuantifikatzeko ahalegina egin du euskararen ahozko erabilera nagusi den leku

geografikoak lokalizatuz. Informazio-iturri modura, zentsuko datuak eta Soziolinguistika Klusterrak eginiko Hizkuntzen erabileraren kale-neurketetakoak baliatu ditu. Horrela, gaur egungo 96 udalerriren errealitatea ekarri eta horietan 1991-2011 bitartean izandako datu soziolinguistiko nagusien bilakaera kontrastean jarri du. Hizkuntza-gaitasuna (euskaldunen dentsitatea), etxeko erabilera eta euskararen kale-neurketen balioak kontuan hartuta planteatzen duen ideia azpimarratzekoa da, alegia, baieztatzen du arnaguneetan (ere) handiagoa dela euskararen erabilera kalean etxean baino (nahiz eta ikerketak oraindik ez diren amaitu, eta, beraz, datuak oraindik zabalik dauden). Interesgarriak dira, aldi berean, gertakari horren arrazoen inguruan proposatzen dituen hipotesiak.

Azken artikulua modura **Xabier Bengoetxeak** eginiko irakurketa jarri dugu. Egile horrek 2012an egin zuen arnaguneen inguruko lan bikaina, BAT 85. zenbakian argitara eman genuena, eta urte horretako HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika lehiaketaren bigarren saria jaso zuena. Esan dezakegu, harrez gero arnaguneen inguruko erreferentziazko lana badela hori. Orain, Zalbideren artikulua inguruko adostasun orokorra adierazten du, batez ere, diagnosian eta horiek babestearen garrantziaren inguruan zentralitatea aldarrikatzearen aldetik. •



bat classerak



1

Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak

Mikel Zalbide

Euskaltzaina

zalbide@hotmail.com

Sarreras-data: 2018-10-10 / Onartze-data: 2018-12-5

Laburpena. Euskal arnasguneen inguruko gogoeta egituratua eskaintzen da artikulu honetan. Kontzeptuaren beraren aurkezpen teorikoa egiten da lehenik, “physical breathing space” direlakoak (edo, partez, antzeko zirenak/direnak) nazio artean (izan) duten trataera azalduz. Gure kasuan arnasguneak zer diren eta euskara indarberritzeko zer-nolako garrantzia duten azpimarratzen da gero, atal banatan. Gaurko arnasguneak nolakoak diren eta bertan zer gertatzen ari den azaltzen da IV. atalean. Azken hiru ataletan maila praktikoari heltzen zaio: arnasguneen gaur eguneko erronkak azaltzen da V. atalean, erronka horiei nola erantzun behar zaien argudiatzen da VI.ean eta VII. atalean, azkenik, hemen eta orain zer egin behar den proposatzen da. Arnasguneen garrantzia azpimarratzearekin batera, euskara indarberritzeko paradigma egokitu beharra ikusten du autoreak. Teoria lantzeaz gainera badu artikuluak xede praktikoa ere. Erabakiak hartzeko orduan arnasguneako biztanleen zentraltasuna azpimarratzen da, besteak beste. • **Hitz gakoak:** hizkuntza-soziologia, euskara indarberritzea (RLS/HINBE), arnasgunea, eguneroko (mintza) jardun arrunta, belaunez belauneko transmisioa.

Abstract. A structured reflection on Basque breathing spaces is provided in this article. The theoretical presentation of the concept itself is first undertaken by explaining what so-called “physical breathing spaces” (or something to that effect) means internationally. In our case, we stress the importance of breathing spaces and the importance of revitalizing Basque in each section of the article. An explanation is provided in section IV. for just what kind of breathing spaces there are today and what is happening in them. In the last three sections, the practical part is tackled: the current challenges of the breathing space are explained in section V. by arguing that these challenges must be answered in VI and, in section VII, we finally suggest what to do here and now. In addition to emphasizing the importance of breathing spaces, the author sees the need to adapt a paradigm for revitalizing Basque. In addition to theory, the article also has a practical purpose. When making decisions, the central importance of the inhabitants in a breathing space is highlighted, among other things. • **Key words:** language sociology, revitalization of Basque (RLS / HINBE), breathing space, common everyday (speaking) activity, intergenerational language transmission.

SARRERA

I Artikulu honen sorburua azalduz emango diogu gaurko lanari hasiera. Donostian, 2017ko azaroaren 22an, IX. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia egin zuen UEMAk EHUren Ibaetako campus-ean. *Udalerrri euskaldunak eta arnasguneak* zuen jardunaldi hark izenburua. Antolatzaileek gonbidaturik, lan honen lehen bertsioa aurkezteko aukera izan genuen ekitaldi hartan. Handik gutxira, zenbait ezagunek horren eskea egin zigularik, orraztu, zabaldu eta zehaztu egin genuen azaroko aurkezpen-lan hura. Hasierako PPT formatuari eutsiz interesatuen esku jarri zuen Soziolinguistika Klusterrak, 2018ko otsailean-edo, bertsio zabaldu hori. Urte-hasierako material garatu hura da, funtsean, BAT aldizkariak orain eskaintzen dizuna. Azken moldaera hau xumea da mami-edukiz, azalez besterik badirudi ere: testu-molde arruntera ekarri da hasierako PPTa. Oin-oharretan datozen azken orduko datu berri batzuez osatu da testua eta, hizkuntza-soziologiaren alorreko lau iritzi-emaile adituren irizpenez eta gure “azken hitz” ataltxoaz aberasturik, arnasguneen gaineko gogoeta-saio monografiko moduan osatu.

Modan dago, hein batez, “arnasgune”-en kontua¹. Ez noski hitzaldi-aretoak, egunkari-aldizkariak, ikasgela unibertsitarioak, eztabaida-foroak eta iritzi-sorkuntzaren agerleku nagusiak horri buruzko ekarpen sakonez betetzeko lain; are gutxiago soziolinguistikaren mundu zabaleko jakite-guneak kontzeptu horren jirabiran jartzeko heinean. Bai ordea, eta ez da gutxi, termino hori (eta bere baitan duen adiera nagusia) euskalgintza aktibatuaren zenbait egoitzatara², batez ere buru-langile euskaltzaleen ezpain-lumetara³ eta udal-esparruko administrazio-guneetara⁴, indar biziz edo urratsez urrats hedatzen hasteko neurrian. Bistan da zergatik: funtsezko aztergaia da arnasgunea euskalgintzaren alorrean: kontzeptualki pizgarri, soziologikoki konplexu eta, gure ustez, euskara indarberritzeko hizkuntza-plangintza ororentzat lehentasun biziko. Azierto handia da, nolana ere, luzaroan atzendurik eta bazterturik izan dugun gaia hizkuntza-soziologiaren ekarpen teoriko landu-erabilienez analizatzen saiatzea eta euskalgintzaren perspektiba teorikoa eta oinarri enpirikoak, beste hurbilbideak gutxietsi gabe, eguneroko mintzajardun arruntaren eta belaunez belauneko jarraipen-katearen zentraltasun argian finkatzen ahalegintzea. Zorionak beraz UEMari eta Soziolinguistika Klusterrari, orobat bertako arduradun, ordezkari eta eragile teknikoei, arnasguneen eta udalerrri euskaldunen gaiaz berriazko jardunaldia antolatzeagatik. Eskerrik asko bestalde BAT aldizkariari, lana argitaratzeko aukera eman izanagatik. Eta, azkenik baina

**Funtsezko
aztergaia da
arnasgunea
euskalgintzaren
alorrean:
kontzeptualki
pizgarri,
soziologikoki
konplexu eta,
gure ustez,
euskara
indarberritzeko
hizkuntza-
plangintza
ororentzat
lehentasun
biziko.**

**Interes
akademiko eta
aplikazio
enpiriko
handirik gabeko
jakite-esparrua
da arnasguneena.
Nabarmen ageri
da bazter-izaera
hori
unibertsitate-
esparruan ere.**

ez azken, eskerrik bizienak eman nahi dizkiet lau iritzi-emaile prestuei: alfabeto-ordenaz Kike Amonarrizi, Xabier Bengoetxeari, Iñaki Iurrebasori eta Lionel Joly-ri . Gatozen hortaz, besterik gabe, gaurko gaiaren harira.

Aldez aurreko zenbait ohar

Arnasguneez jardun nahi dugularik gaurkoan, lanari taxuz heldu ahal izateko bada aurrez askatu beharreko korapilorik. Honako lau puntuok, besteak beste, erantzun eske daude: a) zer dio gai honetaz hizkuntza-soziologiak? b) Etxeko jardunetik zer dakigu zientzia-arauz, arnasguneei buruz?; c) norentzat prestatu da lan hau, eta nola? eta d) zenbateko lekua dugu gaur, azaldu beharrekoa azaltzeko? Goazen puntuz puntu, aurrenekotik hasita.

a) Hizkuntza-soziologiak zer dio arnasguneez? Zehazkiago esanik, zientzia-asmozko hizkuntza-soziologiak oro har, eta ahuldutako hizkuntza indarberritzeko estatus-plangintzak konkretuki, zer diote arnasguneez? Erantzuna, aurrez aurreko emaitza operatiboei dagokienez, iluna da ezinbestean: ezer askorik ez. Hizkuntza-soziologiaren oinarritzko perspektiba teorikoak landu arin du gai hau. Aplikazio alorreko azterlan sistematikoei eta artikulu monografikoei dagokienez ere, arnasguneen gaiak ez du interes handiegirik piztu azken hamarkadotan. Alboaztergai gisa ageri da sarri, agertzen denean, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko formulazio teoriko eta aplikazio praktikoko gehienetan. Era monografikoan zein espezialitate-alor akademiko gisa, gutxi landutako alorra da oro har. Ondorio kezkarria dakar horrek: arnasguneen arazoak konpontzeko *prêt-à-porter* moduko argitasun teoriko-enpiriko handirik ezin atera liteke hizkuntza-soziologiaren bibliografia teoriko nagusitik. Berdintsu dira kontuak, estatus-plangintzaren alorreko interbentzio-azalpen preskriptibo askori dagozkionetan: ezer gutxi dago hor ere eskueran, *ready-made* edo *ready to use* moduko formulazio praktikoei dagokienez. Beste era batera esanik: interes akademiko eta aplikazio enpiriko handirik gabeko jakite-esparrua da arnasguneena. Nabarmen ageri da bazter-izaera hori unibertsitate-esparruan ere: bideurratzaile baino areago besteren oihartzun-jasotzaile izan da orain arte, gai honetan, han-hemengo unibertsitate-alorra. Orain ere halatsu dira kontuak. Eragozpen larria dakar, bistan da, arnasguneen lanketarako interes teoriko eta ekarpen praktikoko handirik eskueran ez izate horrek. Arnasguneen gaia zientzia-arauz aztertu nahi duenak, horregatik, berak ireki behar izaten du bidea lehenik. Sasi-garbitzen eta ote-mozten ibili behar izaten du, alegia, ezertan hasi aurretik. Sasi-garbitze eta ote-mozte hori ez da munduko eginkizun intelektualik atseginena izaten;

arriskugabeena ere ez. Behar-beharrezko eginkizuna da, ordea, ahuldutako hiztun-herriak indarberritzeko formulazio globalik, eta horren baitako lehentasun-irizpide praktiko eta fidagarririk⁵, eskuratuko badugu. Hori da gaurko egoera, gure ustez, eta hortik abiatu behar da.

Kontua ez da ordea, honetan ere, erabat beltz, itsu eta antzu. Arnasguneen kontzeptu-multzoari buruzko ezagutza teorikoa eta oinarri enpirikoak aski murrizak eta bazter-girokoak izanik ere, ez da egia halakorik ez dagoenik. Gai hori argitzeko lagungarri diren saioak hutsaren hurrengo direnik ere ez: ez oinarri teorikoaren aldetik dira gutxiesteko, eta ez aplikazio-ahalmenez iren, gure aurrekoek (kanpoan eta etxean) egindako hainbat saio intelektual. Bada, izan ere, arnasguneen gai honi aparteko garrantzia aitortu izan dion aditurik: XX. mendeko bigarren erdialdeaz dihardugularik hor daude, beste hainbaten artean, Joshua A. Fishman-en⁶ eta Nancy Dorian-en⁷ ekarpen argiak. Horren aipamen espresurik ez badute ere inplikazio zuzenez oraturik daude Calvin Veltman-en⁸, Bernard Spolsky-ren⁹ eta beste zenbait soziolinguista teorikoren ikerlanak. Bidegile horiei eskerrak badira orain, lehen ez bezala, *arnasgune* kontzeptuaren lanketa teorikoan zentratu ez arren hartarako oinarri edo erreferentzia-elementu sendo direnak: lehengoak eta oraingoak nahasten direla hor ditugu, besteak beste, *Language Maintenance and Language Shift*¹⁰ errotulupean zein *transmissió lingüística familiar intergeneracional* izenburupean egindako hainbat lan jakingarri¹¹.

Mundu aleman-eslaboan ere zabala da, eta ez azken ordukoa, *Sprachwechsel*, *Sprachwandel*, *Sprachverlust* eta *Sprachentod* alor-lanketa. Burgenland-erako ikus Susan Gal, 1979: *Language shift: Social determinants of linguistic change in bilingual Austria*. San Francisco: Academic Press. Hungariako aleman-taldeen gorabeherez Susan Gal 1995 (“Cultural bases of language use among German-speakers in Hungary”, in IJSL 111 zkia., 93-102 or. eta Elisabeth Knipf-Komlósi, 2011: *Wandel im Wortschatz der Minderheitensprache. Am Beispiel des Deutschen in Ungarn*. Zeitschrift für Dialektologie und Linguistik – Beihefte (ZDL-B) Band 145. Budapest.

Arnasguneen kontua argitzeko teorizazio-lana ez da, gainera, azken 60 urte ingurukoa bakarrik: Lehendik dator atzerriko hainbat adituren gai horri buruzko gogoeta-lana. Gauza askotan arnasguneen kontzeptu-muinetik urrun gelditzen bada ere, zenbait ezaugarritan duen antz handiagatik ezin baztertuzkoa da, alde horretatik, mundu germanikoak luzaro landutako *Sprachinsel* kontzeptua eta, horren harira, *Sprachinseltheorie*, *Sprachinselforschung* eta *Sprachinselkunde*¹². Aztergaiaren for-

**Badira orain,
lehen ez bezala,
arnasgune
kontzeptuaren
lanketa
teorikoan
zentratu ez arren
hartarako oinarri
edo
erreferentzia-
elementu sendo
direnak [...]
besteak beste,
Language
Maintenance and
Language Shift
errotulupean zein
transmissió
lingüística
familiar
intergeneracional
izenburupean
egindako hainbat
lan jakingarri.**

Badakigu gurea bezalako hiztun-herrien osasuna ez duela ahuldutako hizkuntza ezagutzen (ulertzen, irakurtzen) dutenen kopuruak ematen, ez eta hitz egiten dakitenen kopuruak ere. Eguneroko jardun arruntean beren artean erabat edo nagusiki euskaraz egiten duten hiztunen kopurua da funtsezko elementua.

mulazio zentratean ageri dituen diferentzia nabarmenekin batera¹³ badu *Sprachinseldkunde* edo *Sprachinseldforschung* hark gure arnasguneen azterketarako konparazio-gune eta kontzeptu-lanketazko lagungarri sendorik¹⁴. *Sprachinseldforschung* hartatik parte bat interesatzen zaigu euskaldunoi, nolana ere, arnasguneen kontzeptu-lanketarako: bere ekarpen soziozentrikoa, ez gehienetako ikuspegi linguozentriko edo glotologikoa duen parte. Ingelesezko *language island* edo *language enclave/exclave*, frantsesezko *enclave linguistique* edo *îlot linguistique*¹⁵ eta gaztelaniazko *enclave lingüístico* edo *isla lingüística*¹⁶ terminoak ere kontuan hartzekoak ditugu *Sprachinsel* direlako jarduterakoan.

Israel-Palestina orain dela 100-120 urte inguru egindako biziberritze- (zehazkiago *revernacularization*)-saio emankorraren ebaluazio-lana, eta Irlandako *Gaeltacht* d(ir)elako(a/e)k sortutako bibliografia zabala (denbora eta leku-mugaz gaur aztertuko ez duguna) bereziki interesgarriak dira, orobat, arnasguneen aztergaia perspektiba akademiko zabalean analizatu ahal izateko.

Horiek guztiak oso dira kontuan hartzekoak. Eta badira, bereziki, Europako hiztun-elkarte txiki-ahulduen (ez bereziki arnasguneen) belaunez belauneko iraupen-iturrien gaiari perspektiba teorikotik heldu nahi izan dioten ekarpen jakingarriak. Hor sartzekoa dugu, bereziki, 1996ko *Euromosaic: The production and reproduction of the minority language groups in the European Union*¹⁷. Perspektiba horretan txertatu behar da Pádraig Ó Riagáin-en 1994ko “Language maintenance and language shift as strategies of social reproduction” delakoa ere¹⁸. Badago ekarpen horietan, eta beste hainbatetan, perspektiba teorikotik aurrera egin nahi duenarentzat zertan saiatu eta nondik probetxu atera. Interes biziko izan arren urrunegi geratzen dira ordea saio horietariko gehienak, gaur eskuartean dugun aztersaio konkreturako. Bideabar helduko diegu beraz gaurkoan, ez aurrez aurre, argibide-iturri garrantzitsu horiei. Aski da jakitea, arnasguneen gaiari zientzia-arauz ekin nahi diona esku-hutsik ez dagoela.

b) Etxeko jardunetik zer dakigu, arnasguneei buruz? Alaitasun- eta itxaropen-aukera handirik gabekoa da erantzuna: ezer gutxi dakigu euskaldunok, bai arnasguneen formulazio teorikoaz eta bai arnasguneei buruzko oinarri enpirikoaz: hori da nire ustez egia. Neure buruaz mintzo banaiteke, urteak daramat gai hori hizkuntza-soziologiaren ikuspegitik aztertzen eta, oso oker ez banabil, lehen argitze-maila batera iritsia-edo naiz zenbait puntutan. Jakite horren haritik badakigu gurea bezalako hiztun-herrien osasuna ez duela ahuldutako hizkuntza

ezagutzen (ulertzen, irakurtzen) dutenen kopuruak ematen, ez eta hitz egiten dakitenen kopuruak ere. Eguneroko jardun arruntean beren artean erabat edo nagusiki *euskaraz egiten duten* hiztunen kopurua¹⁹ da funtsezko elementua. Hiztun aktiboek, ez potentzialek, ematen diote ahuldutako hizkuntzari²⁰ belaunez belauneko iraupen-indarra. Hizkuntza bat ulertzen, irakurtzen edo idazten dakitenen kopurua garrantzizko elementua da beti, baina ez da oinarri nagusia. Aitzitik: Elisabeth Knipf-Komlósi-k (2011: 253) *aktive Sprecher* izendatzen dituen hiztunak, beren harreman-sare ugariak eta eguneroko interakzio-sare horien *locus* nagusia, ditugu batez ere kontuan hartzekoak. Alde horretatik ezinbestekoa da, jakina, arnasmuneei aparteko atentzioa eskaintzea.

Formulazio teorikoez gainera, hemengo datu enpirikoak ere arnasmuneei perspektibatik lantzen saiatu izan da gutako zenbait azken hamarkadotan, osasun-neurketarako gradazio-bide ustez egokiena eskainiz. Iñaki Iurrebaso ez dugu, ikertzaile gazteen artean, ahulena. Duela 25 urte baino jakitunago gara arnasmuneei buruzko datu enpirikoez, datu-lantze hori dela medio, egungo egunean. Hori guztia egia izanik ere, indarrean dago ene ustez hasieran esandakoa. Jakite xumea dugu euskaldunok, funtsaren funtsean, arnasmuneei gaiaz: hasi-masiak eskuratu ditugu, hor nonbait. Galdera zorrotzez hornituago gaude hortik aurrera, erantzun sendo eta baliagarriez baino. Bertako egoerari dagokionean hasi-masi horien jakite-alorretik abiatzen gara, hortaz, gaurkoan.

c) Norentzat prestatu da gaurko lan hau, eta nola? Beste era batera esanik, nor dugu lan honen mezu-jasotzaile, norentzat ari gara idazten? Hona erantzuna: era askotako irakurleentzat egin da txostena. Hizkuntza-soziologiaren esparruko aditu teorikoak (tartean unibertsitate alorreko zenbait irakasle eta ikertzaile) eta lanbidezko erabiltzaile informatuak kontuan hartu dira batetik²¹. Gai honen aplikazio praktikoa gogoan duten gizataldeak eta instantziak ez ditugu, bestetik, alboratu nahi izan: ahuldutako hizkuntza²² indarberritu nahi duten euskaltzaleentzako lagungarri gerta litekeen oinarrizko prestakuntza-oinarria ere izan nahi luke azalpen honek, horrezaz gainera. *Top-down* jardueraz edota *bottom-up* moldeaz lurralde-antolamenduan eraginik duten erabakimen- zein aplikazio-esparruak ere gogoan izan nahi dira: agintariak, erakunde-ordezkariek eta euskaltzale aktiboak gogoan izan ditugu, beraz, txostenari behin betiko forma emateko orduan²³. Azkenik, zabal-kunde-asmoa ere ez da alboratu nahi izan: euskalgintzaren alorreko kazetari espezializatuak eta hiritar interesatuak ere kontuan izan ditugu hortaz. Urte askotxo daramagu guztiok, 1978-1982 aldiko paradigma

**Hiztun aktiboek,
ez potentzialek,
ematen diote
ahuldutako
hizkuntzari²⁰
belaunez
belauneko
iraupen-indarra.
Hizkuntza bat
ulertzen,
irakurtzen edo
idazten
dakitenen
kopurua
garrantzizko
elementua da
beti, baina ez da
oinarri nagusia.**

Honako zazpi puntuok ditugu, funtsaren funtsean, berariaz lantzekoak:

- 1. Zer da arnasgunea, oro har?**
- 2. Zer dira arnasguneak, hemen eta orain?**
- 3. Zergatik dira arnasguneak hain garrantzitsu?**
- 4. Zer ari zaigu arnasguneetan gertatzen?**

ezagunaren ildotik, arnasguneen kontuari izkintxo eginez; zaharkiturik geratu zaigu paradigma hura, eta, zenbaiti deigarri gerta badakioke ere, kazetaritza espezializatuak bere lekua izan dezake gure ustez paradigma-berritze horretan²⁴. Beraz, eta labur bilduz, era bateko edo besteko irakurle-multzoak izan dira gogoan; guztientzako azalpena da gaurkoa, ez irakurle soilik aditu teorikoei eta espezialista teknikoei zuzendua. Hizkuntza-soziologiaren oinarritzko kontzeptu asko “kaleko hizkera” arruntaz azaldu nahi izan dira, horregatik, teknizismoren bat edo beste itzuri bazaigu ere tartean. Labur bilduz, era bateko eta besteko irakurleak ditugu begiz jotako mezu-jasotzaile. Guztientzako azalpena da gaurkoa, ez aditu askojakinei zuzendua eta ez luze-zabaleko berri-emaileentzako azalpen basikora mugaturiko sintesi hutsa.

d) Zenbateko lekua dugu, azaldu beharrekoa azaltzeko? Artikulu formatua duenez gaurko lanak, azalpen laburrekoa da ezinbestean: kabitzen dena kabitzen da artikulu batean, ez gehiago²⁵. Arnasguneen alorrean landu beharreko puntu nagusien hautapen-sorta eskainiko da, beraz. Sinplifikazio- eta distortsio-arrisku handia du, jakina, denbora-muga estuko hautapen orok. Mesederik ere izan dezake ordea berekin: arnasguneen kontzeptu-eremua eta azterbidea argitzen hasteko lagungarri gerta liteke. Sintesi moduko bat egin nahi izan da horretarako, eta laburtasun hori mesedegarri izan litekeela uste dugu²⁶. Kontuan hartzekoa da, gainera, arnasguneei buruz orain arte idatzi den gehiena baino osatuxeagoa eta, batez ere, barne-loturaz hornituago gerta litekeela gaurko artikulu monografiko hau. Labur jardungo dugu beraz. Labur baina, aldi berean, zenbait galdera nagusiri aurrez aurreko erantzun betea (zenbaitetan errepikapen ozenez azpimarratua) eskainiz. Hau baino informazio gehiago nahi duenak badu nora jo: arnasguneei buruzko zenbait datu praktiko eta hainbat kontzeptu teoriko sakonxeago lantzeko ikus Zalbide 2016 eta, oro har, aurkezpenaren azkenburuko bibliografia teknikoak. Ikus, horrezaz gainera, Xabier Bengoetxea 2012 eta Iñaki Iurrebaso 2014. Azken-azken orduan, hitzaldia eman ondoan, artikulu interesgarria agertu da *Berrian*: Samara Velte-ren “Oxigenorik ez irlandearentzat” (*Berria*, 2017-XII-20).

Zer jorratuko dugu, beraz, gaurkoan? Honako zazpi puntuok ditugu, funtsaren funtsean, berariaz lantzekoak: 1. Zer da arnasgunea, oro har? 2. Zer dira arnasguneak, hemen eta orain? 3. Zergatik dira arnasguneak hain garrantzitsu? 4. Zer ari zaigu arnasguneetan gertatzen? 5. Zein dira arnasguneen *erronka nagusiak*? 6. Zer egin liteke, *erronka horiei egoki erantzuteko*?, eta 7. *Gauzak nola egin behar dira*, “hemen eta orain”,

erronka horiei egoki erantzuteko? Zazpi puntu horietaz jardungo dugu beraz, puntuz puntu, ondoko orrialdeotan. Amaieran, zazpi puntu horien haritik, lau iritzi-emaile adituren ekarpen-oharrak eta aurrera begirako gogoeta-saiotxo erantsi zaizkio azalpenari.

I. ZER DA ARNASGUNEA, ORO HAR?

Joshua A. Fishman-ek (1991: 58) bere *Reversing Language Shift* ezagunean “physical breathing space” aipatzen du une batez: “breathing space”²⁷ horren itzulpena da *arnasgunea* (Zalbide, 2001). Lehen hurbilketa moduan, “demographically concentrated space where *Xish* can be on its own turf, predominant and unharassed”. Hots, eta gureru etorri,

- Euskal kontzentrazio demografiko handia du arnasguneak: euskaraz dakite bertako herritar guztiek edo gehienek eta, bereziki, *eguneroko mintzajardun arruntean herritar guztiak edo gehienak euskaraz ari izaten dira beren artean, arnasgune barruan.*
- Eguneroko mintzajardun arruntak euskararen aldeko nagusitasun-moldaera argia du bertan, eta nagusitasun hori ez da eztabaidatzen: “predominant and unharassed”. Euskaraz egiten da hor, besterik gabe. Gizarte-arau bizia da hori: Donostiako Kontxan bainu-jantzia edo bikini, ez ordea sostena eta kuleroa, janzteia bezain arau zabal²⁸. Arau zabal eta, zergatik ez dakigula baina ondo kontuan dugularik, haustezin. Gauza bera gertatzen da arnasguneetan: bertakoek bertakoekin, hitzez eta ohiko solasgai bizi-pizgarriez, euskaraz jardutea arau nagusi da ingurumen horietan.
- Eguneroko mintzajardun arruntean euskarak ageri duen nagusitasun gotor horri eskerrak, bertako *biztanleen ama-hizkuntza belaunez belaun transmititzen da arnasgunean, mintzaldaketa ohargarririk gabe. Transmisio horri eskerrak, hizkuntzaren mendez mendeko iraupen-katea ez da arnasgunean eten.* Arriskuak arrisku, euskarazko nagusitasun-moldaerari eten zaion artean *belaunez belauneko transmisio katea ez dago galzori bizian.*

Eguneroko mintzajardun arruntak *oinarri ezagunak* ditu, jardun-gune eta harreman-sare nagusiei dagokienez: etxea eta auzoa, kalea eta lagunartea, taberna eta denda, eliza eta herriko plaza, aisialdia eta kirol-gunea, eskola eta (ahal den heinean) lan-esparrua. Horietan euskara nagusi baldin bada, *arnasgune betean* gaude. Aldiz, hortik herrenka hastean *arnasgune bete* izateari uzten zaio, *arnasgune erasan* bihurtuz. Erasate-lan hori areagotu egiten bada nabarmen, horren ondorioz sortzen den moldaera berria *ez da arnasgune.*

5. Zein dira arnasguneen erronka nagusiak? 6. Zer egin liteke, erronka horiei egoki erantzuteko?, 7. Gauzak nola egin behar dira, “hemen eta orain”, erronka horiei egoki erantzuteko?

**Bertako
neskamutilek,
gazteek eta
sasoikoek
euskaraz egiten
dute beren artean
nagusiki:
etxekekin,
lagunekin eta
herritarrekin
euskaraz bizi
dira normalean,
hitzezko jardun
arruntari
dagokionez.**

Berrito esango dugu, funtsezko kontua baita hau: demolinguistika aldetik jaun eta jabe da euskara arnasgunean. Euskaraz jakiteaz gainera euskaraz ari izaten dira, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, jaiotzaz edo geroko etorreraz (ezkontzaz, lanbidez,..) bertan bizi diren herritar guztiak edo gehienak. Hiztun horiek “bere kabian” sentitzen dira arnasgunean: euskarazko jardun arruntari dagokionez esparru geoterritorial “segurua” dute arnasgunea. Euskaldunak euskaldunekin herri-giroan euskaraz bizi diren lekua, euskara “etxeko jaun” sentitzen den eremua. Inork behartu, xaxatu edo eraso gabe bizi dira bertan euskaraz. Arnasgunea ez dute hizkuntzagatiko gatazka-leku; besterentzat ere ez da, normalean, aparteko arazo-iturri soziolinguistikoko. Barruko edo kanpoko inork ez ditu eguneroko jardun arruntean euskaraz egitera behartzen. Hori esijitzen du gizarte-arau zabal den normak, hori da normala. Era berean, eta oro har, kanpokoek ez dituzte xaxatzen edo erasotzen herrian euskaraz bizi direlako. Bertako haurrek, neska-mutilek eta gaztetxoek bere osoan (aski era betean) eskuratzen dute gurasoen hizkuntza²⁹. Darabilten hizkera-modu horren barne-osaera eta beren mintzagaitasun-moldea aldatuz doa hainbatean, baina bertako neska-mutilek, gazteek eta sasoikoek euskaraz egiten dute beren artean nagusiki: etxekekin, lagunekin eta herritarrekin euskaraz bizi dira normalean, hitzezko jardun arruntari dagokionez³⁰.

Aurrera begirako ondorio argiak ditu gertakari horrek, estatistikoki: a) bikote euskalduna egiten dute bertako gazte gehienek eta, horrela, herrian bertan (edo inguruko beste arnasguneren batean) asentatuz euskal familia sortzen dute maiz: hiztun-elkartearen jarraipen-bermea, belaunez belaun eguneratu beharrekoa, da familia-giro euskalduna sortze hori. Herriko lagunarteak eta gizarte-bizitzak (eta, ahal dela, lan-esparruak) zurkaiztu egiten du euskarazko jardun-gune hori. b) Euskararen nagusitasun-moldaera³¹ argi horri eskerrak, arnasgunean ez dago *eus* > *erd* mintzaldaketa³² zabalik. Are gutxiago galera osoa³³. Belaunez belauneko jarraipena inon baino seguruago bermaturik dago hor.

Eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, hortaz, osasun oneko hiztun-elkarteetan normal dena normal da arnasgunean. Ama-hizkuntzaren *belaunez belauneko jarraipena* da osasun oneko hizkuntza bizien iraupen-bide nagusia. Hori da osasun oneko hiztun-elkarte orok ahuldutako hiztun-elkarteen aurrez aurre duen bereizgarri soziolinguistikoko nagusietarikoak: hainbatentzat nagusia. Ama-hizkuntzaren *belaunez belauneko jarraipena* sendo dago gure arnasguneetan: beste inon baino

sendoago. Funtsezko ezaugarria da hori: perspektiba geoterritorialari dagokionez arnasguneetan bakarrik gertatzen zaigun ezaugarria. Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute arnasguneetako haurrek euskaraz egiten. Eskolara joan aurretik euskaldun trebe izan ohi dira: jakitez eta, batez ere, egitez trebe. Jakitez elebakar edo euskal-elebidun; egitez guztiak edo gehienak euskaldun (konparatiboki) garbi. Euskal eskolarik gabe, are erdal eskolaz, belaunez belaun eta menderik mende euskaraz bizi izan dira. Orain ere gutxi fio. Lagungarri ederra dute gaur egun, hori bai, eskola: a) egunaren zati ohargarria (%16 inguru) euskaraz betetzen dute neska-mutilek, maisu-maistrekin eta eskola-lagunekin; b) euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten dute, lehen ez bezala; c) herriko euskararen erregistro informal-intimoez gainera hizkuntzaren aldaera jaso-formalaz baliatzen ikasten dute hainbatean; d) erdara (gaztelania eta, partez, ingelesa) ikasten dute orobat (ik. Zalbide 2016). Lehen ez bezala, alde dute orain eskola. Alde eta, gizarte berri honetan, oso beharrezko. Hizkuntzaren geroa ez du ordea, arnasguneetan ere, batez ere eskolak bermatzen³⁴. Mintzajardun arruntaren eguneroko erabilera-espektrora zabala³⁵ da, beti eta nonahi, osasun oneko hiztun-elkartean arau nagusi. Hori da munduko hizkuntza bizi-sendo guztien jarraipen-bide normala, belaunez belaun bere buruari eusten diona eta, eten-urratze larririk ezean, menderik mende irauten duena. Jarraipen-bide horri sendo eusteak lehentasun argia du, ahuldutako hizkuntza bizirik gordetzeko eta, hortik abiatuz, ahuldutako hiztun-elkartea bere osoan indarberritzeko. Gune horiek dira, hainbat adituren ustean (ikus aurrerago S. Altube³⁶ eta J. Fishman), ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio arrakastatsu ororen abiaburu nagusia eta sostengu gotorrena. Ingurumen horiek galtzen badira, askoz zailagoa da handik aurrerako biziberritze-saioa.

Beste zenbait ezaugarri. Arnasgune beteak eta erasanak

Goiko elementuek definitzen dute aski zorrotz arnasguneak zer diren. Ezer gehiago esan al liteke horretaz? Nolakoak dira arnasguneak, hemen eta orain? Honako zertzelada hauek erantsi behar zaizkio, gure ustez, goiko definizio- eta azalpen-saioari.

- a) *Ingurumen geoterritorialak, ez soziofuntzionalak edo virtual hutsak, dira arnasguneak: eguneroko mintzajardun arruntean (erabat edo batez ere) euskaraz bizi diren auzoak, herrixkak, herriak, herriarteak eta, inoiz (gero eta bakanago), eskualde osoak.*
- b) Biztanle-kopuruz txikiak edo oso txikiak dira arnasguneak, eta lurralde-antolamenduaren aldetik aski periferikoak oro har. Hiri-

Gune horiek dira, hainbat adituren ustean [...] ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio arrakastatsu ororen abiaburu nagusia eta sostengu gotorrena. Ingurumen horiek galtzen badira, askoz zailagoa da handik aurrerako biziberritze-saioa.

Gipuzkoan daude, egungo egunean, arnasgune gehienak; Bizkai-Nafarroetan ere badira zenbait, dena den. Aldiz hortik kanpora oso herri gutxi dira arnasgune, eta gutxiok ere aski dudamudazko dira.

bururik edota 50.000 biztanletik gorako hiririk ez dago, aspaldian, arnasguneen sailean. Herribururik bai: Azpeitia da gaur egun, askogatik gainera, herriburuen artean arnasgunerik handiena.

c) Gipuzkoan daude, egungo egunean, arnasgune gehienak; Bizkai-Nafarroetan ere badira zenbait, dena den. Aldiz hortik kanpora oso herri gutxi dira arnasgune, eta gutxiok ere aski dudamudazko dira (Arabian Aramaio?, Iparraldean Baigorri ingurua?).

d) Arnasguneak “irla” edo “uharte” bihurturik daude egungo egunean: ez dago Bizkaitik Nafarroara hedatzen den arnasgune zabalik, Gipuzkoa erdian harturik. XIX. mendetik aurrera zabalduz joandako, eta egungo egunean ia erabat buruturiko, mintzaldaketa biziaren ondorio da euskal mintza-esparru gotorraren zatikatze hori: jende gehien bizi den hiri(buru)ak, industria-gune handi(en)ak, trenbide-eta karretera-lotune nagusiak eta administrazio-gune operatiboak erdaldundu ziren lehenik ordura arte arnasgune izandako eskualde zabaletan³⁷, eta bazter-fenomeno bihurtuz joan ziren horregatik, perspektiba geoterritorialetik ere, arnasguneak.

Eguneroko bizimodu arruntean “erabat edo nagusiki” euskaraz egite horrek ez du esan nahi, inondik inora, euskal hiztun-elkartearen espazio geoterritorial osoa (euskal hiztun-herria, horren araberrako Euskal herria) bitan banatzen denik: batetik *arnasguneak*, bestetik *arnasgune* ez diren auzoak, herriak eta eskualdeak. Formulazio dikotomiko hori baino ondotoz bihurriagoa da azken hamarkadotako mapa soziolinguistikoa. Arnasgune gotorrenetik hasita (ia) erdara hutsezko mintza-esparrura bidean *continuum* luzea dago, eta tarte-bitarte luze horretan bizi gara euskaldun gehienok. Beraz, eta labur bilduz, *continuum* horren punta-mutur batean, ez tarte-bitarte luzean, daude arnasguneak: punta-muturrik euskaldunenean.

Punta-mutur batean egonik ere, arnasgune guztiak ez dira zeharo uniforme: guztiak berdin-berdinak. Guztiak ez dira, bereziki, “euskal gotorleku huts”. Euskaltasun handieneko ingurumen geoterritorial horretan ere barne-bereizbide argia dago: azpi-*continuum* nabaria. Guztiak ez dira gotortasun-maila bereko. Aldea dago arnasgune batzuetatik beste-etara. Arnasgune hitza ez da, horregatik, zenbaitetan aski: termino ahula da, batez ere, arnasgune batzuetatik beste-etara dagoen (gero eta nabariagoko) aldea gordin markatu behar denean.

Izaera konplexu-aldakor horri definizio operatibo praktikoa eransteke, bitan banatu izan dugu arnasguneen azpi-*continuum* hori: azalpen dikotomiko harren arabera *arnasgune beteak* ditugu batetik, eta *arnasgune*

erasanak bestetik. Irakur-idazketa kontuan hartuz are azalpen landuagora iristeko, bi azpiataletan banatu litezke arnagune beteak: ikus ondorengo BZ-5 eta BZ-6a azpiatalak. Hiru azpiataleko sailkapena sortzen da horrela: lehenengo biak (BZ-5 eta BZ-6a) arnagune beteak dira; hiru-garrenekoak (BZ-6b) arnagune erasanak.

Bitan edo hirutan banatu ordez lautan edo gehiagotan ere sailkatu litezke arnaguneak, segun zer barne-aldakortasun mota aztertu nahi den. Oraingoz ez diegu irabazi handirik ikusten sofistikazio handiagoko azterbideei: biko eta hiruko banaketaz analizatuko dugu beraz, gaurkoan, arnaguneen egungo (eta begien bistako) errealtate aldakor-konplexua.

II. ZER EZ DIRA ARNASGUNE, PARTEZ EDO OSOZ?

I

II.1 Udalerrri euskaldunak ez dira, beti eta nonahi, arnagune

Gauza biak batera joan litezke, eta maiz samar hala gertatzen da, baina ez dira baliokide huts. Bi gauza dira, formulazio teorikoz zein aplikazio praktikoz, *arnasguneak* eta *udalerrri euskaldunak*. Bateratsu erabili ohi ditugu maiz, hizkera arruntean eta azalpen landuagoetan, baina bata eta bestea ez dira gauza bera, beti eta nonahi. Ondoko puntuotan daude, gure ustez, bien arteko berezitasun nagusiak.

a) Definizio operatibo berezia dute, hasteko, batak eta besteak. Udalerrri euskaldunak identifikatzeko orduan herritarren mintzagaitsuna hartzen da oinarri: herritar gehienek ba al dakite euskaraz? Gutxieneko langa ezartzen duen portzentaje jakina definitzen da hor, operatiboki, *udalerrri euskaldun bai* ala *udalerrri euskaldun ez* erabakitzeko: demagun % 80ko langa³⁸. Herritar guztiek edo gehienek beren artean euskaraz egiten duten ala ez, aldiz, ez da *udalerrri euskaldunen* definizio operatiboan espresuki kontuan hartzen: bistan da euskaraz jakitea eta euskaraz egitea ez dabilzala arras urruti, herritar gehienek euskaraz jakin behar baitute beren artean euskaraz egiteko. Euskaraz jakiteak ez du, ordea, euskaraz egitea ondorioztatzen: ez ahoz eta ez, bereziki, idatziz. Herritarren eguneroko mintzajardun arruntak erabakitzen du, aldiz, ingurumen geoterritorial bat *arnasgune* den ala ez: etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean, bertako gizarte-bizitzan oro har euskaraz egiten al da, erabat edo nagusiki? Baiezkotan, ingurumen hori *arnasgunea* da; bestela ez. “Gehienetan ez dute egiten, konforme, baina jakin badakite” esateak ez du balio. Herritar (gehien-)gehienek egin behar dute euskaraz,

Herritarren eguneroko mintzajardun arruntak erabakitzen du, ingurumen geoterritorial bat arnagune den ala ez: etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean, bertako gizarte-bizitzan oro har euskaraz egiten al da, erabat edo nagusiki? Baiezkotan, ingurumen hori arnagunea da; bestela ez.

**Arnasgune
guztiak udalerrri
(edo auzo zein
eskualde)
euskaldun dira
baina udalerrri
euskaldun
guztiak ez dira,
hemen eta orain,
arnasgune.**

arnasgune izateko: ez ezinbestean nonahi eta noiznahi, ez interakzio guzti-guztietan nonahi delarik ere solaskidea³⁹. Bai, ordea, eguneroko mintzajardun arruntaren ohiko leku, situazio eta harreman-sare nagusietan. Batez ere hitzez egin behar dute euskaraz⁴⁰.

b) *Udalerrri euskaldunak* “udalerrri” dira neurritz, berez eta ezinbestean: halaxe definiturik daude. *Arnasguneak* ere “udalerrri” izan litezke neurri-hedaduraz, baina ez dute ezinbestean udalerrri izan beharrik. Hortik gorako neurria ere izan lezakete arnasguneek⁴¹: demagun Urolako erdi- eta behealde gehiena (Azpeiti ingurutik Zumai aldera), edota Leitza-Areso-Berastegi-Eldua(in)-Berrobi herri-sorta. Udalerrri-mailatik beherako neurri-hedadura duen ingurumena ere izan liteke arnasgune, horren adibide seguru eta errazik eskueran ez daukagun arren: Amorebietako Etxano-Duda-Epaltza-Alakao-Arrinda auzoaldea baliagarri ote da ikuspegi hori argitzeko?

c) Gehienetan deskriptiboa bada ere udalerrri euskaldunen ikuspegia, perspektiba zinetikorik ere izaten du hainbatean: euskaraz dakitenean portzentajea gora doan, bere hartan dirauen ala behera datorren analizatzen da maiz, halakoetan. Aldiz, bere ardatza eguneroko jarduera arrunta duenez beste aztergai honetan zentratzen da arnasguneen kontzeptu-lanketa: eguneroko jarduera arrunt hori belaunez belaun sendo transmititzen ari den, ala galduz doan.

Labur bilduz: hizkuntza-gaitasunean zentratutako analisi demolinguitikotik abiatzen da nagusiki udalerrri euskaldunen definizio operatiboa; bertako biztanle guztietatik zenbatek euskaraz dakien, eta portzentaje hori adin-taldez talde nola bilakatzen ari den: hori izaten da bere aztergai nagusia. Hizkuntza-soziologiaren elementu teoriko hauetan oinarritzen da nagusiki, aldiz, “arnasgune” kontzeptua: a) eguneroko mintzajardun arruntan eta, mintzajardun zabal-nagusi horren ondorioz, b) jarduera horren belaunez belauneko jarraipenean. *Udalerrri euskaldunek* bestelako definizio operatiboa dute, eta bestelako aplikazio praktikoa. Horregatik, *arnasgune* guztiak *udalerrri* (edo auzo zein eskualde) *euskaldun* dira baina *udalerrri euskaldun* guztiak ez dira, hemen eta orain, *arnasgune*.

Bi gauza izateak ez du esan nahi arras diferente eta bateraezin direnik. Besterik erakusten digu errealitateak: aurrerago azalduko denez *udalerrri euskaldunak* eta *arnasguneak* ez dabilta, hainbat kasutan, elkarrengandik batera urrutiti. Baina ez dira gauza bera eta, zenbait kasutan, tarte handia dago batetik bestera.

II.2 Arnasguneak ez dira “euskaldun gehienak bizi diren lekua”

Biztanlez txiki dira arnasguneak: gehienak oso txiki. Txikitasun hori dela medio, euskaldun gehienok (hiru laurdenak baino gehiago) ez gara arnasguneetan bizi. Egunean zehar erdaraz baino maizago (edo erdaraz bezain maiz) euskaraz egiten dugun hiztun gehienok ere ez gara, antza, arnasguneetan bizi. Arnasguneak aski elementu sekundario dira, beraz, mintzagaitasunean oinarrituriko hiztun-elkarte osoaren kopuru-perspektiba hutsetik. Hizkuntza indarberritzeko saioa ezin da hortaz, inola ere, arnasguneetara mugatu⁴². Kopuruz sekundario edo periferiko izanik ere, zentral-zentralak dira arnasguneak. Zentraltasun hori ez dago gaitasun linguistikoaren plano demolinguistiko-kuantitatiboan, beste bi puntuotan baizik: a) eguneroko mintzajardun arruntaren euskal nagusitasunean, eta b) hiztun-multzo trinkoen belaunez belauneko transmisio betean.

Kontzentrazio demografiko handiaren eta “betidaniko gizarte-ohitura”-ren eraginez eguneroko mintzajardun arruntean euskara hain bizi egoteak eta mintzajardun horren belaunez belauneko jarraipen-bermeak, ez euskaraz “dakiten” hiztunen kopuru-portzentaje hutsak, ematen die arnasguneei aparteko garrantzia. Euskaraz dakien jende gehiena ez da, urrundik ere, arnasguneetan bizi. Bertan bizi direnek dute ordea, askogatik, euskarazko jarduna bizien, osasuntsuen eta, horrenbestez, gerora transmitigarrien. Ikus, aurreraxeago, S. Altubek eta J. A. Fishman-ek horretaz esandakoa.

II.3 Euskarak presentzia nabarmena⁴³ duen hainbat instantzia (tartean zenbait gotorleku) ez da, definizioz, arnasgune

Ondoko instantzia edo gotorleku hauek ez dira, eta definizioz ezin dira izan, *arnasgune*: a) euskarazko eskola-sarea (nagusiki D eredukoa), euskarazko unibertsitate-atalak eta euskaltegiak; b) euskarazko komunikabideak: *Euskadi Irratia*, *Euskal Telebista*, *Berria*, *Argia* etab.; c) Herri Aginteetako atal elebidunak, Euskara Zerbitzuak etab.; d) euskarazko kultura-kontsumora bideratutako hainbat ekimen: euskal liburu- eta disko-azokak, euskal antzerki-, kantu- eta dantza-taldeak, etab.; e) euskaltzale-elkarteak eta euskararen aldeko ekimenak: *Kilometroak*, *Korrika* etab. Instantzia horiek ez dira *arnasgune*: herriko biztanle guztien multzo nagusia hortik kanpora bizi da urtean zehar, eguneko ordu gehienetan; hiztun horien eguneroko mintzajardun arrunta bideratzen

Euskaraz dakien jende gehiena ez da, urrundik ere, arnasguneetan bizi. Bertan bizi direnek dute ordea, askogatik, euskarazko jarduna bizien, osasuntsuen eta, horrenbestez, gerora transmitigarrien.

Eguneroko bizimoduan erdara nagusi [...] den ingurumenetan (normalean kale-giroan) euskal gotorleku izatera iristen da [...] bereziki, EAEko (eta, zein bere neurrian, Nafarroako eta Iparraldeko) eskola-mundua. [...] Baina ez dira arnasgune, eta ezin dira izan.

duten harreman-sare zabal-etengabeak instantzia horietatik kanpora daude nagusiki; hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren kate luzea (35-40 urtera artekoa) instantzia horiek baino jardun-gune zabal eta basikoagoetan oinarritzen, hezurmamitzen, elikatzen, osatzen eta garatzen da hiztun-elkarte osasuntsu orotan.

Eguneroko bizimoduan erdara nagusi (zenbaitetan jaun eta jabe) den ingurumenetan (normalean kale-giroan) euskal gotorleku izatera iristen da instantzia horietariko zenbait: horrelakoa da, bereziki, EAEko (eta, zein bere neurrian, Nafarroako eta Iparraldeko) eskola-mundua. Garrantzi ohargarria dute instantzia horiek, dudarik apurrena ez dago horretan, euskara indarberritzeko. Ezin baztertuzkoak dira, bakoitza bere alorrean eta bere heinean, euskal hiztun-talde askori bizirik eusteko eta beren eguneroko harreman-sareak nabarmen indartzeko. Arnasgune gehienetan eta bestelako ingurumen askoren osagai sendo eta balios dira hortaz, sarri, gotorleku horiek; hala dira, bereziki, eskola-esparrua eta beste zenbait ingurumen soziofuntzional. Lagungarri ederrak ditugu hortaz gotorlekuok, banaka zein taldean harturik, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan. Baina instantzia guztiok (tartean gotorleku nagusiok) ez dira arnasgune, eta ezin dira izan. Ez dira eguneroko mintzajardun arruntaren iturburu nagusi, oinarri beregain eta iraunkor⁴⁴. Ez dira belaunarte osoa bere baitan duten biziguneak: adin-tarte jakinetako kideak oso gailen dira bertan, eta bestelakoak ahul edo hutsal. Ez dira belaunez belauneko jarraipenaren berme-iturri. Arnasguneak badira hori guztia, hein ohargarrian⁴⁵; beste instantziok (are gotorleku sendoenok) ez. Instantzia soziofuntzional horiek gotorleku izatera iristen badira ere zenbaitetan, instantziok ez dira eguneroko mintzajardun arruntaren oinarri zabal eta iraunkor; are gutxiago belaunez belauneko jarraipenaren berme-iturri beregain. Instantzia edo gotorleku horiek “arnasgune soziofuntzional” bailiran azaltzea, nahasmendua sortzea da gure ustez. Arnasguneek hain berea eta hain noraezekoa duten eguneroko mintzajardun arruntaz, hiztun horien kontzentrazio demografikoaz, hartarako oinarri geoterritorialaz, ingurumen horretako barne-sare trinkoez eta, hori guztia dela medio, ama-hizkuntzaren belaunez belaun transmititzeko ahalmen beteaz ahazturik bestelako instantzia soziofuntzional horiei “arnasgune” deitzea kontzeptuaren jatorrizko adiera, orain ere behar-beharrezkoa, desnaturalizatzea da.

III. ZERGATIK DIRA ARNASGUNEAK HAIN GARRANTZITSU, EUSKARA INDARBERRITZEKO?

I

Esana dugu dagoeneko, populazio-espektroari dagokionez herri-herrixka txikiak direla arnagune gehienak, ia guztiak. Demolinguistikazko analisiek argi erakusten dute, era berean, euskaldun gehienok arnaguneetatik kanpora bizi garela egungo egunean⁴⁶. Euskalgintzaren aktibazio-gune gehienak arnaguneetatik kanpora daude orobat: administrazio-atal elebidun nagusiak, euskarazko komunikabideak, argitaletxeak, unibertsitate-eraikin eta ikergune gehienak, antzerki- eta musika-talde euskaldunak,.. horiek eta beste hainbat arnaguneetatik kanpora daude oro har. Alde askotatik bazter-fenomenoa dira arnaguneak, ez gizarte-bizitaren berrikuntza-habi. Txikiak, gutxi eta bazter-girokoak izanik, zergatik dira hain garrantzitsu? Euskalgintza sendo-asmozkoak ez ote luke euskaldun gehienon habitat nagusietan, XXI. mendearen euskarri diren hiriburu eta konurbazio gero eta zabalagoetan, zentratu behar? Ez ote da zentzuzkoago gehiengoari kasu egitea, hoberenean ere gainbehera datozen ingurumen geoterritorial txiki-zipriztindu horiek, eta bertako herritarrak, gero(xeago)ko uztea? Ezezkoan gaude. Hona zergatik:

a) Eguneroko euskal mintzamolde “normala”, osasun oneko hiztun-elkarteen mintzajardun arruntaren antzekoena, *hor* (arnaguneetan) dago indar betean. Indar betean edo, zehazkiago esanik, indarririk beteenean: askotan *hor bakarrik*. Euskaraz egiten da *hor*, erabat edo nagusiki, etxean eta kalean, lagunartean eta tabernan, auzoan eta herriko plazan, eskolan eta udaletxean. Euskara da nagusi, hitzez behintzat, gizarte-giro zabalean (jai-ospakizun eta auzolan, elizkizun eta parkeko jolasaldi, kultura-ekimen eta eztabaida politiko, kirol eta bertso-saio). Lanean ere bai partez, inon baino maizago.

b) Arnaguneetan bizi den jendeak bitxitasun-seinalerik edo salbuespen-markarik gabe egiten du euskaraz, bertan eta arnagune horren hainbat ingurutan. Aparteko esfortzu, ordain-sari, autozentsura edo sakrifiziorik gabe egiten du euskaraz, hitzez ari delarik. Zergatik? Inon idatzi gabeko gizarte-arau honegatik: “hemen horrela egiten da”. Ingurumen horietan “horrela egitea” agintzen du bertako gizarte-arauak. Indarrean dirauen artean, lege asko baino erabakigarriago da gizarte-arau edo norma sozial hori. Hizkuntzaren bizi-iraupenerako giltzarri den arau hori arnaguneetan bakarrik daukagu bizirik. Arnaguneetatik kanpora, espazio soziofuntzionalaren esparru jakinetan izan ezik (demagun erdara nagusi den hiriburu,

Arnaguneetan bizi den jendeak [...] aparteko esfortzu, ordain-sari, autozentsura edo sakrifiziorik gabe egiten du euskaraz, hitzez ari delarik. Zergatik? Inon idatzi gabeko gizarte-arau honegatik: “hemen horrela egiten da”.

**Euskaldunok
euskaraz bizi
garen espazio
geoterritorialik
izan badela
erakustea
funtsezko
eginbeharra da,
euskal hiztun-
elkarteak
etorkizunik
izango badu.
Arnasguneek
azaltzen dute
argien, euskaraz
“normal” bizitzea
zer den.**

hiri eta herrietako D ereduko irakasleen jarduna, eskola esparruan) aski zartaturik, indargabeturik eta maiz galdurik, dago norma sozial hori. Arnasguneetan bizirik dago, erabat edo hein handi batean, eguneroko bizimoduaren espazio nagusietan (etxean, auzoan, familian, lagunartean, plazan eta tabernan, mezetan eta udaletxean⁴⁷, eskolako jolaslekuan eta frontoian, herriko festetan eta ezkontza-hiletetan,..) hitzez ari garelarik⁴⁸ “euskaraz egitea” agintzen duen bertako gizarte-araua.

c) Euskal hiztun-elkarte beregaina, eguneroko jardun arrunta euskaraz bideratzen duena, ingurumen horietan bizi-bizirik dagoela erakusten dute arnasguneek. Argi antzematen du hori edonork. Errespetu handia eragiten du euskarazko jardun arruntaren berezko bizitasun horrek, bai euskaltzaleon eta bai euskaltzale ez diren (bertako zein kanpoko) askoren artean⁴⁹. Euskaldunok euskaraz bizi garen espazio geoterritorialik izan badela erakustea funtsezko eginbeharra da, euskal hiztun-elkarteak etorkizunik izango badu. Arnasguneek azaltzen dute argien, euskaraz “normal” bizitzea zer den. Hizkuntza-normalkuntzaren bila bagabiltza, arnasgune horietan gaude osasun oneko hiztun-elkarteen eguneroko mintzajardun normaletik hurbilen. Gain-kostu txikienaz eta kritika-bide murriztenaz hor aterata dakioke euskalgintzari, *bide batez* jardunik⁵⁰ batez ere, etekinik hoberena.

d) Euskaldun garbien sorgune oparoa da arnasgunea. Eguneroko bizi-pozak eta beldur-gorrotoak, esperantzak eta atsekabeak, bizi-giro informal-intimoaren gertaerak, pasadizoak eta gora-beherak aparteko graziaz eta hitz-etorri onez azaltzeko gai diren hiztun beteen sorburu eta agergune dira arnasguneak. Funtsezko oinarri izan ohi da hori, hizkuntza formal-landuaren garapen-lanerako ere. Ez da batere harrizkekoa, hortaz, euskal profesional asko (beraiek edo beren gurasoak) arnasguneetatik etortzea. Bizi izatera kalera jaitsi badira ere profesional horietariko gehienak, arnasguneen *background* horretatik datorkie euskal hizkuntzaz airoso, zalu eta dotore baliatzeko doai aparta. Hitz-etorri oneko euskaldun trebe landuen harrobi dira arnasguneak. Altxor preziatua da hori, oso, ahuldutako hiztun-elkarteontzat⁵¹.

e) Eguneroko mintzajardun arruntean, euskara da arnasguneetan nagusi. Bere lekua du hor ere erdarak (eskolan atzera egin du, baina aurrera doa lan-esparruan, turismoan, ikus-entzunezkoen kontsumoan...). Erdara (gero eta nabarmenago) hor egonik ere, euskarazko mintzajardun arrunta da arnasguneetan nagusi: mintzabide bakar, jaun eta jabe edo, gero eta maizago, soil-soilik nagusi.

Kontuz: “soil-soilik nagusi” esatea distraigarri gerta liteke: eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez hor bakarrik da euskara, herri edo eskualde mailan, nagusi. *Hor bakarrik.*

f) Haur-gazte-helduen katean, jaiotzatik hasi eta 35-40 urtera arteko ibilbide luze-bihurrian, *eusk > erd* mintzaldaketarik ez da arnasguneetan luze-zabal gertatzen ari. Migrazio bortitzik edo bestelako eten-urratze larririk gertatzen ez den artean, hortaz, belaunez belauneko transmisioa segurtaturik dago arnasguneetan.

Labur bilduz: osasun-egoera onetik beste edozein ingurumen geoterritorial edo populazio-segmentu baino hurbilago daude arnasguneak, plano kolektiboari dagokionez. Osasun bete-betean ez, baina beste inon baino osasuntsuago bai. Horregatik da hain noraezeko, horregatik da hain zentral eta ezin alboratuzko, arnasguneetako nagusitasun-moldaera horri indar betean (ahalik eta indarrik beteenean) eustea. Ahuldutako hiztun-taldea indarberritu liteke, hildakoa ez. Hildakoa biziberritu egin liteke gehienik, ez indarberritu. Hiztunen eguneroko mintzajardun arruntean hilik dagoena biziberritzea askoz lan zailagoa da, ordea, ahulduta dagoena indarberritzea baino.

Ez gara ezer berririk esaten ari. Kanpoko eta etxeko hainbat adituk esandakoa errepikatzen ari gara funtsean. Ikus dezagun, laburzki, aditu horiek (horietariko zenbaitek, gure ustez adierazgarrienek) gai honetaz zer esan duten.

Arnasguneen garrantziaz kanpoko eta etxeko zenbait adituk esandakoa

Ondoko galdera hauei erantzuten saiatu izan den aditurik bada, kanpoan zein etxean: 1) ahuldutako hizkuntza indarberritu eta “bere onera” ekarri ahal izateko, zer behar da batez ere? 2) hiztun-elkarte batean hiztun batzuek baizik jarraitzen ez badute beren hizkuntza belaunez belaun transmititzen, nondik komeni da hiztun-elkarte hori berregiten hastea? Goazen atalez atal.

1) *ahuldutako hizkuntza indarberritu eta “bere onera” ekarri ahal izateko, zer behar da batez ere?* Era askotako erantzunak eman izan zaizkio galdera honi⁵²: erantzun horien errepaso arin bat nahi duenak ikus beza, adibidez, Zalbide 2002. Aniztasun horretatik funtsezko planteamenduetara hurbildu nahirik, kanpoko eta etxeko aditu bi aukeratuko ditugu gaurkoan. Ez dira inondik inora bakarrak. Bai, ordea, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko orduan kontuan izan beharreko elementu nagusiez aski argi eta ozen

Haur-gazte-helduen katean, jaiotzatik hasi eta 35-40 urtera arteko ibilbide luze-bihurrian, eusk > erd mintzaldaketarik ez da arnasguneetan luze-zabal gertatzen ari.

**Etxean eta
familiar, auzoan
eta kalean, giza
arteko jardunean
eta herri-bizitza
zabalean nagusi
izan behar du
euskarak,
zaharren eta
gazteen artean
nagusi,
eguneroko
mintzajardunari
dagozkionetan.
Gurea bezain
ahuldurik
dauden hiztun-
elkarteen kasuan
jardun- esparru
multzo hori
segurtatzea da
gainerako saioen
euskarri nagusia.**

mintzatu izan direnak eta, oro har, beste aditu askoren bide-erakusle gertatu direnak. Kanpokoen azalpenetan Joshua A. Fishman-en hitzak izango ditugu gogoan, eta etxeoketan Seber Altube hartuko dugu aipagai.

Kanpoen artean honela mintzatu izan da Joshua A. Fishman, behin eta berriz, bere *Reversing Language Shift* edo *HINBE*-saioaren lehentasun-gunea azaltzerakoan: “the fulcrum⁵³ of the *GIDS* scale is commonly⁵⁴ stage 6” (Fishman, 2001: 467). Bere “Stage 6” hori badakigu zein den: “The intergenerational and demographically concentrated home-family-neighbourhood-community: the basis of mother-tongue transmission” (Fishman, 2001: 467). Hots: etxean eta familiar, auzoan eta kalean, giza arteko jardunean eta herri-bizitza zabalean nagusi izan behar du euskarak, zaharren eta gazteen artean nagusi, eguneroko mintzajardunari dagozkionetan. Gurea bezain ahuldurik dauden hiztun-elkarteen kasuan jardun-esparru multzo hori segurtatzea da gainerako saioen euskarri nagusia.

Gatozen etxeko aditura: euskara indarberritu eta “bere onera” ekarri ahal izateko zer behar da batez ere? Bere aurreko edota bere garaiko hainbat herritarren iritzi-azalpenak landuz, sakonduz eta garatuz⁵⁵ erantzun hau emanik dio galdera horri Seber Altubek, duela laurogeitaka urte: “Para la restauración de un idioma, es necesario que una población compacta y bastante numerosa lo use íntegramente como habla propia e íntima suya. La propagación del lenguaje hablado se opera principalmente por expansión natural mediante el contagio oral (hoy es necesario además que vaya apoyada por medios artificiales o docentes), lo cual requiere indispensablemente la existencia, repetimos, de focos o centros de irradiación de cierto volumen y formación compacta (..) en los que viva el idioma a expandir su vida plena, lozana y arraigada.” (Altube, 1936: 73) (Letrakera etzana gurea. Bere ikusmoldearen sintesi-saiorako ikus Zalbide 2016). Lehendik esana zuen Altubek, goiko pasarte horren atariko, beste hau: “la práctica familiar es (..) el medio eficaz o decisivo para el aprendizaje perfecto de un idioma, aprendizaje que se complementa y se consolida con el uso diario en las calles, plazas y demás lugares de reunión entre gentes de pueblo que hablan el mismo idioma (Altube, 1933: 305).

Bistan da aski elkarren eskutik ibiliak ditugula Altube eta Fishman, puntu honetan⁵⁶. Alde kronologiko argi batekin, halere: J. A. Fishman-ek baino ia 60 urte lehenago azaldu zuen bere ikuspegia S. Altubek (eta are hogeitaka urte lehenago S. Aranak). Egunen batean aurrez aurre heldu beharko zaio gerra aurreko hizkuntza-soziologiaren gai horri⁵⁷, euskalgintzaren argi-ilunak nazioarteko perspektiban egoki kokatu eta zuzen baloratu ahal izateko.

2) *Hiztun-elkarte batean hiztun batzuek baizik jarraitzen ez badute beren hizkuntza belaunez belaun transmititzen, nondik komeni da hiztun-elkarte hori berregiten hastea?*

Eguneroko jardun arruntean beren “betiko mintzoa” alde batera utzi eta erdal hizkuntza nagusira mintzaldatu diren hiztun-talde gero eta ugariagoetatik (eta talde horiek bizi diren ingurumenetatik) ekin behar zaio bereziki indarberritze-saioari, ala eguneroko jardun arruntean euskaraz diharduen (gero eta urriagoko) hiztun-multzo trinkoenetatik? Bistan da “leku guztietatik ekitea” dela irtenbide hobereana, ahal izanez gero, kasuan kasuko indartze-bidea aplikatuz han-hemen. Inork ez du, dakigularik, orotariko bide gihartsu hori gaitzetsi eta gaitzesten. Lehenetasunak lehenetasun dira ordea edozein giza-jardunetan, banaka zein taldean: “Quien mucho abarca poco aprieta” urrezko arau da edonon. Hots, bide bat hartu behar izaten da maiz, guztia egin ezin delako sarri. Guzti-guztia egin ezin denean “guztia ona da” esatea itsu bezain antzu da. Hori horrela dela jakinik, non dago euskalgintzaren lehenetasun-oinarria? Ahuldutako hizkuntzaren alde gauza “guztiak” egin ezin direnean, zer da hobe?

Hona Joshua A. Fishman-ek zer dioen⁵⁸:

“An early *start before inter-generational mother-tongue transmission has ceased* to occur is worth more than tons of sage advice. *It is better and easier to foster informal life when it still exists. It is the hardest thing to create afterwards.* It is very hard to create, to program that which is essentially not programmed or programmable. At best, you can program situations that might facilitate it” (Fishman, 2007 [1996]).

(Beltzeko letrakera etzana gurea).

Labur bilduz: indarberritze-saioen beste hainbat eginbehar ukatu edo gutxietsi gabe, bizirik dagoenari bizirik eustea da, Fishman-en esanean, eginkizunik artezena. “It is better and easier”.

Zer dio honetaz Altubek? Hona bere azalpena:

“Será necesario que cuidemos, con preocupación *primordial, la conservación* (...) *del* fuego sagrado del *euskera en las poblaciones* de alguna importancia *en que aún permanece vivo*, pues constituyen los últimos reductos de defensa, las últimas bases para una posible expansión futura.” (Altube, 1936: 73)

(Beltzeko letrakera etzana gurea).

Hiztun-elkarte batean hiztun batzuek baizik jarraitzen ez badute beren hizkuntza belaunez belaun transmititzen, nondik komeni da hiztun-elkarte hori berregiten hastea?

**Eguneroko
mintzajardun
arruntak
badakigu gure
artean, azken
bizpahiru
mendean, zer
bilakaera izan
duen: euskarazko
jardun arruntak
atzera egin du,
oro har, Euskal
herriko herri-
herrixka,
eskualde eta
hiri(buru)
askotan.
Euskaratik
erdarara
(gaztelaniara edo
frantsesera)
mintzaldatu da
gure artean
biztanle-multzo
handia, kopuruz
nagusia,
Bidasoaren alde
bietan.**

Alde eta ñabardura asko antzeman litezke bien artean, jakina⁵⁹. Aldeak alde eta ñabardurak ñabardura, funtsezko ikuspegi-ardatza oso antzekoa dute ordea biek: eguneroko jardun arruntean euskaraz diharduen hiztun-multzo trinkotik (nahiago bada: trinkoenetatik) abiatzea komeni da. Arnasguneak ditugu askogatik, egungo egunean, Fishman-en “intergenerational and demographically concentrated home-family-neighbourhood-community” jardungune-esparrua sendoen eta bizien duten ingurumen geoterritorialak. Arnasguneetan bakarrik daukagu egungo egunean, erabat edo nagusiki, Altuberren “población compacta (..) (que) lo use íntegramente como habla propia e íntima suya”. Euskara indarberritzeko saioretan lehentasun argikoak dira hortaz, Fishman-en eta Altuberren esanean, arnasguneak.

IV. ZER ARI ZAIGU ARNASGUNEETAN GERTATZEN?

I
Gizartea aldatuz doa, beti eta nonahi. Mintzajardun arruntaren belaunez belauneko jarraipena ere aldakuntza horren altzoan mamitzen da. Etengabeko aldakuntza horren zati handi bat autorregulatzeko gai den gizarteak “bere hartan” jarraitzen du. Aldatuz doa etengabe hura ere baina, halaz guztiz, “lehengoa izaten” jarraitzen du. Aldatuz doa, adibidez, Soriako hizkera. Bertako biztanleek ez dute Cervantes-en garaiako bezala hitz egiten justu-justu. Ordukoek bezala gaztelaniaz egiten dute ordea, orain ere, beti edo ia-ia beti. Han ere aldatuz doa mintzajardunaren gizarte-moldaera, baina aldakuntza horrek ez du eten-urratu sakonik ekarri: graduala eta selektiboa (izan) da, ezer izatekotan, Soriako mintzajardunaren aldakuntza; oraingo soriarrek darabilten hizkeraren barne-osaera aldatuz joan delarik ere honetan eta hartan, jarraipen-oinarria bere indar bizian gorde du: gaztelaniaz egiten zuten orain dela ehun urte, eta gaztelaniaz egiten dute orain. Orain ere, lehen bezala, gaztelania da Soriako kalean eta lurralde osoko herri-herrixketan jaun eta jabe. Mintzajardun arruntaren belaunez belauneko jarraipena osorik gorde dute Sorian, etengabeko gizarte-aldakuntzaren altzoan. Hori ez da Soriako bitxitasuna. Horrela izan ohi dira kontuak, munduan barrena, osasun oneko hiztun-elkarteetan. Nola dira kontuak gurean? Nola dira oro har, eta nola arnasguneetan?

Eguneroko mintzajardun arruntak badakigu gure artean, azken bizpahiru mendean, zer bilakaera izan duen: euskarazko jardun arruntak atzera egin du, oro har, Euskal herriko herri-herrixka, eskualde eta hiri(buru) askotan. Euskaratik erdarara (gaztelaniara edo frantsesera) mintzaldatu da gure artean biztanle-multzo handia, kopuruz nagusia, Bidasoaren

alde bietan. Bere osoan harturik gero eta gutxiago dira (portzentajez eta, maiz, termino absolutuz) esparru geoterritorial ongi mugatuetan eguneroko jardun arruntean euskaraz ari diren hiztunak. Mintzaldaketa horren zer-nolakoaz ere badakigu hainbat gauza, azterketa sendoagoen zain egonik ere. Luze-zabaleko mintzaldaketa horren faktore eragileak (aurrekariak, bide batezko gertakariak, prediktoreak eta abar) ez gara hemen analizatzen hasiko: beste gai bat da hori. Bestelakoak beste baterako utziz, gatozen gaurko gaira: zer bilakaera izan du eguneroko mintzajardun arruntak gure arnasguneetan? Luze-zabaleko mintzaldatze kontua alde batera utzita (hori ez baita egungo arnasguneetan (luze-zabal) gertatu) zer aldakuntza ari dira arnasguneotan gertatzen, eta zer ondorio ari zaizkigu aldakuntza horiek eguneroko mintzajardun arruntean eragiten? Hots, azter ditzagun arnasguneak azken hamarkada hauetako gizarte-berrikuntzaren argitan.

Arnasguneak salbuespen dira, salbuespen baikor, euskarazko mintzajardun arruntak azken bizpahiru mendeotan Euskal herrian izandako bilakaeran. Euskara jaun eta jabe izan da arnasguneetan, menderik mende. Hala jarraitu du kontuak, XX. mendearen erdi aldera arte: Sorian gaztelania bezala, barne-osaera aldatuz baina eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez “bere hartan irmo” mantenduz, belaunetik belaun transmititu izan da euskara, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, arnasgune askotan.

Aldiz XX. mendean, batez ere azken 60 urte inguruan, bere barne-osaeran aldakuntza bortitzak (ordura arte baino nabarmen bortitzagoak) jasotzeaz gainera nabarmen hasi da arnasguneetako mintzajardun arrunta mendez mendeko irmotasun hura indargabetzen, ahultzen eta ilauntzen. Hori da arnasguneen oraingo nobedadea. Sorian lehen bezain irmo dago “betiko hizkuntza”, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez: ez Soriako kalean eta ez probintziako herri-herrixka bakar batean utzi diote soriarrek gaztelaniaz hitz egiteari. Arnasgune batzuetan ere halatsu (izan) dira kontuak baina guztietan ez. Inoiz baino nabarmenago agertu da indargabetze hori azken 20 urtean, artean arnasgune ziren eta orain besterik diren hainbat ingurumen geoterritorialetan. Zertan antzematen da nobedade hori? Konparazio dikotomiko batez ekingo diogu galdera horren erantzun-bilaketari.

Arnasguneak salbuespen dira, salbuespen baikor, euskarazko mintzajardun arruntak azken bizpahiru mendeotan Euskal herrian izandako bilakaeran. Euskara jaun eta jabe izan da arnasguneetan, menderik mende. Hala jarraitu du kontuak, XX. mendearen erdi aldera arte.

1. Herritar guztiak edo gehienak euskaldun garbi dira/ziren, hizkuntza-gaitasunez. Eguneroko mintzajardun arruntean [...] euskara da/ zen jaun eta jabe. [...]

8. Barne-bizitza handiko herriak dira/ziren arnasgune beteak. Eguneko mintza-ordu asko bertan mamiturikoak, solas eta jolas, face to face interaction gatz-piperdunean.

IV.1 Nolakoak izan dira arnasgune gehienak, orain gutxira arte? Arnasgune beteen hainbat ezaugarri

Gaur bizirik dauden arnasgune gehienak arnasgune bete izanik dira luzaro, mende luzez oro har: arnasgune bete edota, artezago esanik, euskal mintza-esparru bizi-gotor-zabalaren parte. Arnasgune erasan bihurtzen ari dira azken hamarkadotan, gutxi-asko. Honako hamar ezaugarriok defini dezakete, eskuartearen dugun xederako, arnasgune beteak zer (izan) den:

1. Herritar guztiak edo gehienak euskaldun garbi dira/ziren, hizkuntza-gaitasunez. Eguneroko mintzajardun arruntean (etxean eta lagunartean, auzoan edo kalean, plazan, dendan, tabernan, kirolean, partez lanean) euskara da/ zen jaun eta jabe.
2. Haurrak etxean hasten dira/ziren euskaraz egiten: euskara da/zen beren ama-hizkuntza. Eskola erdal-iturri izanik ere, auzo-kale-lagunarteak indartu egiten du/zuen neska-mutilek etxetik ekarritako mintzamen-gaitasuna: gazteak euskal-elebatar edo euskal-elebidun dira/ziren.
3. Konpartimentazio soziofuntzional argia dago/zegoen herrian: ahozko jarduna, (ia) beti euskaraz; irakur-idazketak, erdaraz.
4. Transbase demografikoa murrizta da/zen herrian edo eskualdean: bertan jaiotako gehienak bertan edo inguruan bizi izaten dira/ziren; bertako heldu gehienak, berriz, bertan (edo inguruko arnasguneren batean) jaiotak.
5. Ezkontidea edo bizilaguna ere, maiz, euskaldun zaharra da/zen. Bikote berrien etxeetan, horri eskerrak besteak beste, euskara da/zen jaun eta jabe.
6. Lana, maiz, herrian edo eskualdean egiten da/zen arnasgune beteetan: baserrian, lantegian, (orain inoiz hirugarren sektorean). Lan-giroan euskara presente, nolanahi ere.
7. Garraiobide nagusietatik eta industrialde eta merkataritza-gune aktiboenetatik konparatiboki urrun daude/ zeuden arnasgune beteak. Isolamendu fisikoa dute/zuten, gutxi-asko.
8. Barne-bizitza handiko herriak dira/ziren arnasgune beteak. Eguneko mintza-ordu asko bertan mamiturikoak, solas eta jolas, *face to face interaction* gatz-piperdunean.
9. Herritarren eskubide-obligazioak indarrean daude/ zeuden arnasgune beteetan, nagusiki *Gemeinschaft* moldean Tönnies 1887. Auzo-lana ere bizirik, eta eskubide-obligazio horiek zurkaizturiko herri-giroa sendo.
10. Berariazko euskal kultura aski bizirik dago/zegoen arnasgune

beteetan, eguneroko bizimoduaren hainbat esparrutan: jan-edanean, janzkeran, kirol-jolasetan, fede-sinesmenean, emandako hitzari eusteko ohituran, bertsotarako eta karta-jokorako afizioan,...

IV.2 Nolakoak dira oraingo arnagune askotxo? Arnagune erasanen hainbat berritasun

Gaur bizirik dauden arnagune asko (agian arnagune gehienak) aski erasanik daude. Arnagune erasan bihurtu (edo bihurtzen ari) dira azken hamarkadotan. Honako hamar ezaugarriok defini dezakete orain ere, eskuartean dugun xederako, arnagune erasana zer den:

1. Herritar guztiak edo gehienak euskaldun elebidun dira. Haurrak etxean hasten dira orain erdara ere ikasten (inoiz, erdaraz egiten ikasten): horren ondorioz euskara-erdarak (biak, ez bat) dira hainbat haurren ama-hizkuntza. Eguneroko mintzajardun arruntean (etxean eta parkean, auzoan edo kalean, plazan, dendan, tabernan, kirolean) maizenik euskara da nagusi. Ez, ordea, lehen bezain jaun eta jabe.
2. Auzo-kale-lagunarteak eutsi egiten die orain ere neska-mutilen euskarazko mintzamen-gaitasunari: gazteak, oro har, elebidun aktibo dira; horietariko hainbat, ez ordea guztiak, euskal-elebidun. Euskaldun elebakarrik ez dago halere herrian. Eskola, lehen ez bezala, euskal-iturri da horrezaz guztiaz gainera.
3. Arnagune barruko konpartimentazio soziofuntzionala ahultzen ari da. Partez euskararen onean (lehen baino nabarmen gehiago irakurtzen da orain euskaraz). Nagusiki bere kaltean, ordea: erdarazko mintzajardun arrunta “etxekotzen” ari da, eta euskarazko nagusitasun-moldaera gotorra gesaltzen. Mintzabide bakar edo nagusi euskara zeneko jardunguneak, harreman-sareak, situazioak, mintzamoldeak eta agerbideak ahulduz doaz. Aldiz, herritarrek nonahi eta nornahirekin “batera zein bestera” egin ohi duten egoerak zabaltzen hasi dira.
4. Transbase demografikoa handituz doa. Kanpokoak herrira datoz eta herrikoak kanpora doaz: herritar batzuek aldi baterako, beste hainbat (batez ere bertan bizi izatera datozenak) bizialdi zabalerako.
5. Ezkontidea edo bizilaguna erdal elebiduna da gero eta maizago. Bikotekide biak ere bai, inoiz, kanpotik etorritakoen kasuan.
6. Automozioa guztion eskura dago. Autobide nagusiak zein garrario-zerbitzuak, eta horien bidez herriburu, hiriburu eta merkatalgune aktiboenak, aski hurbil ditugu orain. Isolamendu fisikoa zartatu eta hutsaldu egin da. Gero eta herritik urrunago egiten da lan: arnagune-esparrutik kanpora, askotan.

Arnagune barruko konpartimentazio soziofuntzionala ahultzen ari da. Partez euskararen onean (lehen baino nabarmen gehiago irakurtzen da orain euskaraz). Nagusiki bere kaltean, ordea: erdarazko mintzajardun arrunta “etxekotzen” ari da, eta euskarazko nagusitasun-moldaera gotorra gesaltzen.

**Herri-giroa
ahulduz doa,
horren guztiaren
eraginez.
Eguneko hainbat
mintza-ordu
herritik kanpora
mamitzen dira,
edota erdara
nagusi den
konexio-bideen
ildotik (telebista
etab). Bertako
face to face
interaction bizi,
gatz-piperduna
bakantzen eta
inbertsonalizatzen
ari da.**

7. Irrati-telebistak, telefonia berria, internet etab. aparteko iraultza eragiten ari dira hiztunon interkonexio-sarean: harreman-sare birtualak hedatuz eta indartuz doaz. Horien laguntzaz etxean sartu da erdara.

8. Herri-giroa ahulduz doa, horren guztiaren eraginez. Eguneko hainbat mintza-ordu herritik kanpora mamitzen dira, edota erdara nagusi den konexio-bideen ildotik (telebista etab). Bertako *face to face interaction* bizi, gatz-piperduna bakantzen eta inbertsonalizatzen ari da.

9. Herritar izatearen eskubide-obligazioak *Gesellschaft* giroan, ez *Gemeinschaft* moduan, hezurmamitzen dira gero eta maizago. *Vergemeinschaftung* eta *Vergesellschaftung* sailean aldakuntza ohargarriak ageri dira herrian: ekinbide arrazionala (*rationales Gesellschaftshandeln*) zabalduz doa herritar askoren jardunean, eta erantzukizun moralaz gantzuturiko gizalege tradizionala makalduz.

10. Berariazko euskal kultura ahultzen ari da (jan-edanean, jazkeran, jolas-kiroletan,..), bere hainbat elementu bizirik badago ere oraindik.

Ez dago motibo argirik, azken urteotako berrikuntza-multzo horri buelta emango zaiola uste izateko. Errazago gertatuko da, ezer gertatzeotan, azken hamarkadotako globalizazio-prozesuak begien bistako etorkizunean bizirik segitzea eta, agian, are esparru zabalagoak bereganatzea. Horrekin kontatu beharra dago, amets-sehaskan kulunkatu nahi ez badugu.

IV.3 Gizarte-aldakuntzaren batez besteko ondorioa

Berriro heldu behar diogu gizarte-aldakuntzaren gai honi, bai baitago joera gure artean, arnasguneen garrantzia azpimarratzen dugunok batez ere nostalgiaren zurrunbiloak garabiltzala uste izateko. Gauzak ez dira nire ustez horrela. Gizarte-aldakuntza bortitzak gertatu dira azken hamarkadotan, eta horiek guztiek eragin bizia (izan) dute eguneroko mintzajardunaren zer-nolakoan eta belaunez belauneko jarraipenean: bai oro har eta bai, oso bereziki, arnasguneetan. XX. mendeko transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural, lurralde-antolamenduzko eta soziopolitikoek eragin ohargarria izan dute arnasguneetan: kalean bezain handia eta, agian, han baino bizkorragoa. Eragin bizia sortu dute transformazio horiek arnasguneetako hainbat hiztunen eguneroko mintzajardun arruntean. Ordura arte arnasgune bizi-osasuntsu izandako zenbait eskualdek eta hainbat herri-herrixkak arnasgune izateari utzi dio XX. mendean: batez ere azken 60 urtean gertatu da hori. Horregatik, a) arnasgune izandako ingurumen horien

mintzajardun arruntean euskara ez da nagusi (erdara, edo biak, ditugu gailen) eta b) euskarazko mintzajardun arruntaren belaunez belauneko jarraipen-bermea galdu da. Beste zenbait ingurumen, hain aldakuntza bortitzera lerratu gabe ere, *arnasgune beteen* izaera galtzen ari da: *arnasgune erasan* bihurtu ziren batzuek 1960 inguruan; *arnasgune erasan* bihurtzen ari dira geroztik beste hainbat: batez ere azken hogeitun urtean.

Fenomeno larria da hori euskal hiztun-elkartearen etorkizunerako. Arnasguneotan ari da, gure begien aurrean, euskal mintzajardun arrunta “odol-husten”. Hor ari gara belaunez belauneko jarraipen-partida normala, “noiznahi-nonahikoa”, galtzen. Euskal herriaren periferian eta hiriburuetan nabarmen ahulduz baina, hala ere, mende luzez bere buruari eutsiz gugana iritsi den euskal hiztun-elkarte jator, etnolinguistikoki osasuntsu eta biziena gure begien aurrean gesaltzen, odol-husten eta heriobidean sartzen ari da arnasguneetan. Nola? Erdara aspaldi honetan jaun eta jabe den eskualde osoetan edota hiriarte populatuenetan bezala, hainbat arnasgunetan arau bihurtu da euskara-erdaren norgehiagoka deskonpartimentatua. Euskara-erdaren eguneroko erabilera arrunta soziofuntzionalki deskonpartimentatu ahala, menderik mende nagusi izandako euskal mintzo bizia bere azken partida galtzen ari zaigu hor. Euskarazko nagusitasun-moldaera konpartimentatua (diglosiazkoa, bai, bere aje guztiakin; baina bizi-emailea) desagertzea galera handia da hiztun-elkarte (edota, bere neurrian, arnasgune) ororentzat.

IV.4 Arnasguneen sailkapen hirukoitza: arnasgune mota nagusiak

Gorago esan dugunez, barne-aldakortasun nabarmena ageri da gaur egun han-hemengo arnasguneetan. Guztiak osasuntsu izanik ere sailkapen nagusian (hots, aski osasun onean egonik ere “arnasgune ez diren” herriekin eta eskualdeekin konparatuz), gaurko arnasgune guztiak ez dira, urrundik ere, osasun-maila berekoak. Ikusia dugu, lehendik, gutxienez bitan bana litezkeela egungo arnasguneak: beteak eta erasanak. Zertxobait sakonago ere joka liteke, are bereizbide xumeagoak ikertuz. Hiztun-elkarteen osasun-maila neurtzeko parametro tekniko nagusiak kontuan izanik, orain arteko osasun-neurpide ezagunenak aintzakotzat hartuz eta gure egoera konkretura doitzuz, hiru multzo nagusitan banatu izan ditugu arnasguneak oraindik asko ez dela: sigla bidez *BZ-5*, *BZ-6a* eta *BZ-6b* izendatu izan ditugu hiru multzo horiek (ikus Zalbide 2016: 113-115). Txosten honen eranskin moduan dator sailkapen horren azalpen xehatua. Hona hemen, labur bilduz, hiru arnasgune mota nagusiak:

Arnasgune beteen izaera galtzen ari da: arnasgune erasan bihurtu ziren batzuek 1960 inguruan; arnasgune erasan bihurtzen ari dira geroztik beste hainbat: batez ere azken hogeitun urtean.

**Erronka asko
dituzte
arnasguneek,
XXI. mende
honetan
arnasgune izaten
segitu ahal
izateko. Erronka
asko, eta aski
bihurriak.
[...]
Erronka
demolinguistikoa,
erronka
sozioekonomikoa,
erronka
soziokulturala.**

- **BZ-5: arnasgune bete garatuak.** Beren artean (eta beste hainbat euskaldunekin) euskaraz ari izaten dira arnasguneotako herritar gehien-gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Irakurri eta (hainbatean) idatzi ere euskaraz egiten dute eguneroko kontuez, batez ere bertako berriez. Euskal literatura (prentsa barne) sarri eta zabal kontsumitzen dute, erdarazkoaz bat.
- **BZ-6a: arnasgune bete hitzezkoak.** Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6a)-ko herritar gehien-gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Irakurri eta (berezi) idatzi, aldiz, erdaraz egiten dute beti edo ia beti.
- **BZ-6b: arnasgune erasanak.** Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6b)-ko herritar gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Txikiagoa izanik ere bada herrian, halere, erabat edo nagusiki erdaraz egiten duen hiztun-multzo ohargarririk. Irakur-idatzizko jardunean ez dago nagusitasun-arrasto zurrunik: euskaraz maiz irakurtzen eta idazten duten herritarren ondoan asko dira erdara hutsezkoak, tarte-bitarteko segmentu zabala ere hor delarik.

XX. mendearen bigarren erdialdera arte (BZ-6a) neurri-mailan egondako hainbat arnasgune (BZ-6b) mailara pasa da geroztik. Beste hainbatek azken hamabost-hogei urtean izan du osasun-galera hori, edota oraintxe ari da aldatzen. Batez ere EAEn eta Nafarroako euskal eremuan ari da indar-galtze hori gertatzen (Iparraldean lehenago hasi ziren azken arnasgune bateak galtzen).

V. ZEIN DIRA ARNASGUNEEN ERRONKA NAGUSIAK?

I

Erronka asko dituzte arnasguneek, XXI. mende honetan arnasgune izaten segitu ahal izateko. Erronka asko, eta aski bihurriak. Arnasgune gehienak neurritz txiki izatea eta banandurik egotea (ez elkarren pegante), jarduera sozioekonomikoz esfera handiagoen gero eta mendeago izatea eta, kultura supraetniko modernoaren etengabeko eraginpean bizi behar izatea, luzaro hain berea izan duten soziokulturazko autorregulazio-ahalmena arras murriztu zaielarik, ez dute mesedeko; bai, aldiz, arazo askoren iturri. Kopuruz ugari eta izaeraz askotakoriko izanik ere, hiru erronka hauek dira gure ustez nagusi.

- **Erronka demolinguistikoa:** kopuruz eta kontzentrazioz bere buruari nola sendo eutsi. Bestela esanik, behar adinako arnasguneen iraupen-oinarri demolinguistikoa nola segurtatu.

- **Erronka sozioekonomikoa:** bideragarritasun sozioekonomikoa bermatu behar zaie arnasguneei eta beren ingurumenari.
- **Erronka soziokulturala:** bizimodu konpartimentatu zaharra joan da, ia erabat, eta bizimodu deskonpartimentatu berria ez da jatortasun etnokulturalaren (eta, horren barruan, hizkuntza ahularen) lagungarri gertatzen ari. Moldaera soziokultural berri bat adostu eta aplikatu behar da herri-giroan. Euskarazko jarduna zurkaizteko lain den konpartimentazio berri bat segurtatu behar da: hori segurtatu gutxienez, eta hortik gora egin ahal den guztian.

Hiru erronka nagusi horiei erantzun behar diete arnasguneek, ez bati edo biri, hurrengo urteotan. Hiru erronka horiek hor egongo dira, gero ere. Ez ikusia egiteak ez du balio: aurrez aurre heldu behar zaie hirurei.

Erronka bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Berariaz aztertu eta landu behar da hortaz: erronka bati erantzuteko mesedegarri dena, kalte-iturri nabarmen gerta liteke beste batentzat edo beste bientzat. Herriaren arrakasta ekonomikoa, adibidez, erdal immigrazio-iturri eta urbanizazio trumiltsuaren eragile izaten da sarri. Ekonomiaz bideraezin bihurtzeak, bestalde, indargabetze demolinguistiko nabarmena ekarri ohi du sarri berekin.

Hiru erronka horiek beregainak eta bereiziak izanik ere, elkarri loturik daude hertsiki: elkarren mendeko edo interdependente dira, ez independente. Perspektiba global-interkonektatu zabala oso kontuan izan behar da hortaz, erronka nagusiei atalez atal jarduterakoan.

Hiru erronka nagusiok banan-banan zehaztuko dira ondoren, atalez atal landuz eta, inoiz, azpiatalak azalduz.

V.1 Erronka demolinguistikoa: hiztun-kopuruz eta kontzentrazioz bere buruari nola sendo eutsi

Erronka handia da demolinguistikoa, oro har txikiak (hainbatetan oso txikiak) diren arnasgune askorentzat. Haur gutxi jaiotzen bada arnasgunean, erdaldun edo erdal-elebidun asko herrira etortzen bada bizi izatera edota bertako gazte asko kanpora joaten, kopuruz eta kontzentrazioz ahuldu ahala gero eta zailagoa izango da arnasguneak arnasgune izaten segitu ahal izatea. Euskaldun aktibo izaten segitu behar dute arnasguneeko biztanleek (guztiek edo gehien-gehienek), euskarak bertako mintzabide nagusi izaten jarrai dezan. Hiru ertzeko erronka-atal hauei egin behar diete aurre, horretarako:

Hiru erronka nagusi horiei erantzun behar diete arnasguneek, ez bati edo biri, hurrengo urteotan. [...]

Hiru erronka horiek beregainak eta bereiziak izanik ere, elkarri loturik daude hertsiki. Perspektiba global-interkonektatu zabala oso kontuan izan behar da hortaz, erronka nagusiei atalez atal jarduterakoan.

**Arnasguneak
bideragarri izan
behar du
sozioekonomi-
koki, iraungo
badu.
Horretarako, [...] lanpostua behar dute arnasguneko herritarrek herrian bertan edo inguruan. Hor dago koska.**

- *Haurrak sortu behar dira: ahalik eta haur gehien.* Europako jaiotza-tasen sailkapenean atzera gabiltza euskaldunok; arnasguneetakook ere bai. Hor daukagu beraz lehenengo erronka: haurrak behar ditugu, Euskal herrian oro har eta arnasguneetan bereziki. Haurrik gabe, arnasguneek ez dute bizirik; ez euskarazko bizirik eta ez (immigrazio bortitza salbu) erdarazkorik. Azken berrogei urteko joera nagusia iraultzea, hori da arnasguneen lehenengo erronka bizia.
- *Etorbin erdal(-elebi)dun asko ez da etortzea komeni, kolpean.* Immigrazio oldarkor eta bat-batekoa arrisku handia da: kanpotik arnasgunera bizi izatera asko eta bat-batean baldin badatoz, eta beren artean batez ere erdaraz ari badira, euskarazko mintzajardun arruntaren ordura arteko nagusitasunari eustea zaila izango du herriak. Erronka handia da bigarren hau ere: handia eta, itxura osoz, puntu batetik aurrera oso nekez (agian ezin) kontrola litekeena.
- *Gazte-jendeari herrian eutsi, ahal den neurrian.* Bertako gazteak samaldan kanpora badoaz bizi izatera, kopuruz eta belaunez belauneko jarraipen-aukeraz gogor ahulduko da herria. Hori da arnasguneen hirugarren erronka demolinguistikoa: bertan jaiotako (edo umetan bertara etorritako) gehienek bikote euskalduna egin, bertan bizi izaten gelditu eta familia bertan sortzea, bertako herri-giroan errotuz eta belaunez belauneko jarraipen katea osatuz.

V.2 Bideragarritasun sozioekonomikoaren erronka

a) Lana behar da, arnasgunean bertan edo inguru hurbilean

Arnasguneak bideragarri izan behar du sozioekonomikoki, iraungo badu. Horretarako, besteak beste, lanpostua behar dute arnasguneko herritarrek herrian bertan edo inguruan. Hor dago koska: herritarrek lana herrian edo inguruan izatea gero eta zailago bihurtzen ari da. Arrisku bizia du horrek: bertan edo inguruan lanik ez badago beste norabait joango da jendea, gaur ez bada bihar. Beste norabait joango da bizi izatera edota, gutxienez, egunaren ordu gehienak han pasatzera. Era batean zein bestean, beste bizi-ingurumen dinamikoago baten mirabe bihur liteke herritar asko eta arnasguneko herritarrekin ordura arte izandako harreman-sare trinkoak ahuldu egingo dira nabarmen.

Badakigu Espainia gehienez (Gaztela aldean, urrutirago gabe) 1955etik 1975era bitartean ehunka herri nola hustu zen. Zergatik ere bai: bertako biztanle (batez ere lan-adineko gazte) askorentzat bideraezin bihurtu zen herrian edo inguruan lan eginez bertan bizi ahal izatea. Gertakari sozioekonomiko hori ondo ezagutu izan da hemen ere: baserriko gazte

asko jaitzi izan da XX. mendean kalera; lehenik lanera eta gero, sarri asko, han bizi izatera. Gero ere horrela izango dira kontuak: bideragarritasun sozioekonomikorik gabe jai dute arnasguneek.

Herritarrek banaka bezala, herriak berak ere bizi-oinarri ekonomiko naturala behar du bere osoan, guztia diru-laguntza ofizialetara mugatu gabe. Bere buruari eusteko gai den lan-jarduera lokala da, egungo egunean ere, herri-herrixken diru-iturri osasuntsuena. Jarduera ekonomiko eta diru-sarrera lokal horiek gabe, udal-bizitzari herritarren esfortzu hutsez eustea ere gero eta lan zailagoa da.

Labur bilduz: behar adinako (ez gehiegi eta ez gutxiegi) eta xede zuzeneko (ez norabide okerreko) bideragarritasun sozioekonomikorik gabe arriskua dago arnasguneak husteko edo lo-hiri huts bihurtzeko: eguneroko bizimoduaren zati handi bat herritik kanpora egiteko eta, horrenbestez, herri beregain eta “konpleto” zirenak lo-gune (edo aste-bukaerako atsedeen-leku) bihurtzeko.

Oso erronka bizia da hau⁶⁰. Nola lortu, jendeak herrian edo inguruan lana izatea eta, horri eskerrak, orain puntura arte arnasgune bete izandakoak gero eta hutsago, gero eta barne-biziz hutsalduago, ez gelditzea? Nola lortu, orobat, arnasgune horiek eskualdeko herriburu nagusiaren langile-iturri eta, maiz, lotarako erretiro-gune ez bilakatzea? Bideragarritasun horrek egokia izan behar du, bai neurritz eta bai norabidez. Lan zaila da oso, baina ezinbestekoa.

b) Babes-laguntza eta erosotasun basikoak behar dira arnasgunean

Itxurazko diru-sarreraz gainera oinarritzko zerbitzu publikoak, erosotasun-aukerak eta babes-laguntza sozialak behar dituzte arnasguneetako biztanleek, bertan bizi izaten segitu ahal izateko: zerbitzu publikoei dagokienez funtsezkoak dira lehen mailako eskola (haurtzaindegia barne) eta osasun-atentzio basikoa (astean behingo kontsulta gutxienez; biztanle-kopuruz ahal bada, egunerokoa).

Horrekin batera oinarritzko erosotasunak behar dituzte arnasguneetako biztanleek, bertan bizi izateko: bide eta kale, ezpaloi eta aparkaleku, haur-parke eta kiroldegi, bilgune eta taberna, ahal bada denda eta kutxazain automatiko,...

Babes-laguntza sozialetan ere (adinekoen atentzioan bereziki) badute premia bizirik. Horiek ere kontuan hartu behar dira, jende-kopuruak hartarako bide ematen duen neurrian noski, arnasguneetan.

Behar adinako (ez gehiegi eta ez gutxiegi) eta xede zuzeneko (ez norabide okerreko) bideragarritasun sozioekonomikorik gabe arriskua dago arnasguneak husteko edo lo-hiri huts bihurtzeko.

“Herri-giroa” oso berea izan dute arnasguneek. Aldatuz doa hori ere, ordea.

V.3 Erronka soziokulturala

a) *Gemeinschaft*-elkartasuna eta *Gesellschaft*-gizartea egoki uztartu behar dituzte arnasguneek

Eguneroko mintzajardun arruntaren bizi-iraupenerako hain bizia eta babesgarria izan duten herri-giroa galdu gabe egin behar dute sendoa uztartze-lan hori. Uste baino lan nekezagoa da hori ere. Zergatik hain nekeza den azaltzeko, abia gaitezen perspektiba teoriko zabaletik, Ferdinand Tönnies-ek eta Max Weber-ek goldaturiko ildotik. Tradiziozko norma-araudia (kristandadea eta gizalegea) izan da, sarri, *Gemeinschaft*-elkartasunaren oinarri nagusi. Hainbat eskubide eta eginbehar argi izan ditu bide-erakusle: tartean, auzo-lana. Ongi-izate kolektiboa eta erkideekiko lotura, “a universal sense of solidarity” deitu izan dena, estimu handitan izan dira normalean elkartasun-giro horretan. Aurrez aurreko harreman-bide xumeak, emozio eta sentiera espontaneous oraturiko tratuak, leku zabala izan du *Gemeinschaft*-elkartasun horretan.

Burokrazia administratibo eta industria-antolamendu zabaleko gizarte moderno gehien ezaugarri da, aldiz, *Gesellschaft*-gizartea, helburu jakinera iristeko bide egokiena hotz-hotz hautatzen saiatzen den jokamolde arrazionala. Pisu handia du hor interes pertsonalak: familiaren, lagunartean eta herritarren ongi-izate kolektiboari arrazoibidezko efizientzia (edo beste zenbait kontsiderazio ekonomiko edo politiko zabal) gailentzen zaio, sarri, *Gesellschaft*-gizartean.

Gemeinschaft moduko elkartasun-giroa, “herri-giroa”, oso berea izan dute arnasguneek. Aldatuz doa hori ere, ordea. *Gemeinschaft*-elkartasuna, behinolako *communal society* delakoa, ahultzen ari da eta, ordainetan, zabalduz doa *Gesellschaft*-gizartea, *associational society* delakoa.

Aldakuntzak aldakuntza eta neurriak neurri, *Gemeinschaft*-elkartasuna eta *Gesellschaft*-gizartea bizirik ditugu arnasguneetan. Bigarrena (Tönnies-en eta Weber-en *Kiirville*-n oinarrituriko *Gesellschaft*-gizartea) nabarmen zabaldu Tönnies-en eta Weber-en bada ere azken hamarkadotan, ez du lehenengo (*Wesenwille*-n oinarrituriko *Gemeinschaft*-elkartasuna) erabat baztertu. Badago arriskua, ordea, *Gesellschaft*-gizartea arras nagusitzeko. Erronka handia da hori ere arnasguneentzat, *Gemeinschaft*-elkartasunean baitute beren jatortasun-oinarria.

b) Euskarazko bizi-giro arruntari bizirik eusteko beregaintasun-erronka

Emozioz kargaturiko *Gemeinschaft-elkartasuna*, ohiko herri-giroa, ez du *Gesellschaft-gizartearen* balio-sistema arrazionalak bakarrik ahultzen. Arnasgunetik kanpora osatzen eta mamitzen den estilo soziokultural supraetniko oso bat da, horrekin batera, arnasguneen orain gutxira arteko herri-giroa nabarmen ahultzen, inoiz indargabetzen, duena. *Bizimodu Berri* horren ildotik gero eta espazio meharragoa gelditzen da arnasguneeko herritarrek beren artean euskaraz jarduteko. Izan ere, gero eta maizago lana herritik kanpora egiten bada, erosketak eskualdeko merkatalgune handietan, edota zuzenean hiriburuan, egiten badira, goimailako ikasketak eta hainbat ikastaro (gida-baimena, informatika, ingelesa...) hiriburuan edo herriburuan izaten badira, aisialdia (kirol eta dantza, gimnasia eta *wellness*,...), herritik kanpora osatu ohi bada nagusiki, medikutara edo bestelako osasun kontuetara herriburura edo hiriburura joan behar izaten bada normalean, oporrak eta jai-zubiak herritik kanpora pasatzen badira, eta interakzio horietan erdara baldin bada oro har nagusi, askotan jaun eta jabe,... jarduera-multzo zabal horrek ahuldu eta murriztu egiten du herri-giroa. Familia-esparru hutsetik kanpora gero eta espazio mugatuagoa gelditzen da arnasguneetan libre, herritarrek beren artean jarduteko, egunean eguneko bizi-poza eta atsekabe-samina elkarri adierazteko, lagunarteko bizi-giro beroa suspertzeko eta sormen-gogoari hegoak zabaltzeko. Hots: herritar izateko, sentitzeko eta eragiteko. Herriko bizi-giro arrunta kolokan dago, gero eta sarriago, interakzio-esparru beregain horren faltaz edo ahulaz. Hori gabe zail da euskarazko bizi-giro arruntari indar betean eustea. Euskarazko jarduna, familia-esparrutik harantzkoa, nabarmen murrizten du lagunarteko eta herri-giroko interakzio falta horrek. Zabaltzen ari garen bizimodu berria aski eszenario inhospitua bihurtzen ari da lekuan lekuko jatortasun etnokulturalari, modernotasunaz batera, bere lekua eskaintzeko.

Moderno-supraetnikoa eta jator-bertakoa berekin izango dituen legami soziokultural hori gabe, berriz, zertarako euskaraz jardun? Erdaraz lasai asko esaten, egiten eta sentitzen ditugun gauza berberak euskaraz adierazteko? Mamirik gabeko azal huts izateko? Euskarazko bizi-giro arruntari bizirik eusteko orduan erronka handia dugu, bistan denez, beregaintasun soziokulturalaren auzia.

c) Euskara-erdaren erabilera konpartimentatzea

Aurreko faktore guztien eraginez, arnasguneetako hiztun (gazte) askoren osaera linguistikoa aldatuz doa: (*euskaldun elebakar* >) *euskal elebidun* >

Familia-esparru hutsetik kanpora gero eta espazio mugatuagoa gelditzen da arnasguneetan libre, herritarrek beren artean jarduteko, egunean eguneko bizi-poza eta atsekabe-samina elkarri azaltzeko, lagunarteko bizi-giro beroa suspertzeko eta sormengogoari hegoak zabaltzeko. Hots: herritar izateko, sentitzeko eta eragiteko.

**Hiztun-taldeari
begira (ez
norbanako
jakinen artean)
hiru irteera
ditugu teorian
posible,
etorkizun ez hain
urrunean:
A (euskara
hutsezko
bizimodua, hitzez
eta idatziz),
B (euskara-
erdaren
konpartimentazio
soziofuntzional
berria) eta
C (erdara
hutsezko
bizimodua).**

erdal elebidun. Eguneroko bizimodu arruntaren legami eta oinarri diren interakzio informal-intimoetan, hiztun horiek eroso(ago) sentitzen hasi dira erdaraz eta, arnasmunean bertan, mintzajardun arrunta (berena eta ingurukoena) erdal bidera makurtzen hasi dira. Inon idatzi gabeko (baina, inork eztabaidatzen ez zuenez, gizarte-bizitzaren euskarri gotor zen) “hemen euskaraz egiten da” norma soziala ahulduz doa. “Halakotan erdaraz egiten-irakurtzen-idazten da, baina gainerako guztian euskaraz egiten dugu” zioen arau unibertsala, konpartimentazio soziofuntzional argia zekarrena, apurtuz doa begien bistan.

Hiztun-taldeari begira (ez norbanako jakinen artean) hiru irteera ditugu teorian posible, etorkizun ez hain urrunean: A (euskara hutsezko bizimodua, hitzez eta idatziz), B (euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzional berria) eta C (erdara hutsezko bizimodua).

Euskara hutsezko A bizibiderik ez dago arnasmuneetan. Are nekezago izango da halakorik gero, gizarte-urak beren bidetik badoaz: a) erdararen nagusitasun-moldaera hain zabala eta hain sakona izanik gure artean, eta inork “bere arnasmunean ixkutaturik” bizi nahi ez duenez, erdararik gabe ezin da bizi: erdaldunekin erdaraz egin behar; b) euskaraz jardun litekeenean ere, beti-beti ez da nahi izaten: euskaraz bezainbat (edo sarriago) erdaraz ikusten du hainbat euskaldunek telebista; egunkaria erdaraz irakurtzen du askok; erdaraz (tartean ingelesez) ari dira sarri, gazteak, internet-en. Erdal munduarekin erdaraz interaktuatzeko da arnasmunean ere, bertatik irten gabe, gero eta maizago. Praktikan B eta C aukerak bakarrik daude, hortaz. Euskarak iraungo badu, C-k ez du balio. Bide posible bakarra B da.

Nola antolatu, ordea, B deitu diogun elkarbizitza hori? Euskarari “bere lekua” aitortuz. Konpartimentazio hori gabe, euskara-erdaren botere-desoreka izugarriak hartaraturik C egoerara goaz, nahi eta ez, bizpahiru belaunalditan. Hizkuntza-soziologiaren oinarri-oinarrizko teoriak hala dio; funtsezko teoria ez da, honetan ere, inolako txantxa. Arnasmuneetan inon baino egingarriago izanik ere bizibide hori (hala egin izan dute luzaroz), euskararen espazioa zurkaiztu eta konpartimentazio-formula iraunkorrez segurtatzea erronka handia da.

Konpartimentazio soziofuntzional hori asmatu eta berregin beharra dago, goitik behera: formula zaharra galtzen ari da eta berria ez da bere lekuaz jabetu. Lan zaila da hori: a) jakite aldetik zaila (asmatu egin behar da, “hemen eta orain” egiten); b) emozionalki beldurgarria: gogorik ez da ikusten euskaltzale gehienek artean, are buru-langile

konprometituenen sailean, aukera gisa planteatu ere egiteko. Erronka handia da beraz, motibo biengatik, euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzional hori. Ez dago, ordea, beste biderik.

VI. ZER EGIN BEHAR DA “HEMEN ETA ORAIN”, ERRONKA HORIEI EGOKI ERANTZUTEKO?

Erronka handiei aurre egin behar die, ikusi berri dugunez, arnasguneak zaindu, indartu eta indarberritzeko asmoa duen ekimen orok. Lan zabala da indarberritze-saio hori neurritz, eta oso delikatua izaeraz. Deskonfiantzia pertsonal eta kolektibo handia eskatzen du, iraupen-ahalmen finkoa, sorkuntza-gogo sendoa eta, aurreko guztia aski ez bailitzan, sofistifikazio teoriko ohargarria. Lan zaila da hori, hortaz, baina ezinbestekoa eta, aditu askoren ustez, lehentasun bizikoa.

Zer egin behar da, konkretuki, goiko hiru erronka horiei artez erantzuteko? Euskarazko jardun arruntari bizirik eutsi behar zaio, kosta ala kosta, 35-40 urte dirauen belaunez belauneko perspektiban; bizirik eutsi behar zaio ahalik eta arnagune gehienetan; bizirik, bereziki, euskara eguneroko jardun arruntan nagusi den ingurumen geoterritorial zabal-populatu-tenetan⁶¹. Belaunez belaun bizirik euste horretan dago hiztun-elkarte (edota, hainbatera iritsi ezin denean, hiztun-talde) guztien osasun-mailaren *Rubicon* nagusia. Hortik gora lortzen dena ondo dago, hortik behera gelditzen dena, aldiz, gaizki edo eskas⁶².

Belaunez belauneko transmisioa (35-40 urteko prozedura luze-bihurria, ez haurren lehen hizkuntza soil-soilik) segurtaturik izan behar du, bestetik, osasuntsu egon nahi duen hiztun-elkarte edo hiztun-talde orok. Eguneroko jardun arruntari bizirik eusteko orduan “algodoiaren proba”-tzat har liteke belaunez belauneko transmisioa. Horregatik da hain zentrala eta ezinbestekoa.

Zer egin liteke eta zer egin behar da praktikan? *Trial and error* formulari eutsiz eta iturri teoriko sendoenetatik zein ebidentzia enpiriko ugariatetik ikas litekeen guztia aintzakotzat hartuz, hiru ardatz hauek landu behar dira nagusiki:

- a) *Estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa;*
- b) *Bideragarritasun sozioekonomikoa;*
- c) *Konpartimentazio soziolinguistikoa eta moldaera soziokultural berri bat.*

Hiru ardatz horiek ez dira independenteak, elkarrekin inolako loturarik gabeak. Bideragarritasun sozioekonomikoak berekin dakar, maiz-aski,

**Zer egin liteke
eta zer egin
behar da
praktikan?
a) Estabilizazio
eta iraupen-
oinarri
demografikoa;
b) Bideragarri-
tasun
sozioekono-
mikoa;
c) Konpartimen-
tazio
soziolinguistikoa
eta moldaera
soziokultural
berri bat.**

**Bikote gazteak
herrian
asentatzeko eta,
horien bidez,
jaiotza-kopurua
ugaritzen
laguntzeko
neurriak asmatu,
babestu eta, ahal
den neurrian,
aplikatu behar
dira
arnasguneetan.**

estabilizazio (edota, are, hazkunde) demografikoa. Euskararen galgarri gertatu diren giza arteko moldaera soziolinguistiko eta soziokultural asko ere aldakuntza sozioekonomiko jakinen eskutik etorri izan dira sarri. Analisi-lanerako posible da ordea, mesedegarri ere bai gure ustez, hiru ardatz nagusiok banan-banan aztertzea. Ikus ditzagun beraz hirurak, hurrenez hurren.

VI.1 Estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa segurtatzen saiatzea

Bikote gazteak herrian asentatzeko eta, horien bidez, jaiotza-kopurua ugaritzen laguntzeko neurriak asmatu, babestu eta, ahal den neurrian, aplikatu behar dira arnasguneetan. Inork esan dezake, jakina, ur handitan sartzen garela hori planteatzean: askatasun pertsonalaren esparru sakratuan, demokrazia-bidea arriskuan jarritz. Gauzak ez dira, gure ustez, horrela: Europa demokratiko gehienez ez da batere gauza berria, 1964 ondoko jaiotza-faltari aginte-esparrutik era proaktiboan aurre egin izana. Etorkizuneko inbertsioetat hartu izan da ekimen hori. Gurean ere, hizkuntza-plusa erantsiz egitasmoari, ez luke ezinezkoa izan behar. Herri Aginteen politika demografikoaren egitekoa da hori, aurrez aurreko neurriei politika dagokienez. Bide batezko, berriz, ikus aurrerago.

Zer egin dezakete aginte-organoak, berta-bertakoek eta goragokoek, arnasguneen estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa segurtatzen saiatzeko? Arnasguneetako herritar gazteak (ahal den gehienak) bizi izaten herrian bertan (edo beste arnasgunereren batean) gera daitezen saiatu behar da, eta kanpotik datozenak (ahal den guztian) euskaldun aktibo izan daitezen lortu. Beti ez da hala izango: bikote-sorrerak, bikote-finkapenak eta handik aurrerako bikote-bizitzak kiribil ugari izan ohi ditu, munduan eta gure artean. Bikotea egiteko orduan era askotako faktoreak suertatu ohi dira. Bikote-gaiaren osaera linguistikoa ez da, askotan, faktore horien *ranking*-ean aurre-aurrean ibiltzen. Neska edo mutil katxarro baten aurrean edonori ez zaio okurritzen “EGA ba ote du” galdezka hastea. Nortasun-izaeraz, pentsaeraz edo estatus sozioekonomikoaz erakargarri gertatzen zaigun bikote-gaia hautakizun posible izango da maiz, erdaldun huts edo erdal-elebidun izanik ere. Erdaldunak edo erdal-elebidunak etorri egingo dira beraz, honegatik ez bada hargatik, herrian bizi izatera: geuk ekarriko ditugu, guztia ez delako euskaltzale izatea. Horrekin ere kontaktu egin behar da. Guztia ez dago plangileen eta programatzaileen esku: arnasguneen gazteen beraien perspektiban ere ez.

Gauza bat da ordea itinerario biografiko jakinen nondik norakoa, eta beste bat ibilbide demoestatistiko nagusia. Goian azaldutako faktoreok hor egonik ere, posible da joera nagusia honantz edo harantz makur dadin laguntzea. Biziki saiatu behar da arnaseguneetan, alde horretatik, erdal-erlebidunak edo erdaldu hutsak ez daitezzen herrira samaldan etorri eta bertako gazte asko bizi izatera kanpora joan ez dadin. Ordura arte nagusi izan den euskarazko mintzajardun arrunta apurtu egin dezake etorkin erdalduen bat-bateko inpaktu masibo horrek, eta bertako gazteen emigratioak gogor eraso dezake arnasegunearen etorkizun demografikoa. Migrazio-fluxuen soziolinguistikazko autorregulazio-ahalmenaren zati bat bederen herritarren beraien esku izatea eskatzen du zaintze-lan honek. Berrito diogu: debeku- eta ezarpen-arau zorrotzik ez dago (eta ez da komeni) estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoaren alorrean. Bai ordea, atentzioz zaindu eta gogotsu landu beharreko hainbat ekimen. Zer ekimen, konkretuki?

Etxegintza eta lurralde-antolamendua, arrisku-iturritik bizi-bermera eraman

Demografia-fluxu handien eragile edo laguntzaile diren etxegintza eta lurralde-antolamendua oso kontuan izan behar dira horretarako. Goiko hiru neurriei egoki erantzungo dien etxegintza bultzatu eta babestu behar da, ahal dela. Zenbat etxe eraiki, non, zer tipo eta zer prezioetako, aurrez argitzea komeni da ahal delarik. Zentzuzko etxegintza funtsezkoa da, bai bertako bikote berrientzat eta bai herriaren bideragarritasun sozioekonomikorako. Udalaren eta hortik gorako Herri Aginteen zeregina funtsezkoa da horretan.

Lurralde-antolamendua ere goiko hiru neurriak aintzakotzat hartuz diseinatu eta jestionatu behar da, ahal den heinean. Arnaseguneen estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa ezin izan liteke lurralde-antolamenduaren ardatz nagusi, are gutxiago bakar. Hori ere kontuan hartu behar da, ordea, arnaseguneek bizirik iraungo badute. Puntamutur bien artean jardun-esparru zabala dago, eta esparru horretan bere lekua izan behar du arnaseguneen estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa segurtatzera datorren lurralde-antolamenduak.

Ahal delarik belaunaldi bateko edo biko perspektiban jardun behar da herriko etxegintzan eta eskualdeko lurralde-antolamenduan. Perspektiba ertain-luzean, ez unean uneko eskaera, interes edo probetxu-kalkulu hutsez. Hor jokatzen da sarri etorkizuneko konfigurazio demografikoa: bai zenbatekoa eta bai, bereziki, nolakoa. Zenbat erabaki urbanistiko-

Etxegintza eta lurralde-antolamendua, arrisku-iturritik bizi-bermera eraman. Demografia-fluxu handien eragile edo laguntzaile diren etxegintza eta lurralde-antolamendua oso kontuan izan behar dira horretarako.

**Esana dugu
arnasguneari
(eta bere
ingurumenari)
bideragarritasun
sozioekonomikoa
bermatu behar
zaiola: lanbidea
bertan edo
inguruan izan
behar dutela
herritar
gehienek.
Lanean, gainera,
ahal bada
euskaraz jardun
ahal izatea
komeni dela.**

territorialek eragin bizia izan ohi du herriko edo eskualdeko belaunaldi berriaren osaera linguistikoan. Udalak eta hortik gorako Herri Aginteek ez lukete eginbehar hori alde batera utzi behar, euskararen geroak kezkatzen baditu.

Ez da ordea itsutzea komeni: erabakitzeke ahalmen guztia ez dago udaletxearen eta hortik gorako Herri Aginteen esku. Ahalmen gehiena ere ez, askotan. Norbanakoaren askatasun-markoa, nahia eta deliberoa hor daude eta hori ere ezin da ahaztu. Saldu nahi duen etxea garestiago erosteko prest dagoen kanpotar erdaldun bati lasai asko salduko dio Pellok edo Luisak, merkeago erosi nahi luketen herritarren gogo alde batera utzirik. *Money is money*. Mikrokosmo txiki baina anizkoitza gara gizakiok, eta bihurri-aniztasun horrek uztardura bitxiak eragiten ditu gure gogo-nahi-erabakietan: diru-etekina ez da faktorerik ahulena izaten, horrelako uztarduretan. Kaleidoskopiozko magma horretan bizi gara guztiok, eta biziko.

Labur bilduz: etxegintza eta lurralde-antolamendua ezin eraman litezke aurrera, orain arte bezala, faktore demolinguistikoa aintzakotzat hartu gabe: arnasguneen estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa kontuan izan behar dute demografia-fluxuen eragile handi diren etxegintzak eta lurralde-antolamenduak. Aski lan zaila da hori, ordea, norbanakoon eta korporazio enpresarialen interesak ere tartean sartzen baitira sarri. Zaila da, eta zentzuz jestionatzekoa: baina beharrezkoa. Alferrik dira bestela D ereduko eskola eta kultura-astea, euskarazko norma subsidiarioak, liburutegiko euskal-atala, urtean behingo (edo bizpahiru alditako) bertso-saioa eta kantaldia, euskaltegia eta *Berriarako* udal-suskripzioa. Eguneroko mintzajardun arruntan, ez lagungarri soil horietan dago euskal bizi-taupada sendoaren ardatza eta muina, gatza eta piperra, bizia eta jarraipena. Jardun hori kraskatzera, apurtzera edo galtzera datozen etxegintza eta lurralde-antolamendua kaltegarri dira arnasguneek bizirik irauteko; are kaltegarriago, arnasguneak neurritz eta hedaduraz garatzeko.

VI.2 Arnasguneari bideragarritasun sozioekonomikoa bermatzea

Esana dugu arnasguneari (eta bere ingurumenari) *bideragarritasun sozioekonomikoa* bermatu behar zaiola: lanbidea bertan edo inguruan izan behar dutela herritar gehienek. Lanean, gainera, ahal bada euskaraz jardun ahal izatea komeni dela. Non eragin behar da, eta nola, xede hori lortzeko edota xede horretara hurbiltzeko?

Arnasgune askotako lan-jarduera posibleen artean dago, orain ere, Lehen Sektorea: nekazaritza (biologikoa barne), abelazkuntza eta artzantza. Arrantzatik bizi den (edo bizi litekeen) arnasgune gutxi dago, baina kontuan izatekoa da orobat. Arreta berezia merezi du Lehen Sektoreko zenbait ekoizpenek: gaztak eta mamiak, ahatekiak, sagardo-txakolinek, piperrak, kontserbek,.. Ez gara gauza xaharkituez ari, etorkizun-printza bere baitan duten jardunbide berri-berrituez baizik.

Bigarren sektorea ere oso kontuan izan behar dute arnasguneek: irteerarik sendoena hor dago maiz, Bizkai-Gipuzkoetako arnasgune askotan (eta, partez, Nafarroakoetan). Egin litekeen aurrerapauso handiena, ahal izanez gero, hau da: arnasguneetako jendeak (bere artean eta berentzako lanpostu gisa) enpresa berriak sortzea edo zaharrak birmoldatzea. Ahal dela “beren neurriko” enpresak, ez lur-faltagatik edo antzeko beste motibo batengatik bertara etorri nahi duten enpresak, langile-kopuruz eta transakzio-moldez arnasguneaz, eskualdeaz eta euskal hiztun-elkartez gaindikoak.

Aurrez aurreko zerbitzu-sektoreak leku meharra du arnasgune gehienetan: taberna eta sagardotegi, eskola eta denda, Udal eta nekazalturismo⁶³. Zenbait arnasgunetan (Azpeitia eta Zumaia ditugu bereziki gogoan) hori baino planteamendu zabal eta ausartagoak egin litezke. Patxi Saenz-en perspektiba ez genuke, bere muga-baldintza guztiekin ere, kasu horietan begien bistatik galdu behar. Hirugarren Sektorean ere ganoraz eta probetxuz eragin liteke, bidea aurkitzen bada. Bada gainera, gero eta erosoago, herritik beretik irten gabe irismen zabalagoko Hirugarren Sektorean jarduteko modurik. Lan-moldaera berriak, tele-lana barne, eskaintzen dituen zerbitzu-prestaerazko formulak oso kontuan izan behar dira horretarako.

Nork norekin zertan jardun, zer neurritan eta nori begira? Hor dago gakoa, hizkuntza faktorea aintzakotzat hartzekotan. Hor eta, jakina, herri-agintean, lan-munduko eragilean, finantza-enpresen eta iritzi-sorguneen babes konkretuan, ulermen zintzoan eta inplikazio proaktiboan. Mundu oso bat dago hor deskubritzeko, lantzeko eta garatzeko. Aski esparru moderno eta erakargarria: euskaltzale bat baino gehiago harritzeko modukoa. Esanak esan arnasguneak “lau baxeritar ezjakinen putzu-zulo galdu” direla uste dutenek ez dakite jainko txikiaren berri.

Ia landu gabe uzten dugu, gaurkoan, erosotasun-kontuen alorra. Ez garrantzirik ez duelako, beste motibo honegatik baizik: eginbehar guztien artean hori dago, gaurkoz, arnasgune askotan landuen eta ga-

Bigarren sektorea ere oso kontuan izan behar dute arnasguneek: irteerarik sendoena hor dago maiz, Bizkai-Gipuzkoetako arnasgune askotan (eta, partez, Nafarroakoetan). Egin litekeen aurrerapauso handiena, ahal izanez gero, hau da: arnasguneetako jendeak (bere artean eta berentzako lanpostu gisa) enpresa berriak sortzea edo zaharrak birmoldatzea.

Herritarrek beraiek konpartimentazio soziolinguistiko eta soziokultural berri bat adostu eta herri-giroan aplikatzea lortu behar da. Herri-giro beregain bati eustea, eta herriko biztanle zahar eta gazteentzat Gemeinschaft moldeko bizibide soziokultural berri-pizgarria moldatzea.

ratuen. Garraio-, eskola-, osasun- eta administrazio-zerbitzu askotxo eskueran dituzte arnasmune askok, orain dela 40 urte nekez pentsa zitekeen neurrian. Hizkuntza-plusa sartzea falta da, akaso, halako zenbait ekimenetan (ez guztietan: eskolak D eredukoak dira). Asko aurreratatu da, erosotasun kontuan, azken 40 urtean.

VI.3 Arnasguneari konpartimentazio soziolinguistiko eta moldaera soziokultural berri bat bermatzea

Herritarrek beraiek konpartimentazio soziolinguistiko eta soziokultural berri bat adostu eta herri-giroan aplikatzea lortu behar da. Herri-giro beregain bati eustea, eta herriko biztanle zahar eta gazteentzat *Gemeinschaft* moldeko bizibide soziokultural berri-pizgarria moldatzea, gero eta nagusiago den *Gesellschaft-en* bidelagun. *Hots, Gemeinschaft-elkartasuna* eta *Gesellschaft-gizartea* egoki uztartzea, lehenengoa galdu gabe bigarrenaz behar adinako neurrian jabetuz.

Aldakuntzak aldakuntza eta neurriak neurri, *Gemeinschaft-elkartasuna* eta *Gesellschaft-gizartea* bizirik ditugu arnasmuneetan. Bigarrena nabarmen zabaldu bada ere azken hamarkadotan, ez du lehenengoa erabat baztertu. Ez dirudi erabat baztertuko duenik ere: “all societies show elements of both kinds of will, because man’s conduct is neither wholly instinctive nor wholly reasoned” (Ashley Crossman, 2017).

Bien konbinazio egokia ez da lortzen erraza. Bai, ordea, behar-beharrezkoa. Konbinazio egoki horretan oinarritzen da, batez ere, euskarazko herri-giro beregaina. *Gesellschaft-gizarte* hutsarekin jai dago. *Gemeinschaft-ek* berekin duen elkartasun- edo komunitate-giroa behar-beharrezkoa du arnasmune orok, bere buruari bizirik eusteko eta belaunez belaun proiektatzeko.

Funtsezkoa da, horregatik, *Gesellschaft-gizartea* eta *Gemeinschaft-elkartasuna* modu bateragarrian moldatzea: lehena gabe nekez eskura liteke bide-ragarritasun sozioekonomikorik, eta ezinbestekoa da hortaz. Bigarrena gabe ez dago, bestalde, euskarazko ingurumen beregainik (eta sozio-kulturalki partez autorregulaturik). Banakako herritarrez gainera herritar horien gizataldea da, bere osoan, *Gemeinschaft-elkartasunaren* benetako altxor. Ezinbestekoa da, hortaz, biak egokiro uztartzea eta *Gemeinschaft* dituen doaiei (tartean auzo-lanari, lagunarte zabalari eta herri-giro biziari) osasun onez eustea.

VII. GAUZAK NOLA EGIN BEHAR DIRA, “HEMEN ETA ORAIN”?

I

Gauza bat da zer egin behar den esatea, eta beste bat egin nahi den hori nola egin azaltzea. Nolakoari begira, eta labur bilduz, bederatzi puntu aipatuko ditugu atal honetan:

VII.1 Kontu handiz jardun: esparru informal-intimoetan eragitea oso lan delikatua da

Arnasguneak biziko badira, euskarazko mintzajardun arruntari bizirik eutsi behar zaio eguna joan eta eguna etorri: nagusitasun-moldaera argia izan behar du mintzajardun horrek, orain arte izan duen bezala. Horrekin batera, belaunez belaun proiektatu behar da nagusitasun hori: 35-40 urteko proiektioaz ari gara hizketan, ez haurrei (jaino ondoko lehen urteetan soilik) etxean euskaraz (ere) egite hutsaz. Askoz zailagoa da lehena (35-40 urtealdiko lorpena), azkena (etxeko mahai ingurukoa) baino.

Euskaraz egiten segitu behar dute, orain eta gero, bertako biztanleek. Hala egin behar dute etxean eta kalean, lagunartean eta ohiko gizarte-bizitzan. Euskarazko mintzajardun arruntak nagusi izaten segitu behar du bertan. Irakurrizkoan eta idatzizkoan aurrera jarraitzeak ere mesede egingo du: hori ez da ordea, garrantziari dagokionez, hitzezko jardun arruntaren pareko. Hitezko jarduna da arnasguneen ardatz eta iturri.

Etxean eta tabernan, lagunartean eta lan-giroan, erdarara pasatzeko tentazioa areagotuz doa. Euskarazko mintzajardunaren orain arteko nagusitasunari eustea ez da lan erraza: herriko eskola (erdara hutsezkoa) D eredura pasatzea kosta izan dena baino nabarmen zailagoa da oraingo erroka “berri” hau: giza taldeon bizitza informalean (eguneroko mintzajardun arruntean) ez da aurrez aurreko plangintza-aukera handirik izaten. Nola egin jakingo bagenu ere, kontrako erreakzio-arrisku bizia luke bizitza informal-intimoa arautzeko asmo horrek. Erreparo etikointelektuala, xede-taldearen errezeloa eta, agian, aurkako jarrera zorrotza.

Esparru informal-intimoetan eragitea ez da batere erraza. Horrek ez du esan nahi, kanpo-faktore deliberatuek gizakion bizimodu arruntean inolako eraginik ez dutenik. Moda-industriak ez luke, kontuak horrela balira, inolako zentzurik. Publizitate-enpresen jarduera komertzial-ekonomiko erasokorrak ere ez. Kirol-lehia eta musika-kontzertu erraldoiek ere ez. Hor daude ordea, gero eta biziago eta ausartago, askatasun indibidualaren goresmenetan blai. Erraza ez den arren, ezinezkoa ere ez da. Erreparoak

**Euskarazko
mintzajardun
arruntak nagusi
izaten segitu
behar du bertan.
Irakurrizkoan
eta idatzizkoan
aurrera
jarraitzeak ere
mesede egingo
du: hori ez da
ordea,
garrantziari
dagokionez,
hitezko jardun
arruntaren
pareko. Hitezko
jarduna da
arnasguneen
ardatz eta iturri.**

**Hori da egoera:
“jendearen
gogoa, aldeko
lege-markoa,
dirubideak eta
borondate
politikoa”
eskueran izatea
(eta oso zaila da
horiek guztiak
neurri betean eta
aldi berean
eskueran izatea)
ez da aski:
erronka nagusiei
nola erantzun
ondo ez jakitea
arazo da, orduan
ere.**

erreparo, ezin ukatuzko eragina du, esparru informal-intimoenetan ere, hainbat eta hainbat interbentzio planifikatuk. Besterentzat debeku ez den interbentzio-ekimen deliberatuak ez du guretzat debeku izan beharrik, zentzuz eta ganoraz planteatzen baditugu xedeak. Nolakoak dira, arazo-iturri ez gertatzeko, interbentzio horiek? Galdera hori dugu benetako azterkizun. Gure arteko hizkuntza-plangintzaren bibliografia teknikoak hor du egungo egunean, oker ez banabil, hutsune handienetako bat.

VII.2 Teoria landuena eta ebidentzia enpiriko sendoena eskuratu, proba eginez ikasi, zentzuz jokatu

Gorago esan denez, erronka nagusiei probetxuz erantzuteko zer egin behar den ez dakigu nahi bezain ondo. Orain arteko interbentzio-neurri gehienak aho biko ezpata gertatu izan dira: alde batetik mesedezko, bestetik kaltegarri. Jarduera osoaren ardatz nagusia zein den seguru ez jakite hori ez da batere gauza atsegina: *prêt-à-porter* soluziorik ez dagoela jakiteak atsekabea sortzen du. Gauzak zirt edo zart (ahal bada “behin eta betiko”) konpondu nahi dituen ekinzale ausartarentzat, bereziki, oztopo latza da dudamudatan ibili beharra. Baina hori da egoera: “jendearen gogoa, aldeko lege-markoa, dirubideak eta borondate politikoa” eskueran izatea (eta oso zaila da horiek guztiak neurri betean etaaldi berean eskueran izatea) ez da aski: erronka nagusiei nola erantzun ondo ez jakitea arazo da, orduan ere.

Ezjakite hori ez da ordea, arazo ohargarria izanik ere, munduaren akabera: beti dago nondik hasi. Teoria landuena eta ebidentzia enpiriko sendoena eskuratu bitartean “geure bidea egiten” saiatzea ez da gainera, inola ere, debeku. Besterenetik hau eta hori ikasi arren, saiatu arte ez da jakiten “hemen eta orain” bide egokiena zein den. Saiatuz bakarrik asma dezakegu, han-hemengo teoria landuena eta ebidentzia enpiriko sendoena eskuratzearekin batera, bide hori egiten. Bertsolariaren hitzetan “surtan jarrita” probatzen da, ez lehenago, eltzea nolako den. Dezakegun informazio teoriko-enpiriko landuena eskuratu, baina informazio oso-definitiboaren zain egon gabe, *trial and error* bidetik jokatu beharra daukagu. “Trial and error is a fundamental method of problem solving” esan zuenak bazekien zer zioen.

Teoria sendorik gabeko ekinbide gehienak “astoaren flauta-jotze” ergel bihur litezke: “ekin eta ekin” jardute hutsa ez da bide egokia. Gauza asko (teoriko zein enpiriko) ezagunak dira han-hemen, adituen artean. Horietariko batzuek funtsezkoak dira eskuartean dugun gairako. Funtsezko gauza horiek kontuan hartuz jokatu behar dugu beti. Hizkunt-

tza-soziologiaren oinarri teorikoak kontuan hartu behar dira: teoriak zer dioen jakinik ekin behar zaio lanari. Teoria-soineko dotorez jantzitako baina oinarri enpirikorik gabeko formulek ere ez dute, ordea, arrakasta-berme handirik: bestetan zerk funtzionatu duen eta zerk ez argi izan behar da. Horiek (teoria landua eta ebidentzia enpirikoa) izan arte eskuak tolesturik egotea ez da, ordea, bide egokia. Proba egin behar da, behin eta berriro: okerretik ikasiz bide hoberena asmatu.

Horrezaz guztiaz gainera, ez horren ordez, sentido komuna aplikatu behar dugu: zentzuz jokatu. Bi gauza agintzen dizkigu sentido komunak, besteak beste: a) arnasguneen autorregulazio- eta belaunez belauneko iraupen-bideak galtzen ez uztea; b) arnasguneen berariazko indarguneak bereziki zaintzea.

VII.3 Bide batezko interbentzioa: aplikazio-aukerak eta eragozpen-mugak

Plangintza askoren interbentzio-bide arauzkoa, paradigmatikoa, *aurrez aurrekoa* edo *berariazkoa* da. “Gauza hau gaizki dagoenez edo kontu hori bide okerretik doanez, gaitza sendatzeko edo okerra zuzentzeko neurri-sorta definitzen (eta, ahal delarik, adosten) da, eta puntuz puntu praktikara eramaten. Horrelakoak izanik dira XX. mendeko “blue ink” moduko *planning theory* gehienak. Denborak erakutsi du, abantaila ukaezinak izateaz gainera eragozpen larriak sortzen dituela berariazko (behinola “blue ink” deituriko) *plangintza-saio* askok. Zenbait korapilo askatzeko balio izaten du baina, aldi berean, era askotako arazo-iturri izaten da maiz (ikus, adibidez, A. Branchadell, 2000). Garai bateko *plangintza*-zaletasun entusiastiko hura asko epeldurik dago, horregatik, han-hemen. Unibertsitate askotan, esate baterako, garai bateko *planning*-ikasketei aski bestelako orientazioa eman izan zaie⁶⁴.

Berariazko interbentzio-bidea ez da, dena den, interbentzio modu bakarra. Aukera posibleen artean hor dago *bide batezko interbentzio-moldea* ere. Estatu beregain gehienen eta korporazio transnazional askoren hizkuntza-politika, bereziki, *bide batezko interbentzioa* izan ohi da sarri. Lortu nahi den (“normal”tzat hartzen den) eszenariora kostu txikiagoaz eramaten gaitu interbentzio horrek, sarri, eszenario horren desiragarritasun-maila beti diskutigarriaz hitz handirik esan gabe. Giza arteko jardunean eragiteko (jendearen joerak edo ohiturak aldatzeko, berritzeko edo “hobetzeko”) bide posibleen artean *bide batezko interbentzioa* izaten da, horregatik, maiz asko nagusi: hala gertatzen da bereziki, kopuruz eta etekinez gailen agertuz, esparru informal-intimoetan. In-

Plangintza askoren interbentzio-bide arauzkoa, paradigmatikoa, aurrez aurrekoa edo berariazkoa da.

[...]

Denborak erakutsi du, abantaila ukaezinak izateaz gainera eragozpen larriak sortzen dituela berariazko [...] *plangintza-saio* askok. Zenbait korapilo askatzeko balio izaten du baina, aldi berean, era askotako arazo-iturri izaten da maiz.

**XXI. mendeko
euskalgintza
bermatu, zabaldu
eta indartu egin
nahi bada
laguntza-emaile
(zerbitzu-
sortzaile, -egile
eta -emaile)
bihurtu behar du
euskalgintzak.
Euskarazko auzo-
giroa bermatu
eta indartuko
duen jokamoldea
diseinatu,
antolatu eta
hezur-mamitu
behar da
horretarako.**

terbentzio-bide horrek ematen du sarri etekinik hoberena, buruhauste eta albo-kalte txikienaz.

Hortik jo behar du euskalgintzak ere, ahal duen guztietan eta ahal duen heinean. “Ezinbesteko albo-arazoak” sortzea giza arteko jarduera orok ordaindu beharreko prezioa da, bai, baina hori ez da justifikazio baliagarria beti eta nonahi. Hori justifikatu ordez “jendearen eguneroko arazoak (ez ezinbestean, eta ez nagusiki, arazo linguistikoa) konpontzea” hartu behar du bide batezko euskalgintzak xede. Arazo-konponketa bera, hori bai, euskaraz bideratu behar du euskalgintza horrek: bestela ez da euskalgintza.

Formulazio teorikoen aldetik prakamotxetan daukagu, tamalez, *bide batezko interbentzioa* edota, nahiago bada, *bide batezko euskalgintza*. Mundu zabalerako ikus, hurbilketa soil gisa, Robert Kaplan-en eta Richard B. Baldauf-en 1997ko *Language planning; from practice to theory*. Etxeko saioez ik. Zalbide 2007, 2015 eta 2016. Plangintza molde hori ondo pentsatu, doitu, adituen zein arduradunen artean adostu eta kaleratu behar da. Nork-noiz-non-nola? Nork landuko zain dagoen azter-eremu erakargarria da hori.

Errazenetik has liteke, bien bitartean: bide batezko zer neurri har litezke “hemen-eta-orain”, eta zein ez? Gogoeta-gai eta arazo-iturri bizia da hori, arnasmuneetan ez ezik gizarte modernoaren esparru formal eta informal askotan. Oso kontuz eta tentuz hartzekoa, nolnani ere: norbanakoon interesak eta askatasun-oinarriak, orobat aginte-esparruaren lege-marko nagusiak, zalantzan jartzeko bidea sor dezakete eta, besterik nahi izan arren, albo-ondorio kaltegarriak eragin. Azti jokatu behar du horretan arnasmuneen indarberritze-lanean jardun nahi duenak: deskuidoak latz ordaintzen dira.

VII.4 “Zerbitzu- eta laguntza-emaile” filosofiak izan behar du ardatz

Gizarte-ikuspegia zabaldu eta, parte ohargarritz, aldatu egin behar dugu euskaltzaleok: lortu dena baztertu gabe, eta hobetu beharrekoa hobetuz, zerbitzu-hartzailearen perspektiba errezeptibo-erreaktibo klasikoa zerbitzu-emailearen formulazio dinamiko-proaktiboaz osatu eta aberastu behar da.

Hots, XXI. mendeko euskalgintza bermatu, zabaldu eta indartu egin nahi bada laguntza-emaile (zerbitzu-sortzaile, -egile eta -emaile) bihurtu behar du euskalgintzak. Euskarazko auzo-giroa bermatu eta indartuko

duen jokamoldea diseinatu, antolatu eta hezur-mamitu behar da horretarako. Arras esperientzia bizi-erakargarria da hori, *Gemeinschaft-elkartasun* giroa hain zatikaturik dagoen XXI. mende honetan.

Jokamolde horrek bide batezko euskalgintzan oinarritu behar du, goitik behera zein behetik gora ari delarik ere, aurrez aurreko euskalgintzan baino gehiago. Nork debekatzen digu hala nahi duten euskaldunei euskarazko txango-bidaiak antolatzea? Goitik behera zein behetik gora zergatik egin da hain gutxi, neguan elurretara doazen gazte-taldee, udan Europara eta urrunago doazen bikoteei eta familiei, asteburuz edo zubi-jaietz “norabait irten” nahi duten lagun-talde euskaldunei “D ereduko” irteerak eskaintzeko? Lotsagarri al da zerbitzu multzo hori antolatzea eta, zerbitzu-hartzaileak euskaraz atendituz, zerbitzu-emaileei ogibide-sarea eratzea? Erdaraz hala egiten da. Inork ez du hor inposiziozko hizkuntza-plangintzarik antzematen: “nahi duenak hor dauka” lelopean, mundu oso bat eskaintzen zaigu erdaraz. Euskaraz zergatik ez berdin jokatu, gure indarren, beharren eta gogo-nahien neurrian? “Zerbitzu-eta laguntza-emaile” filosofiak etorkizun handia du, euskalgintzak aurrera egiten badu.

VII.5 “Guztia ala ezer ez” formula alde batera utzi behar da, hasieratik beretik: “neurriko trajea” behar du arnasguneak, biziko bada

“Guztia ala ez” formula oso traketsa da, oro har, arnasguneen konponbide artezak asmatu eta sendo aplikatu nahi dituztenentzat. “Teorikoki” ona den gauza asko ezin da praktikan egin, eta erraz samar egin litekeen gauza askok ez du probetxuzko ondorio handirik. Asmo teoriko posibleen artean praktikan egingarri direnak berezi behar dira, eta haietan hoberena aukeratu. Horrela jokatu behar da arnasguneetan ere.

Posible zer den eta zer ez bereiztea, dena den, dirudien baino ondotoz gai konplikatuagoa da. Muga-lerroa ez du askotan ebidentzia enpiriko hutsak markatzen. Ez da hain gauza objektiboa. Begiak erne izan behar dira horretan: ezinezkoa zirudien gauza bat baino gehiago egin izan da gure artean ere, zenbaitetan ondorio harrigarritz. Begirik erneenak ere badaki, ordea, teoria hutsean planteatzen litekeen edozer gauza ez dela praktikan posible. Ez dago abionetarik munduan, eta (hitz-jolas merkean ari ez bagara) nekez egongo da bihar-etzi, Martera joan eta etortzeko balio duenik. Airean ibiltzea (are munduari hogeit hamar buelta ematea) gauza bat da, eta airez Martera joatea bestea. Bada, beraz, posiblearen eta ezinezkoaren muga-lerrorik.

**“Guztia ala ez”
formula oso
traketsa da, oro
har, arnasguneen
konponbide
artezak asmatu
eta sendo
aplikatu nahi
dituztenentzat.
[...]**

**Asmo teoriko
posibleen artean
praktikan
gingarri direnak
berezi behar dira,
eta haietan
hoberena
aukeratu.
Horrela jokatu
behar da
arnasguneetan
ere.**

Lana behar da, etxetik hurbil ahal bada. Baina lan hori sortuko duen industrialde zabala, bulego-eta merkatal-gune handia, turismo-eskaintza mugagabea, etxegintza bortitz-indiskriminatua... mesedegarri ordez kaltegarri gerta litezke arnasgunearen autorregulaziorako eta belaunez belauneko iraupen sostenigarriarako.

Posiblearen eta ezinezkoaren mugarri gisa hor dago, hasteko, masa kritikoaren arazoa. Neurri batetik beherako herri (are eskualde) gehienetan eraikin publikoen edota merkatal zerbitzuen eskaintza mugatua izan ohi da. Herri (eta arnasgune gehienen neurriko herrixka) bakoitzak, horrela, ezin du bere ospitale, bere supermerkatu, bere Campus, bere aireportu eta bere Kursaal jauregirik izan. “Besteek halakorik badute, guk zergatik ez?” esatea burugabea da horrelakoetan. Guztia ez da posible eta, alde horretatik, autolimitazio zorrotza ezarri behar izaten diete beren buru-bihotzei arnasgune “hoberenaren” bila dabiltzanek. *Harakiri*-ak ere ez du ordea balio: ezer gabe ezin dira herri txikiak luzaro bizi; guztia ezin da “zenbaki handien” mirabe bihurtu, handiak txikia jatea nahi ez badugu. Txikien aldeko neurri proaktiboak kontuan izan behar ditu horregatik, honetan ez bada hartan, arnasguneen alde dagoela dioenak.

Zer egin, beraz? “Guztia ala ezer ez” alde batera utzita “bere neurriko trajea” landu behar dute arnasguneetako arduradunek⁶⁵. Zer neurri? Hor ere ez dago erantzun unibokorik: arnasguneetan ere neurriak eta neurriak daude. Azpeitian posible den zenbait erosotasun, horrela, nekez eskura liteke Leitzaan edo Markinan, eta are nekezago Gabirian, Axpe-Arrazolan edo Goizuetan. Hori horrela dela eta gero ere seguruenik horrela izango dela jakinik, unean uneko konbinatoria posible hoberenaren zale bihurtu behar dute arnasguneen aldekoek. Sinkretismo-bidea xehekiro esploratu eta ganoraz garatu behar dute beti. Ez da hori aparteko traba, are gutxiago bajeza. Egin ere hala egiten da maiz, eta emaitza ez da askotan kaltegarri: Gabirian bizi den gazteak aski eroso dauka, gaur egun, Ibaetako Campus-ean estudiantzea. Hamabostaldi musikalaria joan nahi duten zaldibiarrek badute Donostian autoa non aparkatu edota bertara trenez nola iritsi. “Guztia” ezin da egin, neurriagatik eta beste hainbat motibogatik. Baina aski soluzio egokirik badago tartean, adostuz gero. Alferrik da, horrelakoetan, ahots goran “guztia ala ezer ez” oihukatzea: “bere neurriko trajea” behar dute arnasguneek.

VII.6 Arnasgunen aldeko ekimenak, “bere neurritik” kanpora, kontra-eragingarri bihur litezke

Lanik eta (hein batean) soziokulturazko beregaintasunik gabe ez dute arnasguneek, luzera begira, etorkizun argirik: inguruko lan- eta kontsumo-gune indartsu(ago)en eranskin bihurtuko dira; inguruko eta luze-zabaleko moda-ohitura supraetnikoen kontsumitzaile huts; “jende normal-moderno” bizi den asentamenduetako pautan nagusietara markurtuko dira. “Beste zerbait” izan behar dute arnasguneek, euskarazko

bizibide egunerokoaren eta bizimolde jator-berrituaren habe eta sostengu izaten segituko badute. Eraiki egin behar da bizi-marko hori: “bere neurri” egina izan behar du ekimen horrek. Gehiegizko edo norabide okerreko ekimen-neurriak istilu-iturri izan litezke. Horrela,

a) Lana behar da, etxetik hurbil ahal bada. Baina lan hori sortuko duen industrialde zabala, bulego- eta merkatal-gune handia, turismo-eskaintza mugagabea, etxegintza bortitz-indiskriminatua,.. mesedegarri ordez kaltegarri gerta litezke arnagunearen autorregulaziorako eta belaunez belauneko iraupen sostenigarriarako; erdara nagusituko da hor, gero eta nabarmenago.

b) Hirigintza bortitz-ugaria erdalduntze-iturri bihur liteke erraz. Jendea bai, baina euskarazko mintzajardun arrunta nagusi izaten segitzen duen herri-girorik ez. Arrisku horri aurre egiteko “herriko atek ixtea”, hirigintza eta hiri-moldaera osoa arau zorrotzegiz lotzea (etxeak eta lur-sailak saldu-erosteko orduan, besteak beste), arras problematikoa izan liteke. Lege-oinarri aldetik oso nolazpaiteko eta, bereziki, arnaguneko biztanleen beraien gogo-lehentasunen kontrako: atek ixte hori “beren kaltean” dela senti dezakete eta asmatzaileentzat eder-ausarta zirudien plangintza istilu-iturri latz bihur liteke.

c) Euskarazko herri-giroari eusteko autorregulazio-asmo soziokultural (norabidez) estridenteak edo (kopuruz) gehiegizkoak ere bertako biztanleen (are euskaltzale-konprometituenen) uxagarri bihur litezke eta, horrenbestez, arazo-iturri gertatu. Jator eta moderno izan nahi dute, eskuak betean, bertako biztanle gehienek. Jator bai, baina ez “euskal erreserbako indio”; are gutxiago Europa berriko “Apartheid”-gune. Hori ententitzen ez dugun kaletarrok oso oker gabilta. Modernotasun-egarria, kalean bezain bizia da arnaguneetan. Neurrian eta uztartze-moduan dago giltzarria.

Aparteko arduraz aztertu behar du neurri kontu hori arnaguneen geroa bermatu nahi duenak. Plan ederrak egitea baino mila bider zailagoa, nahasiagoa, disgustagarriagoa eta, halaz guztiz ere, beharrezkoagoa da arnaguneen aldeko ekimen-sorta zabalari eguna joan eta eguna etorri “bere neurrian” eusten jakitea.

VII.7 Neurri egokia, norentzat ? Nondik abiaturik?

Arnaguneen *oraingo biztanleentzat* izan behar du neurriak, lehenik eta behin, egoki. Ez *Euskal herri osoarentzat* eta ez, bereziki, hiri-giro zabalean bizi garen “kaletar moderno normal”-ontzat. Hor dago lehenengo problema: arnagunearen helburu nagusia ez da “Euskal

Jator eta moderno izan nahi dute, eskuak betean, bertako biztanle gehienek. Jator bai, baina ez “euskal erreserbako indio”; are gutxiago Europa berriko “Apartheid”-gune. Hori ententitzen ez dugun kaletarrok oso oker gabilta.

Kanpoko laguntza behar dute, alde askotatik: esparru juridikotik, instituzionaletik, ekonomikotik, lurralde-antolamenduzkotik, intelektual-akademikotik, iritzi-sortzaileen esparrutik,.. Bertan izan behar dute ordea hauspoa eta bihotza: kanpoko parakaidistak, borondaterik onenaz ere, gutxitan izango dira arnasguneen soluzio-iturri.

herri euskalduna hondamenditik salbatzea”; are gutxiago “arnasguneeko biztanleak modernizatzea”: hots, kaletar maioritarioon interes-jarraitzaile mimetiko bihurtzea. Beren burua salbatu behar dute arnasguneek, lehen-lehenik, herriarekin batera beren altxor etnolinguistikoa eta sozio-kulturala galduko ez bada. Kaletarrok ikasi egin behar dugu beraien-gandik, erakutsi baino areago. Arnasguneak direla-eta honako puntuok ditugu kaletarrok, besteak beste, ikaskizun:

Arnasguneeko biztanleak, zahar eta gazte, mikrokosmo bihurri, aberats, aldeanitz eta ebolutiboa dira egungo egunean. Hala dira banaka, eta halatsu taldean. Amets-irrika eta interes (sarri diberjente, zenbaitetan kontrajarri) nabariak dituzten gizaki eta gizatalde hezur-haragizkoak dira, ez gatz-piperrik gabeko aingeru zerutiar, goxo eta gaixo. Hartzen dituzten erabakiak deigarriak dira sarri: paper gaineko espezialistarentzat ulergaitz baina beraientzat “normal”. Konpromisozko formula askotan bezala, mingarri baina “espero izateko”.

Aniztasun eta interes kontrajarrien *konstelazio sozial hori bateragarri bihurtzen saiatzen dira*, beharrak eraginik, arnasguneeko biztanleok. Egunerogunero saiatzen dira horretan, ez urtean behin edo bitan, “egun seinalatuetan”. Badakite, kaletarrok ez bezala, saiatze horretan doakiola herriari (beraiei eta beren ondorengoei, hortaz) bizia. Diberjentzia-kontrastatzen horien jentioa ez da inolako broma: gutxi dira, baina abentura bizi eta korapilotsu, sortzaile eta sakona dute eskuartean. Badakite hori, kanpoko “espezialista askojakinek” esan gabe.

Magma sozial horretan txertatu behar da arnasguneetako euskalgintza. Hezur-haragizko pertsona horien neurri egokituriko ekimenak hezur-mamitu behar dira. Arazo-konpontzaile, ez kaletarrok klixer-irudipenezko herritar aingerutiar-fikziozkoen salbagarri, izango diren neurriak. Kaletarrok (euskaldun zein erdaldun) ez gara normalean aniztasun horretaz jabetzen: garai batean egiatik hurbil zebilkeen egoera baten klixer zaharkitu bati estekaturik gaude maiz. Horregatik da hain funtsezko, *arnasguneen etorkizun-asmoa arnasguneetatik bertatik abiatzea*. Kanpoko laguntza behar dute, alde askotatik: esparru juridikotik, instituzionaletik, ekonomikotik, lurralde-antolamenduzkotik, intelektual-akademikotik, iritzi-sortzaileen esparrutik,.. Bertan izan behar dute ordea hauspoa eta bihotza: kanpoko parakaidistak, borondaterik onenaz ere, gutxitan izango dira arnasguneen soluzio-iturri.

Lehenetsi beharreko *enfoketako-norabidean* eta, batez ere, *neurri kontuan* asmatzea oso zaila da. Arnasguneei iraupenezko bizibidea, “jana eta

lana” emango dieten babes- eta suspertze-ekimen deliberatuak beharrezkoak dira: gero eta beharrezkoago. Baina ekimenok “norabide egokian” eta “beren neurrian” hartzekoak dira. Bertako herritarrentzat izan behar dute, lehenik eta behin, egoki. Bertatik abiatu behar dute.

VII.8 Behetik gorako ekimen-bidea (berr)indartu behar da

Hizkuntza-plangintzaren enfoke konkretu batean hazi eta hezitakoak gara euskaltzaleok eta, oro har, Mendebal Europako hiztun-herri txikien aldeko gehienak. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioak formulatu eta aplikatzeko orduan urrezko arau bihurtu dugu hizkuntza-eskubideek bermaturiko zerbitzu-hartzailearen, zerbitzu-kontsumitzailearen perspektiba. Hori izan dugu azken 40 urte inguruan nagusi: “euskara ofiziala denez, eta hala den heinean, X zerbitzua (osasun-zaintza, hezkuntza, administrazioa, komunikabide publikoak,..) euskaraz jasotzeko eskubidea dugu. Datorkigula beraz X zerbitzua, dagokion instantzia ofizialetik”. Hots, gure hizkuntza-eskubideak asetzeko lain izango den goitik beherako hizkuntza-plangintza “berdintzailearen” aldeko gartsu bihurtu gara. Eskubide hori betetzeko hainbat ahalegin egin da goitik behera, behetik gorako eskaria (banaka zein taldean formulatua) aintzakotzat hartuz. Horri eskerrak zerbitzu hau (euskal eskola), hori (euskal telebista) eta hura (osasun-atentzio primarioa) ematen ari dira (normalean aukeran, zenbaitetan partez bakarrik) kasuan kasuko herr-aginteak eta beste zenbait erakunde edo instantzia ofizial (ikus, adibidez, kutzazain automatikoak).

Horrela dira gauzak, bereziki, arnasguneetan: horrela, D ereduak dira bertan edo inguruan dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola guztiak (bigarren mailako asko ere bai, baina ez guztiak: Lanbide Hezkuntzan gordinago daude kontuak), euskaraz atenditzen dute udaletxean, euskaldun dira mediku asko, euskaraz ematen dira mezak (guztiak edo gehienak), euskarak leku agiria du kaleko eta jendaurreko (tabernako, dendako, jolastokiko eta abarreko) errotulazioan, eta euskarazko irrati-telebista publikoen aukera hor dago.

Prozesu hori ez da amaitu; osatzea komeni da gainera. Baina bide hori nekez iritsiko da, onenean ere, dagoeneko iritsi den baino askoz urrutiago. Egungo egunean eskaintzen dena baino askoz gehiago ezin da eskaini, goitik beherako jarduera publiko edo ofizial hutsaz. Hobetu bai, eta ez gutxi; nabarmen zabaldu, ordea, nekez. Hortik aurrerakoa, batez ere esfera semi-publikoan eta handik harantz hedatzen den esfera kolektibo pribatuan (soziedade gastronomiko eta kirol-elkartetan, mer-

Egungo egunean eskaintzen dena baino askoz gehiago ezin da eskaini, goitik beherako jarduera publiko edo ofizial hutsaz. Hobetu bai, eta ez gutxi; nabarmen zabaldu, ordea, nekez.

[...] Top-down filosofia bottom-up irizpidez osatu eta orekatu beharra dauka euskalgintzak. Inon baino egingarriago da hori hainbat arnasgunetan.

**Euskalgintzaren
esparruan
zentrala da
arnasguneak
bizirik gordetzea
eta, ahal delarik,
barrura indartuz
kanpora
zabaltzea.**

kataritzan, turismo-eskaintzan, festa-antolakuntzan,..) mila bider errazagoa da behetik gora jardutea: hartarako prest dauden herritar-multzo esanguratsuen eraginez euskarazko biziari ateak “berez”, goitik beherako interbentzio zorrotzik gabe, zabalduko dizkion ekimen-bidea indartu (edo, lehendik hainbat pauso eman delarik) berrindartu beharra dago. Top-down filosofia bottom-up irizpidez osatu eta orekatu beharra dauka euskalgintzak. Inon baino egingarriago da hori hainbat arnasgunetan.

VII.9 Barrutik sortu behar du saioak, eta barrutik eraman behar da aurrera. Aldeko jarrera eta konpromiso proaktiboa behar ditu goiko instantzietan

Arnasguneen indarberritze-saioa arnasguneek moldatu behar dute: beraien egiteko nagusia da. Arnasgunetik beretik egin behar da indarberritze hori: urtean behingo parakaidista asko-jakinik ez dute arnasguneek behar. Aholku-mailerik bai, eta babes-laguntzailerik ere bai. Kapitain-piloturik ez. Zer egin, eta noiz-nola, ganoraz eztabaidatu, adostu eta aplikatzen saiatu behar dute herritarren artean, eta adostasun zabala eskuratu. Herritarrak gogor zatikatzen dituen indarberritze-proiektuak nekez (bestela baino askoz nekezago) egin ahal izango du aurrera.

Udaleko, eskualdeko, Lurraldeko eta hortik gorako instantziek entzun eta ulertu egin behar dute, lehen-lehenik, arnasguneek zer egin nahi duten. Ulertu eta, ahal delarik, konpartitu. Goragoko instantzion aldeko jarrera eta konpromiso proaktiboa funtsezkoak dira. Hori ere ez da zerutik etorriko: landu egin behar da.

Oso lan zaila da hori guztia. Zaila baina ezinbestekoa. Handien eta txikien, partez berdinen eta halere aski nortasun berezikoien, elkarbizitza modu berri bat asmatu eta hezurmamitu beharra iradokitzen du horrek. Lan zaila, baina sormen-aukera bizikoa, da elkarbizitza molde hori aurrera eramatea. Gizarte-berrikuntzaren (berrikuntza molde baten: ez molde estatistikoki nagusiaren, bai jator-modernotasunak modurik sarkorrenean bilbatuko dituen sinbiosi berri baten) kabi eta harrobi izatea eskatzen du saio horrek. XXI. mendeak bere altzoan dituen kontraesan, tirabira eta defizit askori bertako baldintza-ingurumenetan erantzuteko balio izango duen konpromiso-bide askoren aitzindari izan liteke arnasguneetako langintza hori, ez *marginalia* nostalgiko baten azken arrasto hutsal.

AZKEN HITZ

Iritsi gara, horrenbestez, azaldu nahi genituenak (ondo ala gaizki, bestek esango du) azaltzera. Ez genioke lanari bukaera-zigilua erantsi nahi, bospasei ohar xume erantsi aurretik. Hona, labur-labur:

Euskalgintzaren esparruan zentrala da arnaguneak bizirik gordetzea eta, ahal delarik, barrura indartuz kanpora zabaltzea. Maiz entzuna dugu honelakorik: “hori ere ez zegok gaizki, egin ahal izanez gero. Baina gurea da lehenbizi: Donostiako (berdin beste hiriburur, hiriburur eta konurbazio zabaletako) euskaltzaleon hizkuntza-eskubideak asetakoan, helduko diegu bazter-konttu horiei”. Arnasguneen gaia ezin da horrela tratatu, euskal hiztun-elkartearen osasuna baldin badugu xede.

Arnasguneen garrantzia ez da kuantitatiboa, kualitatiboa baizik. Kuantitatibismo gehiegizkoak itsutu egin gaitu: bi “ia-euskaldun”-ek ez dute euskaldun garbi baten laurdenik balio, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez. Horrelako zenbakiak, gizarte-panorama argitu ordez, distortsionatu egin digute erabat.

Eguneroko mintzajardun arrunta eta jardun horren belaunez belauneko transmisioa (35-40 urtekoa) begien bistan, ekimen osoaren ardatzean, espresuki aitortua eta efektiboki inkorporatua ez duen euskalgintzak ez du arrakasta-aukera handirik. Hori ulertzen ez dugun artean alferrik ari gara. Kontua ez da udal-ordenantzak euskaraturik izatea (eta zenbait kasutan, ez beti, gai horietaz euskaraz jardutea). Zenbat lagunak dihardu du material (normalean idatzi) horretaz, euskaraz zein erdaraz, Donostian edo dena delako kalegiroan? Zenbat orduz dihardu halakok, egunean zehar, material horrekin lanean? Zenbat egunez urtean zehar? Zenbat herritarrengan inpaktatzen du bere jardun horrek, herriko hizkeran? Herritarren %1ek, urteko egunen %20an, herritarren %10engan eragiten ote du? Nekez: baina demagun hala dela eta egin dezagun hortik aurrera. Beraz %0,02ko inpaktu-neurrietan zentratzea al dugu gure euskalgintzaren lehentasuna? Horrela espero al dugu euskarazko bizia suspertu eta zabaltzea? Hizkuntza bizien oinarri nagusia ez dago horrelako ekimenetan, beste nonbait baizik: etxean eta kalean, lagunartean eta dendan, tabernan eta parkean, lanean eta gizarte-bizitza zabalean. Hor eutsi behar zaio euskarari bizirik, lehenik eta behin, bizirik dagoen ingurumenetan. Lehentasun bizia da hori. Lehentasunen perspektiba global hori galtzea kaltegarri da oso. Lehentasunik gabeko euskalgintza ez da euskalgintza zuhurra. Bizitari eustea, eta biziaren jardungune nagusiak ardatz izatea, eskatzen du lehentasunetan oinarrituriko euskalgintza orok.

Hizkuntza bizien oinarri nagusia [...] etxean eta kalean [dago], lagunartean eta dendan, tabernan eta parkean, lanean eta gizarte-bizitza zabalean. Hor eutsi behar zaio euskarari bizirik, lehenik eta behin, bizirik dagoen ingurumenetan. Lehentasun bizia da hori. [...] Arnasguneetan bakarrik gertatzen da nagusitasun hor.

Arnasguneetan euskara da nagusi (zenbaitetan jaun eta jabe) etxean eta kalean, lagunartean eta dendan, tabernan eta parkean, partez lanean eta oro har gizarte-bizitza zabalean. Handik kanpora erdara dute nagusi, eta etxean ere bai komunikabideetan, idatzizko jardunean etab. Belaunez belauneko transmisioaren eragile nagusi diren jardun-guneotan nagusi da euskara. Arnasguneetan bakarrik gertatzen da nagusitasun hori, perspektiba geoterritorialean. “Detaile” horretaz ahaztuta ez daukagu aurrerabide handirik: ez ganorazko formulazio teorikorik eta ez aplikazio praktiko baliagarriak.

Beste era batera esanik, lehentasun osokoa da arnasguneen euste-, osatze eta zabaltze-lanean zentraturiko euskalgintza. Gainerako saio asko lagungarri da kasurik onenean, eta denbora-pasa huts okerreanean. Arnasguneetatik kanpora ere bada, jakina, lehentasun handiko esparrurik⁶⁶: handiagokorik ez ordea, gure ustez. ●

ERANSKINA

ARNASGUNEEN SAILKAPEN HIRUKOITZA: ARNASGUNE MOTA

BAKOITZAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Gorago (ikus IV.4 atala) azaldu denez, arnasmune guztien sailkapen hirukoitza egin da. Sailkapen hori egiteko lau parametro soziolinguistiko nagusi erabili dira: *eguneroko jardun arruntaren nagusitasun-moldaera (eja/nm)*, *belaunez belauneko jarraipena (bbj)*, *mintzaldaketa (ma)* eta *konpartimentazio soziofuntzionala (ksf)*⁶⁷. Parametro horiek kontuan izanik **BZ-5**, **BZ-6a** eta **BZ-6b** arnasmune-motak bereizi dira. Hona hirurak:

BZ-5. *Arnasmune bete garatuak* esan diegu hauei. Herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz mamitzen da bertan, hitzez eta (hainbatean) idatziz. Beren artean (eta beste hainbat euskaldunekin) euskaraz ari izaten dira (BZ-5)-eko herritar gehien-gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntan. Irakurri eta (hainbatean) idatzi ere euskaraz egiten dute eguneroko kontuez, batez ere bertako berriez. Euskal literatura (prentsa barne) sarri eta zabal kontsumitzen dute, erdarazkoaz bat. Gipuzkoan (eta, agian, Bizkaian eta Nafarroako euskal eremuan) daude arnasmune bete garatuok.

Hona arnasmune bete garatuen ezaugarri teknikoak:

- *eja/nm*: Etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusitasun-moldaera argia du euskarazko jardunak, hitzez eta (hainbatean) idatziz. Hitzezko nagusitasun hori interakzio informal-espontaneo eskatzen duten aurrez aurreko rol-harremanetan da argien.
- *bbj*: Eguneroko bizimodu arruntan duen nagusitasun argiari eskerrak, belaunez belauneko jarraipena segurtaturik dauka euskarak arnasmuneotan.
- *ma*: arnasmune bete garatuetan ez da *eus > erd* norabideko mintzaldaketa zabalik, eguneroko jardun arruntan, hitzez. Bai, aldiz, bertako edo inguruko kontuen irakurketa-idazketan: *erd > eusk* norabidean ari da, uste baino nekezago halere, arnasmuneotan burujasotze hori gertatzen;
- *ksf*: Konpartimentazio sozio-funtzionala indarrean dago arnasmuneotan, bai hitzez (herri edo eskualde euskaldun sendotik haranzko erdaldunekin) eta bai idatziz (zabalagoko kultura-kontsumoan, lantegiko jarduera formalean edota tramitazio administratiboan). Erdara da horretan guztian, oro har, nagusi.

Osagarritzko oharrak: Gutxi dira, gaur egun, hain euskaltasun beteko arnasguneak. Gehiago, aldiz, idatzizkoan horretara hurbiltzen ari direnak. Arnasgune bete garatuetan “*bbj* segurtaturik” dagoela esaten denean, bestalde, segurtasun *baldintzatuaz* ari gara. Belaunez belauneko jarraipena segurtaturik dago, zenbait baldintza biodemografikok transmisio-prozesua okertzen ez badu. Arrisku-iturri dira, bereziki: a) bertako gazteak ikastera, lanera edota bizi izatera erdal-giroa nagusi den norabait joatea; b) bikote erdalduna egin eta eguneroko jardun arrunta (etxean, lagunartean,..) erdarara makurtzea. Hori guztia ez dago arnasgunearen beraren esku. Gertaera sozioestatistiko jeneralez ari gara hemen.

BZ-6a: *Arnasgune bete hitzezkoak* esan diegu hauei. Herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz mamitzen da, hitzez: idatziz ez da, urrundik ere, halakorik ageri. Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6a)-ko herritar gehien-gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Irakurri eta (bereziki) idatzi, aldiz, erdaraz egiten dute beti edo ia beti.

Hona arnasgune bete hitzezkoen ezaugarri teknikoak:

- *eja/nm*: Etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusitasun-moldaera argia du euskarazko jardunak, hitzez. Ez, ordea, idatziz. Hitzezko nagusitasun hori interakzio informal-espontaneo eskatzen duten aurrez aurreko rol-harremanetan azaltzen da argien.
- *bbj*: Eguneroko bizimodu arruntean duen nagusitasun argiari eskerrak, belaunez belauneko jarraipena segurtaturik dauka euskarak arnasgune bete hitzezkoetan.
- *ma*: Mintzaldaketarik ez da ageri eguneroko jardun arruntean. Bai aldiz, hein batean, bertako tramitazio eta prozedura administratiboetan (hitzezko jardunean *erd > eusk* zabalduz doa);
- *ksf*: Konpartimentazio sozio-funtzionala indarrean dago: irakurtzeko edo idazteko orduan erdara da nagusi, ez euskara. Aldiz bertara etortzen diren erdaldunekin, herri- edo eskualde-esparrutik haranzko kultura-kontsumoan edo lan-munduko esparru formalean erdara da nagusi.

Osagarritzko oharrak: Ez da erraza, egungo egunean, (BZ-5) neurri-mailan dauden arnasguneak (BZ-6a)-n daudenetatik argi bereiztea: zenbaitetan, are familia berean, zaharrak (BZ-6a) neurri-mailan daude eta gazte(ago)ak (demagun 40 urtetik beherakoak) (BZ-5)-ean. Horrekin batera, (BZ-6a) neurri-mailako arnasgune asko transformazio-fase bizioan

dago: (BZ-6a) mailatik (BZ-5)-era pasatzen ari da halako zenbait; aldi berean, ordea, okerrera egiten ari da hainbat arnagune: BZ-6b edo BZ-6c mailetara. Gipuzkoan, Bizkaiko eta Nafarroako euskal eremuan daude arnaguneok. Batez ere Gipuzkoan.

BZ-6b: *Arnagune erasanak.* Herritar gehienek eguneroko jardun arrunta euskaraz mamitzen da arnaguneotan; hainbat herritarrena erdaraz. Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6b)-ko herritar gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntean. Txikiago izanik ere bada herrian, halere, erabat edo nagusiki erdaraz egiten duen hiztun-multzo ohargarriak. Irakur-idatzizko jardunean ez dago nagusitasun-arrasto zurrunik: euskaraz maiz irakurtzen eta idazten duten herritarren ondoan asko dira erdara hutsezkoak, tar-te-bitarteko segmentu zabala ere hor delarik.

Hona, azkenik, arnagune erasanen ezaugarri teknikoak:

- *ej/nm*: etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusi da euskarazko jarduna, hitzez (ez idatziz). Interakzio informal-espontaneo eskatzen duten aurrez aurreko rol-harremanetan ageri da argien nagusitasun hori. Kalean eta lagunartean erdaraz egiten duen herritar multzoak pisu nabaria du ordea dagoeneko, gehiengo ez bada ere. Euskarazko hiztun-talde hurbila, aurrez aurreko interakzio bizikoa, kontzentrazio-dentsitatez ahultzen ari da baina, halere, kalean eta herri-giro zabalean euskarazko jarduna da nagusi.
- *bbj*: euskararen nagusitasun-moldaera birmoldatzen eta bihurtzen ari bada ere, belanez belaneko jarraipena segurtaturik dauka euskarak oraingoz.
- *ma*: mintzaldaketarik ez da falta, bai *eus* > *erd* eta bai *erd* > *eus* norabidean. Minoritarioa da, halere, *eus* > *erd*;
- *ksf*: konpartimentazio soziofuntzionala indarrean dago euskal hiztunen artean. Etxean eta eskolan, kalean eta tabernan, dendan eta elizan, euskarazko jarduna da herritar gehienek artean normala, “atentzioa deitzen ez duena”. Erdarazko jarduna ere etxekotzen ari da ordea, edota jadanik etxekoturik dago (horrek ere gero eta gutxiagotan atentzioa deitzen du); baina ez da herritar gehienek arau nagusi. Aldiz herri- edo eskualde-esparrutik haranzko kultura-kontsumoan, lan-munduko esparru formalenetan eta tramitazio administratiboan erdara da nagusi. Konpartimentazio-arrastorik badago oraindik, ahultzen ari bada ere.

Osagarritzko oharrak: Honelakoak dira, egungo egunean, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat arnasgune. Hiztun-kopuruz, zabaltasun soziofuntzionalerik eta eskualde-ingurumenez Azpeitia da *arnasgune* erasan guztietan nagusi: askogatik nagusi. Araban eta Iparraldean ez dago, dakigula, (BZ-6b) mailako arnasgune erasan argirik (izatekotan Aramaio izan liteke halakoa Araban, eta Baigorri Iparraldean. Eskuartean dugun informazio mugatuaren argitan ez gaude batere seguru, halere, bata zein bestea osasun-maila horretan daudenik.

XX. mendearen bigarren erdialdera arte (BZ-6a) neurri-mailan egondako hainbat arnasgune (BZ-6b)-ra pasa da geroztik. Beste hainbatek azken hamabost-hogei urtean izan du osasun-galera hori, edota oraintxe ari da aldatzen. Batez ere EAEn eta Nafarroako euskal eremuan ari da indar-galtze hori gertatzen (Iparraldean lehenago hasi ziren azken arnasgune beteak galtzen).

OHARRAK

1. Ez gara bakarrak hori esaten: “Zalantzarik ez dago, azken urteotan hizkuntza gutxituen normalizazio-prozesuetan arnasguneek garrantzi handia hartu dutela.” Iturria Paul Bilbao eta Josu Labaka, 2018: “Arnasguneak politiken erdigunera”, *Berria* 2018-II-3.
2. Tartean (demagun UEMAra eta Kontseilura), unibertsitate-esparrura, administrazio lokalera eta goragoko zenbait erabaki-gunetara.
3. Norbanako jakinei dagokienez, demagun J. Inazio Markok zuzenduriko *Juego de debate EkoLinguA y proyecto DiKomA*-ren 19. informazio-karta, izenburu gisa “Nichos vitales” (*arnasguneak*) daramana: Los “nichos vitales” o “arnasguneak” son zonas geográficas en las que el euskara se transmite y se desarrolla sin trabas (los municipios euskaldunes, principalmente); aquellos lugares donde el euskara fluye con toda naturalidad aún sin una política lingüística específica. En esas zonas el euskara cumple funciones prioritarias; o incluso exclusivas en ciertos ámbitos.” Ikus, orobat, karta horri buruzko eztabaida-atala: “La importancia de los ‘nicho vitales’ de una lengua (arnasguneak). Para que una lengua minorizada revitalice, ¿qué importancia tiene el que existan zonas geográficas de concentración lingüística en las que dicha lengua sea la principal?” Ikus, azkenik, bertako jarrera-lanketa: “1. Impulsar los “nichos vitales” del euskera (arnasguneak). En aquellos municipios mayoritariamente euskaldunes, las instituciones y la comunidad deben afanarse en garantizar la conservación y fortalecer el ecosistema local del euskera, aplicando el principio de subsidiariedad (no hacer en una lengua ‘global’ lo que puede hacerse en una lengua ‘local’) y asignando al euskera las funciones locales diarias.” Ikus azkenik, horren osagarri, BZ-6c, BZ-6d eta BZ-7 mailako ingurumenetarako seinalatu izan dugunaren ildo beretik (Zalbide, 2016: 133-136), “impulsar ‘núcleos de densidad’ del euskera. En aquellos municipios que no son mayoritariamente euskaldunes, las instituciones y la comunidad deben afanarse en reconstruir y fortalecer el ecosistema local del euskera, creando y expandiendo algunos espacios como ‘núcleos de densidad’ donde el euskera sea predominante.” Aipamen hauen iturria: Eusko Ikaskuntza eta Soziolinguistika Klusterra, 2015. *EkoLinguA, La ecología lingüística como medio de empoderamiento de la comunidad lingüística*.
4. Hona hemen, gainerako hainbaten erakusgarri, zenbait aipamen: Bakioko Udala: “Herri euskaldun baten alde ari gara lanean, euskararen arnasguneetatik, arnasguneak zainduz eta hedatuz Euskal Herri euskalduna lortuko dugula sinesten.” (Iturria <http://www.bakio.eus/es-ES/Ayuntamiento/Grabacion-plenos/Documents/2018-04-26.pdf>); Bizkaiko Foru Aldundia, *Bilbo metropolitarraren eremu funtzionalaren lurralde plan partzialaren*

berrikuspena: “se plantean la necesidad de un diseño urbano que propicie los espacios de relación y el fortalecimiento de redes presenciales, y la necesidad de preservar y fortalecer los municipios denominados *arnasguneak* o con potencial de serlo.”

Dimako eta Gatikako udalak: “Según los expertos, es imprescindible que las lenguas minorizadas cuenten con zonas geográficas donde esa lengua es mayoritaria. A estos lugares se les denomina “arnasgune” (*espacio vital*), ya que los habitantes tienen la posibilidad de emplear con normalidad dicha lengua, de forma que, se puede decir que las lenguas “respiran”. (ikus *Noticias*, 2015-XI-10).

Bada tartean, azkenik, elkar hartuzko lankidetzeta-saiorik ere: 2014an UEMAk, Kontseiluak, UEUk eta Gipuzkoako Aldundiak *Lurraldea eta Hizkuntza* izeneko jardunaldi-sorta antolatzeari ekin zioten, hainbat diziplina elkarrekin lanean jartzea lortuz eta ondorio honetara iritsiz: Lurralde-antolaketan hartzen diren erabaki gehienek eragina dute arnasguneetako hizkuntza gubituaren egoeran. Gure iturria: 2018-02-05 Bloga, “Arnasguneak politiken erdigunera” (Paul Bilbao eta Josu Labaka).

5. Hots, han-hemen kontrastatu eta baliagarririk.

6. Ekarpene erraldoia egin dio Joshua A. Fishman-ek hizkuntza-soziologiari: jakintza-gai honen eraikitzaile nagusietarikotzat hartzen da eskuarki, mundu zabalean, eta zientzia-adar honen XX. mendearen bigarren erdialdeko bidegile nagusitzat hartzen du zenbaitek. Lan asko ditu Joshua A. Fishman-ek, arnasguneen garrantzia ulertzeko argigarri eta funtsezko direnak. Langintza zabal horretatik hauek azpimarratuko ditugu hemen: 1964ko *Language maintenance and language shift as a field of inquiry*, 1985eko “Epilogue: The Rise and Fall of the <<Ethnic Revival>> in the USA”, orobat 1985eko “The societal basis of the intergenerational continuity of additional languages”, 1991ko *Reversing Language Shift*, 2001eko “Why is it so hard to save a threatened language” eta “From theory to practice (and viceversa): review, reconsideration and reiteration” eta, azkenik, 2007ko (jatorriz 1996ko) “Maintaining Languages: what works and what doesn’t”.

7. *East Sutherland Gaelic* (d/z)elakoaren gainbehera zentratuak luzaro (50 bat urtez) arras baliagarri diren ondorioak atera zituen berak, bai mintzajardunaren giza arteko moldaerari dagokionean eta bai bertako hizkeraren bestelakotze/erdalduntze alorrean. Bereak dira, besteak beste, 1981eko *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*, 1992ko [jatorriz 1989ko *Investigating Obsolescence: Studies in Language Contraction and Death*], 2010eko *Investigating Variation: The Effects of Social Organization and Social Setting* eta *Small-Language Fates and Prospects: Lessons of Persistence and Change from Endangered Languages*.

8. Ikus, besteak beste, honako argitalpenok: 1983ko *Language Shift in the United States*, urte bereko *Le déclin du dialecte alsacien*, 1989ko “La transmission de l’alsacien dans le milieu familial” eta 1999ko “Concentration ethnique et usages linguistiques en milieu scolaire”.

9. Ikus, batetik, Spolsky 1975 eta 1995; ikus, bestetik, Spolsky, Bernard eta J. Kari, 1978.

10. Joshua A. Fishman-en *Language maintenance and language shift as a field of inquiry* da, jakina denez, hizkuntza-soziologiaren funtsezko azter-eremu horren iturburu nagusia (Fishman, 1964). Oso kontuan hartzekoak dira, orobat, *Language Endangerment* eta *Language Death* errotulupean agertu ohi direnak, batetik, eta, edukiz eta adieraz gauza bera ez izan arren, *Language Attrition* eta *Language Obsolescence* sailekoak.

11. Ikus, bereziki, Emili Boix-Fuster 2009 eta 2015, Raquel Casesnoves-Ferrer eta Josep À. Mas 2017, Enrico Chesà 2003 eta 2012, Antoni Mas i Miralles eta Brauli Montoya Abat 2011 eta, azkenik, Joan Albert Villaverde 2009.

12. *Sprachinsel* terminoaren iturburuak aski ezagunak dira: “The term ‘Sprachinsel’ was used for the first time in 1847 to designate a Slavonic community surrounded by a German-speaking population close to Königsberg, East Prussia” (Auer, Peter, Frans Hinskens eta Paul Kerswill, 2005: *Dialect change: convergence and divergence in European languages*. cf.

Mattheier 1996: 812). Horren aurretik zetorren frantsesezko (gero ingelesezko, gaztelaniazko, etab.) *enclave* (gero, inoiz, antzeko adieraz, *exclave*: "the word *enclave*, modeled on *enclave*, is a logically extended back-formation of *enclave*" terminoa eta berekin duen kontzeptu-multzoa: "The word *enclave* is French and first appeared in the mid 15th century as a derivative of the verb *enclaver* (1283), from the colloquial Latin *inclavare* (to close with a key)". [7] Originally, it was a term of property law that denoted the situation of a land or parcel of land surrounded by land owned by a different owner, (...) The first diplomatic document to contain the word *enclave* was the Treaty of Madrid, signed in 1526. Later, the term *enclave* began to be used also to refer to parcels of countries, counties, fiefs, communes, towns, parishes, etc. that were surrounded by alien territory". Hizkuntza ez zen, horrelakoetan, bereizgarri bakarra; ezinbestekoa ere ez: "an *enclave* is a community of an ethnic group inside an area in which another ethnic group predominates. *Ghettos*, *Little Italys*, *barrios* and *Chinatowns* are examples. These areas may have a separate language, culture and economic system". Hizkuntza-soziologiaren perspektibatik guregana iritsi diren kontzeptu nagusiak *Sprachinsel*, *language island* eta *enclave linguístico* dira. Ikus, adibidez, definizio-saio hauek: "unter *Sprachinsel* wird eine verhältnismäßig kleine geschlossene Sprach- und Siedlungsgemeinschaft verstanden, die sich in einem größeren fremden Sprachgebiet befindet"; "a *language island* is an *exclave* of a language that is surrounded by one or more different languages. Alemanezko bibliografia teknikoan aparteko garrantzia izanik du *Sprachinsel* terminoak 1850 ingurutik aurrera, batez ere mundu-gerra bien arteko 1920-40 epealdian. Ikus, adibidez, *Sprachinselkunde* edota *Sprachinselforschung* alorreko gaitan zentratutako Kuhn 1934). Batez ere Hungariako, Errumaniako, ESSB ohiko eta Eki-Europako beste zenbait hiztun-talde alemanek bizi izandako baldintza sozio-historikoak, hizkuntzaren barne-osaera eta auzo-hizkuntzekiko konbergentzia, hiztun-talde zatikatu haien mintza- eta idatz-jarduna eta belaunez belauneko bilakaera azaltzen dute 1940 aurreko saio haiek. *Sprachinsel* direlakoan azterbide soziolinguistikoa aski itzaldurik dago azken hamarkadotan, motibo ezagunengatik: kontzeptuari erantsi zitzaion nazi-kutsuaz gainera, Eki-Europako *Sprachinsel* aleman gehienak galdu egin ziren II. Mundu Gerraren ondoren eta nola-hala bizirik iraundako apurra azken hata ematen ari dira (ikus Kurt Rein, 1999). Gaiak badu orain ere, ordea, ezin ukatuzko bizi-indarrak aleman-hizkuntzako esparru akademikoan: ikus, adibidez, Csaba Földes, 2006: „*Sprachinsel*“ – Paradigma auf dem Prüfstand. Konzept, Terminologie und Forschungsmethodologie. In: Zeitschrift für Deutsche Philologie 125, 321–341.

13. Batez ere XIX. mendera arteko fenomeno transeuropar zabal-urrundura *Sprachinsel* direlakoak; egungo eguneko gertakari hurbil-xume ditugu, aldiz, euskal hiztun-elkartek mintza-esparru zabal-bortitz-segururik ez dueneko *arnasguneak*. Arras handia da, alde horretatik, bien arteko leku-denborazko etena.

14. Arrisku bizirik ere bai: 1933tik aurrera, aurrekari argirik falta ez den arren, lotura nabarmenak izanik ditu *Sprachinselkunde* edo *Sprachinselforschung* hark, hainbat puntutan, agintari nazien zabalkunde-asmu jakinekin. Beste gai bat da hori ordea, besteak beste direla Gerd Simon-ek 1986ko *Wissenschaft und Wende 1933. Zum Verhältnis von Wissenschaft und Politik am Beispiel des Sprachwissenschaftlers Georg Schmidt-Rohr* PDFan eta Christopher Hutton-ek bere 1999ko *Linguistics and the Third Reich. Mother-tongue Fascism, Race and the Science of Language* liburuan argi eta sakon landua.

15. "Une *enclave linguistique*, ou un *îlot linguistique* est une zone linguistique complètement délimitée par une frontière linguistique". Horrelakoa izanik da, argi ez dakigun une batetik aurrera eta gutxienez XIII. mendera arte, Ezkarai-Ojakastro inguru euskal perspektibatik; aitzitik erdal (kasu honetan gaskoi-) enklabea izanik da Donostia (eta bere inguruko kosta-herri zenbait) 1180an hasi eta hiruzpalau mendez. Era berean, bizirik dagoen heinean (ikus Generalitat-en azken datuak batetik eta Chesá 2003 eta 2012 bestetik) hizkuntza-uharte edo hizkuntza-kabi da, katalan-esparruentzat, Zardiniako Alghero. Egungo egunean horrelakotzat har liteke orobat, muga-bereizgarri eta elearteko nahas-egoera nabarmenik falta ez zaion arren, *Région de Bruxelles-Capitale* delakoa ere.

16. Reciben el nombre de *enclave lingüístico* o *isla lingüística* las zonas cuya lengua es ajeno al sistema lingüístico del territorio que la rodea. (Lázaro Carreter, Fernando (1980). *Diccionario de términos filológicos*. Madrid: Gredos. p. 158.

17. Txosten horretan argi esaten denez, “The study is based upon a theoretical perspective which considered the various social and institutional aspects whereby a language group produces and reproduces itself. This involved focusing upon seven central concepts for which empirical measures were sought. The primary agencies of these processes were identified as the family, education and the community. The motivating force involved the concept of language prestige, or the value of a language for social mobility, and cultural reproduction. The link between ability and use related to the concepts of institutionalisation and legitimisation (...).” *Euromosaic* tostena egiteko, luze-zabaleko azterlana burutu zuten ikerlari hauek: Bartzelonako *Institut de Sociolingüística Catalana*, Bruselako *Centre de Recherche sur le plurilinguisme* eta Bangor-ko *Research Centre Wales*. Txosten orokor horrezaz gainera, lekuan lekuko azalpen-txostenak prestatu ziren hiru langune horietan: guztira 50 azalpenetik gora, uniformeki landuak.

18. Bere hitzetan esanik “Strategies of language ‘assimilation and dissimilation’ (Bourdieu, 1991) are inevitably and unavoidably linked to the more general strategies of social reproduction adopted by groups and individuals (i.e. the strategies by which each generation endeavours to transmit to the following generation the advantages it holds). Thus strategies of social mobility that involve, for example, education, changes of occupation, changes of residence or migration, are all likely to have linguistic consequences. (...) To examine the linguistic consequences of strategies of social reproduction, the strategies themselves have to be ‘situated’ (Giddens, 1984) in space and time, i.e. located with regard to the territorial organisation of the local community and the relationship of this to the wider national and international economy. The territorial organisation of communities includes not only the daily patterns of social interaction as members of the community move between home, workplace, school, shop, church and other services but also more extensive movements of people and capital, including all forms of migration and tourism.” (...) “These patterns of interaction are, of course, subject to change as the area responds to the opportunities and pressures of its external environment. From the viewpoint of language maintenance in a bilingual context, a crucial question concerns the way changes in strategies of reproduction affect network boundaries, or in more formal sociological terms, the degree to which the social networks of a language community are open or closed.”

19. Zehazkiago esanik, eguneroko jardun arruntan euskaraz egiten duten hiztunen *kopuru absolutua* eta, batez ere, hiztun-talde horien kontzentrazio-dentsitateak eta euskaraz egitera bultzatzen duen norma sozialak eragiten duen interakzioa: horiek dira eguneroko jardun arruntan nagusiki euskaraz edo batez ere erdaraz egitearen giltzarri.

20. Hots: ahuldutako hiztun-elkarteari eta bertako hiztun-talde zein harreman-sareei.

21. Disziplina akademiko horren oinarritzko konstruktuko teorikoak baliatuko dira horregatik, beharrezkoak diren heinean.

22. “hizkuntza indarberritzea”-z jarduten bada ere maizenik, badakigu besterik esan nahi izaten dela termino horrekin: hizkuntza bera bezainbat, edo gehiago, partez edo osoz hizkuntza horretaz baliatzen den hiztun-elkartea (edo bere baitako hiztun-talde edo harreman-sare zenbait) indarberritu nahi izaten da.

23. Batez ere lurralde-antolamenduaren alorreko agintariak eta erakunde-ordezkariek, bidebatezko euskalgintzan hainbateko eragina dutenak. Bidebatezko euskalgintza edo plangintza zer den jakiteko ikus Zalbide 2007, 2015 eta 2016.

24. Ez paradigman sorreran eta lanketan, bai ordea bere zabalkundean eta giza arteko ezagutzaren aitzinamenduan.

25. Lau iritzi-emaileen ekarpenek eta amaierako gogoetatxoak arindu egiten dute, hein batez, laburtasun-muga hori.

26. Hizkuntza-soziologiaren alorreko lan zabalak irakurtzeko gogoia eta adorea ez da gure artean, zorritzarez, bereziki kartsua.

27. Jakintza-esparru zabalagoetan ere aurkitu izan du *Breathing Space* terminoak aplikazio akademikorik. Medikuntza alorrean, alergia kontuei buruzko lanetan, ikus adibidez Gregg Mitman-en 2007ko *Breathing Space: How Allergies Shape Our Lives and Landscapes*. Yale University Press. Aplikazio horrek ez du gure arnasgune-kontzeptuarekin lotura zuzenik. Joshua A. Fishman-ek hizkuntza-soziologiaren sailean, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko saioen atalean, sortutako formulazioaz ari gara hemen, ez osasun medikoaren alorrekoaz.

28. Arau hori ez da erabatekoa: badira noski eguzkia edo bainua goiko titi-poltsarik gabe hartzen duten emakumezkoak: gutxi, baina badira. Ez da “betidaniko” araua ere, ez eta “betirakoa”. Gizarte-arauak aldatu egiten dira aldiaren behin. Aldatzen ez diren artean arau dira ordea: guztiok dakigu leku eta aldi jakineko norma soziala zein den eta, oro har, norma horretara biltzen gara gehienok gure eguneroko jardunean. Hots, gizarte-araua arau da.

29. Ekarpen zoragarriak eginik ditu gai honetaz, gorago zerbait aipatu dugunez, Nancy Dorian-ek. Aurrerago helduko diogu gaiari, labur bilduz ari bagara ere behar duen lekua eskainiz.

30. Hizkuntza-ukipenaren eragina indartuz doa arnasguneetan ere, oro har. Erdal hitzez gainera esamolde asko eta asko etxekotzen ari dira herriko gazte(txo)en artean. Are perspektiba zabalagoan koka liteke fenomeno hori. Zerainen Elena Mendizabalek eta biok zenbait urtez egin genuen azteraldiaren argitan (ikus urte haietako *Xaguarte* aldizkaria), (orduko) 60 urtetik beherako belaunaldiak galera nabarmena ageri zuen 70 urtetik gorakoan aldean, baserri-munduari loturiko hitz-altxorri dagokionez. Erdarak gero eta nabarmenago erasanez ere euskaraz egiten dute ordea, beren artean, Zeraingo heldu eta gazte gehien-gehienek. Nagusitasun-moldaera hori da kontua, hemen axola diguna.

31. Hizkuntza-soziologiaren alorreko “dominance configuration” delakoa (ez Uriel Weinreich-en 1953ko formulazio psikolinguistikoa) dugu hemen gogoan. Ikus, adibidez, Fishman, Joshua A., Robert L. Cooper, Roxana Ma etab., 1968: *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*. Bertako perspektibatik ikus, adibidez, Zalbide 2009 eta 2016.

32. Alemanezko *Sprachverschiebung*, ingelesezko *language shift* edota gaztelaniazko *desplazamiento lingüístico* dugu gogoan, luze-zabaleko mintzaldaketa-z dihardugunean. Bertako perspektibatik ikus adibidez Zalbide 2001, 2002 eta 2016.

33. Terminologia teknikoari, eta hartatik eratortzen den kontzeptu-lanketari dagokionez ikus, adibidez, alemanezko *Sprachverlust* eta, batez ere, ingelesezko *language loss* bere (zati-)sinonimo ugariekin: perspektiba gradual batetik hor daude, besteak beste, *language attrition*, *language obsolescence*, *language loss* eta *language death*.

34. Bat dator ondorio etsi hori mundu zabaleko hainbat gertaera konprobaturekin. Austriako Estirian bizi diren esloveno-hiztunen kasuaz, esate baterako, Vienako unibertsitateko K. Prochazka-k eta G. Vogl-ek ondorio hau atera dute berrikitan, *Diffusionsphysik* delakotik hartutako metodoaz: “the simulation shows that other habitat conditions (the language of schools, and in parishes) are of **minor influence**” (azpimarra gurea). Iturria: K. Prochazka-k eta G. Vogl, 2017: Quantifying the driving factors for language shift in a bilingual region. PNAS 114(17), DOI: 10.1073/pnas.1617252114. Ikus orobat Eva Obermüller: “Welche Sprache in Schulen oder Gemeinden offiziell gesprochen wurde, hatte zumindest laut den Berechnungen **kaum Einfluss** auf die Entwicklung” (azpimarra gurea). Iturria: Eva Obermüller, “Warum Sprachen verschwinden”. science.ORF.at (2017ko martxoaren 14an argitara emana). Ahuldutako hizkuntza eskola bidez bizirik eusteko edo indarberritzeko saioen emaitza ahularen ondorio etsi hori bat dator, orobat, mintzaldaketari buruzko teorizazio-saio landuenekin. Ikus horretaz, besteak beste, Fishman-ek eskolaren eragin mugatuari buruz behin eta berriro esandakoak: ikus Fishman 1991 (artikulu horren aurrekaria euskaraz ere bada: Fishman 1990).

35. Umetan eta gazte(xo)tan batez ere etxean, auzoan, lagunartean, parkean, kalean, eskolan, kirolgintzan eta ikus-entzunezko zabalbideetan. Helduaroan, horrezaz gainera, lan-munduan eta harreman-sare gero eta zabal-ugariagoetan, aurrez aurre edo birtualki.
36. Ikus, batez ere, funtsezko artikuluko hauek: “La vida del euskera” eta “Más sobre la vida del euskera”, zehaztapenak bibliografia atalean.
37. Eguren ikuskaria aintzakotzat hartu behar bada, arnasegune genuen Gipuzkoa gehiena XIX. mendearen erdialdean. Badago motiborik, halere, Egurenen deskribapen zorrotza beste zenbait testigantzarekin konparatu behar izateko.
38. Iñaki Iurrebasoren lana da honetan guztian, gure ustez, definizioz argiena eta aplikazio-ahalmenez lagungarriena.
39. Erdaldun bat herrira etortzen denean (turista moduan, egun pasa), esate baterako, erdaraz egiten zaio. Horrek ez du, ezinbestean, eguneroko mintzajardun arrunta itzulipurdikatzen. Besterik da erdaldun asko sarri (herriko tabernak, plaza-ingurua eta are bertako jolas-parkeak zabal okupatuz, zer esanik ez bertara bizi izatera) etortzen direnean.
40. Idatzizko interakzioa indartzuz doa, dena den, belaunaldi gazteenetan batez ere. Idatzizko interakzioa ere eguneroko jardun arruntaren sailera hurbiltzen ari da beraz, hori dela medio. Alde handia dago ordea, oraindik, plano bien artean. Erdarazko “periodikua leitzuz ilustratzen da” orain ere, maiz aski, herritar euskaldun asko. Zer esanik ez dokumentazio ofiziala edo lan-esparruko tarteko direnean.
41. Garai batean, duela 150 urteko Gipuzkoan, Eguren-en aitormena erabat oker ez badabil, eskualde osoak genituen arnasegune: ia probintzia osoa, hiriburua eta zenbait herriburu alde batera utzita. Oraindik ere antzematen da Izarraitzen eta Hernioren gerribueltan euskal giro bizi(ago)ko *continuum* bat, udalerrri hutsetik harantzago doana. Baita Aizkorri-Aloña mendikatearen inguruko hainbat herri(xka)tan ere.
42. Gai horretaz azalpen zabalagoa jasotzeko ikus, adibidez, Zalbide 2016. Ikus, bereziki, BZ-6c, BZ-6d eta BZ-6e azpiatalak.
43. Zer da, hemen eta orain, nabarmena?: zenbaitetan nagusia, inoiz erabatekoa.
44. Demagun gotorleku-instantzia indartsu eta zabalduena: eskola-mundua. Eskolatik kanpora (maizenik eskolara joan aurretik) ikasten dute ikasle gehienek hitz egiten (etxean eta familiarartean, auzoan eta haur-parkean, lagunartean eta jolasean,...). Are gehiago: (oro har 16 edo 18 urtera arte, unibertsitate bidetik doazenek are beranduago arte) irauten duen eskola-aldi luzean ere eskolatik kanpora pasatzen dituzte esna-ordu gehienak (askogatik gehienak). Eskola-aldia amaitutakoan, are nabarmenagoa da eskolaz kanpoko bizimoduaren pisua eta eragina.
45. Hala izan dira belaunez belaun eta menderik mende. Orain ere halatsu dira, aski erasanik ez dauden heinean.
46. Hori bakarrik ez: arnaseguneetako herritar asko “arnasegunetik kanpora” bizi da hein ohargarri batez: gero eta “arnasegunetar” gehiagok handik kanpora egiten du lan; kanpoan egiten ditu orobat erosketa gehienak, kanpoan egiten bere Baxilergo-, Lanbide Heziketa zein unibertsitate-ikasketak, handik kanpora burutzen aisialdiko hainbat ekimen, eta abar.
47. Herritarren eta udaleko arduradunen edo zerbitzarien arteko hizketaz ari gara, ez bertako langile apurren idatzizko jardun espezifikoa. Arau nagusi izatera gutxitan iritsi den arren, bide batez esanik, idatzizko jardunean indartzuz doa euskarazko administrazio-lana hainbat arnasegunetan.
48. Hitzez, ez idatziz, bideratzen dira hizkuntza (hots, hiztun-elkarte) osasuntsuetan eguneroko mintzajardun arruntaren interakzio horiek, erabat edo nagusiki.
49. Besterik da, oso, inoiz (zenbaitetan ez hain aspaldi) halakorik izanik dela eta bihar-etzi berri ere halakorik izan lehin nahi dugula errebindikatzeko. Eskubide oso-oso dugu euskaltzaleok gure amets hori errebindikatzeko, baina “beste gauza bat” da hori. Erdal munduak lehen begi-kolpean antzematen du bien arteko aldea.

50. “Bide batezko” euskalgintzaren definizioa beherago ematen da txosten honetan. Ikus, orobat, Zalbide 2007.

51. Atzerriko beste hainbat aditu (Weinreich 1953, Gal 1979 eta 1995; Riehl 2006; Knipf-Komlósi 2011 etab.) oso kontuan hartzekoak direlarik ere, Nancy Dorian-en ikerlanei arreta biziz begiratzea komeni da gure ustez “altxor” horren zenbatekoaz eta nolakoaz argi jabetzeko: ikus Dorian 1981, 1992 [1989], 2010 eta 2014. Etxeoketan hor dugu, berriro ere, Seber Altube (Altube 1920, 1929-1930, 1933 eta 1936). Altuberen ekarpenaz egoki jabetzeko ikus, besteren artean, Josemari Velez de Mendizabal 1979 eta 2000).

52. Erantzun posible horietariko bat da, dudarik gabe, Altubek 1933an aipatzen duen hau: “Un buen patriota vasco (..) decía en una perorata lo que transcribo a continuación: <<emoidazube neuri azkatasuna, euzkerearen azterrenik bape eztaukadala be, ta urte gixi-barru euzkerea biurtuko dautzubet sendo-sendo, zindo-zindo, indartsu, bixirik. ¿Bakixube zer biar dodan mirari ori egiteko? Iztegi bat (diccionario bat) eta euskal-izti bat (gramática bat)>>.” Erro sakonak ditu ikusmolde horrek: ikus, adibidez, Sabino Aranak 1901ean Hendaian irakurritako hitzaldian egileak puntu-hutsunez emandako pasartea (Zalbide etab., 2003: XVI-XIX). Bistan da, nolana ere, Sabino bera izan zela, egun hartan bertan gainera, bide hori ezinezkoa izanik alternatiba egingarria planteatu beharra aldarrikatu zuena. Knipf-Komlósi, Elisabeth, 2011: “Wandel im Wortschatz der Minderheitensprache. Am Beispiel des Deutschen in Ungarn”. Zeitschrift für Dialektologie und Linguistik – Beihefte (ZDL-B) Band 145. Budapest.

53. Adiera ezaguna du *fulcrum*, *fulcro* horrek: gaztelaniaz *sostén*, *puntal*, *punto de apoyo de la palanca*. Euskaraz *euskarria*.

54. Ahuldutako hizkuntzen maizeneko gizarte-egoera hobetzeko beharrian nagusiez mintzo da *commonly* horren bidez. Garbi dio, horrekin batera, *fulcrum* hori beste zerbait izan litekeela “for particular languages vis-à-vis particular functions that are being targeted in particular cases.” (Fishman, 2001: 467)

55. Tartean, errazegi ahazten bada ere, Sabino Aranaren 1901eko hitzaldi sendoa eta haren ildotiko esaldi. Ikus Zalbide 2015.

56. Puntu honetan bakarrik ez. Beste gai bat da hori, dena den, eta oraingoz bere horretan utziko dugu.

57. Bada horretaz kontuan hartzeko saiorik: ikus bereziki Jose Manuel Odriozolaren 1992ko *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza*.

58. Ez da hori aldi bakarra, Fishman-ek gai honi aurrez aurre heldu izan dioguna. Bere laburrean aski argia da ordea, eta oraingoz honetara mugatuko gara.

59. Altuberen “poblaciones de alguna importancia” hori ez genuke besterik gabe gutxietsi behar. Neurritz kanpora atera ere ez: egoerak okerrera egin du nabarmen 1933tik, eguneroko mintzajardun arruntaren esparruan, eta arnasguneetan ez dugu halako mugarik ezarri. Ezarriko bagenu, Azpeiti hutsarekin geratzeko arriskua genuke. Nork esan du, gainera, herri-herrixka txikiagoetako euskal mintzajardun bizi-jatorra Azpeitiko kalekoa baino hutsalagoa, intentsitate-balioz apalagoa, denik? Demolinguistika beti da garrantzitsu: Azpeiti moduko dozena terdi arnasgune bagenitu egungo egunean, mila bider osasuntsuago legoke gaur euskara. Ez ditugu, ordea: ez dozena terdi, ez hamar eta ez bost. Demolinguistika oso aintzakotzat harturik ere, alferrik da negar-zotinkako bide itsuetan barrena abiatzea.

60. Perspektiba zabal baterako (ez ordea, oro har, arnasguneen egoera xumerako) ikus batetik Nelde, Peter, Miquel Strubell eta Glyn Williams 1996, bestetik Grin, François 2003 eta azkenik Grin, François, Claudio Sfreddo eta François Vaillancourt 2011.

61. Arrazoi handia zuen Altubek, gure ustez, 1933-36ko bere formulazioetan lehenasun-eskema ingurumen geoterritorial zabal-populatuena gogoan hartzean. Egungo egunean Azpeitia eta (gutxienez) Azkoititik Zumaira doan Urola bailara oso kontuan hartzen ez duen ekimena oso oker dabil: Seber Altuberen garaian bezain oker edota, agian, orduan baino okerrago.

62. Badakigu eguneroko jardun arruntaren belaunez belauneko jarraipena galdu ondoren ere berpiztu litekeela hizkuntza (hots, hiztun-elkartea): hor dago Israel. Berpizte, *revernacularization* edo biziberritze- (ez, soil-soilik, indarberritze-) lana eskatzen du horrek eta *revernacularization* hori, gorago Fishman-en ahotik entzun dugunez, askoz lan zailagoa da: “it is the hardest work”. Fishman-ek eta Altubek hainbatetan esandakoa indartzera, ez ahultzera, datoz katalan-hizkuntzako Antoni Mas i Miralles eta Brauli Montoya Abat soziolinguistak ere: “Les llengües asseguren la seua supervivència gràcies a la *transmissió* que en fan les generacions unes a altres i, per aquesta mateixa raó, aquestes llengües poden deixar d’existir si es produeix una *interrupció* d’aquest procés”. En aquest segon cas, reprendre la transmissió de la llengua suposaria engegar la *revernacularització* (Wright, 1996: 6). (iturria: Mas i Miralles, Antoni eta Brauli Montoya Abat, 2011).

63. Aho biko ezpata da nekazalturismoa arnasguneentzat: erdal bizitza borborka bertaratzeko bidea. Neurritz eta buruz jarduten bada, ordea, lanbide osasungarria gerta liteke hainbat arnagunerentzat. Hurrengo batean era xehatu eta monografikoan aztertze gaia da arnaguneetako nekazalturismoa.

64. Besteak beste *crisis management* modukoa.

65. Agintariak sartzen dira “arduradun” kategoria horretan, batetik; behetik gorako indarberritze-lanean jarduteko prest dauden herritarrak bestetik. Aparteko interesik erakutsi ez arren honegatik edo hargatik parte hartzea suertatzen zaienak ere bai, azkenik. Guztiak dira beharrezko.

66. Geure lehenasun-eskema nagusiarri dagokionez ikus, adibidez, gure 2016ko artikulua hau: “Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak”. Euskara indarberrituko bada arnaguneez gainera lehenasun bizia duen zenbait esparru argi azalduz dago bertan. Ikus, bereziki, 133-135 eta 141-143 or.

67. Kontzeptu bakoitzaren euskarazko azalpenerako ikus, aldian aldiko hautapen terminologikoaz eta lehen hurbilbide gisa, Zalbide 2009 eta Zalbide 2016. Ikus orobat Zalbide, Joly eta Gardner 2015.

BIBLIOGRAFIA

- Altube, Seber, 1920) “*Izkuntz jakintzia eta euskeriaren bizitzia*”, in *Euskera*, 2. urtea, 1. zkia.
- 1929-1930: *Erderismos*. 1929an *Euskera* aldizkarian, artikulua monografiko gisa (*Euskera* . X. urtea, I-IV zkia). 1930ean liburu moduan, Bermeoko Gaubeka irarkolan.
- (1933): “La vida del euskera: divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa”, in *Euskera*, 1933 IV, 299-397 or.
- (1936): “Más sobre la vida del euskera / Barriro euskeraren bizitzari buruz”, in *Euskera*, 1936 I-IV: 1-217 or.
- Baldauf, Richard B., 1993: “<<Unplanned>> language policy and planning”, in *Annual Review of Applied Linguistics* (1993/1994) 14, 82-89.
- Bengoetxea Muxika, Xabier, 2012: “Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnaguneren egoeraren behaketa”. *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 85, 75-118.
- Boix-Fuster, Emili, 2009: *Català o castellà amb els fills?: La transmissió de la llengua en famílies bilingües a Barcelona*. Sant Cugat del Vallès: Rourich.
- 2011: *Les llengües al sofà: El plurilingüisme familiar als països de llengua catalana*. Lleida: Pagès Editors.

- 2015: “La transmissió lingüística intergeneracional. Un estat de la qüestió als països de llengua catalana”, in A: Sinnes, Carsten eta Katharina Wieland (ed.) *Norma, ús i actituds lingüístiques. El paper del català en la vida quotidiana*. Leipzig: Leipziger Universitätsverlag, 91-108 or.
- Branchadell, A., 2000: “La oposición a las políticas de catalanización y los límites de la intervención pública en materia lingüística”, in *Grenzgänge* 14 (Thema: *Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik*), 65-79.
- Casesnoves-Ferrer, Raquel eta Josep À. Mas, 2017: “Transmissió intergeneracional del català i característiques sociodemogràfiques dels progenitors”, in *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 27 zkia., 77-97 or.
- 2015: “La transmissió lingüística intergeneracional. Un estat de la qüestió als països de llengua catalana”, in A: Sinnes, Carsten eta Katharina Wieland (ed.) *Norma, ús i actituds lingüístiques. El paper del català en la vida quotidiana*. Leipzig: Leipziger Universitätsverlag, 91-108 or.
- Chesa, Enrico, 2003: *La llengua interrompuda: Transmissió intergeneracional i futur del català a l'Alguer*. Alguer: Càller. (Arxiu de Tradicions de l'Alguer. *Lingua*; 1).
- 2012: *Another case of Language death? The intergenerational transmission of Catalan in Alghero*. Londres: University of London. Honela jaso liteke doktore-tesi hau:
<<https://qmro.qmul.ac.uk/jspui/handle/123456789/2502>>
- Crossman, Ashley, 2017: “Definition of *Gemeinschaft* and *Gesellschaft*. Understanding the difference between community and society”, in *Encyclopaedia Britannica*.
- Csaba Földes, 2006: „Sprachinsel” – Paradigma auf dem Prüfstand. Konzept, Terminologie und Forschungsmethodologie. In: *Zeitschrift für Deutsche Philologie* 125, 321–341.
- Dorian, Nancy, 1981: *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. University of Pennsylvania Press.
- 1992 [1989]. *Investigating Obsolescence: Studies in Language Contraction and Death*. Cambridge University Press.
- Dorian, 2010: *Investigating Variation: The Effects of Social Organization and Social Setting*. Oxford University Press.
- Dorian, Nancy 2014: *Small-Language Fates and Prospects: Lessons of Persistence and Change from Endangered Languages: Collected Essay*. Brill.
- Fishman, Joshua A., 1964: “Language maintenance and language shift as a field of inquiry; a definition of the field and suggestions for its

- further development”, in *Linguistics* 1964, 2-9, 32-70. Orobat in Joshua A. Fishman etab., 1964: *Language Loyalty in the Unitates States*. New York, Yeshiva University.
- 1968a: “A sociolinguistic census of a bilingual neighborhood”, in Joshua A. Fishman, Robert L. Cooper, Roxana Ma etab. *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*, 260-299 or.
 - 1968b: “Societal bilingualism: stable and transitional”, in Joshua A. Fishman, Robert L. Cooper, Roxana Ma etab. *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*, 929-951 or.
 - 1968c: “Sociolinguistic perspective on the study of bilingualism”, in Joshua A. Fishman, Robert L. Cooper, Roxana Ma etab. *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*, 952-999 or.
 - 1985a: “Epilogue: The Rise and Fall of the <<Ethnic Revival>> in the USA”, in Joshua A. Fishman etab: *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*, 489-525 or.
 - 1985b (gure iturria 1989): “The societal basis of the intergenerational continuity of additional languages”, in K. R. Jankowsky (ed), *Scientific and Humanistic Dimensions of Language. Festschrift for Robert Lado*. Amsterdam; John Benjamins, 551-58. Gure iturria: Joshua A. Fishman 1989, *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*, 224-32. Clevedon: Multilingual Matters.
 - 1990: “Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan”, in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
 - 1991: *Reversing Language Shift: Theoretical and empirical Foundations fo Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Multilingual Matters.
 - 1996 (gure iturria 2007): “Maintaining Languages: What Works and What Doesn’t”, in Gina Cantoni, ed. *Stabilizing Indigenous Languages. A Center for Excellence in Education Monograph*, 165-177 or. Northern Arizona University.
 - 2001a: “Why is it so hard to save a threatened language”, in J. A. Fishman ed. *Can threatened languages be saved?*, 1-22 or.
 - 2001b: “From theory to practice (and viceversa): review, reconsideration and reiteration”, in J. A. Fishman ed. *Can threatened languages be saved?*, 451-483 or.
- Fishman, Joshua A., Robert L. Cooper, Roxana Ma etab., 1968: *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*. New York: Yeshiva University. U.S. Department of

- Health, Education and Welfare. Office of Education. Bureau of Research.
- Fishman, Joshua A. etab, 1985: *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Amsterdam: Mouton.
- Gal, Susan, 1979: *Language shift: Social determinants of linguistic change in bilingual Austria*. San Francisco: Academic Press.
- 1995: “Cultural bases of language use among German-speakers in Hungary”, in *IJSL* 111 zkia., 93-102 or.
- Grin, François, 2003: “Language Planning and Economics”, in *Current Issues in Language Planning*, Volume 4, 2003 – Issue 1, 1-66 or.
- Grin, François, Claudio Sfreddo eta François Vaillancourt, 2011: *The Economics of the Multilingual Workplace*. Routledge Studies in Sociolinguistics Book 2.
- Hutton, Christopher M., 1999: *Linguistics and the Third Reich. Mother-tongue fascism, race and the science of language*. London and New York, Routledge.
- Iurrebaso, Iñaki, 2014: *Udalerrri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera, 1981-2011*. Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- Kloss (Kloß), Heinz, 1929: “Sprachtabelle als Grundlage für Sprachstatistik, Sprachenkarten und für eine allgemeine Soziologie der Sprachgemeinschaften”, in *Vierteljahrsschrift für Politik und Geschichte*, 103-117 or.
- Knipf-Komlósi, Elisabeth, 2011: “Wandel im Wortschatz der Minderheitensprache. Am Beispiel des Deutschen in Ungarn”. *Zeitschrift für Dialektologie und Linguistik – Beihefte (ZDL-B)* Band 145. Budapest.
- Kuhn, Walter, 1934: *Deutsche Sprachinselforschung. Geschichte, Aufgaben, Verfahren*. Plauen i Vogtl., Günther Wolff.
- Lázaro Carreter, Fernando, 1980: *Diccionario de términos filológicos*. Madril: Gredos.
- Mas i Miralles, Antoni eta Brauli Montoya Abat, 2011 [arg. elektron. 2013], “La transmissió lingüística del català: estat de la qüestió i avaluació analítica”, in *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 21 zkia., 95-103 or.
- Montoya, Brauli eta Antoni Mas, 2011: *La transmissió familiar del valencià*. València: Acadèmia Valenciana de la Llengua.
- Montoya, Brauli; Vila, F. Xavier eta Gomàriz, Eva (ed.), 2010: *La revernacularització del valencià a la ciutat d’Alacant*. Barcelona: Institut d’Estudis Catalans.
- Nelde, Peter, Miquel Strubell eta Glyn Williams, 1996: *Euromosaic: The production and reproduction of the minority language groups in the European Union*. European Commission. Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities.

- Odriozola, Jose Manuel, 1992: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza*. Bilbo: UEU.
- Querol, Ernest, 2008: "A cada bugada es perden molts de llençols: el procés de substitució lingüística en l'àmbit familiar des de l'inici del segle XX. O ras i curt: el rei va un", in *Llibre blanc de l'ús del valencià II: Iniciatives per al foment del valencià*. València: Publicacions de l'Acadèmia Valenciana de la Llengua. (Recerca; 9), p. 168-169.
- Riehl, Claudia M., 2006: "Sprachwechselprozesse in deutschen Sprachinseln Mittel- und Osteuropas. Varietätenkontakt und Varietätenwandel am Beispiel Transkarpatiens", in *Sprachinseln in Geschichte und Gegenwart*, ed. by Nina Bernd & Elisabeth Knipf-Komlósi, Frankfurt et al.: Lang 2006, 189-204.
- Schmidt-Rohr, Georg, 1932: *Die Sprache als Bildnerin der Völker. Eine Wissens- und Lebenskunde der Volkstümer*. Jena: Diederichs.
- Simon, Gerd, 1986: *Wissenschaft und Wende 1933. Zum Verhältnis von Wissenschaft und Politik am Beispiel des Sprachwissenschaftlers Georg Schmidt-Rohr*. (PDF)
- Spolsky, Bernard, 1975: "Prospects for the survival of the Navajo language", in M. D. Kinkade, K. Hale and O. Werner (ed.): *Linguistics and Anthropology, in honor of C. F. Voegelin*. Lisse, The Peter de Ridder Press. 597-606.
- 1995: "Conditions for language revitalization: A comparison of the cases of Hebrew and Maori". *Current Issues in Language and Society* 2 (3), 177-201.
- Spolsky, Bernard eta J. Kari, 1978: "Trends in the study of Athapaskan language maintenance and bilingualism", in J. A. Fishman (ed.): *Advances in the study of societal multilingualism*. The Hague, Mouton. 635-64.
- Strubell, Miquel, 1991: "La Supervivencia de las Comunitats Linguistiques Petites", in *Revista de l'Alguer*, 11. alea, 2. zkia., 199206 or.
- 2009: "Discussió de la ponència "La transmissió lingüística familiar intergeneracional: una proposta de model d'anàlisi". In Vila i Moreno, F. Xavier (zuz.) *Estudis de demolingüística: Actes de la Primera Jornada de Demolingüística de la Xarxa CRUSCAT*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans, 33-38 or.
- Tönnies, Ferdinand, 1887: *Gemeinschaft und Gesellschaft*. Leipzig: Fues's Verlag.
- Torres, Joaquim, 2006: "Ús familiar i transmissió lingüística", in *Enquesta sobre els usos lingüístics a Andorra 2004: Llengua i societat a Andorra en els inicis del segle XXI*. Barcelona: Secretaria de Política Lingüística, 73-98 or.

- 2007: “Ús familiar i transmissió lingüística”, in *Enquesta sobre els usos lingüístics a Catalunya 2003: Llengua i societat a Catalunya en els inicis del segle XXI*. Barcelona: Secretaria de Política Lingüística, 81-108.
- Velez de Mendizabal, Josemari, 1979: *Sebero Altube*. Donostia: Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala.
- 2000: *Sebero Altube (1879-1963)*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Velte, Samara, 2017: “Oxigenorik ez irlandararentzat”, in *Berria 2017-XII-20*.
- Veltman, Calvin, 1983a: *Language Shift in the United States*. Berlin, Mouton-de-Gruyter
- 1983b: “La transmission de l’alsacien dans le milieu familial”, in *Revue des sciences sociales de la France de l’Est*.
- 1989: *Le déclin du dialecte alsacien*, Presses universitaires de Strasbourg.
- 1999 “Concentration ethnique et usages linguistiques en milieu scolaire”, in *Immigration et métropoles*.
- Villaverde, Joan Albert, 2009: “La transmissió de la llengua catalana a les Illes Balears”. Text presentat a la XIV Jornada de Sociolingüística d’Alcoi “La transmissió intergeneracional del valencià. La integració lingüística de la immigració” (abril 2009).
- Wright, Sue (ed.), 1996: *Language and the state: Revitalization and revival in Israel and Eire*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Weber, Max, 1921-22: *Wirtschaft und Gesellschaft. Grundriss der Verstehenden Soziologie*. Mohr (Paul Siebeck), Tübingen.
- Weinreich, Uriel, 1953: *Languages in contact, findings and problems*. New York, Linguistic Circle of New York
- Williams, G., 1987: “Bilingualism, Class Dialect and Social Reproduction”, in *International Journal of the Sociology of Language*, 8599 or.
- Williams, G., Morris, D. And Williams, E., 1995: *Language Planning and Community Development. Report Presented to the Countryside Commission Wales*,
- Zalbide, Mikel, 2001: Fishman-en *HINBE* edo *RLS*. Hizkuntza-plangintzaren graduondoko ikastaroa.
- 2002: “Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?”, in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*, Donostia: EHIK. *Erabili.eus*-en argitaraturik dago txosten hau, bertako iritzi-muinetik atalean.
- 2007: “Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia”, in *Euskera* 52, 3., 877-1008 or.
- 2009: “Aurrez aurreko jardunaren lekua *HINBE* saioetan”, in *Udaletako Euskara Zerbitzuen 1. Topaketak*. Lasarte
- 2015: “XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan”, in *Hermes* 50, 10-29.

- 2016: “Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak”, in *BAT* aldizkaria, 100. zkia, 11-190 or.
- Zalbide etab., 2003: *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana kultur elkargoa.
- Zalbide, Mikel, Lionel Joly eta Nikolas Gardner, 2015: *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*. Bilbo, Euskaltzaindia.

uztaro

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria

2019

UZTARO aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2019. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueran bermen erantzukizatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuak ikusi, aldatu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D. 48005 Bilbo.

Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukizkoa markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

.....

ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€
Bidalketa gastuak
4€

**Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera*


Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

    @bizibaratzea

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus





Arnasguneak: zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira?

Kike Amonarriz

Soziolinguista

kikeamonarriz@gmail.com

Sarerra-data:2018-12-03 / Onartze-data: 2019-01-10

Laburpena. Mikel Zalbideren arnasguneen inguruko hausnarketa mamitsu eta landuak oinarritzat harturik, eta nahiz eta bat etorri bere planteamenduaren oinarriekin eta xehatzen diren ideia eta proposamen gehienekin, nire ekarpena egin nahi izan dut, batez ere, erabiltzen den sailkapenaren inguruan. Horrez gain, ohar batzuk egin ditut erabilitako terminologiari, eta etorkizuneko erronkei dagokienez. • **Hitz gakoak:** *arnasgune, hizkuntza konpartimentazio, erasandako arnasgune.*

Abstract. Based on the pithy and elaborate reflections on breathing spaces offered by Mikel Zalbide — and although I do agree with the principles of his approach and with the ideas and proposals that are stipulated— I would like to add something, above all, to the classification used. In addition, I have made a few notes about the terminology being used and the future challenges we face. • **Key words:** *breathing spaces, compartmentalization, respiratory disorders.*

ARNASGUNEEN INGURUKO SARRERA AUTOBIOGRAFIKOA

I

Hausnarketa hauei ekitera nindoala, gure etxean arnasmuneekin izan dugun harremanen inguruan oldozten aritu naiz, berauen erakarmen linguistikoaren adibiderik gertuena bertan baitaukat. Amaren aldeko amona Lizarrakoa genuen eta aitona Villatuertakoa. Nafar erdaldunak biak. Ez batek, ez besteak ez zekiten euskaraz. Aitonaren aurrekoak ere erdaldunak ziren, ez ordea amonarenak. Gurasoak Lizartzakoak zituen, baina ezkondu eta gutxira Lizarrara joan ziren, lan kontuak zirela medio. Amona hantxe jaio zen, bere ama gazterik alargundu zelarrik. XX. mende hasierako Lizarra erdaldun hartan, etxean ez zioten euskararik erakutsi.

Bizitzaren gorabeherak ordea, ezkondu eta aitona-amonak Tolosara etorri ziren aurrena eta Berrobira ondoren. Berrobin jaio zen gure ama. 1933an. Eta familia erdaldun hartako seme-alaba guztiak bezala, euskalduna da. Gerra ondorengo eskasiaren ondorioz, Pitillaseko senitartekoen etxean hazi zen izeba da salbuespen bakarra. Inguruko jendearekin izandako harremanei esker, aitona lortu zuen euskaraz moldatzea. Amonak, ordea, ez zuen ikasi eta esango nuke ez zuela ikasi nahi izan.

Garai hartako Berrobi erabat euskalduna zen. Eskolara zihoazen haur guztiak euskaldun hutsak ziren, elebakarrak alegia. Bertara bidali zituzten irakasleak aldiz, erdaldun hutsak, elebakarrak, alegia. Eta eskola hiperdiglosiko hartan, ama omen zen, bere gelan, irakasle erdalduna ulertzen zuen bakarra. Kanean bizi zirenez, egoera ongi aprobeztatzen omen zuen eta erdara zipitzik ere ulertzen ez zuten ikas-kideei itzulpen lanak egiteagatik, sagarrak eskatzen zizkien. Uste dut, inguruan ezagutu dudana lehen itzultzaile “ordaindua” izan dela.

Gure familiaren adibidea kontatu izan dut hitzaldi askotan eta ondoren, galdera hau egin izan diet entzuleei: nola liteke, frankismo bete-betean, euskara zokoratuta eta zigortuta zegoela, eskola erdaraz, komunikabideak erdaraz, administrazioa erdaraz, familia erdaldun batean, seme-alaba guztiak euskara ikastea? Bada, erantzuna oso sinplea da: kalea euskaldun hutsa zelako eta kanean euskaraz egin behar zutelako. Kaleak euskaldundu zituen haur haiek, euskarak bizi izan duen koiuntura sozio-politikorik zailenean. Alegia, oso baldintza kontrakoetan ere, ingurune hurbilak hizkuntza jakin bati eusten badio eta erabiltzen badu, hizkuntza hori beharrezkoa bihurtzen da... bizitzeko!

**Nola liteke,
frankismo bete-
betean, euskara
zokoratuta eta
zigortuta zegoela,
eskola erdaraz,
komunikabideak
erdaraz,
administrazioa
erdaraz, familia
erdaldun batean,
seme-alaba
guztiak euskara
ikastea? Bada,
erantzuna oso
sinplea da: kalea
euskaldun hutsa
zelako eta kanean
euskaraz egin
behar zutelako.**

Duela laurogei urte baino gehiagoko kontuak dira horiek. Iaz, ordea, niri egokitu zitzaidan Berrobiko eskolara joatea. Irakasle ezagun batek deitu zidan, ea hurbilduko nintzen bertako 10-12 urte bitarteko haurrekin solasalditxo bat izatera, haur gehienek euskaraz egiten bazuten ere, ezin zutelako lortu etorkinen seme-alaba batzuk euskaraz egitea. Eta orain arte kontatutakoa azaldu nien, beraiek ere jabe zitezen, Berrobi bezalako herrien garrantziaz eta bizi izan duten aldaketaz.

Aitona-amonak Berrobitik Beotibarrera jaitsi ziren bizitzera, Belauntzara, paper-fabrikaren etxeetara (gero “Gure Txokoa” dantzalekua egon zen lekura, hain zuzen ere). Hamabi familia bizi ziren auzotxo hartako bi etxeetan, eta gehienak euskaldunak izan arren, baziren familia erdaldun batzuk eta haurren arteko giroa guztiz erdalduna zen. 60ko hamarkada hartan, maiz joaten nintzen bertara, eta gogoratzen dudanaren arabera erdara zen gure jolasetako ohiko hizkuntza. Bertan jaio eta urte luzez bizitutakoen artean, badira, gaur egun, euskaraz tutik ere ez dakitenak, nahiz eta beraien seme-alabak euskal hiztun primerakoak izan. Eta garbi dago zergatik ez zuten ikasi. Belauntza oso herri euskalduna izan arren, etxe haiek aparte zeudelako, mikroauzo bat osatuz, eta bertako erdaldunek, bizitza bertan eta jada nabarmen erdaldundutako Ibarran edo Tolosan egiten zutelako. Hurbil zuten arnasgunea, baina ez ziren amiñi bat ere “kutsatu”. Ezagun haietako zaharrena, 60 urterekin hasi da euskara ikasten bilobekin hitz egin ahal izateko.

Aitaren aldeko familia, aldiz, erabat euskalduna da. Anoetako “Txulo” baserrian bizi izan ziren aitona-amonak, eta ditugun datuen arabera, beren aurreko guztiak ere, herri txiki euskaldunetakoak izan ziren. Transmisioa erabat bermatu da familian, baita bikote erdalduna duten etxeetan ere. Baina Anoetak ere, aspaldi utzi zion “arnasgune garbia” izateari.

Eta azken apuntea: ni 1961ean jaio nintzen, garai hartan txit herri erdaldundua zen Tolosan. Askotan esan izan dudana errepikatuko dut: 14 urte nituenean, Tolosan ez zegoen euskaraz egiten zuen adin horretako gazte osaturiko kuadrilla bakar bat ere. Ikastolako haur txikiagoek eta herri txikitakoek egiten zuten bakarrik euskaraz kalean. Eta nahiz eta oraindik ez den arnasgune izatera iritsi, gure herriak, gutxienez, aspaldi utzi zion arnasguneen “itogune” izateari. Bada zerbait!

ARNASGUNEEN ERALDAKETAZ

I Sarrera autobiografiko honen ondoren, Mikel Zalbideren artikulua luzearen irakurketak iradoki didana komentatuko dut. Eta ezer baino

lehen esan behar dut, Zalbidek arnasguneen inguruan orain arte burututako ekarpen teoriko mamitsua abiapuntuzat harturik, zabaldu duen hausnarketarako aukera hau egokia eta beharrezkoa iruditzen zaidala. Hasteko, beraz, zorionak eta milesker Mikel egindako lanarengatik eta arnasguneen garrantzia azaldu, argudiatu eta gizarteratzeagatik. Bejondeizula!

Labur eta argi esan dezadan: orokorrean, bat nator artikuluan arnasguneen inguruan egiten den planteamenduaren oinarriekin eta xehatzen diren ideia eta proposamen gehienekin. Gai konplexua izanik, aintzat hartu beharreko aldagai ugariak xehe-mehe aletzen zaizkigu, aukera-arriskuak identifikatuz eta balizko interbentzioek jorra ditzaketen lan-ildoak aletuz. Hizkuntza politikarekin eta euskalgintzarekin zerikusia duten pertsona guztiek irakurri beharreko dokumentua da, ezbairik gabe.

Hurrengo lerrootan, beraz, nire ekarpenak gehituko ditut edo zalantza sortu didaten atalak aipatuko, artikuluan esandakoak ez errepikatzen saiatuko naizelarik.

Arnasguneetan gertatzen ari zaiguna azaltzen duen IV. atalean egingo dugu lehen geldialdia.

Artikuluan aipatzen den arnasguneetako “*euskararen irmotasunaren ahultze-prozesua*” ekarri duen prozesuaren abiapuntua aspaldikoa bada ere, paradigma-aldaketa 50-60ko hamarkadetan kokatuko nuke:

- Gazte guztiak erdaraz eskolatu ziren, eta euskal elebakarrak erabat desagertu ziren adin batetik beherakoen artean.
- Telebista sartu zen etxe gehienetan.
- Baserriaren, eta oro har, lehen sektorearen gainbehera hasi zen.
- Industrializazioaren eraginez etorkinak heldu ziren hainbat arnasguneetara.
- Iparraldean bereziki, etena gertatu zen transmisioan.

Gizarte “zaharra” eta bizimodu berriak talkan sartu ziren: belaunaldien arteko eten politiko-erlijiosoa, kultur mugimendu eta joera berrien azalpena, emakumeen askapenerako borrokaren hasiera, gizarte-bizitzan izandako aldaketak, etab.

Hurrengo hamarkadetan, fenomeno horiei beste batzuk gehitu zaizkie: globalizazioaren eragina, etxebizitza familiabakarren eraikuntza, etorkin berrien etorrera, etab. Eta artikuluan aipatzen den bezala, XX. mendeko (“eta XXI. mendeko” erantsiko nuke) askotariko transformazioek sekulako eragina izan dute arnasguneetan.

Orokorrean, bat nator artikuluan arnasguneen inguruan egiten den planteamenduaren oinarriekin eta xehatzen diren ideia eta proposamen gehienekin.

Transformazio horiek, ordea, munduko talde, komunitate eta hizkuntza guztiak ukitu dituzte. Hori dela eta, premiazkoa iruditzen zait ahalik eta daturik osotuenetan oinarrituriko “arnasguneen” definizio gaurkotu bat, zehaztuko diguna nola interpretatu behar diren, egungo baldintza soziolinguistikoetan, arnasguneen hiru ezaugarri nagusiak:

- Euskal kontzentrazio demografiko handia.
- Eguneroko mintzajardun arruntan euskara nagusi izatea.
- Hizkuntza belaunez belaun transmititzea.

Izan ere, eraldaketa hauek, garai bateko egoera atzera bueltarik gabe aldarazi dute eta arnasguneen “oinarri” eta “gehienezko sabai” berriak sorrarazi dituzte. Garrantzitsutzat jotzen dut berauek ongi definitu eta ezaugarritzea, batez ere, joandako garaien inguruko ikuspegi “nostalgikoak” ekiditeko. Esate baterako, XIX. mendearen hasierako arnasguneetako herritar gehienak euskaldun elebakarrak ziren (Euskal Herrian, baina baita Herrialde katalanetan, Galizian, Britainian, Irlandan edo Galesen); duela hirurogei urte, ordea, arnasgune horietako herritar gehienak euskal elebidunak ziren (euskaraz hobeto moldatzen zirenak; batzuk erdaraz egiteko zailtasunekin), eta gaur egun, aldiz, egoerarik onena aurkez dezaketen arnasguneetan ere, herritar guztiak euskal elebidunak dira eta batzu-batzuk (gazteen artean, batez ere) euskal elebidunak, alegia, ondoen euskaraz moldatzen direnak, baina gaztelania edo frantsesetik aparte beste hizkuntzaren bat ere gutxi-asko dakitenak.

Azken hamarkadetan munduan gertatu diren aldaketa teknologiko eta politiko-sozialek, arriskuan jarri dituzte munduko hizkuntza komunitate gehienak. Arriskutik kanpo dauden bakarrak estatu-hizkuntza hegemonikoak dira. Modernitatea, munduko lekuri urrunenetako arnasgune linguistiko ia guztietara heltzen ari den honetan, kasu desberdinei buruzko ikerketak eta albisteak irakurtzean ohartzen gara, aldaketa linguistikoak eragin dituzten faktoreak eta kausak berdintsuak direla nonahi. Neronek, honako hauek nabarmenduko nituzke:

- Orokorrean, estatuak, hiritarren artean estatu-hizkuntza (bakarra) orokortzeko hartutako neurriak eta aurrera daramatzaten politikak.
- Telebista eta era guztietako komunikabideak familia gune guztietara iristea.
- Internet, telefonia mugikorra eta sare sozialen masifikazioa.
- Derrigorrezko hezkuntza estatu-hizkuntzan (ere).
- Administrazioaren lan-hizkuntza.
- Osasun-asistentzia eta zaintza-zerbitzuak.

- Migrazio-mugimenduak eta herritar gero eta gehiagoren mugikortasuna, lana edo aisialdia dela medio.

Fenomeno orokorra da: Europa mendebaldeko hizkuntza gutxituetako arnaguneen egoera aldatzen -eta ikuspegi soziolinguistikotik, eskuarki, okertzen- joan da azken mendeetan, zenbait kasu eta esparrutan hobekuntzak gertatu badira ere. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua XXI. mende hasierako arnaguneen ezaugarri soziolinguistikoak, demografikoak, sozialak eta ekonomikoak ondo ikertu eta finkatzea, tipologizazio gaurkotu, osatu eta orokor batek, asko lagundu dezakeelako bideratuko diren politiken helburuak eta lehentasunak zehazterakoan.

Aipatu berri ditugun faktore guzti horiek eragin zuzena dute, baita Orexan, Hoztan edo Aulestin ere. Eta herri batzuk, beste batzuk baino egoera hobean egon arren, arnagune guztiak “erasandako” arnaguneak direla esan genezake (hortik kanpo geratzen diren herri txiki urriak, erasanak izateko guztiz egoera zaurgarrian daudelarik):

- Heldu guztiak, gutxi edo gehiago, elebidunak dira eta ia gazte guztiak eleaniztunak.
- Denetan kontsumitzen dira erdarazko hedabideak. Eta gehienetan berauek dira gehien kontsumitzen direnak.
- Denetan erabiltzen dira Internet eta sare sozialak (baita erdaraz ere) erosketak egiteko, harremanetarako, informazioa biltzeko...
- Herri guztietara iritsi dira etorkinak, bizitzera edo lanera. Denetan dago erdaraz egiten duen multzoren bat, handiagoa ala txikiagoa, integratuagoa ala integratu gabea.
- Bertako biztanleek harreman ohikoa dute inguruko herriein eta munduarekin: ikasketak, lanak, bidaiak...

Zalbidek berak aipatzen du gutxi direla BZ-5 tipologian sailka daitezkeen herriak edo auzoak, daudenak erraz bihur litezkeela BZ-6a multzokoak eta hainbatetan ez dela erraza BZ-5ekoak BZ-6a-koetatik bereiztea.

Nire ustez, beraz, “erasandako arnagune”ena da, gaur egun, aurki genezakeen tipologia soziolinguistikorik gorena, euskal elebakarrak desagertu zirenetik, esate baterako, ia ezinezkoa izango baitu etorkin batek, gure amak ezagutu zuen Berrobiko giroaren parekoa berriro inon aurkitzea. Gero aipatuko dugun bezala, arnaguneen tipologizazioa beste modu batera egin daitekeela iruditzen zait.

Eta honekin lotuta sortu zaidan beste zalantza bat: arnagune hauetakoa bada euskarak bizi duen egoera soziolinguistikorik onena, ez al genuke

Fenomeno orokorra da: Europa mendebaldeko hizkuntza gutxituetako arnaguneen egoera aldatzen - eta ikuspegi soziolinguistikotik, eskuarki, okertzen- joan da azken mendeetan, zenbait kasu eta esparrutan hobekuntzak gertatu badira ere. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua XXI. mende hasierako arnaguneen ezaugarri soziolinguistikoak, demografikoak, sozialak eta ekonomikoak ondo ikertu eta finkatzea.

**Konparazio
batera,
bertsogintza
inoiz baino
zabaldago eta
indartsuago dago
arnasguneetan,
baita euskal
musikaren
sorkuntza edo
kontsumoa eta
euskalgintzaren
eta
herrigintzaren
beste alor batzuk.
Eta horiek ere
badira,
arnasguneak
izaten ari diren
eraldaketaren
parte.**

berauek definitzeko “erasandako” baino termino positiboagoa erabili behar? Gauza bat da euskararen atzerakadaren irakurketa historikoa egitean eta elebiduntze orokorraren ondorioak azaltzerakoan, behiala euskararen gune elebatar izan ziren horiei “erasandako arnasguneak” deitzea, eta beste bat, etorkizunera begirako hizkuntza politikak definitzerakoan eta gizarteratzerakoan arnasgune hauek sailkatzeko erabili behar den terminologia. Alegia, analisi historiko-zientifikorako baliagarria den terminologia ez dagoela zertan bere horretan erabili beharrik gaia sozializatzerakoan.

Eraldaketa honetan dena ez da galera izan, ordea. Artikuluan “*Berariazko euskal kultura ahultzen ari da*” irakur genezake. Eta esaldi horrek ñabardurak behar dituelakoan nago. Baieztapena bere horretan betetzen da aipatzen diren elementuei dagokienez, baina kulturgintza eta euskalgintza garaikideekin lotura estua duten beste aspektu batzuei dagokienez eraldatu eta indartu egin dela ere esango nuke. Konparazio batera, bertsogintza inoiz baino zabaldago eta indartsuago dago arnasguneetan, baita euskal musikaren sorkuntza edo kontsumoa eta euskalgintzaren eta herrigintzaren beste alor batzuk. Eta horiek ere badira, arnasguneak izaten ari diren eraldaketaren parte.

ERASANDAKO ARNASGUNEEN INGURUAN

I
Esan berri dudan bezala, gaur egun, arnasgune guztiak erasanak direla uste dudanez, arnasgune mota nagusien sailkapena ez zait oso funtzionala iruditu. Azken finean, artikuluaren aurkeztu den sailkapen horretan, bi dira nagusiki, aldeak markatzen dituzten aldagaiak:

1. Erdaraz egiten duten herritarren kopurua, eta multzo horren eragina transmisioan, mintzaldaketan, etab.
2. Idatzizko erabilera (herri-giroan, lan-munduan eta administrazioan) eta erdarazko kultur kontsumoa.

Multzoak diseinatzerakoan, ezagutza, etxeko hizkuntza eta kaleko erabilera hartuko nituzke oinarritzat. Aldagai hauen arabera sortzen diren multzoetan, bestalde, bi azpimultzo egin litezke, esparru desberdinetako erabilera idatziaren (administrazioa, lan mundua, hizkuntza paisaia...) eta kultur kontsumoaren arabera. Erreferentzia gisa – eta jarri ditudan ehunekoak behar bezala kontrastatu gabe- horrelako taula bat erabiliko nuke.

1. taula. Euskararen ezagutza, etxeko/kaleko erabilera eta erabilera idatzia/kultur kontsumoaren arteko erlazioa

Ezagutza	Etxeko/kaleko erabilera	Erabilera idatzia/Kultur kontsumoa
% 90etik gora	% 80tik gora	Batez bestekotik gora
		Batez bestekotik behera
	% 80tik behera	Batez bestekotik gora
		Batez bestekotik behera
% 80 – % 90 artean	% 70etik gora	Batez bestekotik gora
		Batez bestekotik behera
	% 70etik behera	Batez bestekotik gora
		Batez bestekotik behera

Badakit ñabardura asko kanpo geratzen direla, baina eraginkortasunari begira, era honetako sailkapen funtzional bat erabiliko nuke.

Artikuluaren egiten den sailkapenari begira, bestalde, BZ-5 eta BZ-6a multzoak ez nituzke idatzizko erabileraren arabera berezitu. Eguneroko mintzajardun arrunta ardatz harturik, gerta daitekeelako, BZ-6a-n idatzizko erabilera altuagoa izatea BZ-5en baino, udaleko hautetsien gaitasun edo jarrera linguistikoarengatik, lantegi-motengatik edo bertako eragileen gaitasun-jarreragatik, besteak beste.

Kanpotik etorritako populazio erdaldunari dagokionez, bestalde, multzo nagusi hauek bereiz litezke jatorri geografiko-linguistikoari dagokionez:

- a) Euskal Herritik edo estatutik etorritako biztanleak.
- b) Gaztelaniadun etorkin elebakarrak hegoaldean edo frantsesdunak iparraldean.
- c) Europa mendebaldetik edo estatu garatuetatik hurbildutakoak.
- d) Munduko beste lurraldeetatik etorritako etorkinak.

Eta herritarrekiko harremani dagokienez, objetibatzen errazak diren aldagai hauek erabil daitezke, multzo horietan, barne-sailkapen funtzionalak lortze aldera:

- Bertako familietara etorritakoak (bikoteak, adopzioak...).
- Seme-alabak (eskolan) dituztenak.

Kanpotik etorritako populazio erdaldunari dagokionez multzo nagusi hauek bereiz litezke jatorri geografiko-linguistikoari dagokionez:

- a) Euskal Herritik edo estatutik etorritako biztanleak.**
- b) Gaztelaniadun etorkin elebakarrak hegoaldean edo frantsesdunak iparraldean.**
- c) Europa mendebaldetik edo estatu garatuetatik hurbildutakoak.**
- d) Munduko beste lurraldeetatik etorritako etorkinak.**

Arnasguneetara datozen herritar berriei begira landu beharreko estrategia orokorretan, aipatu berri dugun multzo bakoitzari begirako ñabardurak lantzea komeniko litzateke.

- Herrian bertan lanean ari direnak: zaintza, ostalaritza, lantegiak, lehen sektorea...
- Herriko bizitzan parte hartzen dutenak.
- Lotoki bezala darabiltenak edo herriko harreman-saretik guztiz kanpo daudenak. Ugariak baitira arnasguneetako etxe familia bakarreoetara edo etxebizitza merkeetara bizitzera etorritakoak, baina bertoko bizitza sozialean parte hartzen ez dutenak.

Arnasguneetara datozen herritar berriei begira landu beharreko estrategia orokorretan, aipatu berri dugun multzo bakoitzari begirako ñabardurak lantzea komeniko litzateke, ez baita berdina bertoko bikotea duen galestar profesional bat, Hego Amerikatik familiarekin etorri den ikasketak-maila baxuko erdaldun elebakarra edo gaztelaniaz apenas dakien senegaldar eleaniztuna.

Horretarako beraiei buruzko oinarrizko informazioa eduki beharko litzateke: zenbat eta zein hizkuntza ezagutzen dituzten, euskarari buruz duten informazio-maila, euskararen ezagutza (familiar), eta euskararekiko jarrera. Epe motz-ertaineko helburuak izan litezke, besteak beste, ulermena bederen ahalik eta gehien zabaltzea helduen artean, eta ezagutza eta erabilera segurtatzea beraien seme-alaben artean.

Lan-ildo honek baina, badu bere ifrentzua: herrietako eskoletako irakasle eta gurasoen edo beste elkarte eta erakundeetako partaideen formazioa eleaniztasunaren inguruan, etorri berrien hizkuntzekiko errespetuan trebatzeko eta hizkuntzok erabil ditzaten eta etxeetan mantendu eta transmititu ditzaten lortzeko.

ARNASGUNEEN ERRONKA NAGUSIAK DIRELA ETA

I

Etorkizunera begira funtsezko planteamenduak aletzen ditu Zalbidetik eta aurrera begirako 3 ardatz nagusi zehazten ditu. Honako hauek:

- Erronka demolinguistikoa: iraupen-oinarri demolinguistikoa segurtatzea.
- Erronka sozioekonomikoa: bideragarritasun sozioekonomikoa bermatzea.
- Erronka soziokulturala: bizimodu konpartimentatu eta moldaera soziokultural berri bat adostu eta aplikatzea.

Banaka aztertuko ditugu.

a) Estabilizazio eta iraupen-oinarri demografikoa

Haurrak sortzea eta jaiotza-tasa igotzeaz gain honako hau proposatzen du egileak:

“Biziki saiatu behar da arnaseguneetan, alde horretatik, erdal-erlebidunak edo erdaldu hutsak ez daitezzen herrira samaldan etorri eta bertako gazte asko bizi izatera kanpora joan ez dadin”.

Arnaseguneak mantenduko badira, ezinbestekoa izango da mugimendu demografiko bortitziak izan ez dadin lortzea. Udal-politikek eta herri-geroak zerikusit handia izango dute horretan, baina kontrolaezinez diren edo udalen eta bertoko erakundeen eskumenetik kanpo dauden aldagai asko sartzen direnez jokoan, aurreikusenezake, joera sozial orokorrekin eragin handia izaten jarraituko dutela.

Helburu hori lortu eta kontrako diskurtsoak ekidite aldera, nolana ere, planteamendu hau herritarren artean zabaldu egin beharko da eta maila diskurtsiboan ongi hornitu eta oinarritu. Bereziki delikatu eta manipulagarria iruditzen zait erdalduak samaldan ez etortzearen ideia. Bazterkeria akusaziorik ez jasotzeko ongi azaldu beharko da “linguistikoki babestutako eremuak” zer diren eta berauen garrantzia argudiatu, etorri berriekiko politika egokiak garatu, eta aipatzen den aldagai soilik linguistikoa dela nabarmendu.

Etxebizitzaren gaia ere funtsezkoa da estabilitate demografikoari begira. Funtsezkoa bezain konplexua eta ertz askotarikoa. Ez horregatik, alde batera utzi beharrekoa. Artikuluan, ekonomia edo hirigintza mailan sor daitezkeen paradoxak ere aipatu dira, erroka batentzat mesedegarri gerta daitekeena (arrakasta ekonomikoa), kaltegarria gerta daitekeelako beste batentzat (demografia). Ez baitago soluzio simple eta errazik! Horiek irakurtzean gogora etorri zaizkit Irlandako gaeltach-ak bisitatzean izan nuen desolazio sententzia edo Aracilek bere garai onetan bota zigun esaldi hura: *“hizkuntza gutxituen kasuan, bai emigrazioak eta bai inmigrazioak galerak dakartzate”.*

Alde horretatik, oso garrantzitsua derizkiot azken urteotan gaiaren inguruan egin den lanetari, eta aurrera begira jarraitu beharrekoa, ahal den neurrian, nazioartekotuz. Posible ote da, “eremu babestuen” ideia hizkuntzen alorrera zabaltzea nazioarteko legerian, hizkuntza ekologiaren bidetik egin diren planteamenduak oinarritzat harturik?

Arnaseguneak mantenduko badira, ezinbestekoa izango da mugimendu demografiko bortitziak izan ez dadin lortzea.

Herri hauek lotoki huts ez izatea da funtsezkoa. Herritarrek dute horretan erantzukizunik handiena, baina goi-mailako erakundeek ere beharrezko babes ekonomiko eta instituzionala eman behar dute edo ematen jarraitu, arnasgune hauen bizitasunaren garra indartsu eta bizirik mantentze dadin.

b) Bideragarritasun sozioekonomikoa

“Lanik eta (heine batean) soziokulturazko beregaintasunik gabe ez dute arnasguneek, luzera begira, etorkizun argirik” dio Zalbidek, *“inguruko lan-eta kontsumo-gune indartsu(ago)en eranskin bihurtuko dira. (...) “Beste zerbaitekin” izan behar dute arnasguneek”* erantsiz.

Bat nator ideiarekin muinarekin, baina lana herrian bertan egitea ez zait horren erabakigarria iruditzen, baldin eta, herri-giroa eta komunitatearen bizitasuna mantentzen badira. Beti egongo da multzo bat (handiagoa ala txikiagoa) lehen sektorearen inguruan, edo egon daitezkeen lantegi-zerbitzuetan lanean arituko dena, baina lantegiak herrian bertan edo gertu egotea berdintsu dela esango nuke. Beti ere, bizitza soziala herrian egitea bermatzen bada (kontziliazioa, aisialdia, herrigintza, etab.).

Gaur egun, hiriburuetatik kanpo, asko dira lanera udalerritik kanpora ateratzen diren pertsonak, baina bizitza familiarra eta soziala herrietan egiten dutenak eta herriko ekimen eta jardueretan buru-belarri parte hartzen dutenak. Askoz ere garrantzi gehiago ematen diot dendak, elkarteak, zerbitzuak nahiz taberna-jatetxeak egoteari edo festak eta beselako ekimenak antolatzeari. Elementu hauek – eskolekin batera – ezinbestekoak dira herri-bizitza eta komunitate-kontzientzia mantendu eta indartze aldera. Herri hauek lotoki huts ez izatea da funtsezkoa. Herritarrek dute horretan erantzukizunik handiena, baina goi-mailako erakundeek ere beharrezko babes ekonomiko eta instituzionala eman behar dute edo ematen jarraitu, arnasgune hauen bizitasunaren garra indartsu eta bizirik mantentze dadin.

Testuinguru honetan, ez dut aipatu gabe utzi nahi zaharren zaintzaren gaia, herri txiki eta euskaldunetako kale-giroa gehien erdalduntzen ari den faktoreetako bat bihurtzen ari baita azken urteotan, ostalaritzaren erdalduntzearekin batera. Eta lan horietan hasi diren etorkinek zailtasun handiak dituzte euskararen ikasketari ekiteko: ekonomikoak edo denbora aldetikoak gehienetan, eta baita, zenbaitetan, informazio-faltak eragiten duen motibazio urria.

Gai hau ez da erraza eta apenas heldu zaion seriozki inon, nik dakidala. Baina bideratzekotan, derrigorrezkoa izango da lan horietan ari diren pertsona eta erakundeekiko harreman zuzena izatea, gaiari buruzko informazioa ematea (askori inork ez baitio azaldu gure gizartean euskarak duen egoera eta garrantzia) eta egoera hobetzeko egitasmoak, euskara ikasteko aukerak eta hartu beharreko neurriak elkarrekin lantzea.

c) Konpartimentazio soziolinguistiko eta moldaera soziokultural berria.

Gutziz bat nator, arnaguneetako etorkizuna bertako biztanleek diseinatu eta garatu behar duten ideiarekin.

Uste dut gakoetako bat “*Moldaera soziokultural berri bat adostu eta aplikatu behar da*” esaldia zehaztea dela. Hain zuzen ere, “*gauzak nola egin behar diren hemen eta orain*” frogatzeko eta moldaera soziokultural hori zer izan daitekeen usaintzeko, oso informazio-iturri interesgarria izango da Tolosaldea datozen urteetan. Galtzaundi Euskara Taldea eskualdeko bilakatu da. Arnaguneetako gazte-talde ekintzaile eta kementsua sartu da bertara lanera, herriz-herri batzordeak osatu dituztelarik eta dinamika berriak eragiten ari direlarik. Bestalde, Tolosaldeko Euskararen Mahaia antolatzen ari da eskualde mailako hizkuntza politika koordinatu eta bideratzeko.

Eskualdearen ezaugarri soziolinguistiko, demografiko eta ekonomikoak zeintzuk diren jakinda eta udalen eta euskalgintzaren arteko harreman normalizatuak eta aktibaziorako aukerak eta borondateak ikusita, sinistuta nago, esperientzia emankorra eta bide-erakuslea gertatuko dela. Eta espero dut, urte gutxi barru praktikan ikusi ahal izango dugula, arnaguneen gaur egungo “sabaia” non dagoen eta “moldaera soziokultural” berriak zer eman dezakeen.

Moldaera soziokultural berri hori sortuko bada, nolana ere, arnaguneetako herritarrak ahaldundu egin beharko dira. Gaiaren inguruko informazio zuzena zabaltzeko beharko da herritarren artean eta formakuntza berezia landu eskoletan (haur-irakasle-gurasoekin) eta beste eragileekin arnaguneen garrantziaren eta erantzukizunaren kontzientzia errotu eta zabaltzeko eta autoestimua eta harrotasun sana indartzeko. Motibazioa eta ilusioa erein, komunitate-sentimendua indartu eta aktibazio sozialerako aukerak profitatu moldaera soziokultural berria sortze aldera. Beti ere oso kontutuan izanik, arnagune guztiak ez direla berdinak eta ezingo direla erabili kopia mimetikoak guztietarako.

Eta honekin lotuta dator hurrengo hausnarketa. Arnaguneen bideragarritasuna, nire ustez, inguruko herriburuen ardura ere bada, eta oro har, Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoarekin lotuta egongo da. Adibide batekin esateko: Tolosaldeko arnaguneen biziraupena, neurri handi batean, Tolosan jokatuko da. Tolosan euskararen erabilera eta presentzia handitzen diren neurrian (eta handitzen ari dira), arnaguneen biziraupena segurtatzen eta sendotzen ari gara: arnaguneetatik Tolosara ikastera datozen gazteek euskaraz jarraituko dute hitz egiten, aisialdi eskaintza euskarazkoa (ere) den neurrian euskaraz bizitzeko aukerak

Motibazioa eta ilusioa erein, komunitate-sentimendua indartu eta aktibazio sozialerako aukerak profitatu moldaera soziokultural berria sortze aldera.

**Arnasguneei
begirako
planteamen-
duetan, beraz,
ezinbestekoa
izango da
arnasguneentzat
erreferentzia
nagusi diren
herriburuak eta
testuinguru
zabalagoak ere
aintzat hartzea.**

zabaldtu eta sendotu egingo dira eta Tolosatik arnasguneetara hedatzen den eragin linguistikoa (bikoteak, lana, aisialdia...) gero eta euskararen aldekoagoa izango da.

Herriburuaren eragina, noski, oso desberdina izango da herri txikiz inguraturiko Tolosan edo guztiz egitura sozio-demografiko desberdina duten Lea-Artibain edo Debagoienan. Eta arnasguneen bilakaera, bestalde, euskararen bilakaera orokorraren baitan kokatuko da ezinbestean.

Arnasguneei begirako planteamenduetan, beraz, ezinbestekoa izango da arnasguneentzat erreferentzia nagusi diren herriburuak eta testuinguru zabalagoak ere aintzat hartzea.

XXI. MENDEKO HIZKUNTZA KONPARTIMENTAZIOA

I
Baina funtsezko galdera geratzen zaigu oraindik erantzuteke: Zer izan daiteke XXI. mendearen lehen erdi honetan, “*euskara-erdara konpartimentazioa*”?

Hizkuntzen arteko konpartimentazioaz edo diglosiaz hitz egiten dugunean deskribatzen dugun errealitatea oso polarizatua da: X hizkuntzak behe mailako funtzioak eta Y hizkuntzak goi-mailako funtzioak. Eta egoera horiek, garai bateko banaketei dagozkie, normalean. Erabili izan diren adibideetatik arabierarena da, bere horretan mantentzen den ia bakarra.

XIX. mende hasierako arnasguneak irudikatzen ditugunean ere horrelako zerbait datorkigu burura: euskara hutsez bizi ziren eta nagusiki herritar elebazarrez osaturiko herriak non agintariak elebidunak ziren eta goi-mailako funtzioak erdaraz burutzen zituzten.

Errealitate soziolinguistikoko hura ordea, aldatu egin da eta berarekin batera, euskara-erdara konpartimentazio zurruna. Gaur egun, euskaldunen artean elebitasuna unibertsalizatu egin da, eleaniztunak gero eta gehiago direlarik, eta hizkuntzen arteko konpartimentalizazioari dagokionez, aurreikusenez, epe motz-ertainean, arnasguneetako hiztun eta egoera gehienak, gutxi ala gehiago, elebidunak, eta kasu eta esparru batzuetan eleaniztunak izango direla: ikasketak, kultur kontsumoa, zenbait lan, aisialdia...

Euskal Herrian eta munduan gerta daitezkeen aldaketek eragin handia izango dute, noski, bilakaera horretan: garapen teknologikoa, migrazio-mugimenduak, eleaniztasunarekiko politika globalak, Euskal

Herriaren garapen politiko-instituzionala, hizkuntza politiken eta euskararen aldeko dinamika sozialaren nolakotasuna...

Nolanahi ere, konpartimentalizazio horretan euskarak ahalik eta esparru gehien bete ditzan, oinarrizko helburu batzuk jarri beharko genituzke, aurrez jakinik, hemendik aurrera, "euskara nagusi" izango den esparruak, "euskara hutsezko"ak baino gehiago izango direla normalean. Eta zehaztasun gehiegitan sartu gabe, arnaguneetan lortu beharko liratekeen helburu batzuk aipatuko ditut, adibide modura:

- Herriarren gehiengo nabarmena (%60tik gora, esate baterako) euskal elebiduna edo eleaniztuna izatea: euskaraz erdaraz baino hobeto moldatuko direnak.
- Herriarren arteko harreman-hizkuntza nagusia euskara izatea, eta beste hizkuntzen presentzia batez ere heldu eta zaharren adinmultzoetara mugatzea.
- Jarduera antolatu guztietan euskara izatea ohiko erabilera hizkuntza. Beste hizkuntzak oso modu indibidualizatuan erabiltzea, beti ere, euskararako integrazio-bide gisa.
- Etxe gehienetan euskara izatea hizkuntza bakarra edo guztiz nagusia. Hala izango ez den kasuetan, euskararen presentzia bermatzea, batez ere, haur eta gazteei begira.
- Eskolako, administrazioko edo osasungintzako jarduerak eta zerbitzuak euskaraz garatzea eta eskaintza, euskararik ez dakiten herriarrekiko komunikazioari irtenbide indibidualizatuak eskainiz.
- Herrietako zerbitzuetan euskarazko eskaintza bermatzea (gutxienez, ulermen mailan).

Amaitzeko erantsi nahiko nuke, arnaguneen inguruko ikuspegi hau hizkuntza politketan txertatzea oso garrantzitsua dela, ez "erreserbak" antolatzeke, baizik eta euskararen irradiazio-gune bilakazteke eta beraien energia linguistikoa hizkuntza komunitate osora hedatzeko: euskaraz bizitzeko aukera eta espazioa eskainiz, biziberritze-prozesuaren eredu aurreratua osatuz edo hizkuntzaren beraren erreferentzia bizia hedatuz. Azken batean, arnaguneetan aplikatuko diren politikak, Euskal Herriko testuinguru soziolinguistikoa kokatu beharko dira eta beste eremuetan garatuko direnekin uztartu, euskararen normalizazio-prozesua bakarra izango baita, bere aniztasunean. ●

Konpartimentalizazio horretan euskarak ahalik eta esparru gehien bete ditzan, oinarrizko helburu batzuk jarri beharko genituzke, aurrez jakinik, hemendik aurrera, "euskara nagusi" izango den esparruak, "euskara hutsezko"ak baino gehiago izango direla normalean.

3

Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronka nagusiak

Lionel Joly

Euskaltzaindia "C Euskararen Historia Soziala

ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Sarrera-data: 2018-12-03/ Onartze-data: 2019-01-10

Laburpena. Mikel Zalbidek gaiari buruz idatzi duen artikulua irakurketa eginez, Arnasguneen eta Reversing Language Shift-en etorkizuneko erronka nagusiak zerrendatzen dira artikulu honetan. Gaur egungo egoera soziolinguistikoa momentu kritiko batean dagoela azaldu ondoren sarrera orokorrean, arnasguneak zergatik diren hain garrantzitsu aipatzen da artikulua aurreneko ataletan. Arnasguneen eta euskararen erronka nagusiak aipatzen dira ondoren eta arnasguneen funtzionamenduari buruzko ohar batzuk jasotzen dira. Bukatzeko, arnasguneak indartzeko proposamen batzuk jasotzen dira artikulua azken partean. • **Hitz gakoak:** *Euskara, soziolinguistika, arnasguneak, demolinguistika, RLS-HINBE.*

Abstract. In reading the article which Mikel Zalbide has written about the topic, the main challenges of Breathing Spaces and Reversing Language Shift are listed below. After explaining in the general introduction that the current sociolinguistic situation is at a critical stage, the reasons why they are so important are mentioned in the first sections of the article. The main challenges of breathing spaces and the Basque language are mentioned below and there are some notes on how breathing spaces work. Finally, some of the proposals to boost breathing space areas are included in the last part of the article. •

Key words: *Basque language, sociolinguistics, breathing spaces, demolinguistics, RLS-HINBE.*

1. EUSKARAREN UNE ERABAKIGARRIA

I Euskararen egoerari buruzko kongresu eta artikulu askotan une erabakigarria bizitzen ari garela entzun eta irakurri ahal izan dugu azkenaldi honetan. Egoera sozioekonomikoaren eta teknologikoaren bilakaera azkarrak, datu makroen moteltzeak eta kale-neurketen datuen mugimendu ezak egoera soziolinguistiko orokorrak norabide bat (baikorra) edo bestea (negatiboa) hartzeko joera berria izango duela pentsarazten dute. Ez hori bakarrik: neurri handi batean, administrazioan bezala, euskararen plangintzan eta euskalgintzan ere belaunaldi berritza geratzen ari da. Ikusi egin beharko da, errealitate sozial eta teknologiko berrien testuinguruan, gaurko belaunaldia aurrekoa bezain emankorra den eta legatua aurrera eramateko gai den edota horretarako interesik duen. Diktaduraren bukaerako belaunaldi ezin prestatuago, langile, partez militantziaz eta afizioz, dohainik haien denbora librean, eta partez ofizioz, euskarari dedikatua jubilatzen hasia da. Ofizioz behintzat jubilatzeke garaia heldu zaie, 80ko hamarkadatik hona 40 urte igaro baitira. Belaunaldi berriak diktadura zer izan zen, euskararen orduko egoera, estandarizazioaren eta normalizazioaren alorrean zer aurrerapena egin den, eta nola, ez daki; lehen eskutik ez du ezagutu. Garai hauek bizi izandako askok ere, partez, ahaztuta dituzte eman diren aurrera-pausoak eta zer-nolako bidea egin duen euskarak 80ko hamarkadatik hona, zenbait alorretan behintzat, bereziki estatus-, eskuratze- eta corpus- plangintzei lotutako alorretan. Memoria sozio-historiko oso partziala dugun bezala, gure memoria soziolinguistiko historikoa ere aski mugatua izaten da. Akatsak ez errepikatzeke, akatsetatik ikasteko, egindako aurrera-pauso baikorretatik ikasteko eta norbere burua ezagutzeko eta munduan kokatzeko mugarria da hori, zinez.

Une erabakigarri honetan Mikel Zalbideren testigantza eta proposamena jasotzea eskertzekoa ez ezik, ohore eta obligazioa da alde horretatik, nahiz eta, edozein iritzi edo proposamen irakurtzen dugunean bezala, bere testuaren irakurketa aktiboa egin behar dugun. Edozein adierazpenen aurrean bezala, ez dugu errektiboak izan behar (dena kritikatu pentsatu gabe) edo hagiografikoak (dena irentsi eta onartu pentsatu gabe eta ondorioz atera gabe: ondorioak ateratzea ekintzara pasatzeko ezinbesteko aurre-pausoa da). Irakurketa (edo entzuketa) aktiboa egin behar dugu, hori da kritikoa izatea: 1) benetan entzun zer esaten den, 2) esandakoak zer inplikazio eta ondorio dituen inferitu, 3) gure ezagupenekin bat datorren ala ez aztertu, 4) informazio berriak eta interesgarriak jaso eta horren arabera, baikortasunean, gure kosmobisioa zabaldu,

Ikusi egin beharko da, errealitate sozial eta teknologiko berrien testuinguruan, gaurko belaunaldia aurrekoa bezain emankorra den eta legatua aurrera eramateko gai den edota horretarako interesik duen.

Soziolinguistikaren alorrean neurri berezikoa da Mikel Zalbide eta bere iritziak kontu handiz eta kritikoki hartzeko modukoak dira.

ikasitako, irentsitako berritasunen arabera gure ikuspuntua zabalduz. Ondoren, aberastasun berri hori kontuan harturik, ekintzetara pasatzea da hurrengo pausoa, edo dagoeneko abiatuta ditugun ekintzak berritasun horien arabera moldatzea edota, are, eraldatzea, beharrezkoa balitz. Gure ezagutza teoriko-praktikoarekin bat ez datorrena, aldiz, alde batera utzi beharko dugu, baina beti ere zabaltasunez eta ondo aztertu ondoren irakurritakoa edo entzundakoa. Baikortasunez lan egin behar dugu, euskaltzale guztion helburua bera baita: euskara zabaltzea eta euskaldunei euskaraz bizitzeko aukera ematea, lasaitasunean eta poztasun positiboan.

Mikel Zalbideren artikuluak eta ikuspuntu-azalpenak, niretzat, soziolinguista izanik ikasketaz eta ofizioz, oso interesgarriak izaten dira beti eta zerbait ulertzen ez badut edo zalantzarik badut nire burua, nire kosmobisioa, zabaltzen saiatzen naiz, zer esaten duen eta zergatik esaten duen ulertzeko. Zalantza sortzen didaten puntuak ulertzeko beste enfoke bat erabiltzen saiatzen naiz: errealitatea beste ikuspuntu batetik begiratzeko. Errealitateari buruz dudak ikuspuntua, modu horretan zabalago bihurtzen da, osoago, eta askotan Mikel Zalbideren ikuspuntua berrakatu edo behintzat ulertzen bukatzen dut, baina ez beti noski. Artikulu honen aurreneko paragrafoan deskribatzen nuen belaunaldikoa da Mikel Zalbide. Belaunaldikoa diot, ez baita bakarra, beste batzuk ere hor daude. Dena den soziolinguistikaren alorrean neurri berezikoa da Mikel Zalbide eta bere iritziak kontu handiz eta kritikoki, lehen deskribatu dudana bezala, hartzeko modukoak dira. Estandarizazioaren eta normalizazioaren, hizkuntza-plangintzaren eta estatus-plangintzaren hainbat alor ezagutu (eta ezagutzen) ditu: euskara batuaren sorrera eta bilakaera barnetik ezagutzen ditu, euskararen estatus plangintza ere ofizioz ezagutu izan du urte askoan, afizioz ere lan anitz egin du eta egiten du euskararentzat eta euskarari buruz. Ofizioz eta afizioz euskaltzale da Mikel Zalbide, horrezaz gainera soziolinguistikaren oso prestatua: soziolinguistikaren alorreko autore, kontzeptu, arau eta paradigma klasikoak, ezagunak eta ez hain ezagunak, barrutik ezagutzen ditu. Ezagutza teoriko eta praktiko horrek euskararen egoera soziolinguistikoari buruzko ikuspuntu zabala ematen dio. Artikulu honetan aspaldidanik giltzarri eta lehentasunezko iruditzen zaigun arnasguneei buruz hitz egiten du Zalbidek.

Artikulu ona iruditu zaigu: argia, didaktikoa eta, gurean bereziki funtsezkoa dena: praktikoa. Soziolinguistikaren ikuspegitik bat dator, gainera, bertako hainbat puntutan: aspaldidanik pentsatzen dudana berresten da hor, funtsean. Ez naiz adostasun-puntu horiek banan-banan aipatzen hasiko. Besterik egingo dut artikulu honetan: hasteko, eta

labur, artikuluari buruzko balorazio orokorra egingo dut: zenbait iritzi orokor azalduko dut batetik, eta testuko zenbait pasartetako azalpenaz dudan ikuspuntua adierazten saiatuko naiz bestetik. Ondoren, eta luzeago, arnasguneen eta euskararen etorkizunerako bereziki kritikoak eta garrantzitsuak iruditzen zaizkidan hainbat puntu aztertuko ditut, beti ere arnasguneei buruz ari izanik.

2. ARNASGUNEEN IRAUPENA, PLANGINTZA ARRAKASTATSUAREN SEINALE?

Artikuluaren hasieran arnasguneei buruz egiten den aurkezpena eta deskripzioa argia da. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioaren eta eguneroko mintzajardun arruntaren artean dagoen lotura estua oso ondo azaltzen da bertan, besteren artean.

Arnasgune motak (arnasguneen azpi-continuuma) deskribatzeko laugarren orrialdetik aurrera egiten den sailkapena ere egokia da. Aritu batzuek dioten bezain arrakastatsua baldin bada hizkuntza-plangintza, hirugarren azpimultzo bat gehitu beharko litzaieke artikuluko bi arnasgune motei (beteei eta erasanei): indarberritzen edo berrosatzen ari diren arnasguneen azpimultzoa. Hots: une batez arnasgune izateari utzi zioten (edota historia ezagunean arnasgune izan ez diren) ingurumenak arnasgune izateko bidean jartzea, hartarako trinkotze-lana eraginez. Halako adibiderik gaurkoz ez dagoela iruditzen zait, baina hori litzateke seinalerik argiena eta ezin ukatuzkoa ikusteko hizkuntza-plangintza arrakastatsua izaten ari dela.

Gure artean gertatzen ari denaz egiten den diagnostia ere baliagarria da ene ustez, testu osoa bezala. Puntuz puntu lantzen dira gaiak, eta eman beharreko azalpenak ere hurrenez hurren eskaintzen. Atal horretan ez da teoria hutsaz hitz egiten: “hemen eta orain” zer gertatzen ari den, eta zergatik, azaltzen da bertan. Osasun-egoerak okerrera egin ez dezan oraingo joera batzuk zergatik aldatu behar diren, eta nola, adierazten da, bide batez. Arnasguneen deskribapena eta sailkapena, gaur egun dituzten erronka nagusiak, zer egin behar den etab., oso modu praktikoan aurkezten da.

3. BELAUNEZ BELAUNeko TRANSMISIOA INKESTETAN ETA ARNASGUNEETAN IKUSPUNTU KUALITATIBOTIK

9. orrialdearen laugarren puntuan (eta testuan oro har) zera esaten da: belaunez belauneko transmisioari ez zaiola bere osoan eusten ari. Honi

Aritu batzuek dioten bezain arrakastatsua baldin bada hizkuntza-plangintza, hirugarren azpimultzo bat gehitu beharko litzaieke artikuluko bi arnasgune motei (beteei eta erasanei): indarberritzen edo berrosatzen ari diren arnasguneen azpimultzoa.

Arnasguneen sailkapena egitean, ingurumen bat arnasgune den ala ez finkatzeko orduan elementu interesgarrienetako bat honako hau izaten da sarri: etxetik erdaldun diren umeak herri-giroan, beste umeekin duten interakzioen ondorioz, euskaldundu egin diren ala ez.

buruz zera esango du, agian, hainbatek: inkestek kontrakoa diotela: euskaldun gehienek (ia guztiek) transmititzen dietela euskara beren seme-alabei. Funtsezko puntua da hori. Funtsezkoa da eta, oro har, bat nator artikuluak azpimarratzen duen ikuspegiarekin: maila kualitatiboan (eta arnasguneez jarduterakoan maila kualitatiboaren garrantzia azpimarratzen ari gara) oraingo transmisioak ez du lehengo trinkotasun-indarririk. Txostenean aipatzen den bezala, etxean sartu da erdara: telebista, sare sozialak, internet etab. hor daude; kalea elebidunduz doan heinean etxeko giroa ere elebiduntzen ari da. Egia da euskara transmititzen dutela euskaldunek, orain ere, etxetik hasita. Etxeko transmisio horrek ez du, ordea, lehengo nagusitasun sendo hura bermatzen. Gaztelaniaz gain txiki-txikitatik ingelesa ere sartzen ari da, bestalde: eskolan oso goiz ari dira ingelesa sartzen, 3-4 urterekin. Horrezaz gainera guraso batzuek ingelesezko klase osagarrietara bidaltzen dituzte seme-alabak. Gero eta lehenago egiten da hori, gainera: ingelesarekiko eskaintza 0 urtetik aurrera hasten da, gaur egun, hainbat kasutan. Ingelesa nahiko ondo dakiten guraso batzuek, are, ingelesez egiten diete seme-alabei. Ez naiz jokabide hori kritikatzeko ari, guztion begien bistakoa den gertakaria azaltzen baizik. Ondorioa argia da: euskararen erabateko nagusitasuna indargabetzen ari da adin-tarte horietan, are gunerik euskaldunenetan, gaztelaniaren presentzia indartuz.

Arnasguneen sailkapena egitean, ingurumen bat arnasgune den ala ez finkatzeko orduan elementu interesgarrienetako bat honako hau izaten da sarri: etxetik erdaldun diren umeak herri-giroan, beste umeekin duten interakzioen ondorioz, euskaldundu egin diren ala ez. Ez naiz maila formaleko euskalduntzeaz ari, eguneroko jardunean bizi eta indartu ohi denaz baizik. Herrian, gazteen artean nagusi den euskal-giroan, integratzeko lain euskara ikasten duten ala ez. Elementu hori gehituko nioke Mikel Zalbideren sailkapenari.

4. GIZARTE EREDU BERRIA

I Mikel Zalbidek aipatzen dituen erronkei dagokienez, gizarte-ereduaren bilakaera bat behar dela azpimarratzen da. Maila soziokulturalari dagokionez, txostenean aipatzen den moduan *Gemeinschaft*-elkartea eta *Gesellschaft*-gizartea uztartu egin beharko dira: gizarte-eredu berri bat osatu beharko da, ez XIX. mendeko gizartearen eredura itzuli. Arnasguneetako biztanleriak, ez bestek, erabaki behar du zer nahi duen. Antzinako ereduak ez zaizkio, seguruenik, erakargarri gertatuko. Garrantzitsua da, beraz, txostenean eredu-berritzeaz esaten den hori.

Aisialdia eta gertuko komunitatea desmaterializatzen ari dira hein batez: eguneroko solaskideak eta harreman-sareak; eta ez dira lehen bezain gertukoak eta trinkoak (hala dira kontuak, bereziki, adin batetik aurrera: haurren, eragin hori ez da, itxuraz, hain handia, telebistarena, ordea, bai). Jendea, gero eta gehiago, bakarrik bizi da bere telefono mugikorraz, pantailaren beste aldean dagoenari so edo pantailan dagoen informazioarekin, facebook-ekin etab. interaktuatuz. Kalean dabilenean ere, lagunekin koadrilan edota, are, bikotekidearekin tabernan dagoelarik, bere telefonoari begira ikusten dugu, maiz, jendea. Ustez eta asmoz askatasunaren bila gabiltzalarik (“nahi dudan jendearekin nago nonahi eta noiznahi, nahi dudan informazio jasotzen dut uneoro” etab.) esklabo bihurtu gara¹. Ez gara gai hemen eta orain egoteko, aurrez aurreko solaskideekin harreman bizi-bero-piperdunez jarduteko. Eragin handia du (edo izan dezake) berrikuntza horrek arnaguneetan: (erdarazko) kanpoko-urrutiko informazio birtual hori arnagunearen muin-muinean sar liteke; “kanpoko mundu” horrek bertako errealitate fisikoak baino garrantzi eta presentzia handiagoa eskura lezake, zenbaitetan behintzat. Nabarmen ahuldu eta, azkenean, desegin egin dezake horrek gertuko komunitatearen trinkotasuna. Edo alderantziz: sare horiek erabiltzea aukera bat izan daiteke komunitatea trinkotzeko, baita arnagunetik kanpora dagoenean ere biztanleria, horretarako aldiz lan handia egin behar da eta euskararen presentziak, arnagunean eta egunerokoan, oso altua izan behar du. Neurri batean arnagunean euskara erabiltzea arau soziolinguistikoa bada lortu beharko litzateke arnaguneko biztanleria gizarte-sareetan, haien artean, sare horiek euskaraz erabiltzeko. Eskaintza eta eskaintzaren erakargarritasuna, aldiz, beste hizkuntzetan dago gehien bat.

21. orrialdean zera dio Mikel Zalbidek: “jendearen eguneroko arazoak konpontzea” hartu behar du bide batezko euskalgintzak xede. Hau erantsiko nioke nik, esaldi horri: azken urteotan zorientasunari buruz argitaratzen ari diren ikerketak ere kontuan hartzea komeni da, eta hor aukera bat dugu. Izan ere, gizartean egonezin nabarmena dago, ikus adibidez menpekotasunen bilakaera, tartean mugikorrena. Normalean ihes egiteko estrategiak dira menpekotasun horiek guztiak. Euskarak plus bat izan behar duela aipatzen da sarri, eta hor, berriz diot, aukera bat dugu. Nork bere burua bere inguruan egoki uztartzeko lagungarri gerta liteke euskara. Arnaguneetatik kanpora garrantzitsua da hori; arnaguneen bilakaera soziokulturalaren oinarrietako bat ere izan liteke, gainera. Arnagunean zorientsu(ago) bizi baldin bada jendea, errazago eutsiko dio arnaguneari eta errazago geldituko da bertan; arnagunean

**Nork bere burua
bere inguruan
egoki uztartzeko
lagungarri gerta
liteke euskara.
Arnaguneetatik
kanpora
garrantzitsua da
hori;
arnaguneen
bilakaera
soziokulturalaren
oinarrietako bat
ere izan liteke.**

**Osaera
soziokultural
berriak (eta, oro
har, gaur egungo
bizimoduak)
gazteak
arnasguneetatik
ateratzea
eskatuko
(dagoeneko
eskatzen) du
maiz.
Arnasgunetik
kanpora
(unibertsitateak
dauden hirietan,
campusean
bertan etab.)
babes-leku
euskaldunak
behar dira.**

bizi izatea erakargarriago izango da². Zoriontasunaren gai hori asko zabalzen ari da gizarte mailan, unibertsitatean (berariazko ikasketak sortzen ari dira horren gainean) eta maila politikoan (UAEn “minister for happiness” postua sortu zen 2016an -Aljazeera 2016). Hori esanda, beste hau ere erantsi behar dut: txostenean Mikel Zalbidek aipatzen dituen erronka demolinguistikoa eta sozioekonomikoa are funtsezkoago dira agian. Umerik gabe ez dago etorkizunik eta arnasgunean gelditzeko bitarteko materialik (lanik etab.) ez baldin badago alferrik dira gainerakoak.

Osaera soziokultural berriak (eta, oro har, gaur egungo bizimoduak) gazteak arnasguneetatik ateratzea eskatuko (dagoeneko eskatzen) du maiz. Arnasgunetik kanpora (unibertsitateak dauden hirietan, campusean bertan etab.) babes-leku euskaldunak behar dira (kafe-antzokia bezalakoak, etab.) horregatik: osaera soziokultural berri honi egokituko zaizkion babes-lekuak. Arnasguneetako gazte horiek erakartzeko balio izan behar dute, alde batetik, arnasguneaz kanpotik datozen gazteak erakartzeko gai izan behar dute, bestetik, azken horiek aukera izan dezaten haien euskalduntze-prozesua osatzeko. Artikuluaren bukaerako esaldian Mikel Zalbidek zera aipatzen du: “gainerako saioak lagungarri izan daitezke”. Ez hori bakarrik, kanpoan eraginez arnasgunean ere eragiten da, bereziki gaur egun, euskaldun guztiak elebidun direlarik eta eremu geografikoak gero eta irekiago ditugunez.

5. DEMOGRAFIAREN BILAKAERA: ARNASGUNEEN ERRONKA NAGUSIA? EUSKARAREN ERRONKA NAGUSIA?

I

Itzul gaitzen berriro dagoeneko aipatua dugun erronkara: demografiaren bilakaerara alegia. Hori ote da, erronka soziokulturalaren aurrean, arnasguneen erronka nagusia? Ikusi dugunez maila soziokulturala biziki garrantzitsua iruditzen zaigu. Baina arnasguneak, are babesgune euskaldunak, husten badira zer? Euskaldunen dentsitatea Euskal Herrian gosalduz badoa nola eutsi gizarte-eredu berri horri edota euskarari?

Arnasguneei dagokienez Mikel Zalbidek aipatzen dituen mehatxuen artean bat iruditzen zaigu funtsezkoa, atzera-bueltarik ez duelako eta historian zehar hizkuntzak desagertzeko arrazoi indartsuenetarikoa izan delako: hiztun-herria desagertzea. Epe ertain-motzetan politika ekonomikoak aldatzerik badago; jaiotze-tasak aldatzeko politikak, aldiz, epe luzean aurreikusi behar dira eta atzera-bueltarik ez dute. Ez gaude, noski, historiaren garai ilunenetan gertatu diren genozidio kasuen aurrean. Biztanleriaren bilakaerari egiten diogu erreferentzia, besterik

gabe. Azken urteetan jaso diren datu demografikoak kontutan harturik, etorkizunean arnaguneak arrisku bizian izango direla argi dirudi: jaiotze tasak ez badu ziurtatzen biztanleriaren berriztatzea arnaguneetan, hustu eta desagertu egingo dira. Zona horietan dagoen biztanleriaren zer-nolakoa aldatu egingo da, gutxienez.

Arnaguneetan egia da hori, eta arnaguneak ez diren guneetan ere bai. Izan ere, EAEko jaiotze tasa oso baxua da. Merezi du gai honetan pixka bat luzatzea. EAEn emakume bakoitzak 2,8 seme-alaba bazuen 1975ean, batez beste, 90ko hamarkadan 0,9ra jaitzi zen batez bestekoa, eta 1,36ra pasa da 2015ean (EUSTAT, 2017: 6). Beste modu batera esanda: gaur egungo jaiotze-tasa ez da biztanleria berriztatzeke adinakoa. Umeak gero eta beranduago izaten ari dira eta horrek mugatzen du ume bi edo gehiago edukitzeko aukera, horretarako gogoia dagoenean ere. Jaiotze-tasa 19,1 izatetik 1975ean, 7,8ra izatera pasa da 2017an (EUSTAT, 2018/07/06). Europako eta munduko baxuenetakoa da, Europa Batasuneko batez bestekoa 10ean dago (EUSTAT, 2017/08/30).

Biztanleriaren bilakaerari dagokionez kontuan hartu behar da, horrezaz gainera, biztanleriaren % 10,5 Espainiaz kanpokoa dela (EUSTAT, 2014) eta populazio horren jaiotze-tasa bertokoena baino altuagoa dela. 2016an gertatu ziren jaiotzen % 21,4-k amak Espainiatik kanpoko jatorria zuen (EUSTAT, 2018).

Etorkizunari dagokionez, EUSTATEk biztanleriaren bilakaerari buruz sortutako etorkizuneko proiektzioetan migrazioen saldo positiboan datza EAEko biztanleriaren hazkunde, hazkunde naturala (bertokoei dagokiena) negatiboa izango delarik³ (EUSTAT, 2017: 22).

Hemen muturreko kasuak baino ez ditugu aipatu⁴. Berez, 2016an jaso diren 18.240 haurretatik zenbatek zuten gutxienez guraso bat euskaldun, eta horietatik zenbat ziren arnagune batekoak jakitea interesgarria litzateke. Hipotesi bat egin daiteke, hala ere, oker egiteko arrisku handiegirik gabe: kopuru hori ez da nahikoa, urrundik ere, arnaguneetako biztanleriaren berriztatzea ziurtatzeko. Gai honen inguruko politika bat beharko litzateke eta arnaguneei dagokienez egokitzapen batzuk egin beharko liriateke demografiaren arazoari aurre egiteko: jaiotze-tasa, emigrazio/immigrazio gaiak, lan-aukerak etab. sakon eta xehe aztertu behar dira, eta horien plangintza egin.

Xede dugun biztanlerian eraginkorra izango den politika demografikoa zehaztea ez da erraza. Hainbat faktore kontuan hartu behar dira, kontrako efekturik ez sortzeko. Luze litzateke hemen gutxieneko azalpena

Azken urteetan jaso diren datu demografikoak kontutan harturik, etorkizunean arnaguneak arrisku bizian izango direla argi dirudi: jaiotze tasak ez badu ziurtatzen biztanleriaren berriztatzea arnaguneetan, hustu eta desagertu egingo dira.

**Arnasguneetan
ondoriorik sor
ditzakete
eguneroko
bizimoduan eta
ohituretan.
Bereziki urtero
udatiar berdinar
etortzen badira,
bizigiroan
integratuz joaten
dira udatiar
horiek eta
bizigiro hori
aldatu egiten
dute.**

ematea. Dena den, garai batean beste alor batzuetan modan izan zen diskriminazio positiboaren bidetik jo beharko litzateke, seguruenik. Hori egin ezean politika demografikoak xede duen biztanlerian baino beste biztanleri mota batzuetan izango du ondoriorik, euskararen arazoa areagotuz zenbait kasutan⁵.

Demografiaren gaiarekin lotuta, udatiarren gaia ere hor dugu. Arnasguneetan ondoriorik sor ditzakete eguneroko bizimoduan eta ohituretan. Bereziki urtero udatiar berdinar etortzen badira, bizigiroan integratuz joaten dira udatiar horiek eta bizigiro hori aldatu egiten dute. EHko eskaintza erakargarria da, eta turismoaren datuek hala diote: gero eta atzerritar gehiago etortzen da EHra, oporrak igarotzera⁶.

6. ARNASGUNEAK: HIZKUNTZA-PLANGINTZA EGITEKO ARRAZOI ETA JUSTIFIKAZIO NAGUSIA?

I Hasieran Mikel Zalbidek aipatzen duen moduan, arnasguneak funtsezkoak dira. Hainbat txostenetan adierazi izan dudana bezala, horiek dira hizkuntza-plangintza egiteko arrazoi edo justifikazio nagusia. Biztanleriaren zati batekiko errespetuan oinarritzen da hizkuntza-plangintza: pertsona batzuk euskaldun gara gure artean, eta gurekiko errespetuz (are: gure mesedetan) egiten da hizkuntza-plangintza hori⁷. Bere hizkuntza errespetatua izateko eskubidea du gizatalde orok bere inguru geografiko-historikoan behintzat, kasu honetan euskaldun-jendeak. Han-hemen sakabanaturik bada ere, arnasguneetan dago gizatalde hori bizien. Beste ingurumenetan dagoena oso kolokan dago: erdal elebiduna izaten da maiz, eta belaunez belauneko transmisioa ez dago leku horietan, maiz asko, segurtatua; ez bere osoan behintzat. Belaunaldi batetik hurrengora galdu egin liteke hizkuntzaren naturaltasuna eta osotasuna. Hizkuntza-plangintzaren justifikazio nagusietarikoa hau dugu: euskaldun-jendea (eguneroko bizi-giro arruntean erabat edo nagusiki euskaraz bizi den hiztun-sail ohargarria) egon badago gure artean, eta errespetua zor zaio errealitate horri. Errealitate hori gabe, aski bestelakoa izango litzateke hizkuntza-plangintzaren justifikazioa. Eguneroko jardun arruntean (etxean eta kalean, auzoan eta gizarte-giro zabalean) nagusiki euskaraz bizi diren hiztun horiek arnasguneetako euskaldunak dira, hein handi batean. Euskaldun guztiek euskaraz bezainbat edo euskaraz baino maizago erdaraz egingo balute eguneroko jarduera arruntean, eta erdaraz baino okerrago jakingo balute euskaraz, justifikazio ahula izango luke euskararen aldeko plangintza orok⁸. Euskalduna erdal-elebidun baldin bada, zein da “bere” hizkuntza? Arrazoi ideologikoetara (pseudo

historiko-nazionala, adibidez, gure artean maiz egiten den moduan⁹), ez errealtate objektibora, jo behar izaten da horrelakoetan euskararen aldeko plangintza justifikatzeko.

7. ERAGINKORTASUNA: OINORDETUTAKO EUSKARA ETA BERRESKURATUTAKO EUSKARA

I
Are gehiago: etekin hutsaren aldetik begiratuta ere, funtsezkoa da osasun-maila oneko eremuetan zentratzea. Bi indar soziolinguistiko nagusik dihardute Euskal Herrian, euskara indarberritzeari dagokionez, elkarren ondoan: alde batetik oinordetutako euskararen indarra, neurri handi batez orain ere arnaseguneetan bizirik dagoena; bestetik berreskuratutako (berriz aurkitutako) euskararen indarra. Terminologia hori Lafont okzitaniarrari mailegatuta dago: *occitan hérité* eta *occitan retrouvé* aipatzen ditu berak, Okzitaniako hizkuntzaren bilakaeraz ari delarik (Lafont 1997). Historiaren (historia soziolinguistikoaren) inertzia dugu bataren oinarri; hizkuntza-plangintzaren ondorioz lortuz doazen emaitza baikorrak ditugu bestearen oihartzun. Historiaren inertzia hori, jakina, alde zuzeneko glotopolitika baten (lehendikako plangintza-saio soziolinguistiko jakinen) ondorio ere izan ohi da sarri.

Oso indar diferenteak dira biak, esanahi soziolinguistiko desberdinak dituzte eta azken hamarkada hauetako emaitza demolinguistikoak irakurtzerakoan ez dira nahastu behar. Oinordetutako euskara belaunez belaun transmititu ohi da. Berriz aurkitutako hizkuntza, aldiz, besterik da erabat: familia batean euskararen transmisioan eten izan delarik eta gero, plangintzaren bidez, belaunaldi gazteenek berriaz eskuratu dutenean “haien hizkuntza” (Lafont-en terminologian) gertatzen da. Immigranteen kasuan eta historikoki erdaldun izan diren familietan, aldiz, hiztunek ikasi egin dute euskara, besterik gabe. Azken multzo hori termino ideologikoetara eramaten bada, autore batzuek egiten duten moduan, “berriz aurkitutako” multzoan sar daitezke¹⁰. Eredu geografiko jakinekin identifikatu izan ohi dira bi fenomeno horiek Euskal Herrian.

Une historikoaren arabera bi indarrak norabide berekoak izan dira, edota elkarren kontra jardun izan dute. Garai historiko jakin batzuetan, euskararen kontrako hizkuntza-plangintza egin izan da, berariaz eta ondo jakinaren gainean edo bide batez, albo-emari gisa. Mintzajardunaren inertziak euskararen alde egin izan du, aldiz, oro har. Beste une historiko batzuetan alderantziz gertatu izan da: oinordetutako euskararen bilakaera ezkorra izan da eta plangintza, aldiz, euskararen aldekoa. Askotan, indar biak kontra izan ditu euskarak. Datu horiek kontuan

Oinordetutako euskara belaunez belaun transmititu ohi da. Berriz aurkitutako hizkuntza, aldiz, besterik da erabat: familia batean euskararen transmisioan eten izan delarik eta gero, plangintzaren bidez, belaunaldi gazteenek berriaz eskuratu dutenean “haien hizkuntza” gertatzen da. Immigranteen kasuan eta historikoki erdaldun izan diren familietan, aldiz, hiztunek ikasi egin dute euskara, besterik gabe.

***Euskarak
arnasguneetan,
bere eremu
geografiko eta
soziofuntzional
trinkoenetan,
atzera egitea
gauza larria da,
nahiz eta
(aspaldidanik
edo azken
mende-erditik
hona) bere-
berek ez dituen
ingurumenetan
jakite-kontuan
ezin ukatuzko
irabaziak
eskuratu dituen.***

harturik, eta denborazko eta geografiazko aldagaiak gogoan izanik, argi dago batetik Lastur edo Ea ez direla Tuter a edo Portugalete, ez orain eta ez une historiko zaharagoetan; bistan da, bestetik, 1940ko hizkuntza-politika eta 1985ekoa ez direla gauza bera izan.

Hizkuntzaren osasuna neurtzeko orduan bi indar horiek nahasteak ondorio okerrak ateratzera eraman gaitzake. Oso esanahi diferentea du euskararen gaitasuna igotzeak Euskal Herrian, oinordetutako euskarari esker, edota igoera berreskuratutako euskarari esker gertatzea. Euskararen etorkizuna argiagoa eta baikorragoa da bera nagusi den eremu geografiko eta soziofuntzionaletan euskara transmititzen, ikasten eta erabiltzen denean, batez ere arnasguneetan indartzen denean. Portugaleteko gazte batek eskolan euskara (pixka bat) ikasten duenean euskararen egoerak hobera egiten du zerbait, baina irabazi horrek ez du neurri bereko garrantzirik.

Aipatutako bi kasuok baikorrak dira. Beste kasu batzuetan aldiz, datu demografikoak aztertzerakoan indar batek ezkutatu egiten du bestea; horrek dakar, hain zuzen, ondorio okerrak ateratzeko arriskua. Demagun, batetik, azken hamar urtean Barakaldon, Portugaleten eta Sestaon 30.000 gaztek euskara ikasi duela hein batez, ikasgelatik kanpora oso oso bakan erabiliz halere. Demagun, bestetik, orain puntura arte arnagune izandako, edota orain bertan arnagune den, zenbait ingurumenetan (Bermeon, Ean, Lekeition, Ondarroan eta Markinan adibidez) 1.000 gaztek euskaraz egiteari uzten diola, eguneroko mintzajardun arruntean (etxean eta auzoan, kalean eta herri-giro zabalean ez zaielako transmititzen ari edo ez dutelako erabiltzen), aldi berean. Kuantitatiboki, aski egoera baikorra izango genuke begien aurrean: 29.000 pertsona “irabazi” ditu euskarak. Egoera soziolinguistikoaren azterketa objektiboagoa eginez, halere, laster konturatuko gara eremurik euskaldunetan, are arnaguneetan, euskararen erabilera hainbateko gainbehera izatea oso gauza larria dela. Euskarak arnaguneetan, bere eremu geografiko eta soziofuntzional trinkoenetan, atzera egitea gauza larria da, nahiz eta (aspaldidanik edo azken mende-erditik hona) bere-berek ez dituen ingurumenetan jakite-kontuan ezin ukatuzko irabaziak eskuratu dituen. Bistan da zergatik: “irabazi” horiek ez dute oro har behar adinako ondorio praktikoko-operatibo baikorrik, arnaguneetan aldi berean galdutakoa berdintzeko. Horrek ez du esan nahi, beste eremu horietan euskara indarberitzen saiatu behar ez denik. Euskararen erabilera arnaguneetan babesteko eta indartzeko ere hortik kanpoko hainbat eremutan indartu eta ziurtatu beharra dago, ezinbestean, bere presentzia:

jarreretan eragiteko, batetik, eta euskarak balore praktikoa eta erantsia izateko, bestetik. Horretarako bakarrik ez: gune horietatik kanpora bizi dira euskaldun gehien eta hori ezinbestean kontuan hartu behar da.

Oinordetutako euskararen eguneroko jarduera arruntak (eta bere eremuak: arnaguneak, hein handi batean) gainbehera jarraitu izan du azken urteotan, azken bi mendeen inertzia historikoari jarraipena emanez. Alderantziz, berreskuratutako euskarak igoera nabarmena izan du 1980tik aurrera. Gaitasun kontuetan zentratutako datu demolinguistikoen argitan euskara ondo zihoala ematen zuen, izan ere kuantitatiboki ikusgarriagoak izan ziren berreskuratutako euskararen lorpenak. Oinordetutako euskararen gainbeheraren jarraipena ezkutuan gelditzen zen, kuantitatiboki neurtzeko zailagoa izanik. Hala ere, kualitatiboki esanguratsua zen Lazkaoko 5.000 biztanleetatik 100en batek euskara erabiltzeari uztea, Barakaldoko 100.000 biztanleetatik 1.000k euskara (zertxobait) ikastea baino. Zentzu horretan aipatzen zuen Mikel Zalbidek, 2008an, “ura bodegatik ari zaigu sartzen”. Datu demolinguistikoak kontu handiz irakurri behar dira, bestela autokonplazentzia hutsean amaitzeko arriskua dago, hondoratzen ari garela konturatu ere gabe. Kontura gaitzen azkenik, horrezaz gainera, irabaziak eta galerak eremu soziofuntzional diferentetan gertatzen ari direla: irabaziak eremu soziofuntzional jasoenetan eta galerak, aldiz, euskarak mende askotan bere-bereak izandako eremu soziofuntzional gertuenekoetan. Diglosiaren egoera eraldatu egin da, diglosia terminoa modu akademikoan ulertuta eta EHko/katalanisten moduan ulertuta. Hori ere aztertzeko eta ausnartzeko gaia da¹¹.

8. GIZARTE-ARAUAK: KONTUAN HARTZEKO FUNTZIONAMENDUA

I Behin eta berriz zera errepikatzen du egileak bere artikuluan: arnagunean, gizarte-arauak euskaraz egitea eskatzen du. Funtsezko puntua da hori ere. Bere funtzionamenduari buruzko ohar txiki batzuk egingo ditugu hemen, artikulua ahalik eta praktikoa izateko. Arnagune beteetan euskaraz egiten da, eta kitto. Hori eskatzen du gizarte-arauak. Horrek segurtasuna ematen dio hiztunari: bizitzaren edozein kasutan, gizarte-arauak aurreneko hitza euskaraz egitea eskatzen dio, inori buruko minik eman gabe. Erasana dagoen arnaguneetan, aldiz, gizarte-arauak euskaraz egitea eskatzen du nagusiki, baina erdarara sartu da. Modu horretan, hiztunak badaki zenbait kasutan edo zenbait pertsonarekin erdaraz egin beharko duela, arnagunean bertan. Arnagune beteetan zegoen segurtasun handiak segurtasun ezari utzi dio lekua hainbat

Kontura gaitzen azkenik, horrezaz gainera, irabaziak eta galerak eremu soziofuntzional diferentetan gertatzen ari direla: irabaziak eremu soziofuntzional jasoenetan eta galerak, aldiz, euskarak mende askotan bere-bereak izandako eremu soziofuntzional gertuenekoetan.

**Arnasgune
betean zegoen
segurtasun
handiak
segurtasun ezari
utzi dio lekua
hainbat
egoeratan,
bereziki
ezezagunekin
egiten diren
elkarrizketak
hasterakoan.
Ezezagunarekin
aurreneko hitza
ez bada euskaraz
egiten,
arnasgunea
erasana dagoela
eta gizarte-araua
aldatzeko bidean
dagoela pentsa
daiteke beraz.**

egoeratan, bereziki ezezagunekin egiten diren elkarrizketak hasterakoan. Ezezagunarekin aurreneko hitza ez bada euskaraz egiten, arnasgunea erasana dagoela eta gizarte-araua aldatzeko bidean dagoela pentsa daiteke beraz. Gizarte-arauari dagokionez ondoko banaketa egin daiteke beraz:

- a) arnasgune betea > euskaraz egitea da gizarte-araua > hiztunak segurtasuna du.
- b) arnasgune erasana > euskaraz egitea da araua baina erdara sartu da hainbat kasutan eta ezezagunekin ez dago arau finkorik > segurtasun eza sortzen da hiztunarengan

Gizarte-arau orokorra euskaraz bada ere, ondoko aldagaien arabera erdara bihur daiteke arau:

1. Pertsonaren arabera: “pertsona honekin” beti erdaraz egiten da (nahiz eta beste guztiak euskaraz egiten dugun)”.
2. Elkarrizketaren gaiaren arabera: “gai honetaz erdaraz egiten dugu” edo “pertsona honekin eta gai honetaz erdaraz egiten dugu”.
3. Tokiaren arabera: normalean euskaraz egiten bada ere, osasungintzako pertsonalarekin osasungintzako eraikinetan erdaraz egiten da, bankuan ere bai etab.
4. Ezezagunarekin: tokiaren, pertsonaren eta gizarte-arauaren arabera euskaraz edo erdaraz egiten da.

Segurtasun eza deserosoa izaten da hiztunarentzat eta, normalean, segurtasun eza ekiditeko estrategiak baliatu izaten ditu hiztunak¹². Dena den, kontuan hartu behar da hiztunak balia dezakeen irtenbiderik errazena erdaraz egitea dela. Erdarak egoeren % 100ean balio baitu (arnasgunean ez, araua euskaraz egitea baita hor) eta euskaraz ez. Esperientziak frogatzen duenez, segurtasun ezaren aurrean hiztunak errazena den irtenbidea lehenesten du gehienetan. Hori da, behintzat, aldaketa ikertzen denean (ekintzetan, maila kognitiboan etab.) normalena: erraztasunera jotzea.

Proposatu dugun tipologia sinplifikatu hori¹³ egokia bada, gizarte-arauean eragiteko estrategiak sor daitezke¹⁴ eta dagoeneko hainbat egitasmo abiatu da bide honetatik. Hona proposamen batzuk:

- a) Elebidunak diren taldeetan hiztun eraginkorak¹⁵ zehaztu behar dira eta haiekin lan bat egin behar da euskararen erabilera ziurtatzeko.
- b) Orokorrean euskaldunak hiztun eraginkor bihurtu behar dira, aktibazio-planak bultzatuz.
- c) Hiztunak segurtasun eza pairatzen dueneko egoerak gutxitu egin behar dira: ezezagunaren hizkuntza-gaitasuna agirian utziz (“belarri

prest” eta “aho bizi” txapak adibidez), zerbitzu-enpresetan iragarleak jarritz (“Nirekin euskaraz bai” bezalakoak mahai gainean, “Denda honetan euskaraz” etab.). Orokorrean “Nirekin euskaraz bai” bezalakoak, “bai euskarari”, “euskararen txantxangorria”, Euskaraldia, etab. baliagarriak dira.

d) Gizarte-araua aldatzeko (edo indartzeko) ez ezik, hainbat erakunderen politika aldatzeko ere balio dezakete iragarle eta kanpaina horiek. Orokortzen badira, entitate pribatuen estrategiak aldatzeko ere balio dezakete. Entitate finantziario batek pankarta horiek izateak, beste entitateek, bere konpetzentzia alegia, pankarta horiek izatera bultzatuko du, eta noski langile elebidunak izateko bidean jarriko. Garbiago esanik: herri bateko banku guztiek hori egiten badute, batek izan ezik, falta dena hori ere egokituko da. Denda gehiengehienek “hemen euskaraz” badute sarreran, falta diren gutxi batzuk hartara bidean jarriko dira¹⁶.

e) Hiztunak segurtasun-eza pairatzen duenean, euskararen alde izango diren estrategiak sortu behar dira. Ziurtasun-eza ekiditeko hain automatiko eta erraza ez den irtenbidea erraza eta logikoa bihurtu. Tresnak eman horretarako (TELP taillerrak adibide bat izan daiteke).

f) etab.¹⁷

**Hiztunak
segurtasun-eza
pairatzen
duenean,
euskararen alde
izango diren
estrategiak sortu
behar dira.
Ziurtasun-eza
ekiditeko hain
automatiko eta
erraza ez den
irtenbidea erraza
eta logikoa
bihurtu.**

9. BAIKORTASUNEAN BIZI, ERREALITATEARI SO EGINEZ

Errealista izatea, datuak bere finezia eta konplexutasun osoan aztertzea, beharrezko eginbidea dugu guztiok. Errealismoz jokatzeko ez da, zenbaitek hala uste izango badu ere, setakeriaz edo isilpeko beste asmoren batek eraginik ezkor huts izatea. Euskararen gainbehera ez da atzo goizekoa. Aspaldi hasi zen hainbat autore euskara galtzen ari zela esaten. Azken bi mendeotan (XIX. mendean eta XX. mendearen aurreneko hiru laurdenetan) ematu ordez bizkortu egin da euskararen atzerabide hori. Zenbaitetan, inertzia sozio-historikoak berak eragin du gainbehera hori. Ez beti, ordea, eta ez gehienetan ere agian: inertzia sozio-historiko horren osagarri, edota horren aurretik, kontrako politika linguistiko jakinak eragindako atzerakada bizi izan da hemen. XX. mendearen azken laurdenean, euskara indarberritzeko saioak abian jarri zirenean, argi eduki behar zen urrundik zetorren inertziari ez zitzaioela bat-batean bukaera emango. Plangintza berriaren indar positiboa eta lehendikako inertziaren indar ezkorra, hasiera batean behintzat, kontrako faktore izatekoak ziren: berreskuratze-lanen atariko bat, gehienez ere galera

Baikorrak izateko arrazoi argiak ditugu: aurrerapen handiak egin dira zenbait alorretan, euskararen egoera soziolinguistikoari dagokionez. Arnasguneak eta behe-mailako eremu soziofuntzionalak ditugu, gaur egun, erronka nagusi.

moteltzea zekarren jokaera bestea. Gaixotasun askoren kasuan bezala, gainera, gauza bat da sintoma desagerraraztea eta beste bat gaixotasunaren sustraietara jotzea, gaitzaren iturburua errotik ezabatuz. Hori guztia esanik ere azpimarratu behar da baikorra izan behar dugula, errealitatea begi baikorrekin ikusi behar dugula: hori baita gaitzei aurre egiteko osagai indartsuenetarikoa. Medikuek ondo aztertuta dute gaia: askozaz azkarrago eta proportzio altuagoan sendatzen dira gaixo baikorrak. Gure kasuan, gainera, baikorrak izateko arrazoi argiak ditugu: aurrerapen handiak egin dira zenbait alorretan, euskararen egoera soziolinguistikoari dagokionez¹⁸. Arnasguneak eta behe-mailako eremu soziofuntzionalak (L mailakoak) ditugu, gaur egun, erronka nagusi¹⁹.

Aurretik esandakoak laburbilduz, esan dezagun oso argia dela Mikel Zalbidereen artikulu hau: bai arnasguneen garrantziaz jabetzeko da argigarri, bai ingurumen hauek zer-nolako egoeran dauden jakiteko eta bai, azkenik, bide egokienari eusteko zer egin zehazteko. Arnasguneak ez dira ghetto batzuk bihurtu behar; ez da kanpotik erabaki behar bertako biztanleek zer egin behar duten eta zer ez. Asmoa arnasguneetatik bertatik etorri behar da eta instituzioek eta kanpoko eragileek lagundu behar diote bertako biztanleriari bere helburuak lortzen. Horretarako gune horietako biztanleak beren izaeraz eta izaeraren horren garrantziaz jabetzea ezinbestekoa da: haiek osatzen dute arnasgunea, euskararen birika. Aldi berean hori ez da izan behar zama bat haientzat, lasai bizi behar dira, erantzukizun guztia ez da haiena. Arnasguneen kopurua hain mugatua izanik, horrezaz gainera, politika eta jabetze-lan hori gehiago zabaltzeko behar dela iruditzen zait eta gune euskaldunen arteko loturak eta harremanak bultzatu egin behar direla. Testuinguru sozio-kultural, sozioekonomiko eta tekniko berri honetan iraunkorrak izango diren arnasguneen egitura berria sortzeko ahalegina egin beharko litzateke, beti ere bertoko biztanleria errespetatuz eta berak hala nahi baldin badu. Ez badu nahi zergatik ez duen nahi aztertu beharko da: arrazoi praktikoak diren, ideologikoak edo beste arrazoi batzuk. ●

OHARRAK

1. Hementxe adibide batzuk: “ Mas de 256.000 vascos se consideran adictos al móvil y 170.435 no pueden estar más de una hora sin mirarlo” (Europapress); “Un estudio recoge que el 28% de los encuestados vascos se consideran adictos a su teléfono móvil...” (Eitb.eus).
2. Horretarako, dena den, zera jakin behar du: zoriontsu bizi dela arnasgunean; are, kanpoan baino hobeto bizi dela barruan. Horretaz kontziente izan behar du bertoko biztanleak.
3. Migrazioa etorkizuneko gaia izango da eta ikusi beharko da horren kudeaketak zer eragin izango duen arnasguneetan. Hainbat arau eta erabaki hartzen ari dira gaur egun: arnasguneen ikuspuntutik erabaki horiek zer ondorio izango duten aurreikusi beharko

litzateke. Ikus, esate baterako: “El Gobierno Vasco plantea repartir migrantes según fiscalidad, empleo y población” (Diario Vasco 2018).

4. Atzerriko immigrazioa aipatu dugu hemen, eta horren eragina EHko bilakaera demografikoan. Baina jakina denez, Espainiako herritartasuna lortu berri dutenen kasua, EHTik kanpoko immigrazioaren kasua eta EHko biztanleria erdaldunaren kasua ere kontuan hartu behar dira egoera demografikoa eta demolinguistikoa aztertzerakoan. Lehen aipatutako % 21,4 honi, adibidez, orain aipatutakoak gehitu behar zaizkio.

5. Gertatu daitekeena ikusteko ikus, orobat Diario Vasco 2018, 2.

6. Etengabe igotzen ari dira turismoaren datuak, ikus, esate baterako: http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_101/opt_0/tipo_6/temas.html

7. Ondoko izenburua duen artikulua argitaratu da aurten: “‘If they lose their language we lose our history’: Knowledge and Disposition in Maori Language acquisition policy” (Albury, 2018). Bide bereko diskurtsoa da hori, hein batez. Gauza bat izan behar da hor, dena den, gogoan: ‘If they lose their language we lose our history’ dioenak besteren esku uzten du hizkuntza eta hizkuntzaren berreskurapena, “gu” multzoaren zati, osotasunaren azpimultzo, dira “haiek”. Hori ez da, erabat harturik, hemengo hizkuntza-plangintzaren diskurtsoa. Arriskutsua izan liteke, “gu” / “haiek” dikotomia txertatzea gure artean; hausnartzeko moduko gaia litzateke, behintzat.

8. Ondoko artikulua hau datorrit, puntu honi dagokionez, gogora: “Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan” (Cenoz Iragui, Miren Jasone eta Santos, Alaitz, 2017). Antsietatea sortzea ezin da luzera begirako hizkuntza-plangintza sendo baten helburu izan. Hiztun-talde jakin baten errespetuz nolabaiteko antsietatea sortzea, aldiz, agian bai: aurrez aurreko hiztun-talde biek dituzte hor beren galdu-irabaziak.

9. Arrazoi ideologikoa oso garrantzitsua izan daiteke hizkuntzaren berreskuratze-lanean, dena den helduleku ahula da ez badago gutxieneko errealitate soziolinguistikoko bizirik. Azken mendeen, munduan zehar, bi osagarri horiek eduki izan dutenean ere tokiko hizkuntza gehien-gehienek ezin izan dute bilakaera positiborik ezagutu.

10. Helburu nazionala egon badagoenean, zenbait autorek ulertzen du hizkuntza ikasteko nahia asmo nazionalari lotuta dagoela, ezinbestean, eta modu horretan naziotasun helburua duenak, nahiz eta linguistikoki jatorriz kanpokoak izan, balukeela hizkuntzaren gogoia.

11. Ikus, adibidez, Nafarroan aspalditik zenbait alderdik zabaldu duen diskurtsoa. Horren azken irudikapena 2018ko ekainaren 2an izan zen manifestazioa da. Manifestazioaren giroa ikusteko ikus, beste askoren artean, La Sexta 2018.

12. Segurtasun ezaren ondoriorik ezagunena hizkuntzalarien artean hiper-zuzenketa da, seguruenik. Ez dugu, ordea, lekurik gai honetaz luzatzeko.

13. Asko sakondu daiteke, baina ez da hau tokia.

14. Ez gara ari Cambridge-Analiticak eta bere moduko enpresek egiten duten manipulazio-lanaz, baina agian horiek ere aztertzeke moduko bideak dira, nahiz eta etikaz kanpokoak diren, erabat. Bide horiek, dena den, gutxienez ezagutu behar ditugu demokraziaren etorkizuna bermatze aldera. Beste eztabaida bat da hori, ordea.

15. Elkarrizketetan hizkuntza zein izango den gehien baldintzatzen duten hiztunak dira hiztun eraginkorrak. Erdal elebakarra, per se da hiztun eraginkorra. Erdal elebakar hori “belarri prest” bihurtzea ez da lorpen makala.

16. Hiztun-taldeen arteko gatazka badago toki jakin batean, baliteke entitate batzuk moldatzeari ez ekitea euskararen aurka dauden bezeroak erakartzeko nahian.

17. Gizarte-arauan eragiteko zerrenda luzea izan daiteke. Hori buruzko gogoeta sakonik egiteko paradarik ez dugu, zori-txarrez, hemen.

18. Estatus-plangintza, eskuratze-plangintza, corpus-plangintza, datu demolinguistikoko orokorrak (makroak direnak), hizkuntza-jarreraren bilakaera, L- mailan oso ezkorra zen inertzia soziohistorikoa moteldu egin da, liburugintza, euskararen presentziak eremu

formal-jasoetan, unibertsitatean etab. asko irabazi du. Oraindik ere alor horietan asko dago egiteko baina 80ko hamarkadatik hona egin dena itzela da. Nekez aurki daiteke beste hizkuntza-komunitate bat modu eta maila honetako aurrerapenik egin duenik epealdi horretan, Europan behintzat. Munduan ere, nahiz eta deskolonizazioaren testuinguru batzuetan zenbait hizkuntzak aurrera-pauso handiak ezagutu izan dituen, ez dira asko. Azken kasu horietan, hala ere, egoera politiko, historiko eta soziala oso diferenteak dira, eta kasu horiek ez dira maiz uste dugun bezain ugariak. Gure antzeko parametroetan zegoen hizkuntza-komunitaterik, hemen adinako bilakaera positiboa izan duenik ez dago. Baikorra izateko arrazoirik badugu, zalantzarik gabe.

19. Maila kualitatiboan aurrerapen handiagoak egitea ere beste erronka bat da, neurri handi batean aipatutako bi alorrei lotuta dago (arnasgunek eta behe-mailako eremu soziofuntzionalak).

BIBLIOGRAFIA

- Albury, Nathan John, 2018, “‘If they lose their language we lose our history’: Knowledge and Disposition in Maori Language acquisition policy” in *Journal of Language, Identity & Education*, 17-2, 69-84 or.
- Aljazeera 2016: <https://www.aljazeera.com/news/2016/02/dubai-ruler-create-minister-happiness-post-160208200333235.html>
- Cenoz Iragui, Miren Jasone eta Santos, Alaitz, 2017, “Komunikazio-antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan” in *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 124. zbk, 369-387 or.
- Chico, Amaia, 2018, “El 30% de adjudicaciones de VPO en alquiler son a extranjeros por su bajo nivel de ingresos” in *Diario Vasco*, <https://www.diariovasco.com/sociedad/vpo-extranjeros-gipuzkoa-paisvasco-20180716001132-ntvo.html>
- Diario Vasco, 2018, <https://www.diariovasco.com/sociedad/gobierno-vasco-plantea-20180919121331-nt.html>
- Diario Vasco 2018, 2, <https://www.diariovasco.com/sociedad/vpo-extranjeros-gipuzkoa-paisvasco-20180716001132-ntvo.html>
- EITB.eus: <https://www.eitb.eus/es/noticias/tecnologia/detalle/4283360/adiccion-al-telefono-movil-vascos-son-mayores-usuarios/>
- Europapress: <http://www.europapress.es/euskadi/noticia-mas-256000-vascos-consideran-adictos-movil-170435-aseguran-no-pueden-estar-mas-hora-mirarlo-20180830111956.html>
- EUSTAT, *Atzerritar jatorriko biztanleak Euskal AEn erroldatze-egoeraren eta jatorrizko eremu geografikaren arabera (%)*. 2014
- EUSTAT, 2017, *Biztanleriaren proiektzioak 2031 Eraitzen azterketa*.
- EUSTAT, 2017/08/30 prentsa-oharra, “Euskal EAeko jaiotza-tasa 28.EBko batez bestekoaren oso azpitik da”
- EUSTAT, 2018, *Nacimientos de madre residente en la C.A. de Euskadi por meses según territorio histórico y nacionalidad de la madre. Diciembre 2017*.
- EUSTAT, 2018/07/06, *Euskal AEko jaiotzen Estatistika*.

- Lafont, Robert, 1997, *Quarante ans de sociolinguistique à la périphérie*, Paris: L'harmattan.
- La Sexta, 2018, https://www.lasexta.com/noticias/nacional/manifestacion-en-pamplona-en-contra-de-la-politica-linguistica-del-gobierno-de-navarra_201806025b12ed280cf2ab5edc8bf9fa.html
- Zalbide, Mikel, 2008, "Ura bodegatik ari zaigu sartzen", Ulibarri programak antolatutako *Eskola Hitzun Bila XII*. jardunaldietan emandako hitzaldia.

berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

BERRIALaguna

Hilean 10€ edo urtean 100€

Abantailak:

- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu esklusiboak

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, hilean 36€

Asteartetik ostiralera, hilean 23€

Ostiraletik igandera, hilean 21,3€

Asteburukoa, hilean 15€

Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu esklusiboak



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria laguna**
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45

4 Hego Euskal Herriko arnasmuneak zenbatzen.

Arnasmuneen operatibizazioaren inguruko ekarpena

Iñaki Iurrebaso

Soziolinguista

inaki.iurrebaso@ehu.eus

Sarrera-data: 2018-12-03 / Onartze data: 2019-01-10

Laburpena. Arnasmuneei buruz teoriaren eremutik Zalbidetik egindako argipen-saioak oinarri sendoa ezartzen digu arnasmuneen errealitatea enpirikoki aztertzeko. Hortik abiatuta, artikulua honetan, arnasmuneak kuantifikatzeko ahalegina egin dugu. Horretarako, lehenik, arnasmuneen ezaugarriak laburtuz formulazio honetara iritsi gara: eguneroko egoera hurbiletan euskararen ahozko erabilera nagusi den gune geoterritorialak dira arnasmuneak. Ondoren, informazio-iturriak aukeratu eta udalerrak arnasmunez jatzeko zenbaki-irizpideak zehaztu ditugu. Azkenik, zentsuetatik edanez, honako hurbilpen enpirikoa egin dugu: gaur egun 96 udalerrik osatzen dute Hegoaldeko arnasmuneen multzoa; horietan 113.215 hiztun bizi dira, hiztun guztien %4,1. Ondorioz, 25 hiztunetatik bakarrik bizi da arnasmuneetan. Bilakaera-datuek, 1991-2011 tartean arnasmuneak gutxitu eta ahuldu egin direla erakusten digute. Kale-erabilerari buruzko datuekin egindako lehen azterketek, ordea, ez dute bilakaera ilun hori baieztatzen, eta arnasmuneetan kale-erabilerari eutsi zaiola adierazten digute. • **Hitz gakoak:** *Arnasmuneak, Demolinguistika, Zentsuak, Kale-neurketak, Erabilera, Etxeko erabilera, Erabilera informala, Euskara.*

Abstract. The informative essay, written by Zalbidetik about the field of breathing spaces, provides for a solid foundation to empirically analyze the reality of a breathing space. Hence, in this article, we have tried to quantify what is a breathing space. To this end, first of all, we have come up with this formulation by abbreviating the characteristics of a breathing space: Breathing spaces are geographical areas where the oral use of the Basque language is predominant in close proximity. Next, we have selected the sources of information and we have defined numbered criteria for municipalities that could be considered as breathing spaces. Finally, on the basis of the census, we have taken the following empirical approach: there are now 96 municipalities that make up the Southern Basque Country breathing space network in which there are 113,215 speakers, i.e. 4.1% of all speakers. As a result, only one out of 25 speakers lives in a breathing space area. Evolutionary data shows that breathing space areas have receded and become weakened over the period covering 1991-2011. Preliminary studies using street use data do not confirm this bleak evolution and indicate that street use in the breathing space areas has continued. • **Key words:** *Displays, Demolinguistics, Censuses, Street Measurements, Uses, Home Use, Informal Uses, Basque Language.*

Arreta handiz irakurri dut Mikel Zalbideren “Arnaguneak. Etorkezuneko erronkak” lana (Zalbide, 2019). Behar genuen horrelako testu bat, arnaguneen gaia berariaz landuko zuena, bai gaiaren inguruan diharduten eragileek eta baita ikertzaileek ere. Testu mamitsu horretatik, hainbat ekarpen azpimarratuko nituzke bereziki. Hasteko, arnagunea zer den eta zer ez den argitzen zaigu teoriaren orubetik. Horretaz gain, argitu egiten zaigu zergatik diren hain garrantzitsuak hizkuntza berreskuratzeko zereginen. Eta lanaren azken zatian, arnaguneetan esku hartzeko ildo nagusiak proposatzen dira.

Arnaguneak zer diren eta zer ez diren azaltzearekin batera, arnaguneak operatibizatzeke eta ikerketa demolinguistikoen bidez arnaguneen egoera eta bilakaera enpirikoki aztertzeke funtsezko oinarriak zehaztu ditu Zalbidek. Eta horri lotuta, arnaguneen barne-ezberdintasunak aztertzen hasteko tipologia bat ere proposatzen du. Zalbidek zehaztutako oinarri teoriko horretatik abiatuz, operatibizazioa landu eta ikerketa enpirikoaren eremutik Hego Euskal Herriko arnaguneak kuantifikatzeko lehen hurbilpena egiterainoko ibilbidea egitea izango da artikulu honen xedea.

KONTZEPTU TEORIKOAK NEURGARRI EGITEKO BIDEAN

Jakintza eraginkorra nahi badugu, behin oinarri teorikoa jarrita, teorikoki definitu diren kontzeptu eta kategoriak operatibizatzea (errealitate enpirikoan neurgarri egitea) da hurrengo lana. Badaude, gutxienez, bi modu operatibizazio horri ekiteko: aurrera begirakoa eta atzera begirakoa. Aukera bat da aztertu nahi den errealitatea hemendik aurrera neurtzeko tresneria metodologikoari buruz gogoeta egin eta ikergaia egoki aztertzeke tresnarik egokienak eta sendoenak diseinatzea. Beste aukera bat da orain arte eginda dauden ikerketetatik, aztergai diren kontzeptu teorikoen berri ahalik eta modu egokienean emango digun informazio enpirikoa aukeratzea eta lantzea. Bigarren bide horri helduko diogu guk artikulu honetan, eta egun dagoen informazio estatistikoarekin arnaguneen kontzeptu teorikoki enpirikoki aztertzen hasteko ekarpena egiten saiatuko gara. Lehenago ere aritu ginen antzeko ahaleginean (Iurrebaso Biteri, 2015) baina oraingo honetan, teorian orduan baino hobeto errotuz, dagokien zentralitatea emango diegu euskararen erabilera-datuei.

Egun dagoen informazio estatistikoarekin arnaguneen kontzeptu teorikoki enpirikoki aztertzen hasteko ekarpena egiten saiatuko gara.

Euskaraz dakitenen kontzentrazio handia edukitzea ere ezinbesteko baldintza da lurralde bat arnasgune izateko, zalantza gabe. Dena den, argi adierazten du Zalbidetik ezaugarri hori ez dela nahikoa.

“ARNASGUNE” KONTZEPTU TEORIKOA ENPIRIKOKI NEURGARRI EGITEKO AHALEGINA

Zalbideren testuan, hainbat ezaugarri zehazten dira arnasgunea zer den (eta zer ez den) definitzerakoan (Zalbide, 2019):

1. Unitate geoterritorialak dira arnasguneak (auzoak, herriak, eskualdeak...).
2. Euskaraz dakiten hiztunen kontzentrazio handia dago horietan.
3. Euskararen erabilera handia da eguneroko “mintzajardun” arruntean (euskararen aldeko nagusitasun-moldaera).
4. Nagusitasun hori ez da eztabaidatzen eta gizarte-arau bizia da: “Hemen euskaraz egiten da”; erdaraz egitea da lekuz kanpo dagoena.
5. Belaunaldiz belaunaldiko euskararen jarraipena bermatuta dago.

Beste ezaugarri batzuk ere aipatzen ditu Zalbidetik orain gutxi arteko edo egungo arnasguneak deskribatzerakoan: udalerrri txikiak dira gehienak, Gipuzkoan daude nagusiki, garraiobide nagusietatik urruti daude, euskal kultura tradizionala aski bizirik dago... Horiek guztiak, eta aipatzen dituen beste hainbat, ordea, une historiko jakin batean, arnasguneak arnasgune izaten jarraitu izana azaltzen duten aldagaiak dira kasu batzuetan, eta arnasguneak deskribatzen laguntzen diguten argazki osagarriak beste batzuetan. Baina, eremu bat arnasgune den/ez den definitzeko garaian, ezin ditzakegu hartu aldagai erabakigarri gisa. Aitzitik, Zalbideren testua ondo ulertu badugu behintzat, goian zerrendatutako bost alderdi horiek osatzen dute arnasgune izatearen muina.

Hel diezaiegun, bada, goiko zerrendako ezaugarriei. Horiek denak hartu behar ote ditugu kontuan gune bat arnasgune den edo ez erabakitzeke orduan? Edo, horrek ondorengo lanketa izugarri erraztu dezakeela jakinik, posible ote da aldagai horietako bakarren batek gainerakoak ere ordezkatzeko? Begiratu dezagun ezaugarriak:

1. Lehenengo ezaugarria, Zalbideren iritziz, ezinbesteko baldintza da arnasguneez hitz egin ahal izateko: “Ingurumen geoterritorialak, ez soziofuntzionalak edo birtual hutsak: eguneroko mintzajardun arruntean (erabat edo batez ere) euskaraz bizi diren auzoak, herrixkak, herriak eta, inoiz (gero eta bakanago), eskualde osoak” (Zalbide, 2019:20).
2. Euskaraz dakitenen kontzentrazio handia edukitzea ere ezinbesteko baldintza da lurralde bat arnasgune izateko, zalantza gabe. Dena den, argi adierazten du Zalbidetik ezaugarri hori ez dela nahikoa.

Hizkuntza ezagutu ez ezik, erabili ere egin behar dutela hiztunek gune bat arnagunetzat jotzeko. Praktikan, hortaz, “hiztun dentsitate handia” berariaz neurtzea ez da beharrezkoa izango arnagunea operatibizatzerakoan, erabilera handia baldin badago, euskara dakitenen kontzentrazioa ere handia izango baita, ezinbestean.

3. Erabilera handia alderdi erabakigarri gisa aurkezten digu Zalbidek, horretan ez dago zalantzarik. Zein erabilera da erabakigarria inguru bat arnagunea den ala ez erabakitzeke? Edozein erabilera? Ez, Zalbideren arabera, eguneroko mintza-jardun arruntean egiten den ahozko erabilera da erabakigarria: “Eguneroko mintzajardun arruntak oinarri ezagunak ditu: etxea eta auzoa, kalea eta lagunartea, taberna eta denda, eliza eta herriko plaza, aisialdia eta kirol-gunea, eskola eta (ahal den heinean) lan-esparrua” (Zalbide, 2019:18).

4. Euskaraz hitz egitea gizarte-arau izatea da beste ezaugarri bat, baina erabilera handiaren ondorioztat jo dezakegu, hein oso handian. Ez da beharrezkoa, hortaz, berariaz kontuan hartzea.

5. Arnaguneen azken ezaugarri erabakigarria euskararen belauneko belauneko jarraipena bermatuta izatea da, eta hori ere erabilera handi horren ondorio logiko eta naturala da. Horregatik, aldagai hau ere ez da berariaz neurtu beharko, erabilera neurtuta nahikoa izan daiteke.

Sinplifikatzera joz (eta sinplifikatzea beharrezkoa izan ohi da errealitate sozialak neurgarri egin nahi ditugunean), zerrendako azken lau ezaugarrien muina (gainerakoak ere nola hala ordezkatzeko dituen) erabilera da. Beraz, honako definizio operatibo hau emango dugu ontzat arnaguneen errealitatea neurgarri egiteko bidean: eguneroko egoera hurbiletan euskararen ahozko erabilera nagusi den gune geoterritorialak dira arnaguneak.

INGURU GEOTERRITORIALETAN HURBILEKO ERABILERAREN BERRI EMAN AHAL DIGUTEN INFORMAZIO-ITURRIAK EGUNGO EUSKAL HERRIAN

Arnagunea zer den operatibizatzeke orduan, hortaz, hiztunek lurralde-eremuetan egiten duten ahozko erabilera hurbilean jarri beharko dugu arreta. Tankera horretako informazioa eman ahal diguten iturri gutxi dago egun Euskal Herrian, honako biak nagusiki¹:

— Biztanleria zentsuak ditugu Hegoaldean (ez da euskarari buruzko daturik jasotzen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan INSEEk egiten dituen zentsuetan) eta galdera batean, etxeko erabileraren

Honako definizio operatibo hau emango dugu ontzat arnaguneen errealitatea neurgarri egiteko bidean: eguneroko egoera hurbiletan euskararen ahozko erabilera nagusi den gune geoterritorialak dira arnaguneak.

**Operatiboki,
kale-neurketen
informaziotik
abiatuta,
arnaguneen
ikuspegi
orokorra
eskaintzeko bide
bakarra hauxe
litzateke: neurtu
ez diren
udalerriei kale-
erabileraren
balio bat
esleitzea.
Ahalegin
horretan ari
gara, erregresioa-
teknika erabiliz.**

berri jasotzen da, etxeko hizkuntza zein den alegia: euskara, gaztelania, biak maila berean edo beste hizkuntza bat (A irudian, ikus 2011ko zentsuan nola galdetu zen). Ikuspegi teorikotik, “hurbileko erabilera” horren osagarri garrantzitsu da, zalantzarik gabe, etxeko erabilera. Datu hori ondo ezkontzen da arnaguneen definizioarekin. Zentsuei esker, datu xeheak ditugu Hegoaldeko udalerrri, eskualde eta herrialde guztietarako 1991., 2001. eta 2011. urteetarako².

— Kale-erabileraren neurketak ere (lehenago EKBk eta SEIk eta orain Soziolinguistika Klusterrak egiten dituenak) baditugu Euskal Herri osoko hainbat eta hainbat udalerritan (Altuna Zumeta & Basurto Arruti, 2012). Ikuspegi teorikotik, “hurbileko erabilera” horren beste osagai garrantzitsu baten aurrean gaude, zalantzarik gabe. Datu hori ere ondo ezkontzen da arnaguneen definizioarekin. Arazo praktikoa garrantzitsu bat dugu, ordea, kale-neurketen informazioarekin: neurketa bakoitzean, herri batzuk bakarrik neurtzen dira (ez herri guztiak) eta neurtutako herrien zerrenda aldatu egiten da urtetik urtera. Horiek horrela, operatiboki, kale-neurketen informaziotik abiatuta, arnaguneen ikuspegi orokorra eskaintzeko bide bakarra hauxe litzateke: neurtu ez diren udalerriei kale-erabileraren balio bat esleitzea. Ahalegin horretan ari gara, erregresioa-teknika erabiliz³. Lanketa hori, ordea, bukatu gabe dago artikulu hau idazteko unean; ezin, hortaz, oraingoz bete-betean baliatu.

A irudia: 2011ko zentsuan nola galdetu zen hiztun bakoitzak etxean zein hizkuntza erabili ohi duen. Hego Euskal Herria, 2011.

Zein hizkuntza erabiltzen du gehien etxean?

Markatu aukera bat bakarrik

Euskara Gaztelania Biak Beste bat

Etxeko eta kaleko erabilera-datuak badaude, hortaz. Aurrera begira, ikuspegi hori osatzea komeniko litzateke barne-espazio publikoetako erabilera-datuekin (tabernak, dendak, kiroldegiak, elkarteak...) eta lan-munduari buruzkoekin; horretarako, baina, egun ez dauden eragiketa estatistikoak jarri beharko lirateke indarrean (edo egun indarrean diren eragiketetan gai horiei buruzko galderak txertatu). Dena den, azpimarra dezagun, ahozko erabilera hurbila aztertzeke garaian, ez direla garrantziz txikiak (teoriaren ikuspegitik) eskura ditugun bi horiek. Etxea eta kalea “hurbileko erabileraren” agertoki nagusiak dira, zalantzarik gabe.

Horrela, bi datu multzo horien gainean egin daitekeen azterketa teoriaren ikuspegitik ondo errotutakoa dela esan dezakegu, hurbilketa horretan hobetzeko aukerak ere badiren arren. Baliagarria da arnasguneak identifikatzeko eta baita haien barnean arakatzeko ere.

Zalbidek lantzen dituen kategorietan, BZ-6a eta BZ-5 multzoen arteko aldea (Zalbide, 2019), irakurtzean eta idaztean hitzunek egiten duten erabileran oinarritzen da. Egun ez dago, guk dakigula, udalerrri mailan hitzunen idatzizko erabileraren berri emango digun iturri estatistikorik. Ondorioz, arnasgune beteen barruan, oraingoz ezin daiteke egin “garatuen” eta “hitzezkoen” arteko bereizketaren gauzatze enpirikorik.

BEHIN-BEHINEKO LANKETA, ZENTSUETAN ETXEKO ERABILERARI BURUZ JASO DIREN DATUEN BIDEZ

I Horrela, bada, orriotan egingo dugun ahalegina Hego Euskal Herrira mugatuko da, udalerrri mailan landuko dugu (ez ditugu atzemango, hortaz, auzo edo udalerriz beherako guneetan dauden arnasguneak) eta, oraingoz, zentsuek etxeko erabilerari buruz jasotako datuetan oinarrituko da gehienbat (nahiz eta kale-erabileraren inguruko aipamen batzuk egingo ditugun aurrerago).

Orain arte azaldutako irizpideetan oinarrituta, Hego Euskal Herrian egindako zentsuen informazio xehea bildu dugu udalerrri, eta bateratze-lana egin dugu EUSTATetik eta NASTATetik jasotako informazioarekin. Azal dezagun 1991ko eta 2011ko datuak landu ditugula⁴. Horrela, Hegoaldeko udalerrri bakoitzerako, etxean gehien erabiltzen duten hizkuntzaren arabera, honako lau kategoria hauetan banatzen dira hitzunik: nagusiki (edo soilik) euskaraz aritzen direnak, nagusiki (edo soilik) gaztelaniaz aritzen direnak, bietan berdintsu aritzen direnak eta beste hizkuntzaren batean aritzen direnak. Kategoriatik udalerrri bakoitzean kopuru bakarrera iristeko, formula honen bidez kalkulatu dugu udalerrri bakoitzean zein den euskararen erabilera etxeetan:

$$\text{Euskararen erabilera etxean \%} = \text{Euskaraz \%} + 0,5 * \text{bietara \%}$$

Formula hori udalerrri eta urte bakoitzari aplikatuta, ehuneko bat izango dugu udalerrri eta landutako zentsu-urte bakoitzerako. Hori izango da hurrengo urratserako lehengaia.

Hego Euskal Herrian egindako zentsuen informazio xehea bildu dugu udalerrri, eta bateratze-lana egin dugu EUSTATetik eta NASTATetik jasotako informazioarekin. Azal dezagun 1991ko eta 2011ko datuak landu ditugula.

HITZEZ ADIERAZITAKO NEURRIAK ZENBAKITARA EKARRIZ

I
Zalbidek arnaguneen inguruko sailkapena lantzen du, eta erabilera handiagoa edo txikiagoa dutenak bereizten ditu, 1. taulan erakusten dugun bezala. Bertan, Zalbideren hitzezko azalpenei zenbakizko ordain bat jartzea proposatzen dugu. Horrela, arnagunetzat joko ditugu etxe-etako erabilera %60koa edo handiagoa duten udalerriak. Era berean, arnagune beteen eta erasanen arteko muga %80an jarriko dugu: kopuru hori edo handiagoa dutenak arnagune beteak direla esango dugu eta gainerakoak arnagune erasanak⁵. Azkeneko hitza esateko asmorik gabe, taula horretan aurkezten diren irizpideak erabiliko ditugu artikulua hau lantzeko.

1. taula: etxeko erabilera arnaguneetan, arnagune beteetan eta arnagune erasanetan: Zalbideren ideiak zenbakitara ekartzeko proposamena.

	Zalbidek erabilera-neurriaz dioena	Operatibizazio-proposamena
Arnaguneak	"Guztiak edo gehienak euskaraz ari izaten dira arnagune barruan" (Zalbide 2019: 37)	Erabilera: %60,00-%100,00
Arnagune beteak (BZ-6a eta BZ-5)	"Etxean eta kalean, lagunartean eta herri-giro zabalean nagusitasun-moldaera argia du euskarazko jardunak, hitzez." (Zalbide 2019: 61)	Erabilera: %80,00-%100,00
Arnagune erasanak (BZ-6b)	"Beren artean eta beste hainbat euskaldunekin euskaraz ari izaten dira (BZ-6b)-ko herritar gehienak, zahar eta gazte, eguneroko jardun arruntan. Txikiagoa izanik ere bada herrian, halere, erabat edo nagusiki erdaraz egiten duen hitzun-multzto ohargarriak." (Zalbide 2019, 63)	Erabilera: %60,00-%79,99

BEHIN-BEHINEKO HURBILPEN DEMOLINGUISTIKOA HEGO EUSKAL HERRIKO ARNAGUNEEN ERREALITATERA, 2011KO ZENTSUETAN OINARRITUTA

I
Orain arte azaldutako irizpideetan oinarrituta egin dugun lanketaren emaitza 2. eta 3. tauletan aurkezten dugu. Bigarren taulan, Hegoaldeko udalerriak sailkatzen dira, udalerrri horietako etxeetan euskararen erabilera duen pisuaren arabera. Hirugarrenean hiztunak sailkatzen dira, haiek bizi diren udalerrian euskarak etxeko hizkuntza gisa duen pisuaren arabera.

2. taula: Udalerriak, bertako hiztunen etxeko erabileran euskarak ageri duen ehunekoaren arabera. hegoaldeko udalerriak, 1991-2011

	1991 (kop.)	2011 (kop.)	1991 (%)	2011 (%)
%0,00-19,99	317	325	61,9	62,1
%20,00-39,99	23	50	4,5	9,6
%40,00-59,99	40	52	7,8	9,9
%60,00-79,99 (arnagune erasanak)	47	72	9,2	13,8
%80,00-100,00 (arnagune beteak)	85	24	16,6	4,6
GUZTIAK	512	523	100,0	100,0

Iturria: guk landutakoa, EAEn eta Nafarroa Garaian 1991. eta 2011. urteetan egin ziren zentsuetako datuetatik abiatuta (EUSTAT eta NASTAT).

3. taula: Hiztunak, beraiek bizi diren udalerriko etxeetan euskararen erabilerak ageri duen ehunekoaren arabera. hegoaldea, 1991-2011.

	1991 (kop.)	2011 (kop.)	1991 (%)	2011 (%)
%0,00-19,99	1.990.929	2.119.523	76,6	77,3
%20,00-39,99	221.102	304.581	8,5	11,1
%40,00-59,99	201.897	204.076	7,8	7,4
%60,00-79,99 (arnagune erasanak)	114.532	104.794	4,4	3,8
%80,00-100,00 (arnagune beteak)	71.509	8.421	2,8	0,3
GUZTIAK	2.599.969	2.741.395	100,0	100,0

Iturria: guk landutakoa, EAEn eta Nafarroa Garaian 1991. eta 2011. urteetan egin ziren zentsuetako datuetatik abiatuta (EUSTAT eta NASTAT).

Eskura dugun zentsu-informazioa baliatuz, 2011. urtean hauxe izango litzateke Hego Euskal Herrian udalerrri mailako arnaguneen errealitatea:

- Arnasgunetzat izenda ditzakegu Hegoaldeko 96 udalerrri. Horien artean, 24 izango lirateke arnagune beteak, eta gainerako 72ak arnagune “erasanak”. Hegoaldea osatzen duten 523 udalerrrien⁶ zati ohargarri bat, hortaz, arnagunea dugu, zehazki %18,4, ia bostetik bat.
- Arnagune horietan guztietan 113.215 hiztun (euskaldun zein erdaldun) bizi ziren 2011. urtean, Hegoaldeko hiztun guztien %4,1.

**Belaunez
belauneko
transmisioa
ziurtatzen duten
baldintzetan bizi
diren hiztunen
kopurua modu
ohargarrian
jaitsi da
Hegoaldean
1991-2011
tartean, eta 2011.
urtean Hego
Euskal Herriko
hiztun guztien
multzo oso txiki
bat besterik ez
dute osatzen.**

Horrela, bada, Hegoaldeko 25 hiztunetatik bat bizi da arnagunean eta gainerako 24ak ez dira arnagunean bizi. Arnagunean bizi direnen artean, ia denak arnagune “erasanetan” bizi dira. Arnagune beteetan 8.421 hiztun bizi dira, Hegoaldeko hiztun guztien %0,3 besterik ez.

Bilakaera kezagarria erakusten digu 1991ko datuetatik 2011ko datuetara izan den aldaketak:

- Arnagune ziren udalerrriak 132tik 96ra jaitsi dira.
- Arnagune bete ziren udalerrriak 85etik 24ra.
- Arnaguneetan bizi ziren hiztunak urritu egin dira, 186.041etik 113.215era (eta Hegoaldeko hiztun guztien %7,2 izatetik %4,1 izatera).
- Arnagune beteetan bizi zirenak gutxitu dira batez ere, 71.509tik 8.421era (Hegoaldeko hiztun guztien %2,8 izatetik %0,3 izatera).

Horrela, bada, belaunez belauneko transmisioa ziurtatzen duten baldintzetan bizi diren hiztunen kopurua modu ohargarrian jaitsi da Hegoaldean 1991-2011 tartean, eta 2011. urtean Hego Euskal Herriko hiztun guztien multzo oso txiki bat besterik ez dute osatzen.

ARNASGUNEEN EGOERAZ ETA BILAKAERAZ KALE-ERABILERAREN DATUEN AZTERKETAK EMANGO DIGUNARI BURUZKO HAINBAT HIPOTESI

Esan bezala, etxeko erabilerari buruz egin diren zentsuetako datuekin gauzatu dugun azterketatxo hau osatzen ari gara kale-erabilerari buruzko datuekin. Orain arte egindako probek erakusten digutenez, kale-erabilerari buruzko datuek baieztatu egingo dituzte etxeko erabileraren azterketak agerian utzi dituen hainbat ikuspegi, eta beste hainbati ñabardura garrantzitsuak egin beharko zaizkio.

Gure doktoretza tesian ikusi dugu hori (kaleko erabileraren datuekin, zenbait eredu lantzen ari gara balioen haztaketan eta erregresioan oinarrituta). Lanketa hori guztiz amaitu gabe dugunez, zuhurtzia guztia-ekin, behin-behinekotasun osoz eta berez beharko lirakeen xehetasun metodologiko guztiak emateko astirik gabe hitz egin beharra dugu. Ziurrenik, azterketak guztiz amaitu arte ez zabaltzea litzateke zuhurrena. Baina informazioak irakurlearentzat izan dezakeen interesak garamatza horrela jokatzera. Plantea dezagun, hipotesi gisa oraingoz, zer ekar dezakeen kale-erabileraren azterketa eta etxeko erabileraren azterketa elkarrekin lantzeak.

Arnaguneen operatibiazioa etxeko erabileran oinarrituta egin (zentsuetatik) edo kale-erabileran oinarrituta egin (kale-neurketatik), ez da alde handirik izango egungo arnaguneen neurrian. Bi erabilera horien arteko korrelazioa izugarri handia da, eta emaitzak bat etorriko dira hein oso handian, eta ez da aldaketa handirik izango 2. eta 3. tauletan 2011rako eman diren kopuruetan. Baina bada ñabardura garrantzitsu bat: kale-erabilerako datuetan oinarrituta, askoz gehiago dira arnaguneen barruan “beteen” mailan sar ditzakegunak (50 udalerrri eta 45.000 hiztun inguru, lehen hurbilpen baten arabera) etxeko erabileran oinarrituta baino (24 udalerrri eta 8.421 hiztun).

Bilakaerari erreparatu, etxeko erabileraren datuekin batera kale-erabilerarenak ere aintzat hartuz gero, arnaguneetako galera dezente apalagoa litzateke, etxean ez bezala kalean ez baita erabilera handieneko eremuen ahultze sistematikorik gertatu. Behin-behineko datuak irakurrita, eta Hego Euskal Herriko udalerrri guztietako kale-erabilera aintzat hartuta (zuzenean neurtutako udalerrietan neurketen balioak jasota eta neurtu gabekoei erregresioaren bidez balio bat eslelituta), hauek dira arnaguneen bilakaerari buruzkoak: hiztun guztien %4,5 inguru bizi ziren arnaguneetan 1989-1993 bosturtekoan (euskararen kale erabilera %60koa edo handiagoa zen udalerrietan), eta kopuru horrek gutxi-asko aldaketa handirik gabe jarraitzen du 2014-2018 bosturtekoan ere. Arnagune beteetan kasuan ere ez da alderik 1989-1993 eta 2014-2018 bosturtekoek ageri dituzten datuetan. Bi kasuetan, Hegoaldeko hiztunen %1,6 bizi ziren euskararen kale-erabilera %80koa edo handiagoa zuten udalerrietan. Kale-erabileraren datuek, hortaz, dezente leuntzen dute etxeko erabileran oinarrituta aurkeztu dugun bilakaeraren deskribapen iluna.

Bi datu multzoen arteko aldeak beste fenomeno bat azalarazten digu: etxeko erabileraren eta kalekoaren arteko aldea handitu egin da inguru euskaldunenetan azken 25 urteotan. Lehen ez bezala, gaur egun gehiago egiten da euskara arnaguneetako kaleetan bertako etxeetan baino. Ikerketa-eremu zabala irekitzen digu joera berri horrek. Hipotesi gisa berriro ere, esango dugu alde horren arrazoiak bi norabidetan bila ditzakegula nagusiki:

- Arnaguneetara bizitzera kanpotik etorri diren hiztun erdaldunak edo euskaraz jakinda ere erdararako joera handiagoa dutenak ez dira hainbeste ibiltzen herriko kaleetan (eta horregatik, kale-neurketetan ez da antzematen horien eragina etxeko erabilera neurtzen duten zentsuetan bezainbeste).
- Arnaguneetako hiztunen azpimultzo batek euskararako joera

Etxeko erabileraren datuekin batera kale-erabilerarenak ere aintzat hartuz gero, arnaguneetako galera dezente apalagoa litzateke, etxean ez bezala kalean ez baita erabilera handieneko eremuen ahultze sistematikorik gertatu.

handiagoa du kalean etxean baino (etxeko denak euskaldunak ez direlako, edo etxeko hizkuntza-ohitura eta arauak erdarara bultzatzen dutelako, eta kalekoek, berriz, euskarara).

AZKEN HITZAK

I

Honaino ekarri gaitu Zalbideren irizpide teorikoetan oinarrituta landu dugun lanketa enpiriko hasiberriak. Espero dezagun lanketa horretan aurreratzeko eta arnaguneen errealitatearen ezagutzan sakontzeko modua izango dugula, etxeko eta kaleko erabilera-datuak integratuz, besteak beste. Horretan sakondu aurretik, ordea, oso interesgarria litzateke teoriaren eremutik berriro ere *feedbacka* jasotzea, eta egin ditugun interpretazio eta moldaketak balioetsi eta, halakorik komeniko balitz, gure irizpide enpirikoetarako egokitzapenak proposatzea. ●

OHARRAK

1. Euskararen egoera soziala ezagutzeko ezinbesteko iturria den Inkesta Soziolinguistikoak, laginen neurriak direla eta, ez dezake eskaini udalerrikako edo eskualdekako informaziorik; beraz, ez du balio ahalegin honetarako. Arrue ikerketak, berriz, informazio baliagarria eskaini lezake, gutxienez EAEko udalerrri askotarako (udalerrian bertan ikastetxea dutenetarako). Etorbizuneko ildo interesgarria izan daiteke ikerketa horrek arnaguneen azterketari egin ahal dion ekarpena zehaztea.
2. Berariazko lanketa batek udalerriz beherako unitateetarako (auzo, herri, entitate...) informazioa ere ahalbidetu lezake, baina gu ez gara horretan sartuko.
3. Horretan ari naiz Patxi Juaristiren eta Iñaki Martinez de Lunaren zuzendaritzapean egiten ari naizen doktore tesian.
4. 2016ko etxeko erabilera-datuekin EUSTATEk argitaratutako Biztanleria-estatistiken emaitzak ez ditugu landuko, datu horiek eta zentsuetakoek ez dutelako serie guztiz homogenoa osatzen.
5. Ekarpentxi bat kategorien eraikitze-irizpideei eta erabilitako terminologiari buruz, arnagune *erasanen* harira: “arnagune **erasanak**” tipologiak norabide-zentzu argia du. Hori ematen du aditzera kategoriaren izenburuak berak, eta horixe baieztatzen du testuak ere: “Euskarazko hiztun-talde hurbila, aurrez aurreko interakzio bizikoa, kontzentrazio-dentsitatez **ahultzen ari da...**” (Zalbide, 2019:64). Zalantza handirik ez dago gaur egun errealitatea hori izango dela kategoria horretan sar ditzakegun herri guztien kasuan. Udalerrri horiek guztiak orain baino euskaldunagoak eta arnaguneagoak ziren lehen. Tankera honetako sailkapen bat lantzen denean, argigarria izan ohi da finkatzea zer islatu nahi dugun, une jakin bateko egoerak (argazkiak) edo bilakaera-joerak (filmak). Gure iritziz, sailkapen honen xede nagusia “une jakin bateko argazkia” definitzea izanik, goitik behera doazen udalerriak eta behetik gora datozenak multzo berean eta izendapen beraren azpian jasotzea da egokiena, kategoriari norabide-zentzurik eman gabe. Horrela, sailkapenak eta terminologiak aldi eta testuinguru gehiagotarako balioko digu.
- Sailkapenak argitasuna irabaziko luke horrela, eta baita egonkortasuna ere. Demagun, adibidez, hurrengo hamarraldietan goitik behera ez ezik behetik gora datozen udalerriak ere badaudela gaur egun “arnagune erasan” gisa definitu ditugun udalerrri horien artean. “Arnagune erasanak” izendapenak zuzena izateari utziko lioke.
6. Hegoaldeko udalerrien multzo horretan, ez ditugu sartu administratiboki EAEkoak ez diren Trebiñu eta Argantzon arabarrak eta Villaverde Turtzioz bizkaitarra.

BIBLIOGRAFIA

- Altuna Zumeta, O. eta Basurto Arruti, A. (2012). Hizkuntza-erabileraren neurketaren metodologia. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, (84), 17-30.
- Iurrebaso Biteri, I. (2015). Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasguneak arriskuan: EAE, 1981-2011. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, (95), 71-101.
- Zalbide Elustondo, M. (2019). Arnasguneak. etorkizuneko erronkak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 110: 11-78.

bat

Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

BAT ALDIZKARIA 110. ZENBAKIA

ARNASGUNEAK. ETORKIZUNEKO ERRONKAK

BELEN URANGA: Hitzaurre gisa.

MIKEL ZALBIDE: Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak.

KIKE AMONARRIZ: Arnasguneak. Zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira? Arnasguneen inguruko sarrera autobiografikoa.

XABIER BENGOETXEA: "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" aurkezpenari iruzkinak.

IÑAKI IURREBASO: Hego Euskal Herriko Arnasguneak zenbatzen. Arnasguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena.

LIONEL JOLY: Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronkak nagusiak.

MIKEL ZALBIDE: Arnasguneen hauspoa: saio-amaierako zenbait ohar.

**HARPIDETU
EDO
OPARITU:
Urtean 40 euro**

ABANTAILAK:

> Hiru hilez behin,

BAT aldizkaria etxean bertan.

> Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn jaso.



www.soziolinguistika.eus/bat/harpidetza

943 592 556

bat@soziolinguistika.eus

5

“Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak”.

Aurkezpenari iruzkinak¹

Xabier Bengoetxea Muxika

Irakasle ohia

xabengo@gmail.com

Sarrera-data: 2018-12-03 / Onartze-data: 2019-01-10

Laburpena. “Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak” artikuluari egindako iruzkin hauetan, Mikel Zalbiderekin elkarpena eskertzeaz gain, testuaren irakurketak sortutako galderak, piztutako zalantzak eta berreziki berrestea edota azpimarratzea merezi duen hainbat puntu dira aipagai. Oro har, adostasun handia adierazten da, bai egiten den diagnosiarekin, bai egoerari aurre egiteko proposatzen diren erronka eta ekinbideekin. Aldi berean, arnasguneen garrantzia eta zentralitatea ezbaian jartzen duten hainbat ikuspunturi lekua egiten zaio. Funtzio formalak, funtzio nazionalak, arnasguneen konfigurazioan duen eragina eta zentralitatea aztertzen da. Halaber, horrekin lotuta, hedabideek eta teknologia berriek hiztunen sozializazioan duten eragin ahalmen berrituak sortzen dituen zalantza eta galderak ekartzen dira hona. Horrek guztiak harreman-sare intimoetan izan dezakeen inpaktuaren kezka adierazten du. • **Hitz gakoak:** arnasgunea, gizarte-araua, autorregulazioa, funtzio formalak, konpartimentazio soziofuntzionala, herri-giroa, hizkuntza-komunitatea, kultura-kontsumoa.

Abstract. In commenting on “Arnasguneak: Etorkizuneko erronkak” (“Breathing spaces. Future Challenges”), besides showing gratitude for Mikel Zalbide’s contribution, there are questions and doubts that come to the fore after reading the text as well as several points that deserve going back over or being highlighted. Generally speaking, there is a great deal of consensus with both the diagnosis and the challenges and initiatives that are proposed to deal with the situation. At the same time, the importance of a breathing space and several points of view that question the influence on the configuration of breathing spaces and their central importance. Furthermore, there is mention of the doubts and questions arising from the renewed influential capacity that the media and new technologies have had on the socialization of speakers. • **Key words:** breathing spaces, social norms, self regulation, formal functions, socio-social compartmentalization, local environment, language community, cultural consumption.

ESKERTZA

Beti da eskergarria Mikel Zalbideren ekarpena. Arnasguneen gaia plazaratu eta gurera ekarri zuenetik, gaia sakontzen eta zehatz-mehatz aztertzen dihardu atsedetik hartu gabe, bere ohiko zehaztasunez. Arnasguneen gaian barna ibili nahi duenarentzat ezinbesteko itsasargia da. Oraingo honetan ere dokumentu osatua eta ondo hornitua eskaintzen digu. Dokumentu oso baliotsua zait, niri behintzat, arnasguneen inguruko hausnarketari jarraipena emateko. Oso modu xehean eta grafikoan azalduta daude, arnasguneen inguruko ertzak, han eta hemen, hainbatetan irakurri izan dizkiogunak. Oso tresna egokia izango da, argibideak behar ditugunean, behin eta berriz dokumentu horretara jotzeko. Mami asko dago hor eta irakurketa bakarra ez da aski, nire kasuan behintzat, horko alderdi guztiez jabetzeko.

Egin dizkiotan irakurketen ostean, sortu zaizkidan burutazioak, iruzkinak eta zalantzak azaltzen saiatuko naiz. Ez dira asko eta sakonak. Izan ere, nire ezjakintasunetik ezin baitezaket ekarpen handirik egin. Oro har, ez baitaukat ezadostasunik aurkezpenarekin. Funtsean bat nator hor esaten direnekin. Guri, dakienarengandik ikastea baitagokigu. Beraz, aukera hori eskaintzeagatik eskerrak.

Aurkezpeneko erabilitako metodologiaz

“Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak” gaitzat hartuta, berariaz lantzekoa zazpi puntutara ekarri du gaia. Zazpi puntu horietara ekarri ditu arnasguneen gaiak dituen ertz eta ikuspuntu ezberdinak. Handik eta hemendik aztertu ditu ohiko zorrotasunez.

Azterketarako erabiltzen duen metodologia oso egokia eta argigarria iruditu zait. Hau da, galderen bidez gaia zazpi puntutara ekartzea eta, horrela, ertz ezberdinetatik hartuz zedarritzea. Atalez atal egitea azterketa, alegia. Asko laguntzen du horrek, gerora berrirakurketak egiteko ere. Hasiera batean, galdera bat gehiago gehitu nion nik. Hain zuzen, laugarrenaren ondoren, automatikoki beste bat ikusten nuen: “Zergatik ari zaigu hori gertatzen?”. Gerora konturatu nintzen: “Zer ari zaigu arnasguneetan gertatzen?” galderari ematen zaion erantzunean zehatz-mehatz aipatuak zeudela zergatiak ere.

Puntuz puntu jorratzea oso argigarria gertatzen da. Ikuspegi orokorrari, osotasunari, ez dio albo-kalterik ekartzen. Bestalde, atalez ataleko azterketak fokua gerturatzea ahalbideratzen du eta xehetasun eta ñabarduretan geratzeko aukera ematen.

Azterketarako erabiltzen duen metodologia oso egokia eta argigarria iruditu zait. Hau da, galderen bidez gaia zazpi puntutara ekartzea eta, horrela, ertz ezberdinetatik hartuz zedarritzea.

Arnasgunea zer den jakin nahi duenak, hor badauka nahiko elementu eta erreferentzia. Ulergarri egiteko moduan azalduak eta adibideez hornituak.

Horrela bada, nire iruzkinak ere, atalez atal eginak dira. Zazpi puntu horiek banan-banan hartu eta horietan oinarrituz egin ditut nire iruzkin xumeak. Flaxak gehiago dira, azterketa sakon eta uztartua baino. Deigarrien egin zaizkidan aipamenak hartu ditut eta, haietan oinarrituz, nire burutazioak edota zalantzak ekarri hona.

1. ZER DA ARNASGUNEA, ORO HAR?

I Fishman-en HINBE edo RLS oinarri hartuta, arnasgunea zer den oso zehatz azalduta dago. Ezaugarri asko eta modu ezberdinean azalduta daude. Arnasgunea zer den jakin nahi duenak, hor badauka nahiko elementu eta erreferentzia. Ulergarri egiteko moduan azalduak eta adibideez hornituak. Ez gara ezaugarri horietaz hemen jardungo, lehen ere, Mikel Zalbidek ondo eta zorrotz deskribatuak dituelako horiek. Egokiena, haren bibliografiara jotzea da, horretan sakondu nahi izanez gero.

2. ZER DIRA ARNASGUNEAK, HEMEN ETA ORAIN?

I “Funtsezko aztergaia” dela dio hasiera hasieratik, sarreran bertan. “Hizkuntza-plangintza ororentzat lehentasun biziko elementu”. Guztiz ados. Urte dezente dira Mikel Zalbidek horretaz ohartarazi gintuela. Hala ere, ez du behar adinako oihartzunik izan, nire ustez. Zerbait bazterreko, bitxikeria gisa, hartua izan da arnasguneen gaia. Euskalgintzan beste esparru batzuei eman izan zaie bozgorailu handiagoa. Duten garrantzia eta zentraltasuna aski arrazoitua dagoela begi-bistakoa izan arren, oraindik badaude eragozpen ugari. Arnasguneetan bertan, arazoak ditugu gaiaren zentraltasun hori ikusarazteko. Dena den, aitortu behar da azken urteetan, duen garrantziaren inguruan adostasun zabalagoa dagoela. Hala ere, gerora gehiago luzatuko naiz zentraltasun horretaz, hainbatek horri jartzen dizkion eragozpenak aipatuz.

Oso egokia iruditu zait “arnasgune bete” eta “arnasgune erasana”ren arteko bereizketa. Orain arte zaku berean sartu izan ditugu arnasgune guztiak. Orain xehetasun handiz deskribatzen ditu batetik bestera dauden aldeak eta bakoitzaren errealitate aldakor-komplexua. Arnasgune mota nagusien deskribapena egiteko lau ezaugarri tekniko proposatzen ditu (ikus horiek dokumentuaren eranskinean). Proposamen zehatza eta ausarta, beste behin, arnasguneen unez uneko egoera modu intuitiboaz haratago, behatu eta diagnostikatzeko. Mikelek tresnak proposatzen eta eskaintzen dizkigu eztabaida eta ikerketa modu zientifikoagoan gara dadin. Ildo beretik proposatu zigun EODA aplikazioa. Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa (EODA). Proposamenaren

egitura nagusia eta azalpen xehea zehatz-mehatz deskribatuz. Hamalau kategoriako eskala-taula sortu eta egokituz. Eztabaidatzeko eta fintzeko proposamena dela dio berak. Oso kontuan hartzekoa eta oso baliagarria deritzot. Beste behin, bide-proposatzaile izateaz gain, bide hori ibiltzeko bitartekoak, tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkigu etengabe Mikelek. Bejondeiola! (EODA sakonki aztertu nahi duenak jo beza BAT soziolinguistika aldizkariaren 100. alera)

“Gizarte arau bizia” ren kontua oso deigarria da. Horixe uste dut arrakalatzen ari zaigula, besteak beste, arnasmuneetan. Orain artean modu tazito eta inplizituan betetzen zen araua, jokabidea, egun esplizitatu beharrean aurkitzen gara sarritan. Gizarte molde berriek, hiztunaren osaera berriek, harreman-sareetako kideen ezaugarri berrituek, etab., horretara garamatzate. Lehen inkontzienteki egiten zen zerbait, orain kontzienteki hartu beharreko erabakia da. Eta komunitate linguistiko oso bati erabaki kontziente hori eskatzea ez da bideragarria. Nola indartu gizarte-arau hori?

“Euskaldun garbi”. Zenbaitetan adjektibo hori erabiltzen du. *Garbi* horren konnotazioak atentzioa eman dit. Erresonantzia moralak edo... Zein beste termino erabil daiteke hori adierazteko? Euskaldun oso? Euskaldun landu?... Bueno, burutazio txiki bat besterik ez da.

“Continuum”-aren ikuspegia azpimarratzea oso egokia eta beharrezkoa iruditu zait. *Arnasmune* hitzaren erabilera zabala egiten da han eta hemen. Horregatik oso egokia iruditzen zait arnasmuneen azpi-continuum hori azpimarratzea. Errealitate aldakor-konplexu hori zedarritzea. Eta, gainera, hori aztertzeke definizio operatiboak eskaintzea. Lehen ere aipatu dut EODA tresna oso egokia iruditu zaidala. Bertan aurki daitezke aplikazioaren ezaugarri teknikoak eta horien behaketarako proposamenak. Aztergai dugun arnasmune jakin bat “Continuum” horretan non aurkitzen den eta zein norabidetan mugitzen ari den jakiteko oso aplikazio baliagarria.

Oso egokia, halaber, udalerrri euskaldunen eta arnasmuneen arteko bereizketa. Mintzagaitasuna (ezagutza) eta eguneroko mintzajardun arrunta (erabilera) hartuaz mugarri. Ondo azalduta dago bien arteko bereizketa eta bakoitzaren ezaugarriak. Argigarria.

“Arnasmuneak aski elementu sekundario dira (...) Hizkuntza indarberritzeko saioa ezin da hortaz, inola ere, arnasmuneetara mugatu”. Hori azpimarratzea komeni da, zeren zenbaitek bata eta bestea kontrajartzen baititu. Osa-garriak dira, noski. Arnasmuneetan egiten den aurrerapen oro, mesedegarri

**Oso egokia
iruditzen zait
arnasmuneen
azpi-continuum
hori
azpimarratzea.
Errealitate
aldakor-konplexu
hori zedarritzea.**

**Arnasguneak
dira euskara
indarberritzeko
helburua gehien
irudikatzen
dutenak, beste
gune
soziolinguistikoe
ntzat
erreferentzia
beharko lukete,
euskararen
ezagutza eta
erabilerari
dagokienez
barne-
konpaktazio
handiena duten
eremuak dira.**

izango da beste gune soziolinguistikoetan. Eta, alderantziz, beste gune soziolinguistikoetako aurrerapenak (ezagutzan eta erabileran) arnasguneen izaera mantentzeko eta elikatzeko lagungarriak izango dira. Hala ere, gerora ikusiko dugunez arnasguneen zentraltasuna oso kontuan hartzekoa da. Zentzu horretan arnasguneen zentraltasuna ondo adierazita dago. Kuantitatiboa baino kualitatiboa da zentraltasun hori. Ezaugarriak ere, zergatiak oso argi azalduta daude. Garrantzitsua da zentraltasun hori azpimarratzea, askok ez baitiote, nire ustez, hori aitortzen. Arnasguneen kontuak ertzekoak, gutxi batzuen kontuak direla iradokitzen baitute. Hala ere, bete izan duten funtzioa eta betetzen dutena begi-bistakoa da. Hor oratzen da egokien komunitate linguistikoaren autorregulaziorako ahalmena, eta geroratzeko prozesuak ere hor dira erosoena. (gu sortu ginen enbor beretik...)

Zer ez diren arnasguneak hona ekartzea ere oso beharrezkoa da. Izan ere, han eta hemen *arnasgunea* kontzeptuaren gehiegizko erabilera dago. Inflazioa. Dena da arnasgune. Horregatik asko eskertzen da lehen bi galderari emandako erantzun zabala eta argigarria. Adibidez eta erreferentziaz osatua. Zer diren, zein ezaugarri dituzten, zer ez diren eta zein garrantzia duten oso ondo mugarriz eta dokumentatua dago.

Arnasguneen ezaugarriari buruz ez dut uste inongo oztoporik jartzen denik. Adostasun handia sumatzen dut. Bere zentraltasunaz kezka gehiago ikusten dut hainbatengan, han eta hemen irakurtzen ditudanengatik. Geroago ikusiko dugu hori.

3. ZERGATIK DIRA ARNASGUNEAK HAIN GARRANTZITSUAK EUSKARA INDARBERRITZEKO?

I Indarberritze lanean duten helduleku-, helburu- eta harrobi-izaera oso ondo adierazita dago. Guztiz ados. Arnasguneak dira euskara indarberritzeko helburua gehien irudikatzen dutenak, beste gune soziolinguistikoentzat erreferentzia beharko lukete, euskararen ezagutza eta erabilerari dagokienez barne-konpaktazio handiena duten eremuak dira.

Adituen aipamena oso egokia. Kontua ez dela oraingoa adieraztea, eta duten garrantzia lehendik ere azpimarratua dagoela jakinaraztea ohar garrantzitsua da.

Duten garrantzia adierazteko aipatzen diren ezaugarriek nahiko pisu badute garrantzi hori aitortzeko. Nonbait baldin badago euskara normalizaziotik gertu, hor da. Hor dago gainera beste eremu geoterritorialetan eragiteko legamia nagusia. Ispilua. Hor aurkituko dute eredia euskal-

duntasunean jardun nahiko dutenek. Joxe Azurmendik dioen bezala egunero euskaraz bizi den jendearengandik ikasi behar da, han oratzen direlako ongien geure euskarazko mundua (eta ikuskera)² Hor aberastu izan dute, lehen ere, askok eta askok beren euskara maila (barnetegiak, egonaldiak...). Labe horretan oratzen da ongien euskararen garapena eta komunitatearen jarraipenerako autorregulazioa. Beraz, hor ematen diren arrazoiak asko, sakonak eta zehatzak dira duten garrantzi hori aitortzeko.

Inoiz, han edo hemen, zalantzan jarri izan dela garrantzi hori suma daiteke. Hiztunengan uzten dela ardura, botereak duen erantzukizunari iskin egiten zaiola, edota, geroago ikusiko dugunez sakonago, behe funtzioetan jartzen dela indarra, goi-funtzioek edota funtzio formalek duten eragina ahaztuz, etab. Bestalde, duen pisu kuantitatiboa dela eta, garrantzi horren pisua erlatibizatu egiten da. Hirietan omen dago euskararen etorkizuna. Baina, nondik elikatuko da bien bitartean hiriko komunitate desegituratu eta sakabanatu hori? Zein komunitate hartuko du erreferentziatzat komunitate autorregulatu bezala eratzeko? Nire ustez, garrantzi hori begi-bistakoa da. Hala ere, jartzen diren eragozpenak edota aipatzen diren eragozpenak jasotzen joatea beharrezkoa da, hausnarketari jarraipena emateko. Horregatik asko eskertzen da horrelako dokumentuak gure eskura jartzea. Arnasguneen inguruko hausnarketa eta ezagutza erronka kilikagarria bilakatzen baitzaigu. Akuilu funtzioa du guregan.

Duten garrantzia esplizituki ia inork ez duela ukatzen iruditzen zait. Garrantzi hori zerbait erlatibizatu eta duen pisua arindu, aldiz, bai. Edozein modutan, duela urte batzuetatik hona, arnasguneen garrantziak eta zentraltasunak asko irabazi dute. Izan ere, gogoan dut nire ingurumari gertukoenean (euskara elkartean, etab.) ertzeko arazo bezala ikusten zela, zerbait bitxia bezala. Orain, zorionez, duten garrantzia eta zentraltasuna aitortzen zaie. Eragozpenak eragozpen (hori bera agendan sartu denaren adierazgarria da) indartzen doan eta bere bidea egiten doan diskurtsoa dela iruditzen zait.

4. ZER ARI ZAIGU ARNASGUNEETAN GERTATZEN?

Atal hau ere sakon, luze eta zehatz aztertua dago. Zer ari den gertatzen, eta gertatzen ari den hori zergatik ari den horrela gertatzen ondo eta argi adierazita dago. Adibideak, erreferentziak, gertatzen diren fenomenoak, etab., ugariak dira. Diagnostika zehatza da, xehea. Inon baino zehatzagoa. Zirujau finaren bisturia dago hor. Oso dokumentatua. Badago guretzat hausnarketarako eta ikasteko nahiko hausnarketagai eta ikasgai. Dazkaten arrakalak, arazoak, indarguneak eta joerak oso

**Diagnostika
zehatza da,
xehea. Inon
baino
zehatzagoa.
Zirujau finaren
bisturia dago
hor. Oso
dokumentatua.**

**“Autorregulatzeko
gai den gizartea”.**

**Hor dagoela
behaztopa eta
erronka nagusia
deritzot.**

**Aspaldi esana
digu arazoa
multifaktoriala
dela. Fenomeno
batek bestean
eragiten du,
guztiak sare
moduko bat
eratuz.**

argi ikus daitezke. Oso argazki zehatza iruditzen zait. Arnasgune motak identifikatzeko EODAREN bidetik, bakoitzaren ezaugarri teknikoak deskribatzeak asko laguntzen du horretan. Aurrerantzean gure lantxoetan kontuan hartzekoak izango dira bai EODA eta bai ezaugarri tekniko horiek behatzeko pistak kontuan hartzea. Tresna egokia diagnosirako.

Zenbait aipamen azpimarratzekoak iruditzen zaizkit.

“Autorregulatzeko gai den gizartea”. Hor dagoela behaztopa eta erronka nagusia deritzot. Datorren kateari eusteko adinako indarra sortzea, horrek duen garrantziaz jabetzea. “Katea ez da eten” esateko gai izatea. Horretarako bitartekoak lantzea. Aldakuntzei egokitzeko adinako presutasuna eta gaitasuna izatea. Gizarte-arau inplizitua da nire ustez arrakalaten ari dena. Orain, esplizitatu egin beharra dago han eta hemen. Lehen euskaraz egitearen hautua egina zegoen. Ez zen “euskaraz egingo dugu” esan beharrik izaten. Orain, hautu kontzientea izan behar du sarritan. Hori sarritan ikusi izan dut. Irmotasunaren ahultzea Mikel Zalbidetik dioen bezala. Beraz, arnasguneetan ere euskal identitate kontziente hori ere landu beharra dago agian. Bestela, atxikimendua kolokan egon daiteke, arau sozial horretan arrakalak areagotu daitezke.

“Konpartimentazio sozifuntzionala”. Hori apurtu da. Mikel Zalbidetik aspaldi ohartarazi gintuen “bodegatik” ari zaigula ura sartzen. Ere mugetan zerbait irabazi, baina intimoetan galera.

Herri giroa ere gesaltzen ari dela begi-bistakoa da. Herri horietan ez dago bizitzarik. Kale hutsak, ume gutxi eta horiek telebistan edo. Nahikoa da pala hartu eta herri horietara joatea. Frontoian ez dugu ia inoiz oztoporik izaten partida jokatzeko... Hutsik daude. Ez dago gure gazte garaietan bezala txanda hartzeko borrokan ibili beharrik. Zer esan auzolana eta antzeko kontuez. Afarietarako biltzeko ere arazoak daude askotan. Gure auzoan bertan, aurten Santaeskean³ ateratzeko, igandea izanik ere, hamar lagun biltzeko gorriak ikusi genituen. Hor sekulako aldaketa eman da. Modernitatearen indibidualismoa bete bete. Azken egunetan irakurria dut *Baztandarren biltzarra* antolatzeke eduki zituzten gorabeherak eta nola Lapurtarren Biltzarra bertan behera utzi duten. Bietan erreleborik eza aipatzen dute gako nagusi bezala. “Gazteek gero eta gutxiago hartzen dute parte lanean eta bestan”.

Ongi eta zehatz agertzen ditu Mikel Zalbidetik fenomeno horiek guztiak, eta beste asko, begi-bistakoa dira. Arazoak eta horien zergatiak ondo dokumentatuta daude. Lehen esan bezala, diagnosia zehatza. Aspaldi esana digu arazoa multifaktoriala dela. Fenomeno batek bestean eragiten

du, guztiek sare moduko bat eratuz. Dislokazio horien arteko harremana noraino graduatu daiteke? Zeinek du eragin ahalmen handiagoa sare horretan? Zeinek inpaktu ahalmen handiena? Posible al litzateke fokua non jarri lehenesteko ariketa egitea? Gertatzen ari diren fenomeno horien artean, ba al dago lehenestea eta arreta handiagoa jartzea merezi duenik? Edota, guztiak maila berean ari dira eragiten eta guztietan batera, guztiak kontuan hartuz, jardun beharko genuke ekimenak planteatzerakoan? Erantzuna integrala izan behar du seguruenik. Galderak. Badakit gerora erronken atalean neurri batean erantzunda daudela, baina... Ari naizela ari naizela bururatzen zaizkidan galderak.

Arnasgune mota nagusiak bereizte lana ere, oso ekarpen aberatsa eta interesgarria da. Lehen, arnasguneak, denak, zaku berean sartzen ziren. Orain, zehatzago, finago marraztuak daude bakoitzaren ezaugarriak eta garapen maila. Oso ekarpen operatiboa da lanerako.

Atal honetan deskribatzen direnei ere eragozpen handirik ezin jarri. Gauzak horrela dira eta horrela direla esateko nahiko argumentu, datu eta ebidentzia badago, nire ustez. Horretara nola iritsi garen interpretatzeko garaian, zerrendatu diren fenomeno guztiez gain, horien azpian egon daitezkeen arrazoiei buruzko hainbat tesi egon badaude. Hau da, euskarak mendeetan bizi izan duen zapalkuntzaren ondorioz dela aipatuko du zenbaitek, estatu independentea ez edukitzea beste hainbatek, estatuaren jazarpen etengabea, botere autonomikoen hizkuntza-politika ahula, euskal hiztunen analfabetismoa, goi-mailako funtzioen gabezia eta horren eragin murriztailea eremu intimoetan, autopertzepzio eta autoestimu arazoak, hizkuntza-eskubideen kontua... hainbat eta hainbat. Arrazoiak arrazoi kontua da, egungo egoera hori dela eta horri aurre egin beharko diogula. Hemen ere, seguruenik, modu integralean, multifaktore horiek guztiak kontuan hartuz. Hori bai, lehenetsunak argi edukiz eta ahal dugunetik abiatuz.

5. ZEIN DIRA ARNASGUNEEN ERRONKA NAGUSIAK?

Arnasguneak gora, arnasguneak behera hor gabiltza beti. Diagnosian eta arnasguneen ezaugarrietan nahiko adostasun badagoela uste dut. Hala ere, orain arte inork gutxik egin du proposamen zehatzik horiek zehatz-mehatz diagnostikatzeko; eta ondoren, dituzten erronkei aurre egiteko proposamen zehatzak mahai-gainean jarri. EODA eskaini digu Mikel Zalbidek eta erronka nagusien proposamena egin. Buruari bueltak eman nahi dizkionak badu nondik abiatu eta zer hobetu.

**Erronka
nagusiak ondo
eta zehatz
definituak daude.
Atentzioa ematen
du lehen
begiradan
hirurak
hizkuntza
esparrutik
kanpokoak
izatea.**

**Herri txikietan
ume gutxi daude,
kalean ez daude
gainera, lehen ez
bezala. Herriak
zahartzen ari
dira eta gazteak,
oro har, bizitza
ez dute bertan
egiten.**

Erronka nagusiak ondo eta zehatz definituak daude. Atentzioa ematen du lehen begiradan hirurak hizkuntza esparrutik kanpokoak izatea. Hor ez dago sentsibilizatzeko kanpaina proposamenik, ez dago berariazko euskalgintza eratzeko proposamenik, etab. Garbi dago, hizkuntza-politikaren baitako aldagaiei baino eragin ahalmen handiagoa aitortzen diela Mikel Zalbidek beste esparru batzuetako faktoreei. Garbi adierazten du gainera, “*erronkak beregainak eta bereziak izanik ere, elkarri loturik daudela hertsiki*”. Lehen esan dugun “multifaktoriala” ren ildotik.

Erronka demolinguistikoa

“*Haurrak sortu behar ditugu. Ahalik eta gehien*”. Noraino jabetzen gara horretaz? Noraino onartzen dugu hori? Gure bizimolde erosoari uko egiteko noraino gaude prest? Noraino gaurko gazteek posible dute, dituzten bitartekoak eta arazoak medio, nahita ere, horretan saiatzea? Inguruko zenbait gazteri, kontu horietaz ari garenean, hori esan izan die-danean, irribarre batekin erantzun izan didate. Arnasguneen arazoarekin horrek zerikusirik ez balu bezala. Hala ere, hori begi-bistakoa da. Herri txikietan ume gutxi daude, kalean ez daude gainera, lehen ez bezala. Herriak zahartzen ari dira eta gazteak, oro har, bizitza ez dute bertan egiten. Tolosaldeko⁴ herrietan, gehien ezagutzen dudan eskualdean, hori nabaria da.

Etorikin erdaldunen etorrera. Eta horiek herri bizitzan hartzen duten lekua. Ez baita gauza bera herrira lotara bakarrik doan etorri berri erdalduna edota herriko ostatuaren kudeaketa (udalak esleitua) hartzen duenarena. Edota herriko elkarteetan apuntatu eta handik atera gabe diharduen hitz-jario oparoa duen erdalduna. Herriko saltsa guztietan eragile aktiboa bihurtzen dena, etab. Hor ere, kuantitatiboaz gain, kontuan hartzekoa da etortzen diren horien nolakotasuna eta herri bizitzan duten protagonismoa.

Gazte-jendeari herrian eutsi... Lehen aipatu dut ezagutzen ditudan kasu batzuen joera. Nahiz eta herrian bizitzeko aukera izan, etxean oraindik, Tolosara edota Donostiara bizitzera doazen gazteena. Herri-giroa pobrea geratu zaie. Ikasketa maila dela eta, kultur bizitza, harreman-sareak, etab., beste nonbait bilatzen dituzte. Nire iritziz, badago gazte tipologia bat, herrian bizitzeko aukera eta baliabideak izan arren, nahiago duena hiritartu eta bere bizimodua han eratu. Hor ere, erronka handia dago. Nola saihestu “*era batean zein bestean, beste bizi-ingurumen dinamikoago baten mirabe bihur liteke herritar asko*” hori?

Erronka demografikoaren auziari ez zaio, nire ustez, behar adinako garrantzirik ematen. Adin piramidea ikusi besterik ez dago, norabideak nora garamatzen ohartzeko. Gai hau azaleratu izan dudanetan, bada munduaren gainpopulazioa harira dakarrena. Ikuspegi orokor batetik arrazoirik ez zaio falta agian, baina biodibertsitatea eta aniztasun biologikoa beharrezkoak diren bezala bizibideari eusteko, hiztun komunitate eta kultura-aniztasuna ezinbestekoak dira oreka mantendu nahi badugu eta uniformizazio antzuarri ihes egin nahi badiogu. Norbaiti irakurri nion bere buruaz beste egiten ari den komunitatea garela. Ez zaio seguruenik arrazoa falta. Ikuspegi linguistikotik arazo hori areagotu egiten dela uste dut. Arnasgune asko mehartzen, zahartzen eta husten ari dira ondorengorik, *ardaska* berririk, ez delako sortzen behar adinako neurrian. Herri horiek irautea nahi badugu, eta hori helburu dugu, beste hainbat neurri hartu beharko dira biztanlez hornitzeko. Baina, nondik aterako dira biztanle berri horiek? Zein osaera linguistiko izango dute? Zernolako inpaktua izango dute komunitate linguistiko horretan?

Neurri asko proposatzen dira arnasguneen bizi-iraupena segurtatzeko. Baina horietako asko alferrikakoak izango dira nori aplikaturik ez badago. Gorputzik, gihar sozialik, ez badago alferrikakoak dira hari zuzendutako sendabideak. Xabier Letek “Izarren hautsa” abesti ederrean zioen bezala, “*Gu sortu ginen enbor beretik / sortuko dira besteak / borroka hortan irauten duten / zuhaitz ardaska gazteak*”. Horixe da falta zaiguna: enbor beretik sortutako *ardaska* gazteak. Horiek sortu ezean norentzat izango dira gure proposamenak eta neurriak? Autorregulatuz mendeetan irauten duen “enbor” horri nola ziurtatu jarraikortasuna?

Bideragarritasun sozioekonomikoa

“*Bideragarritasun sozioekonomikorik gabe jai dute arnasguneek*”. Guztiz ados. Hor, herri mailakoez gain, eskualdeko ikuspegia kontuan hartu beharko genuke. Adibidez, Tolosaldean ohikoa da Tolosan lan egin eta Tolosaldeko herrietan bizi direnen kasua. Baldintzak daudenean hori eman izan da. Erraztasunak jarriz gero, oinarritzko zerbitzuak bermatuz gero, herrian manten daitezke, nahiz eta inguruko herrian edo eskualde buruan lan egin. Tolosaldean hori ez da guztiz arrotza.

Oinarritzko zerbitzuen eskaintza nahiko duina da kasu askotan. Asko hobetu da behintzat azken hamarkadetan. Kontua da, ingurumarian ere asko hobetu direla eta ardiak bezala guk ere: “*aurrerago eta goxoago*”. Gurpil zoroan sartuak gaude sarritan jendez huste prozesuarekin eta zerbitzuen eskaintzarekin. Zerbitzu egokiak egon ezean hustu egiten

**Zerbitzu
eskaintza
egokiak
ezinbestekoak
dira bertakoek
bertan jarraitzea
nahi badugu.
Hala ere,
sarritan horrek
guztiak ere ez
digu ziurtatzen
hiritartze
prozesua etengo
denik.**

**Noraino ez dugu
erronka bezala
planteatu behar
arnasguneetako
hiztunen
kontzientzia
linguistikoaren
lanketa?
Atxikimendua
lantzea? Hiztun
kontzientea izan
dadin lanketa
bideratzea?
Eskolak zer
egiteko luke
horretan?**

dira herriak eta husten direlako zerbitzuak urritzen doaz. Zerbitzu eskaintza egokiak ezinbestekoak dira (hezkuntza, osasuna, merkataritza, zaharren zaintza egokia, aisialdi eskaintza...) bertakoek bertan jarraitzea nahi badugu. Hala ere, sarritan horrek guztiak ere ez digu ziurtatzen hiritartze prozesua etengo denik.

Erronka soziokulturala

Harreman-sareak ahuldu dira, herri-giroa otzandu, interes pertsonalak areagotu... norabide horretan aldatzen doaz bai, Mikel Zalbidek ondo dioen bidetik. Harreman-sareak bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki meharragoak dira. Deskribatzen den panorama zaila horrelakoa da, ebidentzia guztien arabera. Aldaketen norabidea zehatz deskribatua dago. Atentzioa ematen du gazte askoren osaera linguistikoaren aldaketak. Arau sozialaren trinkotasuna ahultzen doa, bai. Konpartimentazio soziofuntzionala apurtzen. Nola eutsi horri?

B aukera bide posible bakarra? “Konpartimentazio hori gabe, euskara-erdaren botere-desoreka izugarriak hartaturik C egoerara goaz...”. “...Ez dago, ordea, beste biderik”.

Hizkuntzen arteko harremana botere-borroka bezala hartuz gero, posible al da konpartimentazio hori? Hizkuntza nagusiak ez al ditu ahaleginak egingo euskarak dituen eremuetan sartzeko? Ez al da hori gertatzen ari gaur egun Telebista-Internet, kultura-erreferentziak, etab. horien eraginez eremu intimoenetan ere eragiten dutela? Posible al da konpartimentazio sendo eta iraunkor samarra gaurko bizinguruan? Hizkuntzen arteko lehia bada nork hartu zein funtzio besteari kenduz, posible al da modu estatiko eta iraunkor samarrean eratzea konpartimentazio hori? Eremu formaleko funtzioak bereganatu gabe, eta horrek duen eragina hiztunaren gaitasunean eta hautematean, prestigioan, etab. kontuan izan gabe, posible al da eremu intimoetan trinko eta osasuntsu mantentzea? Galderak eta galderak.

Erronkei dagokienez, noraino ez dugu erronka bezala planteatu behar arnasguneetako hiztunen kontzientzia linguistikoaren lanketa? Atxikimendua lantzea? Hiztun kontzientea izan dadin lanketa bideratzea? Eskolak zer egiteko luke horretan? Lehen esan dut, hizkuntzaren aldagaia zuzenean eta berariaz jorratu ordez, aldagai sozioekonomiko eta soziokulturalak direla jorratzen direnak hemen. Horien eragina handiagoa delako komunitate linguistikoaren bilakaeran. Hala ere, egungo baldintzak kontuan, beharrezkoa ikusten dut hiztunen kon-

tzientzia linguistikoan eragitea. Talde eragileak sortzea. Adibidez, zertxobait ezagutzen dudan euskara elkarte baten aipamena egingo dut. *Galtzaundi* elkarteak bere eragin esparrua Tolosatik Tolosaldera zabaldu berri du. Eskualde ikuspegi hori oso da garrantzitsua. Kontuan izan behar da eskualde buruaren eta eskualdeko beste herrien artean sortzen diren dinamika soziolinguistikoak. Elkarreragin horrek sustrai sakonak eta luzeak ditu. Ondorioz, gerora ere, arnasgune(herri) bakoitzaren norabidea eskualdeko dinamiken baitan egongo da hein handi batean. Eta eskualdez haratago, arnasguneen artean ematen diren lotura eta dinamiken baitan. Hori horrela, elkartearen Zuzendaritza berrituan inguruko herrietako gazte batzuk sartu dira. Beraiek izan dira hedatze prozesu hori sustatu eta bultzatu dutenak. Beraiek izan dira prozesu hori eman dadin eta herri txikietan ere zerbait egiten hasteko asmoa bultzatu dutenak. Gazte formatuak dira, beren herriko hizkuntza egoeraz kezkatuak. Arnasguneen teorizazioak, besteak beste, interpretazio markoa eskaini diena eta erronkari eusteko gogo biziz daudenak. Arnasguneen egoeraz jabetuta, beraiek bizi diren arnasguneetako egoeraz kezkatuak, arnasguneen gaitetan jantziak eta hor eragin beharraren urgentziaz jabetuta lanean ari direnak. Herri guztietan (Tolosaldeko 28) kale neurketak egin dira eta, orain, horien harira saioak egiten ari dira herriz herri. Hausnarketa saioak. Lehen balorazioa ona da. Jendea prest dago zer edo zer egiteko. Kontua da zer egin horretan ondo asmatzea. Horretarako dokumentu hau, EODA, etab., tresna paregabeak iruditzen zaizkit. Horietaz baliatzea eta jakintzan sakontzea eutsi beharreko erronka da.

Noraino da beharrezkoa, beraz, arnasguneetako hiztunen kontzientzia lantzea, hizkuntzarekiko leialtasun hori eman dadin? Gazte horien kasuan (multzotxo) nire ustez garbi dago. Gai horren inguruan duten kontzientziak eraman ditu eragile izatera, eta lan hori aurrera eramateko formazioa funtsezkoa dutela ohartzera. Horietako askotxok HIZNET gradu-ondokoa egina dute edota egiten ari dira.

Aurrera begira, beraz, dokumentuan aztertzen eta proposatzen diren egitekoak eta erronkak, eskaintzen diren baliabide eta tresnak oso izan daitezke lagungarri eta kilikagarri hiru erronka nagusi horiek nola xehatu, zein erabaki zehatzetan gauzatu eta zein proposamen operatibotan gorpuztu asmatzen ahalegintze lanean.

**Noraino da
beharrezkoa,
beraz,
arnasguneetako
hiztunen
kontzientzia
lantzea,
hizkuntzarekiko
leialtasun hori
eman dadin?
Gazte horien
kasuan
(multzotxo) nire
ustez garbi dago.
Gai horren
inguruan duten
kontzientziak
eraman ditu
eragile izatera,
eta lan hori
aurrera
eramateko
formazioa
funtsezkoa dutela
ohartzera.
Horietako
askotxok
HIZNET gradu-
ondokoa egina
dute edota egiten
ari dira.**

**Herri giro
biziari, ahuldu
denari, neurri
batean, nola
eutsi eta indartu?
Noraino
herrietako
elkarte-bilguneek
bete dezakete hor
funtzioren bat?**

6. ZER EGIN BEHAR DA “HEMEN ETA ORAIN” ERRONKA HORIEI ERANTZUTEKO?

I
Ideia eta proposamen zehatzak berriro. Jardun nahi duenarentzat badaude iradokizun nahiko, nondik hasia badago. Saiatu nahi duenak aitzakiarik ez dauka.

Herri giro biziari, ahuldu denari, neurri batean, nola eutsi eta indartu? Noraino herrietako elkarte-bilguneek bete dezakete hor funtzioren bat? Nola bilakatu herri gehienetan dauden elkarte horiek Gemeinschaft-elkartea sortzeko tresna lagungarri? Noraino dira lagungarri, han eta hemen, herri horietan antolatzen diren tailer, ikastaro, kultur adierazpen, etab., giro biziari eusteko eta suspertzeko? Horiek euskaraz bideratuz, bide batezko euskalgintza inplizitua egitearekin batera, ez al dugu herriko giro hori suspertzen eta elikatzen? Geroago aipatzen den zerbitzugintzarekin ere badu horrek zerikusia, hein batean. Kultura-eskaintzari eta aisialdiari dagokienez, gure inguruko arnasgune (bete eta erasan) gehienetan, euskara da jaun eta jabe, edota nagusiki euskaraz bideratzen dira. Egin ditugun behaketetan (aisialdia) hori agertzen zaigu behintzat. Ez da horrela Tolosa -Ibarra-, Villabona eta besteren baten kasuan. Horiek denak indargarri zaizkigu, noski. Bai harreman-sareen jardunei dagokienez, bai herri giroa suspertzeko garaian.

Beste kontu bat da, horiez aparteko kultura-kontsumoa zer-nola bideratzen den. Bakarka eta etxean, telebista, Internet, sare sozialak, etab., zein hizkuntzatan bideratzen diren. Eta horrek guztiak nola eragiten duen sozializazioan eta kultura-erreferentzien munduan. Zein unibertsoan txertatzen doazen/goazen. Nolako inpaktua duen horrek harreman-sare intimoetan.

“Hitzezko jarduna da arnasguneen ardatz eta iturri”. Lehen orain baino gehiago. Gaur egun ikus-entzunezkoek eta harreman idatziek leku zabalagoa dute, indartu egin dira hitzezkoaren kaltetan. Bizimodu individualistak horretara garamatza. Zer-nolako eragina izango du horrek, lehen esan dugunaren haritik? Ez dakit galdera pertinenteak diren, baina horren kezka badut.

7. GAUZAK NOLA EGIN BEHAR DIRA, “HEMEN ETA ORAIN”?

I
Aholku argiak eta zuhurrak, beste behin.

Lan delikatua da, bai. Inoiz, norbait gertukoari zerbait iradokitzea otu izan zait eta badakit zer bekozkoekin begiratu izan didan. Aholku oro-

korrak onartzen ditu jendeak, baina partikularizatzen hasiz gero... hor komeriak.

*“Euskarazko mintzajardun arruntak nagusi izaten segi behar du bertan. Irakur-
rizarikoa eta idatzizkoan aurrera jarraitzeak ere mesede egingo du: hori ez da
ordea, garrantziari dagokionez, hitzeko jardun arruntaren pareko. Hitzezko
jarduna da arnasguneen ardatz eta iturri”. Badira baieztapen hori zalantzan
jartzen dutenak. Irakurri berri samarra dut Joxe Manuel Odriozolaren
“Nora goaz euskalduntasun honekin” liburua eta hango pasarte askotan
horren nolabaiteko kritika sumatzen dut. Zitaren bat edo beste aipatzearen:
“Gaurko komunikazioaren munduan ahozkotetasun hutsak ez dauka zeregin
handirik, hizkuntza idatziaren kode jasoari darion kapital linguistikoa baliatu
gabe” (Odriozola, 2017: 165 or.). Edo Juan Luis Zabalaren eskutik jasoa:
“Bi hizkuntza badakizkizu baina bakarrean alfabetatuta bazaude, alfabetatuta
zauden hori zabalduko duzu, maiteena bestea izan arren” (Ibid.: 168 or.).*

Ildo beretik eremu intimo eta informal horien zentraltasuna eta garrantzia ezbaian jartzen ditu. Horrela, funtzio nazionalaren blokeo ahalmena atalean honela dio: *“euskaltzale askotxok uste du funtzio lokalen esparrua-
etxea, auzoa, lagunartea eta abar- jokatzeko delat euskararen etorkizuna. Argudio
hori zurkaizteko, Fishmanen teoriak eta ideiak azpimarratuko dizkizute. Lehenik
eta behin, funtzio informaletan sendotu eta gotortu behar duela euskarak bere
burua; esparru formalean bereganatu ditzakeen funtzioak lagungarriak izango
dituela, ez askoz gehiago, euskara biziberritzeko politikaren gakoak eta funtza
eremu lokaleko mintza jardunean datzala”.*

*Funtzio formalak gutxiesten eta informalak handiesten dituen ikusmoldeak,
itxura batean, oinarritzeko gauza batean huts egiten du: hots, hizkuntzaren eta
boterearen arteko harremanak ez ditu behar bezala aintzat hartzen ...” (Ibid.:
113-114 or.).*

Xamarren hitzetan: *“funtzio nazionalaren eragina hain da handia, non ez
den nazio mailan gelditzen, eskalan behera doa ezinbestez azkenean barne ar-
loetaraino iritsi arte: familia eta pertsona” (Ibid.: 141 or.).*

*“Funtzioen arteko dialektikan Fishmanek funtzio informalak lehenesten ditu;
guk, aldiz, ez dugu uste etnokulturazko funtzio lokalen sustapenak atarramendu
onik izan dezakeenik, aldi berean funtzio estandar nazionala hurbiltzeko
hizkuntza politikarik ez bada tartean” (Ibid.: 180 or.).*

Antzeko aipamenak ugariak dira. Denak bat datoz funtzio nazionalaren garrantzia azpimarratzean. Egia da, gaur egun funtzio horrek lehen baino garrantzi handiagoa duela. Hedabideen, sare-sozialen, kultura-

**Aholku
orokorrak
onartzen ditu
jendeak, baina
partikularizatzen
hasiz gero... hor
komeriak.**

Lana egin beharko dugu kultura-sorkuntza eta kontsumoa euskaraz bidera daitezen, euskal hedabideen sarbidea handiagoa izan dadin, oro har, eta batik bat arnasmuneetan, sare-sozialetan euskarak ikusgarritasun handiagoa izan dezan.

kontsumoaren ohiturek inpaktu handiagoa dutela hiztunarengan. Antolaketa sozial berrian, aldaketa soziokultural sakoneko garai hauetan, inoiz baino indar handiagoa hartu dute hedabideen eta teknologia berrien bidez eratzen doazen kulturek. Horien kontsumo ezaugarriak eragin ahalmen handia du hiztunarengan. Horien bidez ematen da gaur egun sozializazio prozesuaren tarte handia. Batetik, lehen sozializazio prozesuak indarra galdu du. Bestetik, hedabideen eta teknologia berrien bidezko sozializazioaren ezaugarriak asko indartu dira. Horien kontsumo zein hizkuntzatan bideratzen den jakin badakigu. (ikus *Jakin* aldizkariaren 226 alea “Zenbat gara? Kultur kontsumoaren mugak eta aukerak”). Dena den, hori horrela izanda ere, zer egiten dugu bien bitartean? Funtzio hori lortu artean zer egiten dugu daukagunarekin? Zein dira daukagun helduleku indartsuenak? Denak alfabetatu eta funtzio hori lortu arte, martxan daukagun funtzio informalekin? Afera honetan ere batak ez du bestea oztopatzen, ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik. Lana egin beharko dugu kultura-sorkuntza eta kontsumo euskaraz bidera daitezen, euskal hedabideen sarbidea handiagoa izan dadin, oro har, eta batik bat arnasmuneetan, sare-sozialetan euskarak ikusgarritasun handiagoa izan dezan, etab. Hala ere, arnasmuneetako harreman intimo eta mintzajardun arruntak eskaintzen digu, gaur gaurkoz, helduleku sendoena eta oparoena indarberritze saioetarako. Lehen harremanek, etxe-auzo-lagunartea, asko baldintzatzen dute hiztunaren osaera linguistikoa eta hizkuntzarekiko izango duen atxikimendu afektiboa. Garbi dago, hori gerora, elikatu eta sustraitu egin beharko dela, alfabetatuz eta kultura mundura zabalduz, gesaldu eta urtuko ez bada lehen harreman intimo horietan jasotakoa.

Lehen esan dut arnasmuneen ezaugarrien atalean, horien diagnosian, etab., adostasuna dagoela. Beren zentraltasunean, garrantzian eta jorratu beharrekoetan ez hainbeste, dirudienez. Dena den, eztabaidarako oinarri sendoak badaude. Mikel Zalbideren ekarpena funtsezkoa da, eta oinarri sendoak eta aski dokumentatuak jartzen ditu mahai gainean eztabaida horretan.

Utz dezagun horretan eta jarrai dezagun aurrera.

“Nola egin jakingo bagenu ere, kontrako erreakzio-arrisku bizia luke bizitza informal-intimoa arautzeko asmo horrek”. Oso kontuan hartzekoa da aholku hori. Izan ere, sarritan borondate onenarekin egiten dira triskantza handienak. Zein izan daitezke kontrako erreakzio-arrisku horiek? Adibideren bat?

“Teoria landuena eta ebidentzia enpiriko sendoaren eskutik, proba eginez ikasi, zentzuz jokatu”. Proba egin behar da, behin eta berriro... Kontua da proba horiek ebaluatu, jarraipena egin, ondorioak atera, erregistroak eman, etab., egin behar dela, gerora balioesteko eta bide egokiena aukeratzeko. Horretan ez gara oso iaioak. Ekintzak aurrera eramaten bai, baina horien jarraipena egin, ebaluatu eta ondorioak ateratzen asko kostatzen zaigu. Zentzuz jokatzearena oso inportantea deritzot. Atal horretan aipatzen diren zentzu komunak esandako bi ildo horiek oso dira adierazgarriak. a) arnasmuneen autorregulazio-eta belaunez belauneko iraupen-bideak galtzen ez uztea; b) arnasmuneen berariazko indarguneak zaintzea. Indargune horiek identifikatzea garrantzitsua da, tokian tokiko indarguneak identifikatu eta horien berri eman eta lantzen jarraitzea. Berariazko indargune nahikotxo badituzte gaur egun arnasmune askok. Horietaz ohartzea, horiek zaintzea eta hedatzea bada herriko euskaltzale eragileek egin dezaketen lana.

“Bide batezko interbentzioa...”. Gure kasuan hori funtsezkoa dela uste dut. Sarritan, eta euskara elkarte jakinetan ari naiz pentsatzen une honetan, kanpainak, mezuak... zenbat indar eta bitarteko jartzen ditugun horretan. Bien bitartean, oso egingarriak diren gauzak bide batezko interbentzioaren bidez, ez ditugu kontuan hartzen edota ez digute atentzioa ematen. Egokia deritzot herrietan bideratzen diren ekintzen erregistroa eramateari, diagnosa egiteari, jakiteko zein hizkuntzatan bideratzen diren aisialdia, herrietako tailerrak, musika eskola... Badago zer pentsatua.

“Zerbitzu eta laguntza-emaile”... laguntza-emaile (zerbitzu-sortzaile, zerbitzugile eta zerbitzu-emaile) bihurtu behar du euskalgintzak. Euskarazko auzo-giroa bermatu eta indartuko duen jokamoldea diseinatu, antolatu eta hezur-mamitu behar da horretarako”. Garbiago esaterik ez dago. Aholku argigarria da herri giroan eragin nahi duen orentzat. Aurrekoaren ildo beretik horko gabeziak eta indarguneak aztertu beharko genituzke eta horren arabera jokatu. Bide batezko euskalgintza hori indartu, alegia.

Arnasmuneen aldeko ekimenak beren neurrira eta neurri egokian planteatzeko iradokizun eta aholkuak, beste behin, iradokitzaileak eta zehatzak dira. Zerbait aipatzekotan “magma sozial horretan txertatu behar da arnasmuneetako euskalgintza” paragrafoa oso kontuan hartzekoa iruditut zait. Arnasmune bertatik abiatzea... Bertan hauspoa.... Ahalduntze prozesu hori errazteko, ezinbestekoa da bertako eragileen arteko koordinazioa. Lehen esandakoaren haritik, zenbait arnasmunetako gazteengan badago kezka hori eta zerbait egin behararen urgentziaz mintzo dira. Arnasmune bertakoek ezagutzen dute hobekien bertako errealitatea eta

**Arnasmuneen
aldeko ekimenak
beren neurrira
eta neurri
egokian
planteatzeko
iradokizun eta
aholkuak, beste
behin,
iradokitzaileak
eta zehatzak
dira.**

**Dokumentuan
deskribatzen
diren arazo
soziokulturalak,
demografikoak
eta beste era
askotako
aldaketa eta
norabideak ez
dira soilik
arnasguneetara
mugatzen.
Orokorragoak
dira.**

horrek edozein planteamendu testuinguru egokiagoan pentsatzeko bideak errazten ditu. Zentzu horretan, lan mardul eta oparo hau tresna paregabea dute edozein ekimen pentsatu eta diseinatzeko.

Behetik gora eta barrutik saiatu behar dela; “bere neurritik” kanpora, kontra-eragingarri bihur litezkeela zenbait ekimen, etab. Horiek eta beste aholku asko ematen dizkigu gauzak nola egin behar diren “hemen eta orain” aipatzean. Oso kontuan hartzeko aholkuak dira.

“Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak” jarri dio izenburua lanari Mikel Zalbidek. Dokumentuan deskribatzen diren arazo soziokulturalak, demografikoak eta beste era askotako aldaketa eta norabideak ez dira soilik arnasguneetara mugatzen. Orokorragoak dira. Jaiotza-tasaren arazoa Europa osokoa da, berezitasunak berezitasun⁵. Landa guneetatik metropoliatar, batik bat gazteen emigrazioa ere nahiko orokorra da⁶. Jarduera ekonomikoan eman diren aldaketak eta horrek gizarte-eraketan ekarri dituen konfigurazio berriak, globalizazioak berarekin harremanetarako eta beste gauza askotarako dakartzan ohitura berriak, etab. Landa guneen eta metropoliaren arteko desoreka, eskualdeen arteko desoreka eta artikulazio gabeziak. Horiek eta beste asko ez dira arnasguneetara mugatzen. Ikus Gaindegiak (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia) adierazle horiek guztiak aztertuz argitaratu dituen txosten eta argitalpenak⁷. Arazo horiei guztiei irtenbideak emateko proposamenak han eta hemen badaude. Kontua da, guk arazo horien interpretazioan aldagai linguistikoa gehitzen diogula. Hizkuntza-komunitatea dugu begi-bistan. Aldaketa horiek guztiek hizkuntza-komunitatean, euskal hiztun komunitatean, eta bereziki arnasguneetakoetan, horiek duten garrantziarengatik, izan duten eta izaten ari diren inpaktua, hain zuzen. Eta arazo horiei aurre egiteko proposamenean hizkuntzaren aldagaia oso kontuan hartzeko aldarria egiten dugu. Hemen ere, arazo orokorragoei tokiko erantzuna eta irtenbidea eman beharko zaielako.

AZKEN OHAR LABURRA

I

Aurreko iradokizun horiek guztiak zertzelada soil dira, puntu jakin batzuetan fokua jarri eta haiek iradokitako burutazioak, hain zuzen. Apunte xumeak. Azpimarra solteak. Izan ere, dokumentua bera oso argia eta osatua delako, esan gabeko gutxi geratzen delako hor.

Dokumentuaren atal eta erreferentzia batzuk lehendik ezagunak izan arren, oso gustura eta adi-adi irakurri ditut, beste behin. Filma onak ikustean bezala, bigarrengo eta hirugarrengo ikustaldietan aurrekoan

oharkabeen pasatutako zerbait edota xehetasun handiagoz zerbaitez konturatzen garen bezala, gai honekin ere, behin eta berriz irakurri arren, beti zerbait berria aurkitu izan dut. Aurkezpen aberatsa eta iradokitzaila iruditu zait. Gauzak ondo kokatzeaz gain, galderen metodologia lagun, dentsitate handiko mamia dago bertan. Arnasguneen inguruko kontuez jantzi nahi duenarentzat eskaintza paregabea da. Iradokitzaila oso. Arnasguneetan zerbait egin nahi duenarentzat ezinbesteko tresna. Formazio saioetarako ere oso baliagarria. EODArekin batera ekimenak pentsatzean kontuan hartu beharreko gidaliburua. Zer egin behar den, nola egin behar den, zer hartu behar den kontuan, zer saihestu... atal horiek guztiak xeheki jorratuak daude. Gai horien inguruan jakin-mina duenak badu nora jo. Niretzat behintzat oso baliagarria da. Eskerrak beraz, beste behin, Mikel Zalbideri bere lanaren emaitza gu denon eskura jartzeagatik, euskara indarberritzeko bideak iradokitzean hain zehatz eta ausarta izateagatik. Esker mila. ●

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- Arrieta, Joxe Austin, 2013. “Berriro eta behin/Euskara dela eta Txillardegi gogoan” Tafalla. Txalaparta argitaletxea.
- BAT aldizkaria, 2016 (3). 100 alea: “Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) (II) Erabilera.
- Gaindegia (2018) Euskal Herriko adierazle nagusiak. <http://gaindegia.eus/eu/egiturako-adierazle-nagusiak>.
- Odriozola, Joxe Manuel, 2017: “Nora goaz euskalduntasun honekin?” Donostia. Elkar argitaletxea.
- Zalbide, Mikel, 2001: “Fishman-en HINBE edo RLS” Donostia, graduondoko HIZNET ikastaroaren baitako materiala.

OHARRAK

1. IX Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren barruan, udalerrri euskaldunak eta arnasguneak aztertu ziren. Hasierako aurkezpena Mikel Zalbidek egin zuen, “Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak” izan zen bere hitzaldiaren izenburua. Han erabilitako PPTa eta hemengo dokumentu osatua izan ditut oinarri iruzkin hauek egiteko.
 2. Joxe Austin Arrietaren “Berriro eta behin/euskara dela eta Txillardegi gogoan” liburuan Joxe Azurmendiren hitzaurrean: “Horregatik “euskaraz bizi” sloganaren garrantzia: gure munduan bizi. Gure mundua berregin eta ostera edukiz bete. Esaera naturalekin bete, kanta, agirakakoekin bezala pena eta laztantasan espresiboekin bete. Gure esperientziaren geure gogoetarekin bete. Gure literatura eta poesiarekin. Geure memoria eta historia eta “mitoekin”. Eta hasteko, hori dena zinez euskaraz bizi den jendearengandik ikasi-“du côté de chez Arroxa”-, ikasi eta ikasi.
- Egunero euskaraz bizi den jendearekin nahikoa da ordu batzuk solastea, zure erreperatorioan ez dauden gauza berriak atzematen dituzu beti. Hitzak ere bai (gero hiztegian ez datozenak), baina esamoldeak batez ere. Zuk sekula egingo ez zenituzkeen fraseak. Ezer berezirik ez, nahi baduzu. Edozer gauza modu sinple naturalean esateko moldeak. Sentimendu zailak ere naturalki adierazteko moldeak” (16. eta 17. orrialdeak)

3. Lehendik datozen ohiturei eusteko arazoak badaude sarritan. Arnasguneetako etnokulturaren barruan oso ohiko eta arrunt ziren hainbat ekimen aurrera ateratzeko eginahal bereziak egin behar izaten dira. Taldea osatzea ez da erraza izaten. Bizimolde berriaren ezaugarriek eragin zuzena dute hor ere.

4. Hemen eta hurrengo lerroetan ere Tolosaldeko adibideak jartzen badituz, gertukoena eta gehien ezagutzen dudana eskualdea delako da. Dena den, eta berezitasunak berezitasun, beste eskualde euskaldunetarako ere adibide horiek baliagarriak direla iruditzen zait.

5. Gurean hori larriagoa da. Europako txikienetakoa da, txikiena ez bada. Horrek, belau-naldien arteko katea apurtzea dakar, gizatalde, hiztun komunitate horren jarraikortasunean etena.

6. Horrek herri horren zahartzea dakar. Ikusi besterik ez dago herri askotako konfigurazio demografikoa.

7. Asko dira Gaindegiak argitaratu dituen txosten eta erreferentziak. Horietan deskribatuta daude aipagai izan ditugun aldaketa horien norabidea.

BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDE-TASUNA

3-4/EUSKARAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKARAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKARAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUROPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKARAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/TXEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKARAREN ERROKKA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGICA **AGORTUA**

26/EUSKARAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILAEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKARAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKARAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLINGUISTIKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA INSTITUTUA SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE-ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUAK EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAIONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRESKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKARAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAEko ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKARAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKARAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAN

59/EUSKARAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLINGUISTIKAREN IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006: EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGI BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

70/EUSKARAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN...LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

75/EUSKARAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-EKOLOGIA EUSKARAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKARAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

86/EUSKARAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKARAREN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA (1981-2011). (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKARAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK (II) ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKARAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

104/HIZTUN BERRIAK

105/X. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

106/EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN 2016KO DATU ESTATISTIKOAK

107/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA (II)

108/OSASUNGINTZA ETA EUSKARA

109/XI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

6

Arnasguneen hauspoa: saio-amaierako zenbait ohar

Mikel Zalbide

Euskaltzaina

zalbide@hotmail.com

Sarrera-data: 2019-10-15 / Onartze-data: 2019-02-01

Laburpena. BAT Soziolinguistika Aldizkariak Mikel Zalbidek idatzitako "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" txostena lau adituren esku jarri du, haien irakurketa kritikoa jaso dezan. Jakina, ondoren, txostengilearen txanda izan da, hain zuzen, bakoitzari bere ezaugarrietara egokituta, egindako ekarpenaren inguruko iritzi arrazoitua emateko. Nabarmentzekoa da, ñabardurez betetako iruzkinek erakutsi dutela ondorio partekatura heldu daitezkeela; alegia, euskalgintza osoaren baitan zabaltzen ari den xede-helburu nagusia dela teoria soziolinguistikoaren aldetik eguneroko jardun arruntari eta belaunez belauneko transmisioari lehentasunez begiratzea, eta praxiaren ikuspegitik, bereziki, arnasguneen aldeko lanari zentraltasuna ematea. • **Hitz gakoak:** *arnasguneak, euskara, konpartimentazio soziofuntzionala, belaunez belauneko transmisioa.*

Abstract. The journal BAT Soziolinguistika gave the report written by Mikel Zalbide entitled "Breathing spaces. Future challenges" to four experts for review. After this, it was naturally the author's turn to give his reasoned opinion regarding the comments made by each, in accordance with their specific characteristics. It is striking that these comments, which are full of different nuances, nevertheless point to the possibility of a shared conclusion, namely that, in the heart of Basque cultural action, the increasingly widespread main goals are 1) from a sociolinguistic perspective, to prioritise the analysis of everyday behaviour and family transmission, and 2) from the point of view of praxis, to place the work carried out to foster linguistic breathing spaces centre stage. • **Key words:** *breathing spaces, Basque, socio-functional compartmentalisation, family transmission.*

Iritzi kritikoaren egarri denak kritikagileak behar: aztergaiaren oinarri teorikoen berri izanik, ezagutza hori *hemen eta orain* aplikatzen dakiten iritzi-emaileak; gizalegez, baina lausengu alferrak alde batera utzita, zuria zuri dela, eta beltza beltz, esateko gai direnak. Lau iritzi-emaile aukeratu ditugu aztersaio honen argi-itzalak bereizteko eta lanaren batez besteko balio-indarra epaitzeko. Alfabeto-ordenari eutsiz Kike Amonarriz tolosarra aurkeztuko dugu lehenik: aspaldiko ezaguna, soziolinguistika kontuetan ibilbide luzekoa eta, entzute handiko plazagizon izanik, transmisio-ahalmen bizikoa. Tolosako udalean soziolinguistikaren hazia oparo ereindakoa eta orain ere, han-hemen eskaintzen dituen ikastaro-hitzaldien bidez, gogoeta baliosen sortzailea. Besterenetik ikasten adina bere altzoan ernatu duen irizpide-altxorra ingurukooi pozkiro banatzen dakien gizon sasoikoa. Natorren behinola lankide izandako Xabier Bengoetxeagana. EAEko hezkuntza-munduan, normalkuntza-saioen alorrean, luzaro eta maisuki jardundakoa da Xabier. Hizkuntzaren (batez ere Tolosaldeko herri-herrixken) osasun-egoera behatzen eta han ikasitakoa argi azaltzen aparteko gaitasuna erakutsia du (Bengoetxea, 2012). Perspektiba zabalagoko deskribapenak egiten eta, inor alferrik mindu gabe, teoria aldetik erantzun eske ditugun galdera giltzarriei aurrez aurre heltzen trebe. Berrikitango ezagutu dugu Iñaki Iurrebaso errezildarra (oker ez bagaude lauretan gazteena): udalerrri euskaldunetz eta, oro har, erabileraren bilakaeraz egindako diagnostikoetan aparteko abildadea eta zuhurtzia erakutsi du. Gai horretan dihardu orain ere, analisi demolinguistikoen haritik egiten ari den doktore-tesia dela medio. Gorabidean datorren izarra dugu Iñaki: bertako ezagutza xehea mundu zabaleko perspektiba teorikoan txertatzen asma dezan heinean, eta bide horretan doa, etorkizun oparokoa. Hamabi-hamahiru urtez lankide dugun Lionel Joly euskaldun-frantsesa¹, Sorbonako hizkuntza-soziologian doktorea, dugu azken iritzi-emailea. Mintzajardunaren giza arteko gertakari hurbilen neurri-izariak zehazteko doai berezia du Lionelek. Eguneroko gertakari horiek konstruktu teorikoen marko zabaletan txertatzen ongi trebatua da eta euskararen osasun-maila han-hemengo (tartean Okzitaniako) egoeraren argitan analizatzeko abantaila bizia du: bien berri daki, gutxik adina.

Hauek dira beraz laurak, pozik eta esker onez aurkeztuak. Arazo gordina daukagu, halere, laurekin: ezagutzeaz gainera elkar estimatzen dugu zinez, eta ezagutza-estimua hori traba gerta liteke bata bestearen ideia-eskemen argi-itzalak objektiboki epaitzeko. Hainbat urtez lankide (izan) garenon artean zail da objektibotasun osoari eustea. Ez da lan gozoa, honako honetan ados gaudela baina harako hartan ez esatea.

Iritzi kritikoaren egarri denak kritikagileak behar: aztergaiaren oinarri teorikoen berri izanik, ezagutza hori hemen eta orain aplikatzen dakiten iritzi-emaileak; gizalegez, baina lausengu alferrak alde batera utzita, zuria zuri dela, eta beltza beltz, esateko gai direnak.

**Sentiera biziak
eta buru-astintze
emankorrek
eragin dizkigute
ekarpenok, behin
baino
gehiagotan.
Ohar-sorta
laburra egin nahi
diegu beraz
guztiei,
arnasguneen
gaineko saio honi
amaiera emanaz.**

Zailtasun hori ez da lauzpabost lankideren arazo huts, esparru honetako gehienon gaitz endemikoa baizik. Sarri gertatu ohi da, gai bat jorratzen hastean gehienok gehienon ezagun, eskola bateko, irizkide edo ontzi bereko itsas-bidazti izatea. Hainbatera iritsi gabe ere nor ez da gure artean, Axular gogoan izanik, honetan edo hartan elkarri zordun ez gaitzaizkionik? Eragozpen-*handicap* argia da hori: gizakion moldaera kognitiboak eta sentimenezkoak elkarren arrimuan ibili ohi direnez sarri, biak bereiztea ez da beti-beti lan erraza. Zail izanik ere ez da, ordea, ezinezkoa. Aspaldiko lagunek eta hurbileko lankideek elkarren analisi kritikoak argi eta zorrotz adieraztea ez da gainditu ezinezko langa. *Handicap* horretaz jabeturik, eta kritika bidezko aitzinamenduaren egarri, saia gaitezen begiak ez lausotzen eta, haiek gureak bezala, guk ere haienak begirunez eta egiazki baloratzen. Labur jardungo dugu gaurkoan: deza-kegun (ez nahi genukeen eta ez, seguruenik, askok eskertuko lukeen) bezain labur. Sentiera biziak eta buru-astintze emankorrek eragin dizkigute ekarpenok, behin baino gehiagotan. Ohar-sorta laburra egin nahi diegu beraz guztiei, arnasguneen gaineko saio honi amaiera emanaz.

I. KIKE AMONARRIZEN EKARPENAZ

I

Egin duen irakurketaren zorrotzak inpresionatu gaitu, lehenik eta behin: sakonera jo du analisisian, axaleko idazkera atseginari uko egin gabe. Zorroztasun horren barnean lau puntu azpimarratuko ditugu: sarrera autobiografikoa hain probetxu onez erabiltzen asmatu izana; ekinbide konkretuetara pasatzeko ageri duen prestasuna; erantzun eske daukagun oinarritzko formulazio teoriko bati aurrez aurre heltzeko adorea eta azkenik, arnasguneez egin dugun kategorizazioak partez eragiten dion zalantza. Lau puntuok ezin ditugu, ondotoz orrialde gehiago behar baikenuke horretarako, bere osoan komentatu. Gain-gaineko laburpen-oharrak izango dira, beraz, hurrengoak:

I.1 sarrera autobiografikoaren probetxu teorikoa

Soziolinguistika teorikorako probetxu bizia ateratzen jakin du Kike Amonarrizek, autobiografiazko gertakizun xume batetik. Amaren aldeko aitona eta amona nafar-erdaldunetatik abiatuz, eta amaren txikitako euskalduntze-bidea oinarri izanik, gogoeta-ohar hau eskaini digu: “garai hartako Berrobi erabat euskalduna zen. (...) nola liteke, frankismo bete-betean, euskara zokoratuta eta zigortuta zegoela, eskola erdaraz, komunikabideak erdaraz, administrazioa erdaraz, familia erdaldun batean, seme-alaba guztiek euskara ikastea? Erantzuna oso sinplea da: kalea euskaldun hutsa zelako eta kalean euskaraz egin behar zutelako.

Kaleak euskaldundu zituen haur haiek, euskarak bizi izan duen koiuntura sozio-politikorik zailenean. (...) oso baldintza kontrakoetan ere, ingurune hurbilak hizkuntza jakin bati eusten badio eta erabiltzen badu, hizkuntza hori beharrezkoa bihurtzen da... bizitzeko! (azpimarra biak gureak).

Ez dugu pasarte asko ezagutzen gure bibliografia teknikoan, hain labur eta hain argi azaltzen duenik ahuldutako hitzun-elkarteen berezko mintzoaren belaunez belauneko jarraipen-transmisioa, egoera gogorretan ere, nola eta zergatik mantendu izan den. Hori jakitea ez da jakintxukeria: ahuldutako hizkuntza indarberritu nahi dugunontzat hil ala biziko elementu kognitiboa da goiko hori. Kontuak horrela izanik, badago gure artean zertaz harritua: nola liteke euskaltzale mundua (*bottom-up* jokamoldeaz zein *top-down* instituzionalaz) eguneroko mintzajardun arruntaz eta bere transmisio-oinarriaz hain gutxi arduratu izana azken hamarkada hauetan? Nola liteke jardun hori hain nagusi deneko arnasgune-alorraz apenas kezkatu izana? Nola liteke ingurumen geoterritorial horiei hain garrantzi txikia aitortu izana oro har? Nolan dago gai hori hain jardunaldi monografikoen, azterlan eta analisi sektorialen, graduondoko atal beregainen eta berariazko doktore-tesien behar gorrian²?

Esplikazio posible bat badakigu zein den: lan zaila da hori, eta (bere zailean ere) ondotoz errazagoak diren ekimenetatik hastea gustatzen zaigu gehienoi: eskola eta euskaltegia, aldizkaria eta egunkaria, literatura eta argitaletxea, kultura-astea eta, urtean behin-edo, “euskararen alde”-ko agerraldi zabala³. Egia da hori, hein batean. Ez dut uste, halere, arrazoi bakarra gure joera hori denik. Nolanahi ere, on da oraingoan bezala ibilbide luzeko euskaltzale-eragile kualifikatu baten testigantza eta gogoeta-lana jasotzea eta gogoeta hori hizkuntza-soziologiaren kontzeptu-markoan hari-zuntz ederrez iruten saiatzea. Eskerrak eman behar dizkiogu Kikeri, hain funtsezko gaia guztion begien bistan jarri izanagatik. Bere gogoeta-lerro horrek gizarte-arau edo norma sozialaren esparru teorikora garamatza: inork espreski hartara behartzen ez gaituelarik ere, ingurumen-baldintzek kilikaturik zerbaiten behar bizia eragiten duen horretara; behar bizia sentitzera eta, eragozpen larririk gabe, ontzat ematera. Gizarte-arauari buruzko gogoetaz gainera, besterik ere planteatu du Kikek: eskolaren lekua zein da, eguneroko mintzajardun arruntaren belaunez belauneko transmisio-iraupenean? “lehendabizi (eskolan) ikasi, gero (euskaraz) egin” paradigma argi bezain ahula alde batera utzi eta sozializazio-bide konplexuaren prismapean argitzen

Nola liteke euskaltzale mundua (*bottom-up* jokamoldeaz zein *top-down* instituzionalaz) eguneroko mintzajardun arruntaz eta bere transmisio-oinarriaz hain gutxi arduratu izana azken hamarkada hauetan? Nola liteke jardun hori hain nagusi deneko arnasgune-alorraz apenas kezkatu izana?

**Arnasguneen
gaia,
euskalgintzaren
probetxurako
izango bada, ezin
bihur liteke
hizkuntza-
normalkuntzaren
eranskin. Beste
zenbait
elementurekin
batean (ez haien
aurretik eta ez
haien ondoan)
lehentasun
osokoa da eta,
beraz,
lehentasunezko
trataera zor zaio.**

saiatzera gonbidatzen gaitu bere amaren gaztetako deskribapen biografikoak. Prismaz aldatu beharra daukagu horretarako, euskaldun-jendearen eguneroko jardun arruntak ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan duen zentraltasuna onartuz.

I.2 ekinbide konkretuetara pasatzeko prestasuna

Kike Amonarrizen irakurketa ez da ordea teoria-asmo hutsezkoa. Lurrean ditu oinak, eta lurrari itsatsirik segitu nahi du. Beharrezkoa ikusten du, horregatik, zenbait elementuri aparteko begirunea izatea. Horrela,

I.2.1 Arnasguneen gaia hizkuntza-politikan txertatzea

Bere hitzak dira hauek: “arnasguneen inguruko ikuspegi hau hizkuntza-politikan txertatzea oso garrantzitsua (da), ez “erreserbak” antolatzeke, baizik eta euskararen irradiazio-gune bilakarazteko eta beraien energia linguistikoa hizkuntza-komunitate osora hedatzeko: euskaraz bizitzeko aukera eta espazioa eskainiz, biziberritze-prozesuaren eredu aurreratua osatuz edo hizkuntzaren beraren erreferentzia bizia hedatuz.” Funtzaren funtsean zuzen dabil horretan, gure ustez. Kontura gaitezen, hori bai, aurreko puntuan prisma-aldatzeaz esandako horretatik aski hurbil dabilela. Norbanako jakinen ibilbideetatik ikuspegi globalera hegaldatuz, arnasguneen eta eguneroko mintzajardun arruntaren zentraltasuna azpimarratzera datorkigu tolosarra. Ñabardura bi erantsi (ez kontrajarri) nahi nizkioke Kikeren baieztapen horri: lehentasun kontua eta arnasguneen aldeko (eta kontrako) prozeduren izaera bihurria.

a) *Lehentasuna.* Arnasguneen gaia, euskalgintzaren probetxurako izango bada, ezin bihur liteke hizkuntza-normalkuntzaren eranskin. Beste zenbait elementurekin batean (ez haien aurretik eta ez haien ondoan) lehentasun osokoa da eta, beraz, lehentasunezko trataera zor zaio. Arnasguneei, eguneroko euskal jarduna nagusi deneko ingurumen geoterritorialei, bizirik eutsi behar zaie kosta ala kosta. Bizirik eutsi eta, Kikek argi dioenez, plano geofisikoan zein sozio-funtzionalean zabaldu. Hori gabe askoz zailagoa izango da euskarari XXI. mendean bizirik eustea; are zailago indarberritzea eta, guztietan zailenik, eguneroko mintzabide arrunt gisa galdurik dagoen ingurumenetan euskara berpiztea, espezialistek *revernacularization* diotena⁴. Bizirik dagoenari bizirik eustea, errazagoa izateaz gainera, etekin hobekoa da askoz. Funtsezkoa da, horregatik arnasguneen lehentasuna begien bistan izatea.

b) Arnasguneen beharrak eta aukerak kontuan izango dituen politika ez da, ezin da izan, hizkuntza-politika huts. Hori baino ondotoz gauza bihurriagoa da: demografia-zaintza eta zerbitzu-eskaintza, etxegintza eta lurralde-antolamendua, ekonomia eta lan-merkatua, hizkuntza eta kultura,... Guztien hartzaile da eta, hein batean edo bestean, esparru horietan guztietan behar ditu neurri proaktiboak. Jonathan Pool-en, Mari C. Jones-en eta besteren *identity-planning* delakoan ere txertaturik dago langintza osoa⁵.

1.2.2 Arnasguneei laguntzeko neurrien egingarritasuna eta arrisku-karga

Aparteko atentzior aztertu du Kikek arnaguneei laguntzeko zenbait neurri posibleren egingarritasuna eta, batez ere, neurri horien arrisku-karga potentziala. Erne ibili da, konkretuki, mugimendu demografiko bortitzak ebitatzeko asmoz planteatzen neurri konkretuekin: neurri horiek aski delikatuak eta, are, manipulagarriak gerta litezkeela gogorarazten du arrazoiz. Bere hitzetan esanik “bazterkeria akusaziorik ez jasotzeko ongi azaldu beharko da “linguistikoki babestutako eremuak” zer diren, eta berauen garrantzia argudiatu”. Garrantzizko gaia da hau. Mugimendu demografiko bortitzen aurrean gizakiok, banaka edo taldean, har dezakegun bidea gizalegezkoa, trumiltsua edo ankerra izan liteke. Ez daukagu urrutira begiratu beharrik: Kontinente arteko migrazio bizia badakigu zer tentsio eta zer erreakzio-molde eragiten ari den Europa gehiengan. Tentsio-arrisku hori ez da estatu arteko planoan bakarrik gertatzen, gainera. Estatu barruan ere bada, edo izan liteke, halakorik. Halakorik gerta ez dadin (edota ahalik txikiena izan dadin) neurri egokiak hartu izan dira behin baino gehiagotan: estatu berean, horrela, aldamenekoari ez bezalako ezaugarri linguistiko kolektiboak aitortu zaizkio lurralde bati eta ezaugarriok, are legez, indarrean eusten dira.

Ez gara esaten ari, hemengo hizkuntza-eskubideetan gidari dugun norbanako irizpidea okerra denik. Ukitu ezina denik ere ez: arnaguneen babes-trataerak zer formulazio konkretu behar lukeen eta izan dezakeen ikuskizun dago. Ezin da, ordea, aipatu gabe utzi. Arnaguneetan (kanpora eta barrura, hazkunde bejetatibo murriztasun gainera) gertatzen ari den transbase bortitzaren gertaera hor dago. Gertaera horri gizabidezko eta elkar hartuzko irtenbidea bilatzen saiatzea dagokigu, azken arnaguneak ere hankaz gora joango ez badira bihar edo etzi. Labur baina zorrotz azaldu digu Kikek Irlandako (eta han-hemengo) egoera triste-urrikalgarria: “Gaeltacht-ak bisitatzean izan nuen desolazio sentsazioa

Bere hitzetan esanik “bazterkeria akusaziorik ez jasotzeko ongi azaldu beharko da “linguistikoki babestutako eremuak” zer diren, eta berauen garrantzia argudiatu”. Garrantzizko gaia da hau.

Arnasguneen bideragarritasuna inguruko herriburuen ardura ere bada eta, oro har, Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoarekin lotuta egongo da. Adibide batekin esateko: Tolosaldeko arnasguneen biziraupena, neurri handi batean, Tolosan jokatuko da.

edo Aracilek bere garai onetan bota zigun esaldi hura: «hizkuntza gutxituen kasuan, bai emigrazioak eta bai inmigrazioak galerak dakartzate». Galera horiek minimizatzea eta, *ghetto*-en edota erreserba indioen itxitura lazgarritik nabarmen aldentuz, *ingroup*- eta *intergroup-relation* direlakoak begirunezko perspektiba egonkorrean zurkaiztea da, gure ustez, soluzio bideragarri bakarra. Arnasguneen aldeko saio orok ezinbestekoa du hori kontuan izatea. Zuhur jokatu du Kikek elementu hori berariaz azpimarratuz.

I.2.3 Arnasguneen bideragarritasuna, inguruko herriburuen ardura ere bada

Hori baino zabalxeagoa da bere baieztapena: “Arnasguneen bideragarritasuna inguruko herriburuen ardura ere bada eta, oro har, Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoarekin lotuta egongo da. Adibide batekin esateko: Tolosaldeko arnasguneen biziraupena, neurri handi batean, Tolosan jokatuko da”. Ekarpen ona da hau. Gure orain arteko azalpenetan ez dago ezer, lehenengo baieztapen horren kontrakorik. Alde ere ez, ordea, gauza handirik: ez, behintzat, behar bezain argi eta zehatz azaldurik. Gure txostena osatzera eta hobetzera dator beraz Kikeren ohar hau. Garrantzitsua da ekarpen hori, arnasguneak bizirik gordetzeko aplikazio-bide konkretuen perspektibatik. Ez daukagu hemen lekurik, herriburuen garrantzia xehekiro azaltzeko. Bistan da, ordea, funtsezkoak direla. Arnasguneen aldeko aplikazioak eskualde-perspektiba irmoa beharko du, bertan zentratutakoaz gainera. Xabier Bengoetxea eta Lionel Joly ere Kike Amonarrizen oso antzeko bidetik dabilta, aurrerago ikusiko dugunez, puntu honi dagokionean. Hobe-kuntza argia da ekarpen hau, eta esker onez aitortzen dugu.

I.3 Oinarrizko formulazio teoriko bati aurrez aurre heltzeko adorea

Probetxu handiko sarrera autobiografikoaz eta ekinbide konkretuetara pasatzeko gogoaz gainera badu Kike Amonarrizen irizpenak aparteko ezaugarria: euskaltzaleok erantzun eske daukagun oinarrizko formulazio teoriko bati aurrez aurre heltzeko adorea izan du. Gure artean inor gutxi bezala, hizkuntza-konpartimentazioaz hitz egitera ausartu da. Euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzional egingarriaz eta komenigarriaz mintzatu da, labur baina argi. Konpartimentazio soziofuntzionalaren gaiak, batez ere bidelagun duen diglosiak, ez du pozbide handirik sortzen gure artean. Deabruari ur bedekatuak baino beldur biziagoa ematen digu konpartimentazio soziofuntzional delakoak.

Horren aldeko planteamenduek ez dute *feed-back* handirik jaso izan eta, halakorik gertatu denean, gutxitan izan da *feed-back* hori buru-lanaren ondorio eta akuilu. Oso pozgarri da guretzat, horregatik, oraingoa jaso dugun erantzun zehatz eta ozena. Are pozgarriago, norbaitek behar eta Kike Amonarrizek heldu izana gaiari. Hona bere hitzak, orrazketa-lan xumeaz muin-muina bilduak: “Zer izan daiteke XXI. mendearen lehen erdi honetan euskara-erdaren konpartimentazioa? Hizkuntzen arteko konpartimentazioaz edo diglosiaz hitz egiten dugunean, deskribatzen dugun errealitatea oso polarizatua da: X hizkuntzak behe-mailako funtzioak (ditu), eta Y hizkuntzak goi-mailakoak. Egoera horiek garai bateko banaketei dagozkie normalean. (...) Errealitate soziolinguistiko hori (...) aldatu egin da eta, berarekin batera, euskara-erdaren konpartimentazio zurruna (ere bai). Gaur egun, euskaldunen artean elebitasuna unibertsalizatu egin da, eleaniztunak gero eta gehiago direlarik, eta hizkuntzen arteko konpartimentazioari dagokionez (zera) aurreikus genezake: epe motz-ertainean, arnaseguneetako hiztun eta egoera gehienak, gutxi ala gehiago, elebidunak, eta kasu eta esparru batzuetan eleaniztunak izango direla (...). Konpartimentazio horretan euskarak ahalik eta esparru gehien bete ditzan, oinarrizko helburu batzuk jarri beharko genituzke, aurrez jakinik, hemendik aurrera, “euskara nagusi” izango den esparruak, “euskara hutsezko”ak baino gehiago izango direla normalean.” Arnaseguneetan lortu beharreko sei helburu aipatzen ditu Kike Amonarrizek, adibide modura. Hiru ohar egin nahi dizkiogu bere azalpen mamitsuari: 1) Konpartimentazio *berria* planteatzen digu Kikek: *berria*, ez behinolako xahar-burumakurra. Zerbait erantsi nahi genioke horri: *berria*, baina *konpartimentazioa*. Funtsezko etena izan da “konpartimentaziorik bai/ez” delakoa, azken 40 urteko gure planteamendu soziolinguistiko eta glotopolitikoaren alorrean⁶. Kikeren ekarpen hau ez da, beraz, ezikusia egitekoa. 2) Konpartimentazio berri hori ez da arnaseguneetara *berez bere* etorriko. Neurriak hartu beharko dira, ahalik eta arinen etor dadin. Sei xede-helburu ezarri ditu Kikek horretarako. Seirak dira, gure ustez, arrazoizko eta beharrezko, egungo arnaseguneek arnasegune izaten segituko badute eta XXI. mendeko euskalgintzaren indargarri izango badira. Xede guztiak ez dira premia-maila bereko eta berdin egingarri: aldea dago batetik bestera. Helburu horien ordenari dagokionez, azkenik, Kikek lehen puntuan jarri duen helburua azkenean jarriko genuke guk. Herritarren hizkuntza-gaitasunaz diharduen xedea nekez kokatzen da arnaseguneko erabilera zehaztera datorren konpartimentazioan eta ez da egoki, gure ustez, aurre-aurrean jartzea. Beharrezkoa da xede hori ere, jakina, baina beste bost puntuen (batez ere b-ren eta d-ren) ondorio da maizenik. Beste bost helburuok lortuz

Hizkuntzen arteko konpartimentazioaz edo diglosiaz hitz egiten dugunean, deskribatzen dugun errealitatea oso polarizatua da: X hizkuntzak behe-mailako funtzioak (ditu), eta Y hizkuntzak goi-mailakoak. Egoera horiek garai bateko banaketei dagozkie normalean. (...) Errealitate soziolinguistiko hori (...) aldatu egin da eta, berarekin batera, euskara-erdaren konpartimentazio zurruna (ere bai).

**Anasguneetako
herritarrak ere
euskaraz eta
erdaraz (zenbait
erdarez)
baliatuko direla
etorkizunean, epe
motz-ertainetan.
Norekin ordea
egingo dute
nagusiki
euskaraz, eta
zertarako?
Norekin aitzitik
erdaraz, eta
zertarako?**

gero, eta balantze demografikoa egoki zaintzen bada, litekeena da bertako hainbat herritar euskal-elebidun izatea⁷.

Hasiera da, gure ustez, Kike Amonarrizek gaurkoan eskaini diguna. Teoria soziolinguistikoa eta hizkuntza-plangintzaren aplikazio-esparruan ondorio sakonak dituen bide-urratzea egin du⁸. Teoriari dagokionez, termino tekniko pare bat aurkezterik banu, zera esango nuke: mintza-eta idatz-jardunaren *intragroup* esparrurako konpartimentazio-moldea da Kikek sei helburu horien bidez planteatzen diguna. Zehazkiago esanik, arnasguneen *intragroup* harremanetarako formulazioa da berea. Argi gelditzen da, bere goiko pasartea patxadaz irakurtzen bada, euskaldunen eta erdaldunen (tartean erdal-elebidun askotxoren) *intergroup*-planoa ere hor dagoela. Hor dagoela eta, gizarte-urak (hemen eta mundu zabalean) norabidez erabat aldatzen ez badira hor egongo dela gero ere, begien bistako etorkizunean. Euskara hutsezko hiztun-elkarterik ez da bere formulazioan planteatzen. Bere hitzetan esanik “euskaldunen artean elebitasuna unibertsalizatu egin da, eleaniztunak gero eta gehiago direlarik, eta hizkuntzen arteko konpartimentazioari dagokionez (zera) aurreikus genezake: epe motz-ertainean, arnasguneetako hiztun eta egoera gehienak, gutxi ala gehiago, elebidunak, eta kasu eta esparru batzuetan eleaniztunak izango direla (...)”. Hots, arnasguneetako herritarrak ere euskaraz eta erdaraz (zenbait erdarez) baliatuko direla etorkizunean, epe motz-ertainetan. Norekin ordea egingo dute nagusiki euskaraz, eta zertarako? Norekin aitzitik erdaraz, eta zertarako? Bidegurutze horrek eskatzen digu, hain zuzen, zenbait adituren *intragroup* eta *intergroup* harremanen bereizkondeaz baliatzea. Zer esan nahi dugu, *intragroup* eta *intergroup* terminoekin? Ezagutzen dugun teoria soziolinguistikoaren argitan, eta gure *hic et nunc* honetara proiektatuz jatorrizko kontzeptua,

a) *Intragroup (relations)* diogunean euskaldunek euskaldunekin osatzen duten hiztun-sare multzoa adierazi nahi da⁹. Harreman edo interakzio hori aurrez aurrekoa da maiz, baina urrutiko-birtuala ere hor dago. Hoberik ezean *euskal hiztunon barne-harremanen plano*a esan diezaiokegu *intragroup (relations)* sailari.

b) *Intergroup (relations)* direlakoetan, aldiz, euskaldunek erdaldunekin (tartean erdal-elebidunekin) erdaraz bideratzen dituzten interakzioen multzoa¹⁰. *Euskal eta erdal hiztun-multzoen arteko erdarazko harremanen plano*a esan diezaiokegu, *intragroup (relations)* sailari.

Horko a) sailaz jardun du Kikek esplizituki: *intragroup relations* edo *euskal hiztunon barne-harremanez*. Besteaz (*intergroup relations* edo *euskal*

eta erdal hiztun-multzoen arteko erdal harremanez) ez da mintzatu. Bi munduok hor daudela eta “epe motz-ertainean” ere hor egongo direla argi iradoki du, ordea. *Intragroup relations* sailari, bihar edo etzi, *intergroup* harremanen esparrua ere erantsi beharra daukagula gogorazten digu bide batez. Badakigu gakoa non dagoen: nork-norekin-zertaz hizkuntza batean, eta nork-norekin-zertaz beste(et)an? Kike Amonarrizek eman du lehen pausoa. Besteok dugu orain hitza.

I.4 Arnasgune beterik ba al dago?

Bere esperientzia pertsonaletik abiatuz, ondorio honetara iritsi da Kike: “herri batzuk beste batzuk baino egoera hobean egon arren, arnasgune guztiak “erasandako” arnasguneak direla esan genezake (hortik kanpo geratzen diren herri txiki urriak, erasanak izateko guztiz egoera zaugarrian daude) (..) gaur egun, arnasgune guztiak erasanak direla uste dudanez, arnasgune mota nagusien sailkapena ez zait oso funtzionala iruditu (..) “erasandako arnasgune” ena da, gaur egun, aurki genezakeen tipologia soziolinguistikorik gorena”. Zer esan dezakegu honetaz? Baietz eta ezetz: arrazoi du Kikek, hiztun elebakarrez osaturiko arnasgune beteak begien bistatik aspaldi galdu zirela dioenean. Ez erabat, aldiz, guzti-guztiak arnasgune erasan direlakoan (ikus Iñaki Iurrebasoen atala eta gure oharra). Ba al du hortaz zentzurik, arnasguneak bitan edo hirutan banatzea? Ba al du zentzurik, bereziki, (ia) arnasgune guztiak erasanik dauden honetan arnasgune *bete*-ez jardutea? Xabier Bengoetxea eta Lionel Joly baiezkotan daude; ezezkora lerratzen da Kike. Aurrerago, arnasgune erasanen terminologiazko egokitasunaz jardutean, helduko diogu berriro gai honi. Diogun, gerora gabe, kategoria-bereizkunde horri kalte baino mesede gehiago ikusten diogula gaurkoz.

I.5 Terminologiazko ekarpena

Goian esandako lau puntuez gainera, badu Kikeren irizpen-txostenak berariaz azpimarratu beharreko elementua. Terminologia aldetik, norabide bakarreko arnasgune “erasan” ez du gogoko. Bat dator horretan Iñaki Iurrebasorekin eta Lionel Joly-rekin. Gero helduko diogu gaiari, xehekiago.

Labur bilduz, analisi zorrotza eta egokia eskaini digu Kikek. Aurrerapausorik emateko elementu teoriko sendorik eskaintzen edo iradokitzen du, batetik. Arnasguneen aldeko ekimen-programa orotarako lagungarria den zenbait aholku praktikoko eskaintzen digu, bestetik. Guztiak dira balios, guztiak mesedegarri. Eskerrik asko, Kike.

**Herri batzuk
beste batzuk
baino egoera
hobean egon
arren, arnasgune
guztiak
“erasandako”
arnasguneak
direla esan
genezake.**

***Herri-giroa (...)
gesaltzen ari dela
begi-bistako
gauza da. Herri
horietan ez dago
bizitzarik. Kale
hutsak, ume gutxi
eta horiek
telebistan edo.

Hor sekulako
aldaketa eman
da.
Modernitatearen
indibidualismoa
bete-bete.***

II. XABIER BENGOETXEAREN EKARPENAZ

I
Irakurtzen eta analizatzen erraza da Xabierrek eskaini digun iruzkina. Orain urtebete inguru prestatu genuen PPT-azalpenari orpoz orpo eusten dio eta, teknika hori dela medio, erraz ikusten da zertan gure azalpenarekin bat datorren, zertan ñabardura erantsi duen eta zertan formulazio alternatiboa eskaini digun edo hartarako tentaldi bizian dabilen. Esan dezagun, labur beharrez, kasu askotan bat datorrela Xabier gure argudio-bide nagusiarekin. Agertutako begirunea biziki eskertzeaz gainera, ñabardura biziz hornitu dituen oharretan eta ikuspegi alternatiboari ateak zabaldu dizkionetan zentratuko gara. Darabilen euskara (Beterrikoontzat hain) gozo horrek arindu egiten du irakurketa, eta ohar soilak aukeratzea errazten.

II.1 Gauden lekutik abiatu behar da, lehentasun argienak gidari ditugula

Kezka bizia eragiten dio Xabierri, arnasgune jator izandako hainbatetan antzematen duen gainbeherak. Bere hitzetan esanik “herri-giroa (...) gesaltzen ari dela begi-bistako gauza da. Herri horietan ez dago bizitzarik. Kale hutsak, ume gutxi eta horiek telebistan edo. Nahikoa da pala hartu eta herri horietara joatea. Frontoian ez dugu ia inoiz oztoporik izaten partida jokatzeko... Hutsik daude. Ez dago gure gazte-garrietan bezala txanda hartzeko borrokan ibili beharrik. Zer esan auzolanaz eta antzeko kontuez. Afarietarako biltzeko ere arazoak daude askotan. Gure auzoan bertan, aurten Santa-eskean ateratzeko, igandea izanik ere, hamar lagun biltzeko gorriak ikusi genituen. Hor sekulako aldaketa eman da. Modernitatearen indibidualismoa bete-bete. Azken egunetan irakurria dut Baztandarren Biltzarra antolatzeko eduki zituzten gora-beherak eta nola Lapurtarren Biltzarra bertan behera utzi duten. Bietan erreleborik eza aipatzen dute gako nagusi bezala”.

Teorizazio askok baino zehatzago, gordinago eta ulergarriago azaltzen digu Xabierrek arnasguneek egungo egunean ageri duten bizi nahiaren eta ezinaren borroka gorria. Garbi ikusten da horrelakoetan, besteak beste direla, Xabier Bengoetxearen delibero sendoa, jatortasun etnokulturalaren azken agergune kolektibo diren ingurumen hauei etorkizun bizi-pizgarria segurtatzen saiatzeko. Ondoko gogoeta-ardatza du, seguru-eruenik, gidari: “(oraingo egoera honetara) nola iritsi garen interpretatzeko garaian, zerrendatu diren fenomeno guztiez gain, horien azpian egon daitezkeen arrazoiei buruzko hainbat tesi egon badaude. Hau da, euskarak mendeetan bizi izan duen zapalkuntzaren ondorioz dela aipatuko du

zenbaitek, estatu independentea ez edukitzea beste hainbatek, estatuaren jazarpen etengabea, botere autonomikoen hizkuntza-politika ahula, euskal hiztunen analfabetismoa, goi-mailako funtzioen gabezia eta horren eragin murriztailea eremu intimoetan, autopertzepzio- eta autoestimularazoak, hizkuntza-eskubideen kontua,.. hainbat eta hainbat. Arrazoiak arrazoi, kontua hau da: egungo egoera hori da eta (egoera) horri aurre egin beharko diogu. Hemen ere, seguruenik, modu integralean, multifaktore horiek guztiak kontuan hartuz. Hori bai, lehentasunak argi edukiz eta ahal dugunetik abiatuz". Euskaltzale-mundua gizaki itsu-setatiz, iluminatuz eta ameslari iheskorrez beterik dagoela dioteneke balukete, Xabierren azalpen horietan, epai eskuzabalagora iristeko ikasbide ederrik. Esplikazio bakarraren zurrunbiloan erori gabe, aukera guztiak aintzakotzat hartuz eta aurrera begirako abiaburu alboraezinean oinarrituz, konponbidea bilatzeko saioa du ardatz. Ba al da hori baino bide zuhurragorik?

II.2 erronka demolinguistikoaren larria

Erronka demolinguistikoak berariaz kezkatzen du Xabier, Lionel Joly bezala. Tolosaldeko arnaguneak begien aurrean dituelarik, honela dio: "noraino jabetzen gara (erronka demolinguistikoaz)? Noraino onartzen dugu hori? Gure bizimolde erosoari uko egiteko noraino gaude prest? Noraino dute gaurko gazteek posible, dituzten bitartekoak eta arazoak (dira) medio, nahita ere horretan saiatzea? Herri txikietan ume gutxi daude; kalean ez daude gainera, lehen bezala. Herriak zahartzen ari dira(...)". Aparteko atentzioa eskaini dio Xabierrek erronka honi. Behar bezain argi aipatu ez dugun puntua erantsi du berak: ume gutxi dago (ongien ezagutzen dituen) arnaguneetan, eta dauden apurrak gutxitan dabilta kalean. Etxeaz eta eskolaz gainera lagunartea eta kaleko jardun bizi-oparua baldin bada belaunaldi gazteak hizkuntzaren osaera zabal-bihurriaz jabetzeko leku nagusia, bistan da ondorioa: aurreko belaunaldiak baino motzago izango dira oraingoak euskal mintzagaitasunez. Ez da berri atsegina; nekez uka liteke ordea. Arnaguneei atxiki izan diogun ezaugarri nagusietako bat indargaltzen ari da. Aparteko merezimendua du Xabierrek, puntu hori berariaz azpimarratu izanagatik.

II.3 Bertako herri-giroa motz gelditzen ari zaie gazteei

Gure azalpenean aski modu formalean landutako puntuari gatz-pipe-
perezko deskribapen bizia erantsi dio Xabierrek. Hona bere hitzak: "Herriak zahartzen ari dira eta gazteak, oro har, bizitza ez dute bertan egiten. Tolosaldeko herrietan, gehien ezagutzen dudak eskualdean, hori nabaria da. Herri-giroa pobre geratzen ari zaie. Ikasketa-maila

Herriak zahartzen ari dira(...)". Aparteko atentzioa eskaini dio Xabierrek erronka honi. Behar bezain argi aipatu ez dugun puntua erantsi du berak: ume gutxi dago (ongien ezagutzen dituen) arnaguneetan, eta dauden apurrak gutxitan dabilta kalean.

**“Badago gazte-
tipologia bat,
herrian bizitzeko
aukera eta
baliabideak izan
arren nahiago
duena hiritartu
eta bere
bizimodua han
eratu. Hor ere
erronka handia
dago. Nola
saihestu (...) .
hori?”**

dela-eta, kultur bizitza, harreman-sareak, etab., beste nonbait bilatzen dituzte. Nire iritziz, badago gazte-tipologia bat, herrian bizitzeko aukera eta baliabideak izan arren nahiago duena hiritartu eta bere bizimodua han eratu. Hor ere erronka handia dago. Nola saihestu (...) hori?” Erronka asko, eta zailak, dituzte egungo arnasguneek. Xabier Bengoetxeak hemen azalduakoa ez da, inondik inora, txikiena.

II.4 Eskualdea, arnasguneen babes

Kike Amonarrizi eta Lionel Joly-ri irakurri diegun ohar bera, edo aski antzekoa, jaulki digu Xabier Bengoetxeak, bideragarritasun sozioekonomikoaren behar-aukeretan pausatuz begiak. Arnasguneen erronkei erantzuteko orduan ez da eskualde-perspektiba begien bistatik galdu behar. Bere hitzetan esanik “herri mailakoez gain, eskualdeko ikuspegia kontuan hartu beharko genuke. Adibidez, Tolosaldean ohikoa da Tolosan lan egin eta Tolosaldeko herrietan bizi direnen kasua. Baldintzak daudenean hori eman izan da. Erraztasunak jarriz gero, oinarrizko zerbitzuak bermatuz gero, herrian manten daitezke, nahiz eta inguruko herrian edo eskualde buruan lan egin. Tolosaldean hori ez da guztiz arrotza.” Aholku baliagarria da hau. Tolosaldean bezala, litekeena da beste zenbait eremutan ere antzera jokatu ahal izatea.

II.5 Konpartimentazio soziofuntzionala

Asko poztu gara Kike Amonarrizek konpartimentazio soziofuntzionalaren gaiari aurrez aurre, eta gure iritzian zentzuz, heldu diolako. Gauza bera esan beharrean gara berriro: Xabier Bengoetxeak ere berriaz aipatzen du konpartimentazio kontua. Galdera bidez eskaini digu berak, ez erantzun gisa, gogoeta-bidea. Goikoa errepikatuko dugu: gai itsusia eta latza, atzera eragiten duten horietarikoa, da gutako askorentzat konpartimentazio soziofuntzionalarena. Bistan da zergatik: euskaltzale askok bere baitan du osotasun territorial, demografiko eta soziofuntzional betearen amets gorena. Goiburu argia du amets horrek: “Euskal Herri osoko hiztun guztiak euskaldun garbi edo euskal-elebidun izan gaitezen eta geure artean, hitzez eta idatziz, edozein jardun-gunetan eta edozein rol-harremanetan euskaraz egin dezagun eguneroko mintzoera arruntan eta hizkera-molde landu-formaletan”. Ez da bart arratseko ametsa¹¹. Amets horrek eskatzen duen oinarri soziolinguistikoa eta gaurko kasurik oparoenetan (tartean arnasguneetan) bizi duguna oso urruti daude elkarrengandik. Hor hasten dira kontuak. Posible al da osabetezko ametsari uko egin gabe konpartimentazio soziofuntzionalaren bidetik euskararen etorkizuna segurtatzea? Gure erantzuna ezaguna da: ez da

gustuko bidea, baina bai egokia; hemen eta orain, bideragarri bakarra: konpartimentazio hori gabe, euskara-erdaren botere-desoreka izugarriak hartaturik euskara galtzera doa eguneroko jardun arruntetik. Xabierrek kontuan izan du gure baieztapena, baina ez digu erantzun konkreturik eman. Begirune handiz planteatu du gaia, hori bai. Pasarte hau iruditua zaigu, berak esandakoetan, baliosena: “Hizkuntzen arteko harremana botere-borroka bezala hartuz gero, posible al da konpartimentazio hori? Hizkuntza nagusiak ez al ditu ahaleginak egingo euskarak dituen eremuetan sartzeko? Ez al da hori gertatzen ari gaur egun telebista-internet, kultura-erreferentziak, etab. horien eraginez eremu intimoetan ere eragiten dutela? Posible al da konpartimentazio sendo eta iraunkor samarra gaurko bizi-inguruan? Hizkuntzen arteko lehia (baldin) bada nork hartu zein funtzio besteari, posible al da modu estatiko eta iraunkor samarrearatzea konpartimentazio hori? Eremu formaleko funtzioak bereganatu gabe, eta horrek duen eragina hiztunaren gaitasunean eta hautematean, prestigioan, etab. kontuan izan gabe, posible al da eremu intimoetan trinko eta osasuntsu mantentzea? Galderak eta galderak.”

Erantzunik ez digu Xabierrek eskaini, baina zorrotz eta zintzo planteatu ditu euskaltzaleon burmuinetan gai horrek sortzen duen kezka eta ezinegon bizia. Ez da gutxi, gure tirabiren jolas-zelaia argi eta begirunez planteatu izana. Bide luzea daukagu hortik aurrera, gorago esan dugunez, egiteko¹². Aterik ez du Xabierrek ixten, hartan saiatzeko. Diogun hemen, labur beharrez, batetik Joshua A. Fishman-en eta bestetik Peter Nelde-ren formulazio antagonikoak direla ondorio ugari eta sakoneko eztabaida akademikoaren joko-zelai nagusi. Azkenekoen berri ez duenak ikus bitza, adibidez, Nelde 1987 eta 1997.

II.6 Hitzeko jarduna al da, benetan, arnasguneen ardatz eta iturri?

Azalpen-txostenean honako hau diogu: “hitzecko jarduna da arnasguneen ardatz eta iturri”. Ohar zehatz eta argia erantsi dio Xabierrek azken esaldi horri: “Lehen orain baino gehiago. Gaur egun ikus-entzunezkoek eta idatziak leku zabalagoa dute; indartu egin dira hitzeckoaren kaltetan. Bizimodu indibidualistak horretara garamatza”. Ondorio hau atera liteke Xabierren esanetik: hitzecko jarduna ez da orain lehen bezain nabarmen, hitzecko jardunak atzera egin du. Puntu bat erantzun gabe gelditzen zaigu hor: noraino egin du hitzecko jardunak atzera? Eguneroko bizimodu arruntean, arnasguneko herritar gehienek bertako eta kanpoko solaskide gehienekin (aurrez aurre edo birtualki) dituzten interakzioetan ardatz eta iturri izateari utzi al dio? Gauza bat baita “lehen bezain

“Hizkuntzen arteko harremana botere-borroka bezala hartuz gero, posible al da konpartimentazio hori?”.

Eremu formaleko funtzioak bereganatu gabe, eta horrek duen eragina hiztunaren gaitasunean eta hautematean, prestigioan, etab. kontuan izan gabe, posible al da eremu intimoetan trinko eta osasuntsu mantentzea?

**Aparteko eragina
du eskolak,
orain,
arnasguneetan
ere: lehen ez
bezalakoa da,
hainbatetan.**

**Hitzezko jardun
formal-
landu(ago) eta
erdal-erasanago
horrek inpaktu
argia du
belaunaldi
berrietan
(eskolan
dabilzanetan edo
ibili berrietan).**

ardatz eta iturri” ez izatea, eta beste bat “ardatz eta iturri” ez izatea. Funtsezko puntua da hau, arnasguneetan bereziki. Zer esan liteke, beraz, “ardatz / ez ardatz” horretaz? Goazen pausoz pauso:

II.6.1 Nola eskuratzen dira hizkuntzak eta aldaerak?

Aldaera bat baino gehiago izan ditzake hiztunak: aldaera historiko-territoriala den dialektoa, soziokulturaz edo gizarte-piramideko kokaeraz markaturiko soziolektoa, lanbidezko zenbait teknolekto (medikua, apaiza, udaleko idazkaria,..), liburuko hizkera formal-landua, eta abar. Hizkuntza bat baino gehiagoz jabetzen da, horrezaz gainera, hiztun-elkarte osasuntsu askotako eta ahuldutako hiztun-elkarte guztietako hainbat kide: gure artean, are arnasguneetan, guztiok dakigu gaztelaniaz (iparraldean frantsesez) eta, gazteen artean bereziki, gero eta gehiago moldatzen da gutxi-asko ingelesez. Nola bihurtzen gara hiztun-irakurle-idazleok hizkuntza baten zenbait aldaeraren jabe? Nola, euskaldun guztiok elebidun garen honetan, hizkuntza baten baino gehiagoren jabe? Azken honetaz (eta, bide batez, aurrekoaz) badugu erantzun argia, dakigula inork ezeztatu gabea: “bilingualism is presumably acquired much as all other societally normed behavior is acquired; by exposure to and interaction with a community that lives in accord with the norms of usage (..)”¹³. Gurera etorritz: aldaera osagarrien eta hizkuntza bat baino gehiagoren *exposure*-eragina jasaten dugulako eta aldaera edo hizkuntza horietaz baliatzen diren hiztunekin *interaction* etengabea dugulako, geure gogoz ala gizarte-giroak eraginik.

Nola hezurmamitzen ditugu *exposure* eta *interaction* horiek? Batek baino gehiagok berehala esango dizu: eskolan, maisu-maistren azalpenetatik eta liburu-etako (eta datu-biltegi elektroniko-etako) testuetatik. Partez bai, nagusiki ez. Badakigu hori ez dela horrela izan menderik mende, orain puntura arte: kontuak horrela izan balira, euskara aspaldi galdua zen erdara hutsezko eskoletara joan izan diren (garen) haur-gazteon artean. Aparteko eragina du eskolak, orain, arnasguneetan ere: lehen ez bezalakoa da, hainbatetan, bertako gazteen hitzezko jarduna (aldiera formal-espositibo-landua eta, maila batetik aurrera terminologikoki zabaldu-aberastua). Erdal-inpaktu handiagokoa ere bada, barne-osaeran. Hitzezko jardun formal-landu(ago) eta erdal-erasanago horrek inpaktu argia du belaunaldi berrietan (eskolan dabilzanetan edo ibili berrietan). Hori ezin da ahaztu. Inpaktu horrek ez du, ordea, gainerako guztia baztertzen eta ezabatzen. Eskola garrantzitsua da. Baina bere neurrian: eskolara sartu aurretik, eskola-urteetan (bestelako jardun-guneetan) eta eskolatik irten ondoan eskuratzen ditu hiztun arruntak bere hizkera-

aldaera asko. L2 hizkuntzak ere bai, sarri¹⁴:

II.6.2 Hizkuntza idatziak ahozkoan duen eragina

Lehen ez bezalako eragina du idatziak hiztun-elkarte osoaren jardueran: pertsona alfabetatuak lehen baino gehiago dira orain, Europan eta beste leku askotan. Euskaraz zer esanik ez: euskaldun gehienok, Hegoaldean bereziki¹⁵, geure hizkuntzan alfabetatu gabeak ginen 1960 inguruan, Rikardo Arregik eta bere lankideek alfabetatze-lanari ekin ziotenean. Orain ere urrun gaude euskaldun alfabetatu betearen eredutik, baina hobera egin da horretan, oro har. Lehengo aldean ugaria da, orain, irakur-idatzizko jarduna. Horrek ez dizkigu, ordea, begiak lausotu behar. Arnasguneetan (eta beste hainbat lekutan), eguneroko mintzoera arrunta da orain ere *exposure*- eta *interaction*-oinarri erabiliena.

Gertakari horrek alderdi kuantitatibo argia du: asteen esna gauden 112 ordu-inguru horietan zenbat ordu jarduten dugu geure buruarekin barne-gogoeta isilean? Besterekin (batekin edo hainbatekin) zenbat ordu sartzen ditugu elkarrizketa bizian, azalpen eske edo informazio-emaile, poz-haserrez asalaturik edo interes estalien mirabe? Irakasleek, saltzaileek, administrazioan jendaurreko atentzioa eskaintzen duten funtzionarioek, taberna-jatetxe-hoteletako zerbitzariak eta irrati-telebistetako esatariek, aktoreek eta bat-bateko itzultzaileek zenbat ordu sartzen dute bezero-entzuleei gauzak hitzez azaltzen, eta zenbat idatziz? Zenbat ordu pasatzen ditugu irrati-telebisten hizkera eta irakaslearen hitzezko azalpenak entzuten? Ordu-multzo zabal horien aurrez aurre, zenbat ordu egiten ditugu (egunean, asteen, urtean) irakurtzen eta zenbat, batez ere, idazten? Eskolan ere antzera: asteen zenbat ordu sartzen ditugu irakasleen esanak entzuten edo ikaskideekin (agirian edo isilpeka) berritsuketan? Aldiz zenbat ordu sartzen ditugu irakurtzen eta idazten? Hitzeko jarduna da nagusi, aski lanbide jakinetan izan ezik¹⁶. Elementu asko erantsi behar zaizkio ordu-kontaketa horri. Elementu kualitatiboak ere oso kontuan hartu behar dira: ahozkoaren eta idatzizkoaren elaborazio-maila aski diferentea, idatzizko esaldien eta diskurtso osoaren antolamendu landua, idatziak berekin duen erakarmena, begirunea eta itzala, idatzizko dokumentuen (literarioen zein ofizialen) luzaroko iraupen-indarra,.. Hori guztia hor dago eta ez da gutxietsi behar.

Baina emaitza nagusia nekez aldarazi lezake horrek: *exposure*- eta *interaction*-orduen perspektibatik nagusitasun argia du orain ere ahozko jardunak, batez ere asteko ordu gehien xahutzen ditugun plano infor-

Eskola garrantzitsua da beraz. Baina bere neurrian: eskolara sartu aurretik, eskola-urteetan (bestelako jardun-guneetan) eta eskolatik irten ondoan eskuratzen ditu hitzun arruntak bere hizkera-aldiera asko.

Bestelakorik falta ez den arren hitzezko jarduna da, orain ere, arnasguneen eguneroko ardatz eta iturri. Hitzezko jardun horrek lehen baino idatziaren eragin biziagoa du, baina berez bere dabil.

malean. Hori dela medio, gehienetan mintzamolde xume-bihurri, zakar-zartatu, lokal-kutsuko hori dabil gehienon ahotan eta horixe transmititzen da belaunaldi batetik hurrengora, lehenik eta behin. Zabaldur eta osatu, zuzendu eta aberastu egiten da hori gero, norbere *exposure*-eta *interaction*-ibilbidearen arabera. Baina ez da normalean erabat gesaltzen eta galtzen. Umetan eta gaztetan jasotako hizkera-molde bizi, doi, gatz-piper-ozpinez ondutako berbakera hori da gizakion pozhaserre, beldur-itxaropen eta gogoeta-azalpen gehien adierazbide naturala; hori da aurrez aurreko hitzutuneko zubi eta lokarri hurbila. Labur bilduz: bestelakorik falta ez den arren hitzezko jarduna da, orain ere, arnasguneen eguneroko ardatz eta iturri. Hitzezko jardun horrek lehen baino idatziaren eragin biziagoa du, baina berez bere dabil. Eskertzekoa da Xabierrek puntu hori ere mahaigainera ekarri izana. Ez dago bide hoberik, honetaz eta hartaz ditugun zalantzak eta bereizbideak elkarren artean argitzen saiatzeko.

III. IÑAKI IURREBASOREN EKARPENAZ

I

Lan ederra egin du, oraingoan ere, Iñaki Iurrebasok. Teoria-asmozko azalpenak oso gogoan izanik, baina horietara mugatu gabe, terminologia teknikoaz gogoeta ernagarria eskaintzeaz gainera arnasguneen datu demolinguistiko gordinei heldu die eta, metodologia propioaz, ondorio jakingarriak eskaini dizkigu. Honako bost galdera hauek izan ditu, batez ere, begien aurrean: a) zenbat arnagune ditugu Hegoaldean, egungo egunean? b) zenbat biztanle dituzte arnagune horiek? c) kopuru horiek zer portzentaje moldatzen dute Hegoaldeko biztanle guztien artean? Perspektiba deskriptiboari zinetikoa¹⁷ erantsiz, d) arnaguneotan (bertako etxegiroan) noraino da *language maintenance* nagusi (zer neurritan da euskara etxeko mintzamolde bakar edo gailen) eta, aitzitik, zer neurritan ari zaigu *language shift* hedatzen (zer neurritan ari gara etxegiroan euskaraz egitetik erdaraz egitera pasatzen)? Azkenik, datuon fidagarritasuna behar bezain egokia baldin bada, e) eguneroko jardun arruntari dagokionez zer alde dago etxeko esparrutik kaleko eremura? Horrezaz gainera teoria-asmozko *feed-back* eskea egin digu Iñakik, labur baina argi, irizpen-txostenaren bukaeran. Bost puntuoi erantzun nahi genieke labur-labur, *feed-back* eskeaz ahaztu gabe. Funteszkoak dira bost puntuok: garrantzi bizia dute arnasguneen izaeraneurriak ulertzeko eta gaurko jarduna nolakoa duten argitzeko. Laguntza bizia eskain dezakete, gainera, hizkuntza-soziologiaren zenbait kontzeptu giltzarrik *hemen eta orain* duen aplikazio-ahalmena kontrastatzeko. Oso kontuan izatekoak dira, nolana ere, *language maintenance* eta *language*

shift direlakoak: 1964an kontzeptualki formulatu zirenetik¹⁸ aparteko lekua eta itzala dute batak zein besteak. Horiekin loturik daude, gainera, hizkuntza-soziologia dinamikoak¹⁹ muin-muinean dituen galdera nagusiak. Ez dabil beraz oker errezydarrak, puntu horien aplikazio metodologikoan zentratu delarik.

Arnasguneetako *habitual language use*, eguneroko (*mintza*)jardun arrunta (ez formal-elaboratua eta ez aldian behingo berezia), dugu gaurkoan aztergai. Fishman-ek azaldu eta sakondutako *LM, LS* eta *RLS* alorretan²⁰ funtsezko kontzeptua da *habitual language use* hori. Hala da orain ere, formazko aldeak alde, bibliografia teknikoan: ikus, adibidez, Rajend Mesthrie-ren 2001eko “the medium of everyday conversation”²¹ edota, lurralde eta denboraz hubilago, Carsten Sinner eta Katharina Wieland editoreen 2015eko *Norma, ús i actituds lingüístiques. El paper del “català en la vida quotidiana”*.

III.1 Eguneroko jardun arrunta zenbakitara ekartzea, lan zail eta bihurria

Eguneroko jardun arrunta (eta bere bilakaera) kuantitatiboki aztertzeak baditu bere nekeak. Datu egokiak behar dira, lehenik eta behin: kopuruz ugariak eta zehatzak, aldian-aldian eguneratuak, kontzeptualki ongi bilbatuak eta metodologia kontrastagarriak landu litezkeenak. “Ditugun datuak ditugu” ordea, maizenik, gure mundu honetan: ez txuri-gorritzko ametsetan planteatuaz litezkeen hoberenak, hedaturaz partzialak eta edukiz mugatuak baizik. Hori dela-eta, behar eta nahi genukeenetik dezakegunera “jai” behar izaten dugu maiz. Eguneroko jardun arruntaren azterketa, horregatik, hoberena den jardungune-multzo zabaletik egingarri den etxegirora mugatu behar izan du Iñakik nagusiki²². Dituen eta ditugun datu partzial eta mugatuekin jardun du lanean: Hegoaldeko Biztanleria Zentsuaz baliatu da etxeko jardun arrunta analizatzeko, eta (oraingoz era tentatiboan) Kale-erabileraren Neurketatik abiatu da jardun hori herri-giroan nolakoa den aztertzeko. Eguneroko jardun arruntaren esparru, harreman-sare, rol-harreman eta situazio guztiak arakatu ahal izatetik urrun gelditu da, hori dela medio. Inork pentsa dezake, bere lana gutxiesteko edo eztabaidatzeko asmoz ari garela hori esaten. Ez horixe: daukagunetik abiatzea ez da inolako ahuldade-bajeza, zuhurtzia eta adorea baizik. Inor gutxi ausartu da egungo egunera arte, bilaketan sistematiko batez, Iñaki bezain urrun iristen. Apaltasun-zuhurtzia handia erakutsi du gainera, behin eta berrero, ikerlan horrek gaurkoz dituen eragozpen-mugak argi aitortuz. Biziki estimatzen dugu bere ekimena: horregatik ari gara azterketa horren zailtasun-eragozpenak

**Datu egokiak
behar dira,
lehenik eta
behin: kopuruz
ugariak eta
zehatzak, aldian-aldian
eguneratuak,
kontzeptualki
ongi bilbatuak
eta metodologia
kontrastagarriak
landu
litezkeenak.**

**Arnasguneetan,
1991 eta 2011
artean, zer
neurritan eutsi
zaio euskarazko
mintzoari
eguneroko jardun
arruntean?**

ez isiltzen eta (berak hala eskatu digunez) horrexegatik saiatuko gara zenbait hobekuntza-bide proposatzen.

III.2 Bost galdera, sei erantzun

Goiko bost galdereri erantzuten saiatu da Iñaki. Hona, gure irakurketan oinarriturik, erantzun horien sintesia:

a) *2011n zenbat arnasgune?* Guztira 96 udalerrri. Horietatik 24 bete eta 72 erasan. Kopuru hutsez, Hegoaldeko 523 udalerrien %18,4 arnasgune ditugu. Labur bilduz: a) udal-kopuru aldetik, Hegoaldeko mapa geoadministratiboaren ia bostetik bat arnasgune da; b) arnasgune erasanak dira, askogatik, oraingo gehienak.

b) *2011n zenbat biztanle* dituzte arnasgune horiek? Guztira 113.215 hiztun (euskaldun zein erdaldun) bizi dira arnasguneetan. Ia guztiak arnasgune erasanetakoak dira (104.794 hiztun). Arnasgune beteetan oso jende gutxi bizi da: 8.421 herritar.

c) *Zer portzentaje* moldatzen dute kopuru horiek, Hegoaldeko biztanle guztien artean? Hegoaldeko herritar guztien %4,1 bizi da, etxeko jardunari dagokionez, arnasguneetan. Arnasgune erasanetan bizi dira horietariko gehienak (%3,8). Hegoaldeko hiritar guztien %0,3 bakarrik bizi da, 2011ko datuen arabera, arnasgune beteetan. Labur bilduz: a) Hegoaldeko 25 biztanletik bat bizi da arnasgunean; b) arnasgune beteetan, berriz, 330 biztanletik bat.

d) *LM ala LS?* Arnasguneetan, 1991 eta 2011 artean, zer neurritan eutsi zaio euskarazko mintzoari eguneroko jardun arruntean? Zerbatean da *language maintenance* (LM) nagusi, etxean eta kalean, eta zer neurritan ari zaigu *language shift* (LS) hedatzen? Bi azpiatal berezi ditu Iñaki Iurrebasok: batetik etxeko bilakaera, bestetik kalekoa.

d1) *Etxeko jardunaren bilakaera:* arnasguneak 132 udalerritik 96ra jaitsi dira hogeitun urtean; arnasgune beteak 85etik 24ra. Arnasguneetan bizi ziren hiztunak ere urritu egin dira: lehengo 186.041 hiztunetik oraingo 113.215era jaitsi dira (Hegoaldeko biztanle guztien %7,2tik %4,1era). Batez ere arnasgune beteetan gertatu da galera: 71.509tik 8.421era (%2,8tik %0,3ra).

d2) *Kaleko jardunaren bilakaera.* Kale-erabilerako datuetan oinarriturik, eta lehen hurbilpen baten arabera, erdalduntze hori nabarmen apalagoa izan da kaleko jardunean, 1991 eta 2011 artean. Arnasgunea zer den operatibizatzeke kale-erabileran hartzen bada patroi, ondotoz gehiago dira 2011n arnasgune beteetan multzoan sar litezkeenak: 50 udalerrri eta 45.000 hiztun

inguru (etxeko erabileran oinarriturik, gogoratu, 24 udalerrri eta 8.421 hiztun). Eskueran izandako datuak eta haietatik egindako sukalde-lanketa zuzenak baldin badira, “kalean ez (da) erabilera handieneko eremuen ahultze sistematikorik gertatu”.

e) Zer alde dago etxeko jardun-esparrutik kalekora? Alde handia dago batetik bestera. Herri-giro zabalarekin batera ahuldutako hizkuntzaren gotorleku nagusi izandako etxea ahultzen ari da nabarmen. Hona Iñakiren aurkikundea: “etxeko erabileraren eta kalekoaren arteko aldea handitu egin da inguru euskaldunenetan azken 10-15 urteotan. Lehen ez bezala, gaur egun gehiago egiten da euskara arnaguneetako kaleetan bertako etxeetan baino.”

III.3 Ondorio nagusiak

Ondorio kezkarria du, oro har, batez ere etxeko jardunaren nagusitasun-moldean oinarritu den azterketa honek: Iñakiren hitzetan esanik, “belaunaz belauneko transmisioa ziurtatzen duten baldintzetan bizi diren hiztunen kopurua modu ohargarrian jaitsi da Hegoaldean 1991-2011 tartean, eta (..) hiztun guztien multzo oso txiki bat besterik ez dute osatzen.” Arnasgune askotan, agian gehienetan, ageri da gainbehera hori. Euskara hutsezko “oasi” osorik ez dago inon: familian ere ez. Lehen ez bezalako sarbidea du erdarak etxean, komunikabideak tarteko direla besteak beste. Kezkatzeko datuak dira goiko beste hainbat ere, diotena diotelako eta zenbait irakurlek edo iritzi-sektore interesatuk tremendismo-joerari ateak zabalduko dizkiolako seguruenik. Euskaltzale fin askotxoren desanimoa edo izu-beldurra ere eragin dezake. Egoera hain larria ez dela argi dio Iñakik, bestalde. Datu-iturri fidagarriagoz eta zenbaketa-irizpide landuagoz zurkaiztu ote lezake errezildarrak baieztapen lasaigarri(ago) hori, bidean duen tesian? Zinez eta benaz eskertuko genuke askok.

III.4 Feed-back eskeari erantzun nahian: zenbait zehaztasun

Iñaki Iurrebasoren txosten-amaierako *feed-back* eskea gogoan izanik, honako oharrok eskaini nahi genituzke:

- III.4.1 Azterketarako erabili diren datuak ez dira, Iñakik berak argi azaldu duenez, desio izan litezkeen hoberenak. Direnak dira datuak, eta duten fidagarritasuna dute. Zuhurtziaz jardutea komeni da hor: tentuz jokatzea. Emaitzok ez dira, ordea, hori eta horrenbestez gutxiestekoak. Hoberik agertzen ez den artean datu-multzo hau

Etxeko erabileraren eta kalekoaren arteko aldea handitu egin da inguru euskaldunenetan azken 10-15 urteotan. Lehen ez bezala, gaur egun gehiago egiten da euskara arnaguneetako kaleetan bertako etxeetan baino.

Aurrez aurreko jardun arrunta (batez ere entzun-erantzun interakzioan oinarritua) eta etxeko zenbait jarduera, tartean telebista ikus-entzutekoa, ez dira gauza bera. Harreman biziko interakzio-arauetan txertatuena eta, horrenbestez, mintzajardunaren belaunez belauneko transmisiorako eragingarriena, lehenengoa (aurrez aurreko harreman-jarduera) da.

dugu, eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, hoberena. “Hoberen” horrek ez du segurtatzen “behar bezain on” denik²³, baina lehen hurbilketazko lan-tresna baliagarria da. Gure artean, batez ere erabilera-kontuei dagozkienetan, erabiltzan diren gehienak bezain baliagarri.

• III.4.2 Horko datu gordinak “landu” egin behar izan dira, milaka zuhaitz-arbolen artetik oihana ikusten hasteko. Datu gordinen elaborazio-lan horrek distortsioa sor dezake, batez ere elaborazio-lanketa hori datu-eskasia nabarmenak eragindakoa izanik. Hiru motibok sor lezake, gure ustez, distortsioa: arnasguneen *continuum* konplexu-multiformeari atal-banatze diskretua aplikatzeak, kontzeptualki diferenteak diren gauzak zaku berean sartzeak eta demolinguistikazko zenbait portzentajek. Hona hirurak:

• III.4.3 Arnasguneen *continuum* konplexu-multiformeari ordenazio kontzeptualerako ezarri diogun atal-banatze diskretua (adib. *bete vs erasan*) plano kuantitatibora eramateak baditu bere eragozpenak. Kuantifikatze horrek nabarmen argitu dezake panorama (adib., etxeko erabilera %87an zuen arnasgunea %63ra pasa denean, “bi mundu” dira lehengoa eta oraingoa eta on da hori argi bereiztea). Ilundu ere egin dezake ordea: etxeko erabilera 1991n %83an bazebilen eta %77ra pasa bada 2011n, kontzeptuz “beste gauza bat” da oraingoa baina ez hain “bestea” eguneroko bizimoduan: %6ko galera nabarmena da, baina %6koa. Lan-prozedurak eragindako “jauzi” kontzeptual-terminologikoa ez dator bat, beti, arnasgune-multzo horretako herritarrek bizi duten aldakuntzarekin.

• III.4.4 Kontzeptualki diferenteak diren gauzak zaku berean sartzeko arriskua. Aurrez aurreko jardun arrunta (batez ere *entzun-erantzun* interakzioan oinarritua) eta etxeko zenbait jarduera, tartean telebista ikus-entzutekoa, ez dira gauza bera. Nagusiki *exposure*-planoan (“entzun bai, elkarrizketa bizian aktiboki interbenitu ez” eremuan) txertatzen da telebistarekin (eta hainbatean irratiarekin) dugun mintza-harreman gehiena. Gauza bi dira, ez bat, aurrez aurreko *interaction* bizia eta telebista bidezko *exposure* delakoa. Harreman biziko interakzio-arauetan txertatuena eta, horrenbestez, mintzajardunaren belaunez belauneko transmisiorako eragingarriena, lehenengoa (aurrez aurreko harreman-jarduera) da. Egia da erdara hain nagusi deneko telebistak (ez irratiak²⁴) eta internet-ek lehen ez bezalako itzala eta sarbidea dutela orain. Egia da gero eta ordu gutxiago egiten direla etxean, familia osoa elkarren ondoan eta aurrez aurre izanik, euskaraz, eta telebista-irradi-internet bidezko erdal orduak gero eta ugariago direla. Behera egin duen arren euskarazko

jarduna da ordea, gure ustez, arnasmuneetako etxe askoren baitako interakzio bizienean orain ere nagusi.

- III.4.5 Arazo berezia du, batez ere, demolinguitikazko zenbait portzentajek. Definizioz A/B izanik portzentaje oro, garrantzitsua da zer A eta zer B hautatu dugun gogoan izatea. Baldin “ A_1 = arnasmuneetako biztanleak” aukeratu badugu eta “ B_1 = Hegoaldeko biztanle guztiak”, ezaguna da A_1/B_1 emaitza: arnasmuneetako biztanleak Hegoaldeko biztanle guztien %4,1 dira: erasnetakoak %3,8, eta beteetakoak %0,3. Datu horiek seguruak dira, erabilitako datubaseen perspektiba numeriko hutsetik, eta badute uka ezinezko abantailik²⁵. Aztergai nagusia hizkuntzaren egungo egoera eta etorkizuna dugularik, ordea, jakin nahi duguna ez du ratio horrek behar bezain doi azaltzen. Arnasmuneen lekuaz eta etorkizunbermeaz, lehenetsunaz eta ahuldadeaz (hots: arnasmuneen garrantziaz) jabetzeko, etxean eta kalean euskaraz bizi diren hiritarren argitan analizatu behar dira gauzak. Honako galdera hau dugu hortaz, giltzarri: *hemen* (Hegoaldean) eta *orain* (XXI. mendearen lehen laurden honetan) erabat edo nagusiki euskaraz bizi garen euskaldun guztion artean zer portzentaje (A_2/B_2) osatzen dute arnasmuneetan erabat edo nagusiki euskaraz bizi diren euskaldunek? Eguneroko jardun arruntean erabat edo nagusiki euskaraz bizi garenon artean, zenbat bizi dira arnasmuneetan? Hori da, gure ustez, hizkuntzaren statusplangintzan eta RLS/HINBE lanetan ari diren arduradunek (zaldizko zein oinezko) lehenik eta behin jakin behar dutena. Zer pisu erlatibo dute, euskara belaunez belaun mantendu eta zabaltzeko ditugun baliabide aktiboaren artean, arnasmuneok? Hori da portzentaje zentrala, gure ustez, hizkuntza-soziologia prospektiboaren eta preskriptiboaren ikuspegitik. Demagun arnasmuneetan bizi direlarik etxean eta (jakin ahal balitz, lagunartean eta kaleko herri-giro zabalean) erabat edo nagusiki euskaraz egiten dutenak A_2 direla, eta Hegoaldean bizi direlarik eguneroko jardun arruntean (beste daturik ezean, demagun etxean) nagusiki euskaraz bizi direnak B_2 . Ez ditugu datuak eskueran, A_2/B_2 ratio horren kalkulu zehatza egiteko. Ez ginatke harrituko, ordea, portzentaje hori A_1/B_1 -ekoa baino nabarmen handiagoa balitz. Litekeena da, lehen estimazio xume baten arabera, $A_2/B_2 = \%20$ ingurukoa izatea. Badago aldea, gauzak horrela badira, %4tik %20ra. Guk ez bezalako maisutasunez atera ditzake datu horiek Iñaki Lurrebasok: hartan saia dadin eskatzen diogu, eskuartean duen lana osatzeko eta guztion jakin nahia asetzeko.
- III.4.6 Findu eta aberastu egin liteke aurreko (A_2/B_2) hori, garrantzizko lan osagarriez. Lan hauek datozkigu burura: zer Lurraldetan

Zer pisu erlatibo dute, euskara belaunez belaun mantendu eta zabaltzeko ditugun baliabide aktiboaren artean, arnasmuneok? Hori da portzentaje zentrala, gure ustez, hizkuntza-soziologia prospektiboaren eta preskriptiboaren ikuspegitik.

Lan hauek datozkigu burura: zer Lurraldetan eta zer eskualdetan daude arnasguneok? Hegoalde osoko datuak territorializatuz, emaitza jakingarriak lor litezke Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko analisi-esparrurako? Zer neurritan daude arnasguneak beste zenbait arnasgunez inguraturik?

eta zer eskualdetan daude arnasguneok? Hegoalde osoko datuak territorializatuz, emaitza jakingarriak lor litezke Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko analisi-esparrurako²⁶? Zer neurritan daude arnasguneak beste zenbait arnasgunez inguraturik? Bereziki jakingarria da hori ere; orobat aldian aldiko arnasguneak herrixka-, herri- edo herriburu-izaera duen: determinantea da hori ekimen-esparrurako.

- III.4.7 Aski datu biziak atera litezke, azkenik, goiko azterbide horietan (A_3/B_2) ratioa kalkulatu ($A_3 =$ arnasgune “bete”-etan bizi direlarik erabat edo nagusiki euskaraz egiten duten hiztunak). Ez ginateke gehiegi harrituko, oraingo 0,3 ratioa boskoitu edo hamar-koiztu egingo balitz. Goian iradoki dugunez, ez dugu uste arnasgune beteak hain-hain hutsaren hurrengo direnik: ez etxegiroko erabilera eta ez, Iñakiren aurkikundea gogoan izanik, kaleko bizitzan. Ustea eta jakitea gauza bi dira, ordea. Litekeena da Kike Amonarrizen antena nirea baino zorrotzagoa izatea eta arnasgune beterik ez gelditzea. Iñaki Iurrebasok du, jakina, azken hitza: jakingura bizia dugu askok, ez Kikek eta biok bakarrik, hortik atera litekeen panorama demolinguistikoaz.

Labur bilduz. Diskutigarria da definizio operatiboen finkapen- eta aplikazio-lana. Diskutigarria bai, baina ez baztertzekoa: gure egoera soziolinguistikoaren benetako argi-ilunetara hurbiltzeko balio du. Hurbilketa-saioa da lan hori, bere muga nabarmenekin. Horrela izanik ere, ba al du inork galtzarbean Iñakirena baino emaitza fidagarriagorik? Duenak ager beza. Bitartean on izango da guztiok, behar den zuhurtziarekin, Iñakiren emaitzak lehen hurbilketa moduan aintzakotzat hartzea. Dagoen hoberenetik hasia ez da zientzia-lanketarako jarduera okerrena. Garrantzizko lanean ari da Iñaki Iurrebaso eta, esker ona erakustez gainera, aurrera egiteko animoa desio diogu.

IV. LIONEL JOLY-REN EKARPENAZ

I
Has gaitetzen balorazio jeneraletik. Bat dator arnasgunez esan dugunarekin, oro har, Lionel Joly: “Soziolinguistikaren ikuspegitik bat nator (..) hainbat puntutan: aspaldidanik pentsatzen dudana berresten da hor, funtsean”. Luze-zabaleko adostasun-giro hori dugu, beraz, zelai-joko nagusi. Aurreko hiru iritzi-emaileen ekarpenetan esandako ohar eta balorazio asko aurki litezke Lionel Joly-renean ere: zenbaitetan oso antzera, kasik berdin, adierazita; beste batzuetan garaturik eta, inoiz, nabarmen xehaturik. Badu Lionel-ek, horrezaz gainera, bidegurutze ja-

kinean ezker ala eskuin hautatu ordez “hirugarren bide” propioa hobetsitako formularik. Azken aukera horretatik hasiko gara, nondipait hasi behar-eta.

IV.1 Arnasgune “berri(tu)ak” ere gogoan izatea komeni da

Kike Amonarrizek eta Iñaki Iurrebasok arazoa ikusten diote “erasan” kontzeptu-terminoari: batez ere kontzeptu aldebakar izateari. Goitik beherako fenomeno (arnasguneen indargabetze- eta ahultze-bidea) azaltzeko ongi dago “erasan” hori. Bihar edo etzi halakorik suertatuko balitz, behetik gorako indar-goraldia adierazteko herren legoke ordea: definizioz herren²⁷. Arrazoi dute Kikek eta Iñakik: eguneroko mintzajardun arruntean erabat edo nagusiki euskaraz bizi (izan) diren ingurumen geoterritorialen gainbehera ezaguna, ez goraldi (oraingo teoriko)a, azaltzeko pentsatua daukagu arnasgune “erasan” kontzeptu-terminoa. Lionel ere ohartu da gure konstruktuaeren izaera unilateral horretaz, eta bihar edo etzi sor litekeen behetik gorako indarraldia adierazteko balio izango duen hirugarren kontzeptu-termino bat sortzea proposatzen du. Bere hitzetan esanik, “aditu batzuek dioten bezain arrakastatsua baldin bada (gure hizkuntza-plangintza), hirugarren azpimultzo bat gehitu beharko litzaieke artikuluko bi arnasgune motei (beteei eta erasanei): indarberritzen edo berrosatzen ari diren arnasguneen azpimultzoa”.

Zer esan dezakegu, ekarpen horien aurrean? Oraingo formulazio diko-tomikoa (*bete vs erasan*) aski ez bada, konforme nago Lionel-en irtenbi-dearekin: utz dezagun “arnasgune erasan” kontzeptua bere oraingo adiera konkretuan, eta hirugarren bat asma dezagun bihar-etzi suerta litezkeen behetik gorako indarraldientzat. Zer izen emango genioke, lau iritzi-emaitetik hiruk plano teorikoan sartu beharrekoa ikusten duten “behetik gorako” indarraldiaz erretutako arnasgune mota horri? Agian “arnasgune berri(tu)”. Hor ere posible da, xehetasun osoaren bila bagabiltza, batetik arnasgune “berri”-ez hitz egitea, eta bestetik arnasgune “berritu”-ez: lehenengo terminoa ondo letorke inoiz arnasgune izan ez direnentzat, eta bigarrena arnasgune-fasera itzuli direnentzat²⁸. Proposamen hutsa da noski: irakurleek eta lan-eremu honetan jardun nahi dutenek dute hitza.

IV.2 Teoriaren txinparta

Hizkuntza-soziologiako hainbat bidegilek bezala, perspektiba kualitatiboari eusten dio Lionel Joly-k eskuak betean. Ez, inola ere, funtsezko lanabes eta argi-iturri dugun analisi kuantitatiboa (tartean, bereziki,

Aditu batzuek dioten bezain arrakastatsua baldin bada (gure hizkuntza-plangintza), hirugarren azpimultzo bat gehitu beharko litzaieke artikuluko bi arnasgune motei (beteei eta erasanei): indarberritzen edo berrosatzen ari diren arnasguneen azpimultzoa.

Aisialdia eta gertuko komunitatea desmaterializatzen ari dira hein batez: eguneroko solaskideak eta harreman-sareak; eta ez dira lehen bezain gertukoak eta trinkoak (hala dira kontuak, bereziki, adin batetik aurrera: haurrengan, eragin hori ez da, itxuraz, hain handia; telebistarena, ordea, bai).

azterbide demolinguistikoa) gutxiesteko edo baztertzeke, buru-muinean ditugun galdera bihurriei erantzuteko orduan ardatz nagusiak non dauden, eta batez besteko bilakaera nondik nora doan (nondik nora eta, ahal delarik, zergatik) argitzeko baizik. Eginahal horretan txertatzen da, gure ustez, Lionel-en ekarpen hau: “Aisialdia eta gertuko komunitatea desmaterializatzen ari dira hein batez: eguneroko solaskideak eta harreman-sareak; eta ez dira lehen bezain gertukoak eta trinkoak (hala dira kontuak, bereziki, adin batetik aurrera: haurrengan, eragin hori ez da, itxuraz, hain handia; telebistarena, ordea, bai). Jendea, gero eta gehiago, bakarrik bizi da bere telefono mugikorraz, pantailaren beste aldean dagoenari so edo pantailan dagoen informazioarekin, facebook-ekin etab. interaktuatuz. Kanean dabilenean ere, lagunekin koadrilan edota, are, bikotearekin tabernan dagoelarik, bere telefonoari begira ikusten dugu, maiz, jendea. Ustez eta asmoz askatasunaren bila gabiltzalarik (“nahi dudan jendearekin nago nonahi eta noiznahi, nahi dudan informazio jasotzen dut uneoro” etab.) (interakzio-molde berrion) esklabo bihurtu gara. Eragin handia du (edo izan dezake) berrikuntza horrek arnasguneetan: (erdarazko) kanpoko-urritiko informazio birtual hori arnasgunearen muin-muinean sar liteke, “kanpoko mundu” horrek bertako errealitate fisikoak baino garrantzi eta presentzia handiagoa eskura lezake, momentu jakin batzuetan behintzat. Nabarmen ahuldu eta, azkenean, desegin dezake horrek gertuko komunitatearen trinkotasuna.” Horrela dira kontuak, gure ustez, batez besteko joerari dago-kionez. Eskertzekoa da oso, horregatik, aurrez aurreko jardunaren (teoria-sortzaile soziolinguistiko handien “face-to-face interaction” famatuaren) oinarri-oinarrizko aldakuntza horri Lionel Joly-k atentzio eta arreta bizia eskaini izana. Hemen ere, dena den, aurreko oharra erantsi nahi nuke. Zer neurri du interakzio-molde berri honek arnasguneetako hitzunen (zaharren, sasoikoen, gazteen, gaztetxoek eta haurren) artean? Zer leku okupatzen du elkarrekintza molde horrek arnasguneetako hitzun horien espazio soziofuntzionalan (non da bizi, non nabarmen, non ahul eta non hutsaren hurrengo)? Jakintxukeria teorizistak irudituko zaizkio kontuok gutako zenbaiti. Gauzak ez dira ordea horrela: garrantzi handiko gauzak dira kontuok, euskaldunok euskaldunokin euskaraz jarduteko aukerak eta beharrak, moduak eta bideak analizatu ahal izateko eta hortik, beste hainbat alorretan bezala, euskara indarberritzeko lehentasun-irizpideak paratu ahal izateko. Eskerrak eman behar dizkiogu Lionel-i, oraingoan ere, “arazoa hor dago”-ela azpimarratzeagatik eta arazo horrek, deskribapen-alorreko interesaz gainera, balore teoriko bizia ere baduela azaltzeko. Gatozen, ordea, konstruktua teorikoen sabaitik lanabes xumeen bodega-sotora.

IV.3 Arnasguneak, haur eta gazte erdaldunen lehen bezain euskalduntze-iturri?

Garrantzi handia ematen dio Lionelek, neuk baino handiagoa apika, arnasguneen izaera paradigmaticoa definitzeko balio duen adierazle edo iragarle soziolinguistiko honi: bertako etxe erdaldunetan jaiotzen diren (edota bizi izatera arnasgunera datozen) haur erdaldunak behar adina euskalduntzen al dira, bertako herri-giro zabalean (eta herri-giro horren eraginez) herriko gazteen artean euskaraz integratzeko? Indarrean al dago XXI. mendeko arnasguneetan, 1625ean Lope Martinez Isastiko lezoarrak (Gipuzkoako kostaldera bizi izatera etorritako gaztelaujendea zela-eta) eguneroko kalegiro arruntean *factum* segurutzat ematen zuen mintzaldatze sendo hura? Baietz dio Lionel-ek: arnasguneak, arnasgune diren heinean, mintzaldatze-iturri dira orain ere. Funtsezko ezaugarri teoriko-praktikoa da hori. Kike Amonarrizek ezin argiagoko adibide familiar praktikoz azaldutako *factum* biziari oinarri teorikoaren status-a erantsi dio Lionel-ek. Bere hitzetan esanik, “ingurumen bat arnasgune den ala ez finkatzeko orduan, elementu interesgarrietako bat honako hau izaten da sarri: etxetik erdaldun diren umeak herri-giroan, beste umeekin dituzten interakzioen ondorioz, euskaldundu egin diren ala ez. Ez naiz maila formaleko euskalduntzeaz ari, eguneroko jardunean bizi eta indartu ohi denaz baizik. Herrian, gazteen artean nagusi den euskal-giroan, integratzeko lain euskara ikasten duten ala ez. Elementu hori gehituko nioke M. Zalbideren sailkapenari”.

Ez dago dudarik gertakari nabarmena dela erd > eusk mintzaldaketa hori, zinez eta benaz arnasgune direnetan; batez ere beteetan da mintzaldatze hori erabateko *factum*-a, baina (osoaz izatera iritsi ez arren) indar ohargarria du erasanean ere. Gipuzkoatik irten gabe ondo gogoan ditugu gazte-denborako Azpeiti-Azkoitietan, Zumai-Zarautzetan, Lazkaon eta, berrikitanago, Zerainen, kaleko lagunarteak eta herri-giro zabalak erd > eusk norantzan mintzaldaturiko etorkin gazteak eta, bereziki, etorkinen seme-alabak. Egungo egunean nabarmen moteldu bada ere joera hori, ez da erabat galdu. Orain ere balio handikoa izan liteke, horregatik, begiratu arinez edo ikerketa pausatuz herri bat arnasgune den ala ez argitzeko. Ekarpenez ederra da alde horretatik. Iñakik iradoki digunez, etxea bera baino erabakigarriago bihurtzen ari izan liteke kaleko lagunartea eta herri-giro zabala (haurrei eta gazte-gaztetxoei dagokienez parkean, jolaslekuan, kiroldegian, eskolan eta herriko plazan hezurramitzen dena), mintzajardun arruntaren belaunez belauneko transmisioari dagokionez. On da, beraz, Lionel-en proposamena aintzakotat hartzea.

Ingurumen bat arnasgune den ala ez finkatzeko orduan, elementu interesgarrietako bat honako hau izaten da sarri: etxetik erdaldun diren umeak herri-giroan, beste umeekin dituzten interakzioen ondorioz, euskaldundu egin diren ala ez. Ez naiz maila formaleko euskalduntzeaz ari, eguneroko jardunean bizi eta indartu ohi denaz baizik. Herrian, gazteen artean nagusi den euskal-giroan, integratzeko lain euskara ikasten duten ala ez. Elementu hori gehituko nioke M. Zalbideren sailkapenari.

**Arnasguneetako
gazte-
jendearentzat,
bereziki,
aparteko
garrantzia dute
arnasguneaz
kanpoko babes-
gune edo
gotor-lekuek.**

IV.4 Eskualdeko herriburuen eta hiriburuen garrantzia

Kike Amonarrizek eta Xabier Bengoetxeak bezala, berariaz azpimarratzen digu Lionel Joly-k ere herriburuek eta hiriburuek arnasguneetako biztanle gazteengan duten eragina. Arnasguneetako gazte-jendearentzat, bereziki, aparteko garrantzia dute arnasguneaz kanpoko babes-gune edo gotor-lekuek. Hona bere hitzak: “Osaera soziokultural berriak (eta, oro har, gaur eguneko bizimoduak) gazteak arnasguneetatik ateratzea eskatuko (dagoeneko eskatzen) du maiz. Arnasguneetik kanpora (unibertsitateak dauden hirietan, campus-ean bertan etab.) babes-leku euskaldunak behar dira (kafe-antzokia bezalakoak, etab.) horregatik: osaera soziokultural berri honi egokituko zaizkion babes-lekuak. Arnasguneetako gazte horiek erakartzeko balio izan behar dute, alde batetik, eta arnasguneen kanpotik datozen gazteak erakartzeko gai izan behar dute, bestetik, azken horiek aukera izan dezaten haien euskalduntze prozesua osatzeko. Artikuluaren bukaerako esaldian M. Zalbidek zera aipatzen du: “gainerako saioak lagungarri izan daitezke”.

Kikek, Xabierrek eta Lionel-ek berariaz azpimarratzen duten gertakari hori oso garrantzitsua da. Hasierako txostenean gutxiegi landu dugun heinean, mesede bizikoa da hiruren ekarpena. Arrazoi du Lionelek, Kikeren eta Xabierren ildotik honako hau gogorarazten digunean: “kanpoan eraginez arnasgunean ere eragiten da, bereziki gaur egun, euskaldun guztiak elebidun direlarik eta eremu geografikoak gero eta irekiago ditugunez”. Egia da hori. Egia izanik ere arrisku bat ikusten diot, ordea, arnasgunez (ez kale-giro zabaleko euskalgintzaz) ari garelarik arnasgunez kanpoko ekinbide horietan enfasia egiteari: arnasguneetan bertan egin beharreko lana besteren bizkar uzteko arriskua; arnasguneetako lehentasun primarioak perspektiba zabalago horretan gehiegi difuminatzea, arnasguneetako herritarren ekimen-eskubidea eta erantzukizuna bigarren plano batera eramatea eta, horrenbestez, bertako erronkei lehenik eta behin bertatik erantzun behar zaielako bottom-up filosofia lausotzea eta hutsaltzea. “Kalekumeak mugi daitezela lehenik: orduan nik ere egingo diat zerbait” eslogana gehiegi puztea. Lehentasun kontuok aintzakotzat hartzen badira, oso nago konforme arnasguneen aldeko neurri operatibo eta proaktiboen prisma kale-giro zabalera hedatzearekin.

IV.5 Haurrik gabeko euskalgintza ez da euskalgintza

Gure artean modan ez dagoen, baina hil ala biziko garrantzia duen, perspektibari heldu dio Lionel-ek, Xabier Bengoetxeak bezala: ahuldutako hiztun-herri batek, belaunehz belauneko jarraipena segurtatuko badu,

haurrak behar ditueneko gaiari. Bere hitzetan esanik, “Europako eta munduko baxuenetarikoa da (EAEko jaiotza-tasa)”: 1975eko 19,1 indizetik 2017ko 7,8ra pasa gara, Europa Batasuneko batez bestekoa 10ean dagoelarik. Zer pentsatua ematen duen gai bizia da, dudarik gabe, gure jaiotza-tasa apalarena. Ez euskararen etorkizunerako bakarrik: beste gauza askotarako ere funtsezko datua da. Hizkuntza-soziologiaren esparruan ari gara hemen ordea, eta ez gara hortik aterako: arnasguneen etorkizunean eta, oro har, euskal hiztun-elkarte osoarenean jaiotza-kopuru apalek duten garrantzia kontuan hartu beharrekoa da, oso. Zer diote honetaz hizkuntza-soziologiaren alorreko gure adituek? Zer diote prospektibaren zientzia-oinarriz jarduten dutenek? Baliteke jo eta ke ari izatea guztiak, burulan horretan. Nik ez dut, ordea, horretan herio-suhar ari den aditu-multzo zabalik ikusten. Zer pentsatua ematen dit horrek: nolatan utzi ditugu galdera nagusiok hain alde batera? Zergatik gaude aztergai zentral horretatik hain aldendurik, hiztun-elkarteen belaunez belauneko jarraipenerako aparteko zentraltasunik nekez izan dezaketen xehetasunetan katigatuz, zenbaitetan zenbakitis-sindromeak jota? Ez naiz inoiz zenbakien kontrakoa izan; orain ere ez. Zenbakiak kontzeptu-oinarri kontrastagarri eta eragilea behar dute ordea, funtsezko argi-emaile izango badira. Zenbakiak egin aurretik, zenbakiekin batera eta zenbakien ondoren oso begien bistan izan behar dugu “kontzptualki zer irakiten ari den” hiztun-elkarte osoan edo hiztun-talde jakinetan. Burua fresko behar dugu, zenbaki-pilaketak “asko jakin eta ezer gutxi entenditu” moduko putzu-zulora eramango ez bagaitu. Ausardia behar dugu, gainera, zer zenbaki modu behar dugun erabakitzeko: aldian aldiko moden gainetik, funtsezkoak diren galderei erantzuten saiatu behar dugu. Badugu aurrekari argirik, etxetik irten gabe. Siadecoren (tartean, eta bereziki, Iñaki Larrañagaren) 1978 inguruko freskotasan eta ausardia haiek galdu egin ditugu, hein handi batean, kontu hauei dagokienez. Ez zuen Siadeco hark beti-beti asmatu: gauza batean baino gehiagotan huts egin zuen soziolinguista-belaunaldi hark, bere planteamendu prospektiboetan. Eskola-munduari begira planteatu zuen ikuspegi mekanizistak, konkretuki, oker nabariak zituen: argi agertu da hori, urteek aurrera egin ahala. Guztia ez zuten, ordea, oker eta hutsarte. Hizkuntza-soziologiaren “gure etxea” eraikitzeke orduan ekarpen sendoa izan zen haiena. 1978-82 epealdiko paradigma eraiki zuten bidegileen bizkar kontzeptualari atxikirik bizi gara, orain ere, uste baino hein handiagoan.

Aurrez aurre heldu behar diegu, berriro ere, orduko galdera demolin-guistiko, soziokultural, politiko-operatibo eta jurilinguistiko nagusiei.

**Gure artean
modan ez
dagoen, baina hil
ala biziko
garrantzia duen,
prospektibari
heldu dio Lionel-
ek, Xabier
Bengoetxeak
bezala:
ahuldutako
hiztun-herri
batek, belaunez
belauneko
jarraipena
segurtatuko
badu, haurrak
behar ditueneko
gaiari.**

**Joly-k haurrik
(behar adina
haur) sortzen ez
badugu
euskaldunok,
alferrik ditugu
euskaraen aldeko
hizkuntza-
legeria, euskal
eskola eta
euskaltegi, euskal
telebista eta
egunkari-
aldizkariak,
normalkuntza-
plan (orokor eta
sektorial)
gehienak.**

Jaiotza-kopururaz ari garelarik demolinguistikaren aurrekari, bidebatezko gertakizun eta ondorio-emaiza kualitatibo nagusiei heldu behar diegu: demolinguistika hutsak ez garamatza urrutira. Nork heldu lan horri? Galdera kualitatibo nagusioi hizkuntza-soziologiaren perspektiba teorikotik heltzen dieten euskal adituak seinalatzeko, esku bateko hatzak aski dira. “Hildako fardela” bihurtu ote gara espezialitate-alor honetako gehienok, hain funtsezko eta hain noraezeko diren gai hauei dagokienez? Ez da berri ona, hala baldin bada. Poztekoa da, horregatik, Lionel Joly-k hain atentzio eta hain arreta bizia jarri izana gure arazo nagusi honetan: haurrik (behar adina haur) sortzen ez badugu euskaldunok, alferrik ditugu euskararen aldeko hizkuntza-legeria, euskal eskola eta euskaltegi, euskal telebista eta egunkari-aldizkariak, normalkuntza-plan (orokor eta sektorial) gehienak, herritarren euskaltzetasuna pizteko edo kale gorrian nabarmentzeko sentiera-kanpainak, euskal kultura suspertzeko diru-laguntzak, eta euskalgintzak nondik jo behar lukeen xehe-xehe arakatzeko jardunaldi guztiak.

Badakigu zer esango zaigun: “heuk zergatik ez dituk lauzpabost egin?”, “ez al dakik haurrak haztea negozio garestia dela?”, edota “bizi ere egin behar diagu, hi!”. Egia dira hirurak. Baina egia antzuak: bakar batek ere ez du egoeraren larria onera ekarriko. Hori bakarrik ez. Gure planteamenduarekin, konforme legokeenak ere badu galdera zorrotzik guretzat, golkoan ez bada galtzarbean: “gizarte moderno-ireki-demokratiko batean nola lor liteke jendeak haur gehiago izatea? Norbanakoaren askatasun-esparru sakratuan sartzea ez al da hori? Kasu honetan lasaia gozatu nabilke, erantzunarekin. Aski da Europako herrialde askok, 1963-4an pilula sortu eta handik gutxira ondorioak pairatzen hasi zirenetik, hartutako neurri proaktiboak gogoan izatea. Hemen ere badugu horren beharrik eta komenentziarik, txostenean berariaz azaldu denez. Lehen-lehen pausoak ematen hasi ere egin dira dagoeneko, eta poztekoa da hori. Panoramak ez du, ordea, oraingoz hobera egin. Lionel-ek, nolana ere, ondo egin du gai horren zentraltasuna azpimarratzearekin. Haurrik gabeko arnasguneak ez dira arnasgune osasuntsu. Siadecoren bidegile-lanen garaitik atzera egin dugu, aurrera ordez, elementu giltzarri horren ulermenean. Badugu puntu nagusi horri ere atentzio berezia eskaintzeko ordua, eta Lionelen ekarpena lagungarri da horretarako. Asko ikas dezakegu bere erakutsitik ere: eskerrik asko.

AMAIERAKO AZKEN HITZAK

I
Zergatik dira arnasguneak hain inportante? Ez neurritz handi direlako, eta ez gizarte-berrikuntzaren aurreneko ilaran edo goi-erpinean daudelako. Bai ordea, gorago esandakoez gainera, XXI. mendeko euskalgintza aktibatuak (*top-down* bidetik diharduen esfera instituzionalak zein behetik gorako *bottom-up* eta *grass-roots* moldekoak²⁹) dituen arazo zentral batzuez gogoeta bizi eta sakona eginarazten digulako. Arnasgunez hitz egiteak eguneroko mintzajardun arruntaren garrantziaz galde egitea dakar ezinbestean. Hiztunon eguneroko jardun arruntaren zentraltasun basikoaz jabetzera garamatzate arnasguneek. Mintzoera eta idazkera jaso-landu eta formal-prestigidunez bezainbat, edo gehiago, hiztun guztion etengabeko erabilera informal-intimoaz arduratzera eta, horren bidez, gure izatearen barne-muinetan hain itsatsirik ditugun amets-beldurren eta maitasun-gorrotoen sostengu dugun mintzoera lasai-goza-zabalak hiztun-elkarte osoaren espazio fisiko-territorialean eta soziofuntzionalean duen eginkizun sakonaz azken aldian baino biziago arduratzera. Idazkera formal-landu-kultuaz gainera gatz-piperrez oraturiko berbakera gozoan zentraltzera. Arnasgunez hitz egiteak hizkuntza bizi ororen belaunez belauneko jarraipen-transmisioaz arduratzea eskatzen du deblauki. Transmisio-gune nagusi diren etxea, lagunartea eta kale-giro hurbila oso aintzakotzat hartzea.

Aspaldidanik (gutxienez Kardaberaz eta Iturriaga bidegileen garaitik) izan dugu, aurrez aurre edo bide batez, zentraltasun basiko horren jakitea edo sentiera. Azken berrogeita hamar urtean moteldu eta hein batez gesaldu egin zaigu ordea, indartu orde, jakite-sentiera hori. Eguneroko mintzajardun arruntaren kezka ez da gure artean inoiz itzali. Aldian behin, are, aurrez aurre eta gogoeta sakonez heldu izan diogu kezka eta aztergai horri: ikus, besteak beste, egungo gazte-hizkerari (oker ez banago aldizkari honetan bertan) eskainitako saio gogoangarria. Batez besteko joera, azken hamarkadotan, gora begira jartzekoa izan dugu. Eguneroko jardun arrunta baino “goragoko” egin-behar formal-prestigidunen bidetik ibili gara, maizenik, gure arazo serioen konponketa bila. Xede-helburu nagusiak esfera publiko-formal-idatzi-landuan ezarri ditugu maiz: hizkuntzaren eredu bateratua eskuratzea; etxetik euskaldun den belaunaldi berria eskolan (edota euskaltegian) alfabetatuz noranahiko euskaldun trebe-landu-jakitun bihurtzea, ama-hizkuntzaz erdaldun den gehiengo zabala eskola-sistemaren eta komunikabideen laguntzaz euskalduntzea eta euskal hiztun-herriari, horrela, hain beharrezkoa duen sostengu demolinguistikoa

Arnasgunez hitz egiteak hizkuntza bizi ororen belaunez belauneko jarraipen-transmisioaz arduratzea eskatzen du deblauki. Transmisio-gune nagusi diren etxea, lagunartea eta kale-giro hurbila oso aintzakotzat hartzea.

“Hemen eta orain” bizirik dagoen eta kontzentrazio territorial handiena duen hiztungoa, eta bere bizileku den arnagune-konstelazioa, ez dugu berariaz babestu, bermatu eta garatu. Horren aurretik jarri dugu gehienok egungo gizarte elebidun konplexuaren perspektiba geoadministratibo zabala.

zabalduta eta sendotzea; hizkuntzaren erabilera administrazioa, paperezko eta ikus-entzunezko komunikabide dinamikoenetara eta, oro har, kultura landuaren esparru jasoetara eramatea finkatu ditugu, maizenik, hizkuntzaren erabilera “normaltzeko” (hots, larri ahuldutako hizkuntza indarberritzeko eta bere onera ekartzeko) egin behar eta lanabes nagusi. Atentzioa hor jarri dugun heinean, eguneroko jardunean erabat edo nagusiki hizkuntza honetaz baliatzen den hiztun-talde multzo(txo)aren beharrak, gogoak eta belaunez belaun irauteko eskakizun-baldintza demografiko, administratibo, lurralde-antolamenduzko, soziokultural eta ekonomikoak landu gabe edo landu arin utzi ditugu. Hots, “hemen eta orain” bizirik dagoen eta kontzentrazio territorial handiena duen hiztungoa, eta bere bizileku den arnagune-konstelazioa, ez dugu berariaz babestu, bermatu eta garatu. Horren aurretik jarri dugu gehienok egungo gizarte elebidun konplexuaren perspektiba geoadministratibo zabala. Gizarte berri honen plano formalean, esfera publikoan eta idatz-esparruan bereziki, saiatu gara batez ere. Begiak gora jasotze hori mesedegarri eta ezinbesteko izan da, zenbait aldetatik: plus nabarmena izan da hori, ez minus, larreko hizkuntza xume, zenbaitek gutxietsia, noranahiko bihurtzeko eta euskaldunen mintzoa etxe-zokotik eta taberna-zutik ateratzerako. Mesedegarri da orain ere, euskararen aldeko saioaren perspektiba globala begien bistatik galtzen ez bada. Hortxe dago gakoa. Bigarren alde horretatik (perspektiba globala begien aurrean izatetik) daukagu herren egiteko arriskua, gero eta nabarmenago: goiko (eguneroko mintzajardun arrunta baino goragoko) esparru landu-formal-idatziei begiratu beharraren beharraz, eta haiek ahalik eta beteen eskuratzeko saioaren biziak, konturatzen al gara (konturatu nahi al dugu?) batez ere bodegatik ari zaigula ura sartzen, *hemen eta orain?*

Baietz uste dugu: lau iritzi-emaile adituon testigantza aski argigarria da, gero eta arrisku nagusi horren jakitun garelako uste izateko. Beranduxko bada ere, hasi gara konturatzen hizkuntzaren geroa ez dagoela goi-esparruetan bakarrik. Ez han bakarrik eta, agian, ez han nagusiki. Gero eta argiago ikusten dugu belaunez belauneko jarraipen-transmisioak oin ahulak dituela euskarazko eskola, egunkari-aldizkariak, irrati-telebista eta unibertsitateko zein administrazio-esparruko idatz-langintza jasoa hartzen badugu lehentasun osoko, kasik lehentasun bakarreko, xede eta harrobi. Lehentasun-eskemez hitz egin beharra daukagu, goiko (eguneroko jardun arruntaren sostengu fisiko-territorial eta soziofuntzional diren jardungune, harreman-sare eta rol-harremanetatik goragoko) egin behar jasotetan zentratu ordez itsu-itsu. Hizkuntzaren (hiztun-elkarteen eta, bereziki, bizienik dauden hiztun-taldeen) egin behar

zentralak eta lagungarriko xedeak bereizten ikasi beharra daukagu.

Ez gara arriskuaz jabetzeko eta bideberritzen saiatzeko eginbehar honetan bakarrak: goiko kezkabide hori, adierazpen ozenagorik ere bai tartean, irakurtzen da aldi behin Iberiar penintsulako beste hiztun-herrietan ere. Raquel Casesnoves-Ferrer-ek eta Josep À. Mas-ek diotenez, horrela, “a l’hora d’avaluar la *vitalitat d’una llengua*, cal posar el focus en l’àmbit de la *comunicació quotidiana* i no solament en els usos formals i el prestigi, que és on se solen esmerçar la major part dels esforços normalitzadors. En paraules de Boix-Fuster (2015: 93), “si la *recuperació d’una llengua* avan-cés *sols en els àmbits públics* seria debades perquè, com un voladís d’una balconada, *progressaria sense un fonament ferm — acabaria esfondrant-se*”. Entre aquests àmbits interpersonals, el familiar és el més crucial: és al si de la llar on les llengües es re-produueixen. També és on comença la seua desaparició quan els parlants deixen de transmetre-la als seus descendents. Fins i tot, si reviscola, la recuperació de la transmissió (la revernacularització) en serà un dels indicadors més fiables”³⁰ (letrakera beltz etzana gurea). Argiago ez dago, gure ustez, gauzak esaterik: beheko oinarriak zaindu eta landu, zurkaiztu eta osatu egin behar dira euskaltzaleon goragoko langintzak etorkizun onik izango badu.

Euskalgintza osoaren xede-helburu nagusiak berriro ere mahai gainean jartzera ekar gaitzake ikusmolde global horrek, “first things first” bidetik. Saio-molde biak behar ditugu, ez bat, eta bien arteko lotura-ordena, ekintza-kronologia eta lehentasun-eskema behar bezala argitu gabe dauzkagu. Hartarako ere lagungarri ederra izan liteke arnasguneen azterketa. Arazoaren hemengo eta oraingo lekuaz eta neurriaz jabetzea funtsezkoa da, arazo guztien urrutiko eta betiereko kausa fundamentaletan katigatu gabe behin eta berriro. Kausa fundamentalak hor daude, egiazkoak dira eta ez genituzke inoiz ahaztu behar. Alferrrik dugu, ordea, urrundik ere gure esku ez dauden estatu, kontinente eta mundu mailako gizarte-aldakuntzaren (tartean transetnizazio gupidagabearen eta luze-zabaleko mintzaldatzeko azeleratuaren) iturburu, bidelagun eta ondorio-jasaile diren transformazio demografiko, ekonotekniko, politiko-operatibo eta soziokultural guztiak “behingoz konpondu” artean zer eginik ez dagoela argudiatzearekin. Hurbilagotik heldu behar diogu lanari. Hemen eta orain egin litekeenetik abiatu behar dugu, urrutiagoko gertakariez ahaztu gabe. Maisu eta bidelagun zentzuzkoak izan ditugu, horretan ere, iritzi-emaileak. Elkarren arrimuan zerbait ikasi dugulakoan gaude: teoria soziolinguistikoaren aldetik, eguneroko jardun arruntaren

**Lehentasun-
eskemez hitz egin
beharra daukagu,
goiko (eguneroko
jardun
arruntaren
sostengu fisiko-
territorial eta
soziofuntzional
diren
jardungune,
harreman-sare
eta rol-
harremanetatik
goragoko)
eginbehar
jasoetan zentratu
ordez itsu-itsu.**

zentraltasuna eta belaunez belauneko transmisioaren ardatz-izaera³¹. Aplikazio-esparruan, berriz, demografia aktibatu beharra eta arnasguneen aldeko lanari eskualde-perspektibatik heltzearen mesede-abantailak. Ez gatoz esku-hutsik etxera.●

OHARRAK

1. Besterik da, jakina, azkenaldi honetan erdi-ahazturik dugun *frantses-euskaldun* terminoa.
2. Badira azken urteotan, eta biziki pozten gara horretaz, partez edo osoz beharrian gorri hori konponbidean jartzeko saioak: tartean zenbait tesi eta ikerlan. Urrun gaude oraindik, ordea, erantzun operatibo sendorik eskuratzetik.
3. Hor sartzen dira, bete-betean, *Kilometroak* eta gainerakoak
4. Azken 150 urtean (osorik eta nabarmen) Israelen bakarrik gailendu da, dakigularik, *re-vernacularization* edo *bertakotze* hori.
5. Ikus Jonathan Pool-en 1979ko “Language Planning and Identity Planning”. Ikus orobat Mari C. Jones 2008 eta Joshua A. Fishman eta Ofelia Garcia ed. 2011. Hain diferentea ez den *nationality planning* delakorako ikus Fishman 1974: 89 or.
6. Ondorio biziak ere izan ditu gainera, aldez edo moldez, azken hamarkadotako egituratze politiko-instituzionalaren gaineko jarretetan. Ez da hori, dena den, aztergai dugun kontua.
7. Kontua ez da, inoiz entzun dugunez, gaitasun-hobetze horretarako euskaltegiak arnaseguneetaraztea edo arnaseguneetako erdaldunak eta erdal-elebidunak herriburuko edo hiriburuko euskaltegiatara eramatea. Lokomotorea ez dago ikasketa formalaren bidezko gaitasun-hobekuntzan. Laguntza ederra (ordezkaezina, inoiz) eman dezakete euskaltegiek zenbait aldetatik. Arnaseguneetako bizimolde arruntari dagozkion jardungune, rol-harreman eta situazio tipikoetan bizirik (eta nagusi) dirauen erabilera sendo eta zabala da, ordea, motore nagusia. Mintzoera hori sarri eta xedez erabiltzeak dakar, oro har, hizkuntza-gaitasuna hobetzea.
8. Bada bide-urratze horren aurrekari ezagunik Irlandan: ikus Comhairle Na Gailge, 1972: *Implementing Language Policy*. Ikus bereziki bertako “practical Implications of Diglossia” atala, 530-33 orr.
9. Arnasegune barruko harreman-sareak sartzen dira hor batetik, arnasegune artekoak bestetik eta arnaseguneetako euskaldunek erdara nagusi den lekuetako euskaldunekin eratzen dituztenak azkenik.
10. arnaseguneetan eta erdara nagusi den lekuetan bizi diren euskaldunek bertako edo kanpoko erdaldunekin erdaraz bideratzen dituzten interakzioen multzoa da hori. Erdarazko jardun hori gaztelaniaz (Iparraldean, dagokion heinean, frantsesez) bideratzen da aspaldi honetan, eta hala izango da gero ere, lehenik eta behin; ingelesak (eta, agian, beste LWCek) euskaldunon espazio soziofuntzional osoaren gero eta zati handi(xe)agoa eskuratuko du(te) halere, seguruenik, *language spread* ezagunaren ildotik. Gehienetan orain gaztelaniaz (edo frantsesez) bideratzen den zatia, baina ez beti. Europako iparraldean (eta beste zenbait lekutan) gero eta nabariagoa da ingelesaren sarbidea euskarak partez bereganatu berri dituen zenbait esparrutan: unibertsitatean, ikermunduan, teknologia-lantegietan,...
11. Larramendiren baitan bada horren oihartzun-printzik eta XIX. mendean erraza da, Zaldubiz geroztik bereziki, osotasunezko euskaltzaletasun horren testigantzarik jasotzea: “Zazpi Euskal herriek bat egin dezagun, guztiok beti-beti gauden gu euskaldun.” Hasieran eguneroko mintzoan oinarritzen zen planteamenduak erabateko zabalkunde-etzanda jaso zuen handik gutxira, Hegoaldean. Eleizalde 1918an, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Batzarrean, esandakoak dira zabalkunde soziofuntzional osoko amets horren erakusgarri zehatzena (ikus Zalbide argitara bidean).

12. Ez da bidegintza hori gaurko gai nagusia, eta ez gara horretan sartuko (lehen ere badugu, gainera, hortaz dugun iritzia aski xehe azaldurik).
13. ikus Fishman, 1968, “The measurement and description of widespread and relatively stable bilingualism”, in Fishman, Joshua, A. Robert L. Cooper, Roxana Ma etab. *Bilingualism in the Barrio*, 7. or. Aipu horretako azpimarra gurea da.
14. Ingelesari dagokionez aski *exposure* mugatua eskain dezake eskolak (asteko 112 esna-orduetatik lauzpabost edota, hoberenean, hamar-hamabi ordu); L2ko *interaction* delakoa, berriz, ondotoz murriztagoa izan ohi da gela barruan.
15. Iparraldeko egoera aski bestelakoa izanik da, bai XVII. mendeko tradizio literarioa eta bai 1890 ingurutik hona bertako euskal astekariak izanik duten eragin zabala direla medio: ikus, besteak beste, Mokoroa “Ibar”, Justo M.: 1936: *Genio y Lengua*.
16. Testuak (liburu edo dokumentu) maiz idazten dituztenek ere ez dute, oro har, beren ordutegi osoa horretan ematen.
17. Ikus Zalbide, Joly eta Gardner 2015: 245-6.
18. Ikus Fishman, 1964. Ikus orobat, hasierako azalpena eguneratuz, Fishman 1966, 1972, 1977 eta 1985.
19. Kontzeptu horren adieraz ikus, gaztelaniazko bertsioan, Fishman 1982: 35.
20. Bibliografia soziolinguistikoa, *LM = language maintenance*, *LS = language shift* eta *RLS = reversing language shift*.
21. Ikus Mesthrie, 2001: “Language Maintenance, Shift, and Death”.
22. Etxegiroko informazio horri kalekoa erantsi ahal izan dionean, jeneralizazio ohargarritz egin behar izan du hori.
23. Datu berrien argitan ikusiko beharko da hori. Oraingo ahuldadeak baztertzeko gai liratekeen inkesta-bideak diseinatu eta aldiro-aldiro aplikatzea litzateke, horretarako, hoberena.
24. Ikus Xabier Bengoetxearen 2012ko txostena, gai horri buruz argitara direnetan gure ustez aberatsena.
25. Perspektiba geoterritorial operatibotik eta dirubide publikoak eralgitzeko modutik, adibidez, nekez albora litezke.
26. uste izatekoa da Gipuzkoan, Nafarroako ipar-mendebalean eta Bizkaiko hiru aldetan (mendebalean, Uribe-Busturiatik Durangaldera doan ardatzean eta Arratialean) kontzentratuko direla ia guztiak.
27. Xabier Bengoetxeak, aldiz, ez du halako eragozpenik azaldu: oraingo konstruktua ongi egokitzen zaionez XX. mendean barrena gertatu denari, eta begien bistako etorkizunean probableenik gerta litekeenera ere ongi moldatzeko gai denez, ez du tipologia-marko hori (horregatik behintzat) aldatu beharrik ikusi.
28. Lionel Joly-ren proposamena urratsez urrats jarraitzen ari naiz horretara, berak esana baita “une batez arnasgune izateari utzi zioten edota historia ezagunean arnasgune izan ez diren ingurumenak arnasgune izateko bidean jartzea”.
29. Ohiko *grass-roots* ekimen-multzoa eta *astroturfing* delakoa argi bereiztea komeni izan liteke, bihar edo etzi.
30. Casesnoves-Ferrer, Raquel eta Josep À. Mas, 2017: “Transmissió intergeneracional del català i característiques sociodemogràfiques dels progenitors”.
31. Ikus, beste askoren artean, Georgetown University-ko Kendall King-en “Reversing Language Shift and Family Language Policy: Intergenerational Transmission Revisited”. Recent debates surrounding Reversing Language Shift (RLS), focusing in particular on the role of intergenerational transmission, a central component of Fishman’s (1991) RLS theory. Drawing on my own research with multilingual mothers and their children in the Ecuadorian Andes and in the U.S., I demonstrate how family language policies and

practices are established and negotiated over time. These research findings reaffirm how crucial Fishman's model is to the theory and practice of minority language survival, but in particular illustrate the dynamic, fluid, and varied nature of intergenerational transmission in families. I argue that recent debates concerning RLS theory (e.g., Romaine, 2006) can be partially resolved through closer analysis and better theorizing of intergenerational transmission processes based on empirical data.

BIBLIOGRAFIA

- Bengoetxea, Xabier, 2012: "Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasgunearen egoeraren behaketa", in *BAT* 2012-4, 75-118 orr.
- Boix-Fuster, Emili, 2015: "La transmissió lingüística intergeneracional. Un estat de la qüestió als països de llengua catalana". A: Sinnes, Carsten; Wieland, Katharina (ed.). *Norma, ús i actituds lingüístiques. El paper del català en la vida quotidiana*. Leipzig: Leipziger Universitätsverlag, p. 91-108.
- Casesnoves-Ferrer, Raquel eta Josep À. Mas, 2017: "Transmissió intergeneracional del català i característiques sociodemogràfiques dels progenitors", in *Treballs de sociolingüística catalana*, 77-97 orr.
- Comhairle Na Gailge, 1972: *Implementing Language Policy*. The Stationary Office [gure iturria Fishman, Joshua A. ed. 1974, 527-53 orr.].
- Fishman, Joshua A., 1974: "Language modernization and planning in comparison with other types of national modernization and planning" in Fishman, Joshua A. ed., 1974, *Advances in Language Planning*, The Hague: Mouton, 79-192.
- Mokoroa "Ibar", Justo M.: 1936: *Genio y Lengua*. Tolosa: Mocoroa.
- Nelde, Peter H., 1987: "Research on Language Conflict" In: Ammon, Ulrich et al. (Ed.): *Sociolinguistics*. Vol. 1. Berlin/ New York: de Gruyter, 607-612.
- 1997: "Language Conflict". In: Coulmas, Florian (Ed.): *The Handbook of Sociolinguistics*. Oxford: Blackwell, 285-300
- Pool, Jonathan, 1979: "Language Planning and Identity Planning", in *IJSL* 20 zkia. (1979), 5-21orr.
- Zalbide, Mikel, argitaratzeaz: "Euskaltzaindiaren ehun urteko jagotela: zenbait mugarri", in *Euskaltzaindiaren XXIII. Jagon jardunaldia: hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi*. Bilbo: Euskaltzaindia.

bat aldizkariaren 2019ko **dossierak**

110. ZENBAKIA

ARNASGUNEAK ARNAS BILA

~

111. ZENBAKIA

BIZINDAR DIGITALA

~

112. ZENBAKIA

EUSKALTZALEEN MUGIMENDUA BERRITUZ

~

113. ZENBAKIA

XII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

